E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque

EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2000, 3
45. Liburukia
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55
Faxa: 94 415 81 44
e.posta: info@euskaltzaindia.net
web gunea: www.euskaltzaindia.net

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua:	Jean Haritschelhar
Kideak:	Henrike Knörr Patxi Goenaga Jose Antonio Arana Martija Miren Azkarate Beñat Oihartzabal Patxi Altuna
Eragile eta idazkaria:	Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564
Euskera
ISBN. 85479
Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposizioa: Rali. Particular de Costa, 8-10, 48010 BILBO

Publimail 2000. Bilbo-Galdakao errepidea, 18, Arzubi etxea, 4. solairua, 48004 BILBO

Aldizkari hau beste agerkariekin trukatzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.
Rogamos dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

ANDRES IÑIGO EUSKALTZAIN OSO BERRIA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Andres Iñigoren sarrera-ekitaldia, *Jose Maria Gorosterrazu* 773

Onomastika euskararen normalizazioan, *Andres Iñigo Ariztegi* 775

Andres Iñigo Ariztegi-ren *Curriculum vitae* 793

La Onomástica en la normalización del euskera, *Andrés Iñigo Ariztegi* 797

Mendebaldetik ekialdera: erromes baten oharrak, *Andres Urrutia Badiola* 819

Andres Iñigo Ariztegiren Euskaltzaindian sartzean, *Jean Haritschelhar* . 827

GERHARD BÄHR-en MENDEURRENEKO EKITALDIA

Euskaltzaindiari ongi etorria, *Juan Ramon Larrañaga* 833

Gerhard Bähr, *Juan Ramon Larrañaga* 835

Gerhard Bähr-en mendeurrenaren ospakizuna, *Jean Haritschelhar* 837

Gerhard Bähr-en mendeurrena, *M. Carmen Garmendia* 839

Unas palabras a la familia Bähr, *M. Carmen Garmendia* 841

Gerhard Bähr-en mendeurrenean, *Luis M. Bandres* 843

Gerhard Bähr-en mendeurrenean, *Jose Luis Esnal* 845

Gerhard Bähr, *Aitor Gurrutxaga* 847

Gerhard Bähr-ek R. M. Azkuerekin eta J. Urkijorekin izandako korrespondentzia, *Oroitz Jauregi Nazabal* 849

Discurso para rememorar el centésimo aniversario del natalicio de Gerhard Bähr..., *Hans-Peter Bähr* 857

Obsequio de Hans-Peter y Brigitte Bähr a Euskaltzaindia, *Hans-Peter Bähr* 863

Obsequio de Hans-Peter y Brigitte Bähr al pueblo de Legazpi, *Brigitte Bähr* 865

Acto público en homenaje a Gerhard Bähr en el centenario de su nacimiento..., *Paul Schröder* 867

NAFARROA OINEZ 2000 DELA-ETA, SAN FERMIN IKASTOLAN, ZIZUR TXIKIAN, NAFARROAN, ANTOLATURIKO EKITALDIAK

Nafarroa Oinez 2000 dela-eta, Euskaltzaindiak San Fermin Ikastolan antolatutako ekitaldiak, *Andres Iñigo* 871

Actos organizados por la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia en la Ikastola San Fermín con motivo del Nafarroa Oinez 2000, *Andres Iñigo* 875

Sobre el euskera de Pamplona y de su Cuenca, *Patxi Salaberri Zaratiegi* 879

Iruñerriko eta inguruko ibarretako euskararen gainean, *Patxi Salaberri Zaratiegi* 881

Alfabetatzea-euskalduntzea eta 'Udako ikastaroak', *Juan Jose Zearreta* 921

San Fermin Ikastola: euskara hogeita hamar urtez Nafarroan, *Mertxe Berasategi Arrizabalaga* 931

San Fermin Ikastolaren 30. urteurreneko batzar irekia, *Jean Haritschelhar* 937

EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK ETA ADIERAZPENAK

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak: Miguel Sanz Sesma jauna, Nafarroako Gobernuburua 941

Jean Haritschelhar, Presidente: al Sr. D. Miguel Sanz Sesma, Presidente del Gobierno de Navarra 942

Euskaltzaindiaren ARAUAK:

108.—Lapurdiko Udal Izendegia 945

109.—Komunztadura aposizioetan 948

110.—Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzaileduneta mugatu singularra noiz erabil daitekeen 951

111.—Izen sintagmen arteko juntadura dela eta 956

BATZAR-AGIRIAK

2000, V, VI, VII, IX 963

IKERGAIAK

Toribio Etxebarriaren *Lexicon*-i gehigarriak, *Juan San Martin* 1001

Jose Paulo Ulibarri Galindez. Hiztegia, *Patxi Galé García* 1021

Erreferentzia biblikoak *Gero*-n, *Patxi Salaberri Muñoa* 1113

JASOTAKO BESTE TXOSTENAK

HIZTEGIGINTZA

Voces alavesas. ¿Voces alavesas? (Observaciones sobre el libro de Gerardo López de Guereñu), *Károly Morvay* 1129

GRAMATIKA

Galde-erantzunak 1149

ONOMASTIKA

Euskaltzaindia, Galiziako Erret Akademia eta Institut d'Estudis Catalans-ek *Toponimiaz* egindako ***adierazpena*** 1159

Declaración de las delegaciones de Euskaltzaindia, Real Academia Galega e Institut d'Estudis Catalans sobre cuestiones de los *nombres de lugar* 1161

Euskal Onomastika eta egungo legeria-ri buruzko III. Jardunaldia, *Andres Iñigo* 1163

III Jornada sobre la Onomástica vasca en el marco de la legislación vigente, *Andres Iñigo* 1165

Bake Justizia eta euskal izen-deiturak: ohar laburra, *Mikel Gorrotxategi* eta *Andres Urrutia* 1167

Nombres y apellidos vascos: grafía y ley, *Andres Urrutia* 1169

Criterios de normalización de apellidos, *Mikel Gorrotxategi Nieto* . . . 1179

Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-Entitateak. Hitzaurrea, *Jose Luis Lizundia Askondo* 1183

Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-Entitateak, *Mikel Gorrotxategi* 1187

BERRIAK

F. Krutwig-en omenaldiz Greziara eginiko bidaiaren kronika, *Xabier Kintana Urtiaga* 1255

Kretan F. Krutwig-en omenaldian eginiko hitzaldia, *Xabier Kintana Urtiaga* 1259

Txillardegiren Bibliografia, Azkue Bibliotekak paratua, *Jose Antonio Arana Martija* 1263

Txillardegiren Bibliografia: 1956-1999, *Jose Luis Alvarez Enparantza/Txillardegi* 1265

Ternuan eta Québec-en, *Henrike Knörr* 1269

AURKEZPENAK

En la presentación del último volumen de ***Toponimia Medieval en el País Vasco*** de Ángeles Líbano Zumalacárregui, *Henrike Knörr* . 1277

Presentación de la obra ***Toponimia Medieval en el País Vasco***, *Ángeles Líbano* 1279

Toponimia Medieval en el País Vasco, *Manuel Montero* 1283

* * *

Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia: ***1999ko Literatura sariak***, *Jean Haritschelhar* 1285

Literatura sariak: BBK-Euskaltzaindia: 1999an saritutako lanen argitalpena, *Juan Mari Lekona* 1287

Joxe Manuel Odriozola Lizarribar: *Mikel Zarate* Saio-saria. 1999 . . . 1289

Aitor Arana Lauzuriaga: *Txomin Agirre* Eleberri saria. 1999 1293

Juan Luis Zabala Artetxe: *Felipe Arrese Beitia* Olerki-saria. 1999 . . . 1295

Mikel Ugalde Ugarte: *Toribio Altzaga* Antzerki-saria. 1999 1299

BBK-Euskaltzaindia literatur sariak: 2000.eko oinarrien eta 1999ko liburu sarituen aurkezpena, *Jose Ramon Bilbao* 1301

BBK-Euskaltzaindia: 1999ko Literatura sariak. Azken hitzak, *Jean Haritschelhar* 1303

* * *

Frai Bartolome Santa Teresa: ***Lan guztiak*** 1307

Frai Bartolome Santa Teresa: ***Lan guztiak***, *Ana Madariaga* 1309

Presentación de las ***Obras Completas*** de Frai Bartolomé Santa Teresa, *Ana Madariaga* 1311

Frai Bartolome Santa Teresa: ***Lan guztiak*** aurkeztean, *Jose Antonio Arana Martija* 1313

Frai Bartolome Santa Teresa: ***Lan guztiak***, *Julen Urkitza-Luis Baraiazarra* 1315

Frai Bartolome Santa Teresa: ***Obras completas***, *Julen Urkitza-Luis Baraiazarra* 1319

HIL BERRIAK

Terence H. Wilbur-en oroitzapenez, *Andolin Eguzkitza* 1325
Peter Etxeberriaren biografia laburtua, *M. Douglas* 1329
Biographical resume of Peter Echeverria, *M. Douglas* 1331
Jacques Allières, *Jean Haritschelhar* 1333

ANDRES IÑIGO EUSKALTZAIN OSO BERRIA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

ANDRES IÑIGOREN SARRERA-EKITALDIA

Ituren, 2000-V-27

Jose Maria Gorosterrazu,
Iturengo alkatea

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua;
Juan Ramon Elorz, Nafarroako Gobernuko ordezkaria;
Miguel Angel Petrirena, Malerrekako Mankomunitateko ordezkaria;
Begoña Bilbao, Eusko Jaurlaritzako ordezkaria;
Gotzon Lobera, Bizkaiko Diputazioko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia;
Euskaltzainak;
Iturendarrak;
Jaun-andreak;

Zaretela ongi etorriak:

Euskaltzaindia sortu zenetik 82 urte pasatu dira eta hasiera-hasieratik izan du bere kideen artean nafarren presentzia.

Joan zitzaizkigunen artean, lehendabizikoa Arturo Campion, Iruñekoa, eta ondotik Jose Agerre, iruñearra hura ere, Aita Damaso, Intzakoa, Aingeru Irigarai eta Juan Miguel Seminario, beratarrak eta Aita Polikarpo Iraizozkoa.

Azken aldi honetan Euskaltzaindia osatzen duten 24 kideen artean 4 genituen nafarrak: Jose Maria Satrustegi, Arruazukoa, Patxi Ondarra, Bakaikukoa, Pello Salaburu, arizkundarra eta Patxi Zabaleta, leitzarra. Iaz hutsik gelditu zen aulkia betetzeko bertze nafar bat izendatu zuten euskaltzainek, Andres Iñigo.

Nafarroa dugu Euskal Herriaren ama eta euskal lurralderik haundiena eta horretaz gain, azken bolada honetan, Nafarroan, oztopo guztien gainetik, euskara zabaltzen ari da, euskal eremutik Iruñerrira ez ezik Erribera aldera ere hedatzen. Horregatik uste dugu Euskaltzaindiak asmatu duela bere kideen artean nafarren presentzia handitzean.

Zer erranik ez, iturendarrentzat ohore eta poz handia dela Andres Iñigo, bertoko semea, euskaltzain izendatu dutela ikustea. Poz eta ohorea batetik, Malerrekako lehendabiziko euskaltzaina delakoz, eta bertzetik, nahiz eta bere

ikasketa eta lanagatik herritik kanpo bizi behar izan, beti herriari lotua ikusi dugulakoz. Izan ere, urtetan egin dituen ikerketa lan inportanteenak hemengo eta inguruko herrietako Toponomastikari buruzkoak izan dira eta gaur herri osoaren izenean eskerrak eman nahi dizkiot, gure herriaren alde egin duen guziagatik.

Andresen izendapena dela eta, Euskaltzaindia lehendabiziko aldiz etorri zaigu Iturenera. Bi egunez izan dugu gure artean. Atzo egun osoan hilabete honetako bilkura egiten eta gaur euskaltzain berriaren sarrera ekitaldi honetan. Euskararen Akademia hurbilagotik ezagutzeko aukera izan dugu eta espero dugu hemendik aitzinera Ituren eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak estuak izanen direla. Euskaltzainburu jauna, etxe honetako ateak zabalik izanen dituzue betiko.

Iturendarren izenean, esker mila Euskaltzaindiari, zorionak Andres Iñigori eta eskerrak, aldi berean, sorterria aukeratu duelako bere sarrera-hitzaldia egiteko.

Esker mila, azkenik, ekitaldi hau gurekin batera ospatzera etorri zareten guztioi.

ONOMASTIKA EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN

Ituren, 2000ko maiatzaren 27a

Andres Iñigo Ariztegi

Euskaltzain oso berriaren sarrera-hitzaldia

- Euskaltzainkideak,
- Agintariak,
- Iturendarrak,
- Etxekoak,
- Jaun-andreak.

Euskaltzaindiaren araudiak agintzen duenez, bi dira sarrera hitzaldian euskaltzain berriaren betebeharrak. Bata, ordezkatzen duena gogoratzea, nire kasuan Federiko Krutwig, bertzea hartu duen gaia azaltzea. Bigarren honetarako aukeratu dudan izenburua *Onomastika euskararen normalizazioan* da.

I. Federiko Krutwigen oroitzapenean

Lehendabizikoari dagokionez, ez da nire asmoa Federiko Krutwig-i buruzko biografia luzea hemen egitea. Badira nik egiten ahal dudan baino hobeki egin eta ja argitaratu direnak, bertzeak bertze, Federiko hil aurreko urtean euskaltzain izendatu eta 50 urte bete zituenean, Euskaltzaindiak egin zion omenaldia, *Iker-10* liburuan (1) argitaratua, hil baino zenbait hilabete lehenago Bilboko liburuzale eta azoka antolatzaileek *urrezko luma* eman zioten ekitaldian Ricardo Badiolak aurkeztu zuena (2), eta, hil ondoren, Xabier Kintanak Euskaltzaindian irakurri zuen *Federiko Krutwig Sagredo, in memoriam* (3) txostena, bai eta geroago argitaratu duen bertze biografia ere (4).

---

(1) "Federiko Krutwig-i omenaldia / Homenaje a Federico Krutwig / Hommage à Federico Krutwig", *Iker – 10,* Euskaltzaindia, Bilbo, 1997. (Prestatzailea: Ricardo Badiola).

(2) Federiko Krutwig Sagredo 'etorkizuneko euskalduna'. Omenaldia. Bilboko Boulevard kafetegia. 1997-06-02.

(3) *Euskera,* 44, 1999-1, 713-723 orr.

(4) Federiko Krutwig Sagredo (1921-1998), *Bidegileak* bilduma, Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, Gasteiz, 1999.

Biografia horren sarrera-hitzetan Kintanak hitz gutxitan Krutwig zenaren ikuspegi orokorra ematen digu. Honela dio: "gure historian ez dira gutxi izan, jatorriz atzerritarrak izan arren, Euskal Herriaz maitemindurik, euskaldunon hizkuntza eta kultura berenak egin eta gure herriaren alde lan egindako pertsonak. Horietako bat Federiko Krutwig izan da, mende honen bigarren erdian izan dugun pentsalari eraginkorrenetakoa, hizkuntzan, kultur jokabidean eta politikan bere ikuspegi propioak utzi dizkiguna" (5).

Politika eta kulturan bezala, euskaran ere aitzindari eta bide urratzailea izan zen ezbairik gabe.

Gerra ondoren, Euskaltzaindiaren barne-funtzionamendua eta egitura egokitzeaz gain, euskararen literatur batasunaren beharra ezinbertzekotzat jo zuen, eta, berak eskutitz batean adierazten zuenaren arabera, aitzindari izan zen, hogeita hamar urte geroago euskara batuaren bultzatzaile agertu zirenek batasunaren kontua usaindu ere egiten ez zutenean, literatur batasunaren defendatzaile eta bultzatzaile agertu zelako (6).

Federiko Krutwig-en izena eta bere zenbait lan ezagunak bazitzaizkigun ere –hiruretan hogeiko hamarkadaz geroztik bereziki–, ez nuen 1984a arte Federiko bera ezagutzeko paradarik izan. Arturo Campión-en mendeurrena zela eta, Euskaltzaindiak Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko egoitza estreinatu berrian ospatu zuen X. Biltzarrean ezagutu nuen lehendabiziko aldiz. Biltzar hartan Nafarroako arte erromanikoaren zenbait aztarna bisitatzeko egin zen ibilaldian, Leiren izandako geldiunean mahaikide tokatu zitzaidan halabeharrez, eta aitortu behar dut gizon haren jakinduriak eta pentsakeraren sakontasunak harriturik utzi ninduela.

Geroago, bere bizitzaren azkeneko hamarren bat urtetan, Onomastika batzordeko bileretara etortzen zenean, hurbilagotik egiaztatu ahal izan nuen lehendabiziko aldi hartan hartu nion itxura ona ez zela kasualitatezkoa izan. Gizon isil hark hitz gutxitan adierazten zuen jakintza harritzeko modukoa zen.

Nire aldetik batere merezimendurik gabe izendatu ninduten hemen dauden euskaltzainek Federiko Krutwigek utzitako aulkia betetzeko. Gauza jakina da, aurrekoaren aulkia betetzeak ez duela hark landu zuen alorra eta lana ordezkatzen eta, nire kasuan, garbiago ez dudala haren jakintza ordezkatuko, ez eta Akademian egin zituen 51 urteak egingo. Dena den, bion artean izandako harreman urria Onomastika batzordekoa izan zen eta Onomastikari buruzkoa da sarrera-hitzaldi honetarako aukeratu dudan gaia.

(5) Op. cit. 1. or.

(6) Jose Maria Aleman, Luzaideko apezari, 1976ko urtarrilean Loiben-etik (Lobaina) idatzitako gutunean honela zioen: "Como tú seguramente sabes, en la nueva época de la Academia, después de la guerra civil, la persona que MÁS HA INSISTIDO en que se debe llegar a una unificación literaria he sido yo. En una época en la que los actuales paladines ... escribían en diferentes dialectos ... y ninguno de ellos ... se ponían la cuestión de la necesidad de una unificación literaria".

II. Onomastika Euskararen normalizazioan

1. Sarrera

Euskaltzaindian aire aitzinetik sartu zen Andres Urrutiak, bere sarrera-hitzaldian zioen Euskaltzaindia nortasun juridiko osoa duen erakundea dela eta berari dagokiola, legez eta moldez, euskara kontuetan agintaritza (7). Beraz, Euskararen Akademiari dagokio gizartearen harreman guztietarako hizkuntza egokitzearen gidaritza eta agintaritza. Hori da, hain zuzen ere, Akademia sorrera-sorreratik egiten ari dena, eta bereziki, euskara batuaren aldeko erabakia hartu zuenetik.

Baina euskara egokitzea ez da bakarrik gramatika egiturak, hiztegia edo ortografia landu, batu eta arautzea. Badago hizkuntza guztietan, eta euskararen kasuan zer erranik ez, bertze alor aberats bat, izenen alorra, alegia. Bere balio sinbolikoa ukaezina da, kontuan izanik, batez ere, Euskal Herriko eremu zabal batean euskara galduaren aztarna bakarra onomastika dela eta, hortaz, alderdi horiek euskaldunak izan direla adierazten digun lekuko bakarra onomastika dela, hots, toki izenak eta deiturak, gehienbat.

Gure literaturaren lehen liburuak XVI. mendea arte agertzen ez badira ere, izenak anitzez zaharragoak ditugu, izenak baitira gure hizkuntzaren lekukorik zaharrenak, pertsona izenak (antroponimoak), jainko izenak (teonimoak) eta leku izenak (toponimoak) (8), I. eta II. mendeez geroztik Akitanian batez ere agertzen direnak (9). Geroago X. mendetik aitzina Euskal Herriko agirietan agertzen zaizkigu, Nafarroakoetan bereziki, baina Euskal Herritik kanpokoetan ere bai (10). Eta esaera zaharrak dioen bezala, "izena duen edozerk izana ere ba omen du". Hortik, bada, gure Herriaren izanaz mintzo diren izenen garrantzia, Onomastikarena alegia.

Garrantzi honetaz, gure Herriko idazle eta ikertzaileez gainera kanpokoak ere jabetu izan dira eta hor ditugu XVII. mendean hasi eta Baltasar Etxabe eta Arnaud Oihenart(e) eta geroago Wilhelm von Humbolt, Pablo Pedro Astarloa, Arturo Campión, Achille Luchaire, Julien Vinson, Sabino Arana, Luis Eleizalde, Henri Gavel, Ramón Menéndez Pidal, René Lafon, Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena, Joan Coromines, Alfonso Irigoien... –izen batzuk bertzerik ez aipatzeagatik–, beren idatzi eta ikerketa lanetan Onomastikaz arduratu direnak.

Baina horien artean, aipamen berezia merezi du euskararen alorrean izan dugun maisurik handienak, Koldo Mitxelenak. Haren lanetan argi ikusten ahal

(7) Urrutia, A. (1998: 45).

(8) Mitxelena L. (1964: 15).

(9) Gorrotxategui Churruca, J. *Onomástica indígena de Aquitania*, Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua-Salamancako Unibertsitatea, Bilbo, 1984.

(10) Knörr, H. (1999:135-136).

da Onomastikarekin zuen interesa, *Apellidos Vascos* liburuan erraterako eta, kontuan hartzekoa da, *Fonética Histórica Vasca*-n toki eta pertsona izenei ematen dien lekua eta garrantzia. Arturo Campión, Sabino Arana, Luis Eleizalde eta bertze batzuen lanen ekarpenak aipagarriak izanik ere, Onomastika kontuetan Julien Vinson, Henri Gavel eta Koldo Mitxelenarekin hasi zen seriotasun eta bide zientifikoz jokatzen eta, ondoren, Alfontso Irigoien zenak ere ildo horretatik segitu zuen.

Ezkerretik eskubira: Patxi Goenaga, Euskaltzaindiko idazkaria; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, Miguel Angel Petrirena, Malerrekako Mankomunitateko ordezkaria; Juan Ramón Elorz, Nafarroako Gobernuko ordezkaria; Jose Maria Gorosterrazu, Iturengo alkatea; Andres Urrutia Badiola, euskaltzain osoa... eta Andrés Iñigo, euskaltzain oso berria sarrera-hitzaldia irakurtzen.

2. Onomastika arautzearen beharra

Munduko hizkuntza landu guztiek lehentxeago edo geroxeago egin izan duten bezalaxe, Euskaltzaindiak ere, 1968an Arantzazuko Biltzarrean, hizkuntza batuaren aldeko apustua egin zuen, argi ikusten zelako hizkuntza estandarizatuaren beharra, batez ere irakaskuntzarako eta idatziz komunikatzeko (11).

Kontua da hizkuntza baten Onomastika ez dela bi alor horietara soilik mugatzen. Onomastikaren esparrua ezin da inola ere alor bakar batzuetara murriztu, ezin zaizkio hesiak jarri. Arrazoiak begi bistakoak badira ere, labur azaltzearren bi hauek aipatuko ditut:

(11) Villasante, L. (1978: 443-444).

a) Alde batetik, pertsona guztiak izenei lotuak gaude. Denok ditugu gure nortasuna adierazten duten izen-deiturak, denok bizi gara izena duen herri edo hiri batean, izena duen etxe edo baserri batean edo, gutienez, izena duen karrika bateko pisu batean. Gure eguneroko bizitzan, segur aski, gehien erabiltzen dugun erreferentzia izenena da. Zenbat pertsona eta leku izen ez ote dugu aipatzen egunaren buruan? Ez da beharrezkoa izanen, bada, arrazoi gehiago bilatzen aritzea gure izenak sailkatu, ikertu eta beren forma ofizialak erabaki ondoren gure hizkuntzaren arautegian sartu behar direla ikusarazteko.

b) Bertze aldetik, euskal izenen erabilera ez da bakarrik euskara dakitenetara edo hizkuntza honetan mintzatzen diretenetara mugatzen. Erran beharrik ez dago:

– Euskara ez dakitenek ere egunero entzuten, irakurtzen, idazten edota ahoskatzen dituzte izen horiek.

– Euskal Herriko mugetatik kanpo, gero eta hedadura zabalagoa hartzen ari dira gure ponte izenak eta, egungo hedabideak eta informatika direla medio, gure deiturak eta leku izenak munduko xoko guztietan ageri dira.

Hortaz, gure onomastikaren errepertorioa, *izana duen herriaren izendegia den heinean*, neurri batean behintzat, gure herriaren berezitasun eta nortasunaren adierazgarri da (12), mundu zabalean gure hizkuntzaren prestigioaren erakusleihoa. Beraz, ukaezina da duen balio estetikoa (13).

Gauzak horrela, argi dago euskal onomastikaren *Corpus*eko izenen aldaera arautua –ofizialtzat hartua– ezartzearen garrantzia eta beharra, izen horien erabilera zuzena izan dadin, gure hizkuntzaren prestigiorako eta gure herriaren nortasuna behar bezala agerrarazteko (14). Onomastikaren erabilera okerra edo finkatu gabea ez da gure herriaren nortasunaren alde mintzo, ez eta gure hizkuntzaren osasunaren alde ere. Gramatika, hiztegi eta ortografiaren alorretan bezalaxe, onomastikarenean ere, erabilera zuzena hizkuntzaren osasunaren seinale da. Gainera, kontuan izan behar da onomastika dokumentu eta kartel ofizialetan agertzen denez, gure euskal izenak denok irakurtzen dituztela, bertako euskaldunek eta erdaldunek eta kanpotik etortzen direnek. Horregatik diot onomastikaren erabilera, neurri handi batean behintzat, gure hizkuntzaren osasunaren edo osasun ezaren adierazle dela, eta begi bistakoa da alde handia dagoela osasuntsu egotetik gaixorik egotera eta bertzeen aitzine-

(12) Leku izenei dagokienez, honela dio GENUNG (Groupe d'esperts des Nations Unies pour les noms géographiques) erakundeak: "les noms géographiques proclament notre identité nationale, notre patrimoine culturel". *Bulletin d'information toponymique*, 1. zenbakia.

(13) Moran i Ocerinjauregui, J. (1996: 7-8). Onomastikaren bi atalei buruz (antroponimia eta toponimiari, alegia) hau dio: "No solament aporten una informació científica, lingüística i humana considerable, i per aquest motiu s'han dedicat i es dediquen molts lingüistes a l'estudi etimològic i diacrònic d'aquests noms, sino que també posseeixen un valor estètic considerable".

(14) GENUNG-ek hau dio: "un nom écrit de façon correcte est une source très importante pour toute recherche linguistique, historique et culturelle". *Bulletin d'information toponymique*, 2. zenbakia.

an bizkor agertzetik ahul agertzera. Horregatik, bada, hizkuntzaren zuzentasunak, eta zuzentasun horren barruan onomastikarenak, garrantzi handia du, eta gertatzen ahal dena da –eta gure artean gertatzen da– ezjakintasun, axolagabekeria edo utzikeriagatik zenbait jende horretaz ez jabetzea.

3. Euskaltzaindiaren Onomastika batzordea

Gure Akademiak aspaldi ikusi zuen euskal onomastika arautzeko premia, ageriko arrazoiengatik: euskara Administrazioaren hizkuntza ofiziala inoiz izan ez zenez, eskribau eta funtzionarioek euskal izenak erdal grafian idazten zituzten, eta anitzetan euskara ezagutu ez eta nolanahi idazten zituzten, edo erdarara itzuli.

Bergaran egindako VIII. Biltzarrean Villasante euskaltzainburuak gogorarazi zuen bere sorreratik egotzi zitzaiola Akademiari batasuna lortzeko ardura. Euskal Herriaren aurrean, Euskaltzaindiaren zorra eta kargua, eredu bateratua hizkuntzaren sail guztietara eramatea zela (15).

Onomastikari dagokionez, Euskaltzaindiak bere sorreratik agertu zuen berariazko batzordea eratzeko beharra, kontuan izanik Oñatin 1918an egindako lehendabiziko Biltzarrean Julio Urkixok honako hau zioela: "según indiqué en el Congreso de 1911, un estudio que tiene gran importancia para la vascología es el de nuestra toponimia, pues como los nombres de lugares en Euskalerria se refieren, con frecuencia, a la configuración de los montes, de los valles y de las casas; a su situación, a los árboles y plantas, su estudio proporciona datos de gran interés" (16). Bertzalde, Euskaltzaindiaren lehenengo "Barneko araudian", 1920an argitaratu zenean, Iker Sailaren eraketarako "toki eta giza-izenak" (Toponimia eta Patronimia dio gaztelaniazko testuan) bilduko dituen batzordearen beharra aipatzen da (17).

Horretaz gain, kontuan izan behar da, ordurako, zenbait pertsona eta erakundetan nolabaiteko lurrikara sortu zuela Arana-Eleizalderen *Deun-ixendegi euzkotarra*-k. Egile hauen ekarpena aipagarria da eta ukaezina urratu zuten bide berriak gizartean izan zuen onarpena; baina, aldi berean, erabat eztabaidagarria, aurreko tradizioarekin *tabula rasa* eginez, izenak euskaraz emateko aplikatu zuten zenbait irizpiderengatik. Egoera horren aurrean, Azkue lehendabiziko Euskaltzainburuak Akademian bertan batzorde bat eratu nahi izan zuen, hasiera hartan helburu hori lortu ez bazuen ere (18).

(15) Villasante, L. (1978-2: 443-444).

(16) Julio de Urquijo e Ibarra, "Estado Actual de los Estudios Relativos a la Lengua Vasca" in *Primer Congreso de Estudios Vascos*. Recopilación de los trabajos de dicha asamblea, celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de septiembre de 1918, bajo el patrocinio de las Diputaciones vascas. Bilbao, 1919, 424 or.

(17) Euskatzaindiaren Barneko araudia / Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca. Eusko argitaldaria / Editorial vasca, 1920. I. atala, 2. puntua.

(18) Knörr, H. (1999:146).

Urte franko pasatu ziren Iker saileko gainerako batzordeak bezalaxe onomastikarena eratu zen arte. Erran beharrik ez dago Euskaltzaindiak, bere aurreneko urteetan, lehentasuna bertze alor batzuei eman ziela. Baina Arantzazuko Biltzarraren ondotik, 1971n Aramaion egindako bilera batean L. Villasantek aditzera eman zuen euskal leku eta herrien izedengia prestatzeko zegoen premia larria (19). Euskal Onomastika arautu behar zen. Lehendabiziko pausoa emateko batzorde berezi bat eratu zen, *Izendegi batzordea* deitua. Euskaltzaindiak Koldo Mitxelena izendatu zuen batzordeburu, begi-bistakoak diren arrazoiengatik: Arantzazuko Biltzarrak Mitxelena bera hautatu zuelako batasun kontu guztietarako buru (20) eta, gainera, Mitxelenak Onomastikari garrantzi handia ematen ziolako eta gai honetan maisu zelako.

Batzorde honen eraketan ditugu, bada, urte batzuk geroago sortuko zen Onomastika batzordearen oinarriak. Berariazko batzorde haren lehenengo fruitua, *Udalen Izendegia,* zortzi urte geroago, 1979an, eman zen argitara. Lehenengo lan hori gauzatzeko izandako zailtasunen lekuko ditugu, bertzeak bertze, Jose Maria Satrustegi, Juan San Martin eta Jose Luis Lizundia batzordekideak. Lan horren aurkezpenean, L. Villasantek berriz ere azpimarratu zuen Euskal Herriak bere Onomastika arautu eta ofizialtzeko zuen premia.

Bitartean, Akademiak Jose Maria Satrustegi euskaltzain osoaren gidaritzapean, garrantzi handiko bertze proiektu bat jarri zuen abian, *Euskal Izendegi*-arena, ponte-izenena, alegia. Ordura arte erabilitako izendegi ezagunak Arana-Eleizalderen *Deun-ixendegi euzkotarra* (1910) eta Aingeru Irigaraik Euskaltzaindiaren izenean argitaratutako *Euskal Izenlerroa* (1966) ziren. Ongi ikusiak eta onartuak izan baziren ere, lan horietan agertzen ziren izenek ez zuten garaiko euskal gizartearen gose-egarria aski betetzen, gizarteak zerbait gehiago nahi eta eskatzen baitzuen. Euskal Onomastikaren harrobian ezkutaturik zeuden hainbat izen argitara eman eta ofizialdu beharra zegoen. Hori izan zen Satrustegiren *Izendegi*-arekin emandako urratsa. Hiru aldiz argitaratu zuen Akademiak *Euskal Izendegia* deitutako liburuxka, lehendabizikoa 1972an 700en bat izenekin, bigarrena 1977an (21) 1.200ekin eta hirugarrena 1983an, 1.850en batekin.

Izendegi horrek gizartean izandako onarpen eta arrakastaz jabetzeko aski da hurrengo urteetan ponte izenetan izan zen aldaketa ikustea. Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkariak, berriki argitaratu duen lanean azaldu dituen datuak adierazgarriak dira (22). Hego Euskal Herrian, orain dela bost

(19) Ikus *Euskera*, XXIV, 1979-2, 831 or. Premia horren arrazoiak begi-bistakoak direla dio: "euskarak ofizialtasun mailarik izan duelako eta administralgoan erabilia izan ez delako, euskaldunak gehienetan ez du ongi jakiten nola diren euskaraz gure herrien izenak".

(20) Ikus "Idatzarauetako batzordearen berriztatzea", *Euskera,* 1972, 174-177 orr.

(21) Estatu mailarako emandako 17/1977 lege berriari esker, bigarren argitalpenean sartu ahal izan ziren bostehun izen gehiago. Ordura arte, ez zitekeen euskaraz jar erdal baliokide zuen izenik. 1977tik aitzina zilegi da Estatuko edozein hizkuntzatan jartzea.

(22) Gorrotxategi Nieto, M. (2000: 155-164).

hamarkada jartzen ziren ponte izenak hondarreko hamarkadakoekin konparatuta, argi ikusten ahal dugu izandako aldaketa. Hauek dira lehendabiziko lekuetan agertzen direnak:

a) Gizonezkoetan		b) Emakumezkoetan	
Orain dela bost hamarkada:	Azkeneko hamarkadan:	Orain dela bost hamarkada:	Azkeneko hamarkadan:
José Luis	*Mikel*	*Mari Carmen*	*Leire*
Francisco Javier	*Jon*	*Begoña*	*Amaia*
José María	*Aitor*	*María Jesús*	*Nerea*
Antonio	*Asier*	*Carmen*	*Maria*
José Antonio	*Ander*	*María Teresa*	*Ane*
José	*Iñigo*	*Isabel*	*Laura*
Manuel	*Iker*	*Pilar*	*Ainhoa*
Jesús	*David*	*Concepción*	*Andrea*
Francisco	*Xabier*	*Ana María*	*Sara*
Angel	*Javier*	*María Pilar*	*Marta*
Jesús María	*Unai*	*María Ángeles*	*Irati*
Miguel Angel	*Julen*	*Teresa*	*Cristina*

Aldaketa hau oraindik nabariagoa da zenbait eskualde edo ibarretan. Konparazio baterako, gure inguru honetara mugatuz, hauek dira Bortzerrietan eta Malerrekan agertzen zaizkigun datuak:

a) Gizonezkoetan		b) Emakumezkoetan	
Orain dela bost hamarkada:	Azkeneko hamarkadan:	Orain dela bost hamarkada:	Azkeneko hamarkadan:
José María	*Jon*	*María Jesús*	*Amaia*
José Luis	*Xabier*	*Mari Carmen*	*Ainhoa*
Francisco Javier	*Mikel*	*María Teresa*	*Leire*
Francisco	*Unai*	*María Angeles*	*Nerea*
José Antonio	*Ander*	*María Isabel*	*Miren*
Manuel	*Iñigo*	*María Jose*	*Maite*
Miguel	*Iñaki*	*María Josefa*	*Itziar*
José	*Andoni*	*María Asunción*	*Jone*
Antonio	*Julen*	*Isabel*	*Oihana*
Pedro	*Aitor*	*Pilar*	*Naiara*
		María Pilar	*Jaione*
		Concepción	*Aitziber*

Honekin batera, bertze bi gauza dira aipagarriak:

1) Euskal Herriko eremuetatik kanpo gertatzen ari den euskal izenen hedadura. Hala agertzen da egindako zenbait lanetan, Kantabrian erraterako

(23), gero eta arruntagoak omen dira *Aitor, Eneko, Ainhoa, Edurne* eta bertze hainbat euskal izen. Estatuan ere gero eta gehiago ari dira zabaltzen. Madrilen, erraterako, 737 *Amaia*, 673 *Ainhoa*, 153 *Estibaliz* eta 111 *Leire* ditugu (24).

2) Gure Herriak ongi jakin izan du bertako Onomastika altxorraz baliatzen ponte izenak jartzerakoan. Bertze zenbait estatutan ez omen da horrelakorik gertatu, azkeneko XX. ICOS Nazioarteko Onomastika Biltzarrean azaldu zitzaigunaren arabera. Alemaniaren kasuan adibidez, gazteen artean, ehuneko guti batek bakarrik omen du bertako izena; gehienek, telenobela, telesail eta gisa horretakoen eraginez, kanpotik sartu zaizkien *Jennifer, Kevin, Sheila* eta antzeko izenak omen dituzte (25).

Euskaltzaindiak 1983ko Barne Jardunaldietan eman zuen hurrengo urratsa erabakigarria izan zen, 1971n abian jarritako *Izendegi batzordea* zena *Onomastika batzorde* bilakatu baitzuen. Izendapen berriarekin batera bertze helburu eta betebehar batzuk ere egotzi zitzaizkion, hala nola (26):

- Irizpenak ematea.
- Izenak ikertzea.
- Herri-izendegia prestatzea.
- Toponimia lanak egitea.
- Pertsona-izendegia gauzatzea.

Koldo Mitxelenaren gidaritzapean hasiera batean eta Henrike Knörrenean gero, burutu dituen lan garrantzitsuenak honako hauek izan dira:

a) **Ponte-izenak**

Satrustegiren izendegiaren azkeneko argitalpenetik honat, Euskaltzaindiak izen berrien ebazpen multzo ederra eman behar izan du. Euskal gizartea gure herriaren harrobian dauden hainbat eta hainbat izenen ofizialtasuna etengabe eskatzen ari da. Eta hori da Onomastika batzordeak, azken urte hauetan, esku artean izan duen gaietako bat, eta une honetan amaituxear duena. Gure tradizioan errotuak dauden izenekin ez ezik gure lurraldearen aberastasunaren lekuko direnekin ere bertze *Ponte-Izendegi* bat osatzen ari da, indarrean dagoen legeari egokitua eta aurten kaleratuko dela espero duguna.

(23) Ramírez Sádaba, J. L.: "Recientes innovaciones en el repertorio onomástico de los cántabros" in *Resúmenes del XX Congreso Internacional de Ciencias Onomásticas*, Santiago de Compostela, 1999ko iraila.

(24) García Gallarín, C.: *Los Nombres de Pila Españoles*, Madril, 1998, 363. or.

(25) Rodriguez, G. "¿Adónde van nuestros nombres propios? La individualización e internacionalización de los antropónimos (nombres). Tendencias en el proceso de elegir y poner nombres a un niño en Alemania" , in *Resúmenes del XX Congreso Internacional de Ciencias Onomásticas*, Santiago de Compostela, 1999ko iraila.

(26) *Euskera*, XXVIII, 1983-2, 523 or.

b) **Deiturak**

Azkeneko urte hauetan, Hego Euskal Herrian, deiturak euskal grafian idazteko joera nabaria izan da, bereziki legeak horretarako bidea ireki zuenetik. Gizartearen eskakizun horri aurre egiteko, Onomastika batzordeak lan mardula egin izan du eta, orain dela bi urte, hamarren bat mila deitura dituen *Izendegia* (27) argitaratu zuen Estatuko Justizia Ministeritza eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren babesean eta BOE delakoaren inprimategian egina. Geroztik ere, zerrenda horren zabaltze lanetan segitzen du batzordeak.

c) **Toponimia nagusia (herri eta auzo izenak)**

Arestian aipatu dudan bezala, hau izan zen Euskaltzaindiak onomastika alorrean bere gain hartu zuen lehenengo eginbeharra. Orduz geroztik, gelditu gabe segitu du lan honetan. Nafarroako Gobernuak hala eskatuta, 1990ean, Jose Maria Jimeno Jurío euskaltzain ohorezkoaren gidaritzapean egindako lanaren ondorioz, gauzatu zuen *Nafarroako Herri Izendegia* (28). Orduan erabilitako irizpideen berriztapena Patxi Salaberri batzordekideak prestatu ondoren, Onomastika batzordeak orain dela hiru urte onartu zuen (29), eta horren arabera proposatu lurralde osoko herrien euskal izenak. Iaz argitaratu zuen *Zuberoako Herri Izendegia* (30), *Lapurdiko udal izendegia* onartu berria da (31), Uda edo Treviñoko udalak eskatu berria du bere konterriko Herri Izendegia, eta gero Nafarroa Beherekoa prestatzea etorriko da. Horietaz gainera, –EUDELekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz– Euskal Autonomia Erkidegoan 1986an egindako *Herri Izendegia*-ren berrazterketa ere bukatua dago.

d) **Toponimia txikia**

Orain dela hamar urte Nafarroan egin zen bilketarako Patxi Salaberrik prestatu zituen normalizazio irizpideak, orain Mikel Gorrotxategirekin batera gaurkotu ondoren, onartu berriak izan direnak (32). Alor honetan Onomastika batzordearen lanak ezagunak dira. Batzuk batzordeak berak egin ditu. Bertze batzuk zenbait erakundetatik –udaletatik batez ere– iritsi zaizkion proiektu eta lanak dira. Azkeneko hauetan batzordearen lana aholkuak eta gainbegirada ematea izan da. Lan horien lekuko dugu, bertzeak bertze, dagoeneko hemeretzi liburukiz osatua den *Onomasticon Vasconiae.*

(27) *Nomenclátor de apellidos vascos / Euskal deituren izendegia.* Justizia Ministerioa / Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte eta Segurantza Saila / Euskaltzaindia, B.O.E. ren inprimategia, Madril, 1998.

(28) *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra,* Euskaltzaindia – Nafarroako Gobernua, 1990.

(29) "Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak", *Euskera,* 42, 1997, 3, 653-666. Patxi Salaberri Zaratiegi, Onomastika batzordekideak prestatu ondoren, Onomastika batzordeak Errenterian 1997ko urrian egindako bileran onartuak.

(30) "Zuberoako herri eta herritarren izendegia", Euskaltzaindiaren 92. *araua.*

(31) Euskaltzaindiaren 108. araua.

(32) Gorrotxategi, M. – Salaberri, P.: (2000: 273-314).

e) **Kale izendegia**

Alor honetan, Gasteizko kale izendegia gauzatzeko, Patxi Goenagak, Txipi Ormaetxeak eta Patxi Salaberri Muñoak egindako lanean oinarriturik, Mikel Gorrotxategi eta Patxi Salaberri Zaratiegi batzordekideek prestatutako irizpideak onartu ondoren (33), bertze zenbait hiriburu eta herritako kale izenak arautu dira, hala nola, *Bilbo, Barakaldo, Donostia, Hernani, Zangoza, Badostain*, etab.

f) **Exonimia**

Xabier Mendiguren Bereziartuk *Euskera* agerkariko artikulu batean (34) zehatz azaltzen duen moduan, 1991n eratu zen Exonomastika azpibatzordean prestatutako lanari esker, zenbait lan argitaratu izan dira Euskaltzaindiaren Arauetan, hala nola, munduko estatu, hiriburu, ibai, aintzira eta uharte-izenak, Espainia eta Frantziako eskualde eta erkidegoen izenak; latin eta greziar pertsona izen klasikoak eta Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoenak (35).

g) **Bertze hainbat izenen proposamenak**

Bilboko egoitzara ez ezik, lau ordezkaritzetara ere ia egunero iristen dira era bateko edo bertzeko izenei buruzko galderak, forma arautu edo ofizialaren proposamena eskatuz. Hori dela eta, Onomastika batzordeak, beharrezko ikerketak egin eta gero, ia bilera guztietan eman behar izaten du ebazpenen bat. Aipagarrienen artean, auzune berriak eta Herri-Lan zerbitzuetatik jasotakoak ditugu.

h) **Jardunaldiak**

Bost izan dira batzordeak azkeneko hamalau urteetan antolatu dituenak. Hiru Hego Euskal Herrian (Gasteizen, Urduñan eta Lizarran), bat Iparraldean (Biarritzen) eta bertze bat Estatu Batuetako Nevadako Reno hirian, Amerika eta Filipinetako euskal Onomastika aztergai izan zuena.

i) **Akademien arteko harremanak**

Eta azkenik, Onomastika batzordeak egin dituen eta egiten ari den lanen gainbegirada honetan, aipatu beharrean nago Real Academia Galega eta Institut d'Estudis Catalans-eko onomastika batzordeekin izandako harremanak eta orain dela hilabete bat elkarrekin egindako adierazpena. Izan ere, Espainiako Akademiak bere *Ortografía de la Lengua Española*-ren 3. eranskinean (36) bertze hiru Akademiek araututako leku-izen ofizialak ez baititu errespetatu.

(33) Gorrotxategi, M. – Salaberri, P.: (1999: 583-588).

(34) Mendiguren, X. (1994: 1333-1354).

(35) Ikus Euskaltzaindiaren 36, 38, 51, 52, 53, 59, 60, 70, 76 eta 82 arauak.

(36) Real Academia Española, *Ortografía de la legua española*, Edición revisada por las Academias de la Legua Española, Espasa, Madrid, 1999.

4. Onomastikaren normalizazioa eta kalitate kontua

Onomastika batzordearen lan gehienak argitaratu edo ezagutzera eman badira ere, nonahi ikusten ahal denez, kasu frankotan onartu eta ofizialdu diren izenak ez datoz bat zenbait argitalpen, izkribu eta kartel ofizialetan idatziak ikusten direnekin, ezta zenbait hedabidetan agertzen direnekin ere. Norberak jakinen du ezjakina, utzikeria edo bertako kulturari zaion errespetu falta dagoen jokabide horren azpian, baina kontua da bertako hizkuntza eta kulturari dioten estimu eskasaren adierazgarri agertzen zaizkigula. Ez dugu adibideetan luzatzeko asmorik, baina batzuk bederen aipatuko ditugu errandakoaren frogagarri:

a) **Ponte-izenak**

Hagitz arrunta da Euskal Herriko erregistro edo dokumentu ofizialetan honako hauen moduko akatsak ikustea:

- ***Agurtzane***-ren ordez *Agurtxane, Agurchane*
- ***Ainhoa***-ren ordez *Ainoa, Ainoha, Ahinoa*
- ***Aitziber***-en ordez *Aitxiber*
- ***Garazi***-ren ordez *Garasi, Garaxi, Garatzi*
- ***Goizargi***-ren ordez *Goisargi, Goisergi*
- ***Itziar***-en ordez *Itciar, Itxiar, Iciar, Iziar, Ytziar*
- ***Usoa*** edo ***Uxue***-ren ordez *Usua, Usue, Uxoa, Uxua*
- ***Garikoitz***-en ordez *Garicoitz*
- ***Ibai***-ren ordez *Hibai, Ibay* (37)

Bertzalde, erran beharra dago ponte izenetan, grafia akatsak ez ezik, gauza larriagoak ere baditugula. Agertu berri dira, inolako irizpiderik gabe eta jendearengan nahasketa bertzerik sortu ez duten ponte izendegi bat baino gehiago. Penagarria da, urteetan zehar egin diren urratsen ondotik, zenbaiten axolagabeko lanak ikustea, Akademia erakunde ofizialaren arau, gomendio eta ikerketei kasurik egin gabe, ematen duenez, ez euskararen onerako eginak, baizik eta *curriculum* pertsonalak nolanahi gizentzeko edota sos batzuk ateratzeko. Euskaltzaindiak, laster argitaratuko duen *Ponte Izendegi* berriarekin, lehen aipatutako helburuak lortzeaz gain, saltsa hau guztia konpondu nahi du, euskal tradizioan oinarritutako forma ofizialak emanez, zein diren emakumezkoentzat eta zein gizonezkoentzat argi adieraziz, grafia egokian idatziz eta hipokoristikoak, ahal den neurrian, baztertuz.

b) **Deiturak**

Arrazoi historikoengatik euskal ponte izenak jartzeko oztopoak izan badira ere, gure deiturez ezin dugu gauza bera erran. Euskaldunon deitura gehie-

(37) Iturria: Nafarroako errolda. 1978tik aitzina jaiotakoen izenak. Nafarroako Gobernuko Estatistika Zerbitzua.

nak euskaldunak dira, baina euskara Administrazioan hizkuntza ofiziala izan ez denez gero, dokumentu ofizialetan erdal grafian idatziak jaso ditugu gure deiturak mendez mende. Arrazoi honengatik, ezagunak dira gure deituretan gertatu diren aldaketa eta desitxuraketak Euskal Herrian bertan eta, zer erranik ez, urrutiagoko eskribauek idatzi dituztenean. Adierazgarriak dira Jose Garmendiak "Euskaldun abizenak Sevilla'n eta Cadiz'en" izenburupeko lanean (38) ematen dituen aldaketa adibideak:

- ***Amezqueta*** > *De la Mesqueta*
- ***Arribillaga*** > *Rebillaga*
- ***Elorrio*** > *Del Orrio*
- ***Echenique*** > *Cenique*
- ***Legorreta*** > *De la Gorreta*
- ***Jaunsaras*** > *Jaunzaraz*

Zorionez, berandu izan bada ere, gauzak aldatzeko bidea ireki zaigu. Hego Euskal Herrian bederen, aurten bertan indarrean jarritako lege bati esker, nahi duen guztiak bere deiturak euskal grafiara ofizialki alda ditzake (39), lehenago zeuden oztopoak gainditua. Erran beharrik ez dago, lege honek deiturak normalizatzeko duen garrantziaz jabetuko bagina, epe laburrean euskal gizartearen deituren egoera erabat aldatuko genukeela gure hizkuntzaren mesederako. Errate baterako:

Echeverria, Jorajuria, Recarte eta *Sabalza* deiturak dituztenek

Etxeberria, Xoraxuria, Errekarte **eta** ***Zabaltza*** formetara alda ditzakete.

c) **Toponimoak**

Alor honetan emandako pausoak garrantzitsuak izan dira eta, gainera, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan ere izen ofizialak legeztatuak daude. Baina sinestezina badirudi ere, kasu frankotan aginduak ez dira betetzen. Oraindik gehiago, aginduak bete eta betearazi behar dituztenak, zenbait agintari eta funtzionario alegia, dira kartel eder eta berrietan izenak oker jartzen dituztenak.

Erraten ari garenaren lekuko da, bertzeak bertze:

- *Opacua* ***Opakua***-ren ordez
- *Plencia* ***Plentzia***-ren ordez
- *Echarri* ***Etxarri***-ren ordez
- *Leiza*, ***Leitza***-ren ordez
- *Olagüe* ***Olague***-ren ordez
- Río *Ulzama* ***Ultzama***-ren ordez (40)

(38) *Euskera*, XXVI (2. aldia), 1981-1, 245-278 orr.

(39) 40/1999 legea, azaroaren 15ekoa, "sobre nombres y apellidos y orden de los mismos" delakoa.

(40) Iturria: UEMA.

Eta urruticgi joan gabe, inguru honetatik bertatik abiatzen bagara eta begiak ixten ez baditugu, behinik behin, honako bitxikeria hauek irakur ditzakegu:

- *Lekumberri, k*-rekin baina gero *m*-rekin, ***Lekunberri***-ren ordez Donezteben jarritako hiruzpalau kartel berritan.
- *Arraitzko bentak* ***Arraizko bentak***-en ordez, epe laburrean bigarren aldiz gaizki jarriak.
- *Erasun* ***Eratsun***-en ordez, herrirako errepidean eta *Erasum*, joan den astean Donezteben jarritako bide seinalean.
- *Ezcurra* herri honen sarrera batean eta ***Ezkurra*** bertzean –bi seinaleak aldi berean jarriak–.
- *Erdarlatza* ***Endarlatsa****-ren* ordez.
- *Bidasoa* izena ***Baztan*** ibaiari, non eta *Baztantzubi* izena daraman zubiaren gainean hain zuzen ere.
- *Juansenea etxea*, izen desitxuratua eta euskal tradizioa erabat hausten duena, sobera duen *etxea* hitzarekin ***Joanesenea***-ren ordez.

d) **Toponimo txikiak**

Atal honetan ere aurkitzen ahal dira okerreko formak ofizialtzat emanak, hala nola:

- *Fuentes de Farabitarte* (41), ***Fuentes de Bagabitarte***-ren ordez
- *Illaunbeta* (42) ***Illunbeta***-ren ordez
- *Gilontroren borda* (43) ***Gillentoren borda***-ren ordez
- *Aintzioa* (44) ***Intzoa***-ren ordez
- *Joantsenea* eta *Joantseneko borda* ***Joanesenea*** eta ***Joaneseneko borda***-ren ordez (45)

e) **Kale izenak**

Zenbait herritan, kaleetako xafletan irakur daitezke, bertzeak bertze, honako izen hauek:

- *Nagusi kalea* ***Kale Nagusia***-ren ordez
- *Elgoyen kalea* ***Elgoien kalea***-ren ordez
- *Ezcababide* ***Ezkababide***-ren ordez
- *Lehendakari Aguirre* ***Agirre Lehendakaria***-ren ordez

f) **Euskal oikonimia**

Euskal Onomastikaren harrobia handia da zalantzarik gabe eta, orain arte aipatutako izenez gain, badugu harrobi horretatik zer atera eta zer landu. Eta

(41) *NTM*, XXII, 51 or.
(42) *NTM*, XIII, 183 or.
(43) *NTM*, XXXV, 93 or.
(44) *NTM*, XXXVI, 123, 132 eta 190 or., baina *Intzoa* 205 or.
(45) *NTM*, LVII, 93 or.

hori egitea merezi duela ikusteko, bat aipatu nahi nuke bereziki, duen aberastasunagatik eta euskaldunen bizitzan izan duen eta duen garrantziagatik: Oikonimiarena, etxe-izenena, alegia.

Gure Herriaren historian eta kulturan zerbait baldin badago benetan errotua etxea da. Honetaz anitz erran izan da eta ez naiz aipamenetan luzatuko. Hor ditugu, bertzeen artean, Julio Caro Barojaren *La Casa en Navarra* lau liburukiak. Euskal Herriko eremurik handienean etxeek beren izena dute eta izen horien erreferentziak era askotakoak eta aberatsak dira: ponte izenak, izengoitiak, deiturak, lanbideak, toponimoak, etxeen ezaugarriak, etab. (46). Bertzalde, gure legeetan etxearen garrantziarekin batera bere izenari eutsi beharra ere azpimarratzen da, Nafarroako Foruak dioenaren arabera behintzat (47).

Izen horiek errespetatu eta berreskuratzeko kontzientzia aspaldikoa da Euskal Herrian. Orain dela 80 urte inguru abian jarri zen izenak agerian paratzearen aldeko proiektu bat, eta herri batzuetan gauzatu zen dirudienez (48). Gaur egun ere badago kontzientzia hori, herri frankotan ikusten ahal den bexalaxe. Baina kontua da gehienetan jendeak erran bezalatsu idazten direla oikonimoak, jatorrizko izena ilunpean utziz eta, anitzetan gainera, erdal grafian idatziz. Onomastikaren gainerako alor guztietan bezala beharrezkoa da etxeen kasuan ere izenak arautuak ematea. Bi dira gainditu beharreko oztopoak:

1) Aldaera laburtu eta desitxuratuen ordez jatorrizko izenak ematea, behar bezala eta euskal grafian egokituak. Egia da lan txalogarria egin dutela zenbait herritan etxe izenak berreskuratzeko, baina gero penagarria da izen horiek idatziak ematerakoan forma arautua kontuan ez hartzea, edo hartu nahi ez izatea.

Batzuetan ahoskatu bezala idatziak agertzen dira:

- *Ademenea* ***Adamenea***-ren ordez
- *Aliñea* ***Allinea***-ren ordez
- *Artxea* ***Arretxea***-ren ordez
- *Arzua* ***Arzubiaga***-ren ordez
- *Dolagaraia* ***Dolaregaraia***-ren ordez
- *Porto-enea* ***Portunea***-ren ordez
- *Mendibile,* ***Mendibil*** izenaren ordez

(46) Iñigo, A. (2000: 140).

(47) Ley 1/1973, de 1 de marzo, por la que se aprueba la compilación del derecho civil foral de Navarra. Título II, Ley 38 delakoak honela dio: "la casa, sin constituir persona jurídica tiene su propio nombre y es sujeto de derechos y obligaciones respecto a las relaciones de vecindad, prestaciones de servicios, aprovechamientos comunales, identificación y deslinde de fincas y otras relaciones establecidas por la costumbre y usos locales. Corresponde a los amos el gobierno de la casa, el mantenimiento de su unidad y la conservación y defensa de su patrimonio y nombre".

(48) Mujika, G. (1915: 323-327).

Bertzeetan erabat desitxuratuak:

- *Bisku* ***Beaskoa***-ren ordez
- *Izal* ***Irazabal***-en ordez
- *Sutxus* ***Zuhatzu***-ren ordez
- *Uxar* ***Urizar***-en ordez

Eta azkenik, badira franko jatorrizko izen gardenean emanak, baina erdal grafian idatziak:

- *Arocenea* ***Arotzenea***-ren ordez
- *Juancorena* ***Joankorena***-ren ordez
- *Marticena* ***Martitzena***-ren ordez

2) Euskal Herriko hainbat mendetako ohitura eta tradizioa alde batera utziz, azkeneko urte hauetan, modan jarri ondoren, zabaltzen ari den joera da *Gure ametsa, Gure kaiola, Biyak-bat* eta antzeko izen artifizial antxak jartzea, jadanik nonahi ikusten direnak. Joera hau geldiarazi eta, ahal delarik, herriak izan duen ohiturari segitzea izanen litzateke zentzuzkoena (49).

5. Akademiaren eta Administrazioen eginbeharra

Euskara hizkuntza bat eta bakarra da, eta hizkuntza horren Akademia Euskaltzaindia. Horregatik, bada, hasieran erran bezala Euskararen Akademiari dagokio hizkuntza arautzea, gizartearen harreman guztietarako hizkuntza egokitzearen agintaritza (50), Andres Urrutiaren hitzetan "euskara kontuetarako agintaritza, legez eta moldez" (51). Mitxelenak ere lehendabiziko *Euskal Herriko Udalen Izendegi*-aren aurkezpenean, 1979an, argi adierazi zuen onomastika kontuetan ezin zela nor bere kabuz ibili eta Euskaltzaindiari zegokiola gidaritza (52).

Onomastika gaietan ordea, bertzeetan ez bezala, ematen du euskaltzale bakoitza –eta, anitzetan, euskaltzale izatera iristen ez dena ez ezik hizkuntza bera ezagutzen ez duena ere– hizkuntzalari dela eta, batez ere, etimologia kontuetan aditua. Nola ulertu, bertzela, alde batetik erabaki batzuen inguruan sortzen diren eztabaida eta irainak (53) eta, bertzetik, etimologia kontuak ukitzen dituen edozein lanek duen arrakasta eta salmenta?

(49) Joan Anton Rabella-k antzeko arazoa azpimarrazten du Kataluniako kostaldean eraiki diren auzune turistikoetan. Kasu anitzetan lekuarekin eta tradizioarekin zerikusirik ez duten izenak jarri dizkiete.(50) 573/1976, otsailaren 25eko Erret Dekretua.

(51) Urrutia, A. (1998:45).

(52) Mitxelena, K. (1978-1: 313).

(53) Luis Villasante euskaltzainburuak hasieratik adierazi zuen bidea ez zela erraza izanen eta nolanahi ere istiluak sortuko zirela. Ikus *Euskera* XVII, 1972, 175 or.

2) Otra tendencia, que se ha extendido bastante en los últimos años, es la de aplicar a las casas de nueva construcción, chalés las más de las veces, nombres como *Gure ametsa* (nuestro sueño), *Gure kaiola* (nuestra jaula), *Biyak-bat* (los dos uno), etc. que, cuando menos, resultan un tanto artificiales y que, sobre todo, suponen el abandono de los criterios de arraigo histórico y secular de nuestro pueblo a la hora de nominar las casas. Lo más acertado sería tratar de paralizar esta tendencia moderna y retomar los criterios tradicionales por los que se ha caracterizado la oiconimia vasca, la cual, por otra parte, ofrece una gran posibilidad para la aplicación de nombres nuevos (49).

5. Cometidos de la Academia y de la Administración

He comenzado la segunda parte del discurso recordando las palabras de Andrés Urrutia en su discurso de entrada. Decía que a Euskaltzaindia, en cuanto que es la Academia de la lengua vasca, con personalidad jurídica plena, le corresponde por ley (50) y por méritos propios, la tarea de normativizar la lengua y, en consecuencia, la guía y autoridad en todo lo concerniente a las decisiones lingüísticas (51). En el mismo sentido se manifestó Koldo Mitxelena, refiriéndose al ámbito concreto de la onomástica, en la presentación, en 1979, del *Nomenclátor de municipios vascos.* Dejaba por sentado que no podía andar cada cual por su cuenta y que era la Academia la institución a la que correspondía ser guía y autoridad en las decisiones a adoptar (52).

Pero da la impresión de que en los temas de onomástica, al contrario que en otros campos de la lingüística, cada vascófilo –y a menudo quien ni es vascófilo ni conoce la lengua vasca– es un lingüista y, sobre todo, un experto en etimología. Prueba de ello son, tanto las opiniones, discusiones y reacciones en contra que se producen ante decisiones adoptadas en este terreno (53), como la aceptación y venta de cualquier trabajo o libro en torno a las etimologías.

Es sabido que no es tarea fácil decidir con acierto la normativización, debido a que por diversos factores, como el paso del tiempo y otros, se da una gran diferencia entre las formas originarias de los nombres y las variantes reducidas y deformadas de uso oral actual. Tampoco es cosa sencilla aplicar el criterio científico con garantía plena, sin dejarse llevar, a veces, hacia posi-

(49) Joan Anton Rabella advierte un problema similar, a propósito de las nuevas urbanizaciones turísticas de la costa catalana, en las cuales los nombres de nueva aplicación suponen una ruptura total con la tradición onomástica y con los topónimos históricos de los lugares donde se emplazan estas nuevas urbanizaciones.

(50) Real Decreto 573/1976, de 25 de febrero.

(51) Urrutia, A. (1998:45).

(52) Mitxelena, K. (1978-1: 313).

(53) El presidente de la Academia Luis Villasante ya advirtió desde un principio que la tarea no sería facil, ni estaría exenta de críticas. Ver *Euskera* XVII, 1972, pág. 175.

ciones tanto a favor de formas arcaicas como de las populistas. Por todo ello, en la onomástica, al igual que en los ámbitos morfosintácticos y lexicales, el planteamiento previo –como ya lo advirtió Koldo Mitxelena en la presentación del *Nomenclátor* de 1979–, debe ser el establecimiento de criterios para, posteriormente, proceder, a la luz de los mismos, al estudio y análisis de los testimonios escritos y orales de cada uno de los nombres y, en consecuencia, decidir la forma normativizada de cada nombre.

Ésa es precisamente la labor encomendada a la Comisión de Onomástica. Pero para lograr la normalización de la onomástica en el ámbito social, es preciso dar otro paso que queda, obviamente, fuera de la competencia de la Comisión de Onomástica y de la propia Academia. Ya lo advirtió, con toda claridad, Koldo Mitxelena en el Congreso de Bergara, cuando apostilló: "no olvidemos que una cosa es realizar las propuestas, otra dar difusión a las mismas, y otra, bien distinta, lograr la oficialidad, la cual exige necesariamente el respaldo legal" (54).

Y es obvio que el poder legislativo no es competencia de la Academia sino de los Parlamentos, y la aplicación, el desarrollo, el control y la garantía de su cumplimiento de los Gobiernos, Diputaciones y Ayuntamientos; en definitiva, de la Administración y de sus funcionarios.

La legislación parlamentaria de la CAV y de Navarra reconocen a la Real Academia de la Lengua Vasca como la Institución consultiva oficial en materia ligüística (55). Por tanto, el cometido propio de la Academia es emitir informes y a ello se limita su campo de acción. Los siguientes pasos a adoptar para el logro de la normalización de la onomástica en el ámbito social es competencia de los poderes públicos. A ellos les compete legislar los nombres oficiales, así como establecer los mecanismos para cumplir y hacer cumplir las leyes en vigor (56).

Cuando se alcance el pleno cumplimiento de estos requisitos, cuando todos nuestros nombres se plasmen y se expongan oficialmente de forma correcta, nuestro pueblo y nuestra cultura habrán logrado recuperar una parte importante de su personalidad y se habrá conseguido, asimismo, salvar un aspecto importante de la dignidad y prestigio de nuestra lengua, al menos en el campo de la onomástica, cada vez más difundida dentro y fuera de nuestro entorno geográfico.

---

(54) Mitxelena, K. (1978-2:470).

(55) Artículo 10. 1 de la Ley 10/1982 de la CAV y artículo 8 de la Ley Foral 18/1986 del Vascuence.

(56) José Luis Lizundia analiza con detalle todo este asunto en su artículo "Desarrollo normativo en materia onomástica", expuesto en el XX Congreso Internacional de Onomástica, OICOS, 1999.

Bibliografia:

ARANA, S. (1897):
- *Egutegi bizkaitarra*, Bilbao.
- (1897): *Tratado etimológico de los apellidos euskéricos,* Bilbao.

ARANA, S. – ELEIZALDE, L. (1910): *Deun-ixendegi euzkotarra / Santoral vasco*, Bilbao.

ASTARLOA, P. P. (1800): *Discursos Filosóficos sobre la Lengua Primitiva o Gramática y Análisis Razonada de la Euskara o Vascuence* (1983an moldatu eta argitaratua), Bilbo.

CAMPIÓN, A. (1985): "Datos históricos del Reino de Navarra" in *Obras Completas*, 14. alea, Mintzoa, Iruñea, 1985.

CARO BAROJA, J. (1945):
- *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina,* Salamancako Unibertsitatea, (1990ean berrargitaratua, Txertoa, Donostia).
- (1982): *La casa en Navarra*, Caja de Ahorros de Navarra, Iruñea, 4 lib.

EUSKALTZAINDIA (1979): *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Bilbo.

EUSKALTZAINDIA eta EUSKO JAURLARITZA (1986): *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herrien Izenak*, Gasteiz.

EUSKALTZAINDIA eta NAFARROAKO GOBERNUA (1990): *Nafarroako Herri Izendegia /Nomenclátor Euskérico de Navarra*, Iruñea.

ETXAIDE, J. (1985): "Euskal pontizen zahar batzuk aztarrikatuz", *Euskera* XXX, 2, 513-525 orr.

ECHAUE, Baltasar de (1607): *Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra Bascongada*, México. (Faksimilaren berrargitalpena La Gran Enciclopedia Vasca-n, 1970).

GARCÍA GALLARÍN, C. (1998): *Los Nombres de Pila Españoles*, Madrid.

GOENAGA MENDIZABAL, P. (1995): "Euskararen batasunaz eta duintasunaz (Patxi Goenaga Mendizabal euskaltzainaren sarrera-hitzaldia)", *Euskera*, 40, 651-667 orr.

GORROCHATEGUI CHURRUCA, J. (1984): *Onomástica indígena de Aquitania*, Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua-Salamancako Unibertsitatea.

GORROTXATEGI NIETO, M. (2000): "Evolución del nombre de pila en el País Vasco peninsular", *Fontes Linguae Vasconum,* 32: 1, 151-168 orr.

GORROTXATEGI NIETO, M. – SALABERRI ZARATIEGI, P. (1999):
- "Hiri izendegia: Irizpideak eta erabiltzeko arauak (I). Donostia/San Sebastián", *Euskera*, 44, 1, 583-588 orr.
- (2000): "Toponimia txikia arautzeko irizpideak", *Euskera,* 45, 273-314 orr.

HUMBOLDT, Wilhelm von (1821): *Los primitivos habitantes de España*, (1990ean berrargitaratua, Polifemo argitaletxean, Madril).

IÑIGO ARIZTEGI, A. (1996):
- *Toponomástica Histórica del Valle de Santesteban de Lerín (Regata del Ezkurra)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- (2000): "Nombres de Oficios en la oiconimia navarra" *Fontes Linguae Vasconum*, 32: 1, 135-145 orr.

IRIGOIEN, A. (1994): *Pertsona-izenak euskaraz nola eman (eta exotoponymiaz eraskin bat)*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao.

JIMENO JURIO, J. M. (1991): *Nafarroa. Toponimia eta Mapagintza / Navarra. Toponimia y Cartografía.* 2. argit., Iruñea.

KNÖRR, H. (1999): "Nombres de persona en el País Vasco: cuestiones históricas y de normalización", *Fontes Linguae Vasconum,* 31: 1, 135-154 orr.

LIZUNDIA ASKONDO, J. L. (1998):
- "Ante la nueva situación en materia de toponimia: legislación comparada entre diversas comunidades autónomas bilingües y otros países. Dificultades e intercambios". *XXIV Col.loqui de la Societat d'onomàstica.* Eivissa, 10 i 11 d'octubre de 1998.
- (1999): "Desarrollo normativo en materia de onomástica", XX. ICOS Nazioarteko Onomastika Biltzarra, (inprimategian).

LUCHAIRE, A. (1879): *Études sur les idiomes pyrénéens de la region française suivi de recueil de textes de l'ancien dialecte gascon*, (1973an berrargitaratua, Slatkine Reprints, Génève).

MENDIGUREN BEREZIARTU, X. (1994): "Euskaltzaindiko Exonomastika azpibatzordearen proposamenak: historia eta irizpide nagusiak", *Euskera,* 39-2, 1333-1354 orr.

MENÉNDEZ PIDAL, R. (1952):
- *Toponimia prerrománica hispana*, Gredos, Madril.
- (1962): *En torno a la lengua vasca,* Espasa-Calpe Argentina, S.A., Buenos Aires.

MITXELENA K. (1953):
- *Apellidos vascos,* (3. argital., Txertoa, Donostia, 1973).
- (1961): *Fonética Histórica Vasca,* (3. argital., Donostia, 1985).

– (1964): *Textos arcaicos vascos*, Madril.
– (1978): "Udal Izendegia. Hitzaurrea", *Euskera,* XXIII (2. aldia), 313-316 orr.
– (1978): "Arantzazutik Bergarara", *Euskera*, XXIV (2. aldia), 467-477 orr.
– (1987): *Palabras y textos*, Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo.
– (1988): *Sobre historia de la lengua vasca*, SFVJU, Donostia.

MORAN I OCERINJAUREGUI, J. (1996): *Consideracions sobre l´onomàstica*, Institut d´Estudis Catalans.

MUGICA, G. (1915): "En torno a la toponimia. Complemento necesario", *Euskalerriaren alde* aldizkaria, V. urtea, 107 zb. 323-327 orr.

OIHENART, Arnaud d´ (1637): *Notitia utriusque Vasconiae*, (1656ko argitalpenaren faksimila 1992an berrargitaratua, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz).

RABELLA, J. A.: "Toponimia: problemes i mètodes". XXV Col.loqui de la Societat d´Onomàstica. Sagunt. 1999ko otsaila, (inprimategian).

SALABERRI ZARATIEGI, P. (1997):
– "Nafarroako Toponimia Nagusiaren Normalizaziorako irizpideak", *Euskera*, 42, 3, 653-666 orr. / (1998), "Criterios para la normalización de la Toponimia Mayor de Navarra", *Fontes Linguae Vasconum*, 30: 3, 363-376 orr.
– (1999): Ikus Gorrotxategi Nieto, M.
– (2000): Ikus Gorrotxategi Nieto, M.

SANTAMARINA, A.: "Viaxe pola onomástica galega", XX. OICOS Nazioarteko Onomastika Biltzarreko Sarrera-hitzaldia, 1999ko iraila, (inprimategian).

SATRUSTEGI, J. M. (1999): "Euskal izendegiak", *Euskera*, 44, 1, 591-598 orr.

TERRADO, J.: (1999), *Metodología de la investigación en toponimia*, Zaragoza.

URRUTIA BADIOLA, A. (1998): "Legeen zirrikituetatik barrena: ahozkotik idatzizkora (Andres Maria Urrutia Badiola Euskaltzaindian sartzea)", *Euskera,* 43, 13-47 orr.

VILLASANTE, L. (1978):
– "Euskaltzaindia eta euskararen batasuna" *Euskera*, XXIV (2. aldia), 443-444 orr.
– (1972): "Euskaltzaindiaren agiriak -Aramaioko hitzaldiak-", *Euskera*, XVII, 154-177 orr.

MENDEBALDETIK EKIALDERA: ERROMES BATEN OHARRAK

Ituren, 2000-V-27

Andres Urrutia Badiola,

Andrés Iñigo Euskaltzaindian sartzeari erantzunez

Eguerdi on,

Gaur gertatzen da, duela hamahiru urte gertatu zen modu berean, Euskaltzaindiak bere barruan sarrera egitea Nafarroako euskaltzain oso berri bati. Oso eta berri, horra hor bi izenondo, bata bestearen aldamenean jarriak eta gure gaurko zereginari aitzakia ederra eskaintzen diotenak. Izan ere, garai hartan Xarritton euskaltzainkideak egin zion oles, Iparraldetik etorrita, Patxi Zabaleta nafarrari, horrek ate-irekitze lanean erraztasun eta erosotasunik zabalenak izan zitzan. Ahots berria etorri zen Euskararen Akademiara egun hartan eta gaur ere, ahots eta ekimen berriei egiten dizkiet nik hemen, Mendebaldetik etorrita, diosala eta agurrak, pozarren eta alaitsu.

Mendebaldetik natorrela esan dut eta halaxe aitortu beharrean nago. Bizkaitik nator, behinola Iruñeko Erresumaren eskualdea izan zen Bizkaitik bertatik, eta erromes ikusten dut neure burua, Euskal Herriko Ekialde honetara iristean. Erromes nator, Euskaltzaindian sartzeko une honetan Andres Iñigo adiskideari bide-laguntza eman nahian, jakin eta ikusguraz bete-beterik.

Erromes dabiltzanek bidaidea behar eta horra hor, neronek Euskaltzaindiaren ate-irekitze horretan laguntzaile izan nahi eta non dudan nire eskura nafar bidelagun apartekoa, egun euskaltzain oso hartzen dugun Andres Iñigo Ariztegi bera, hain zuzen ere. Berez eta ohorez dugu euskaltzain nafar bipil hau. Izenez eta izanaz —menturaz, horretara erosoago ikusiko luke berak bere burua— eta, zeresanik ez, jakituriaz eta egokieraz.

Bidaia luzea izan daiteke Nafarroako hori eta, bidaide aukeratu zaitudanez, Andres, nire erromesaldi horretarako, zilegi bekit zure merituak aipatzea, bidaidetza lan horretarako.

Sortzez Iturengo semea izanik, bizitzez, ostera, Iruñean dugu aspaldi honetan Andres Iñigo. Maria Pilarrekin ezkondua eta bi seme-alaben, Oihana eta Garikoitzen aita da. Irakaskuntza izan du bere gogoko ekintza. Euskarazko ira-

kaskuntza, hain justu ere. Hizkuntza Eskola Ofizialean euskara irakaslea izan zaigu, eta egun ere bazaigu gure Iñigo euskaltzain berria. Hogeita bat urte luzez jardun du halakoetan, horietatik hamazazpi zuzendari karguan. Baita maisuki erakutsi ere bere trebezia eta esku ona, euskararen nondik norakoak Nafarroan antolatuz. Funtzionariotza —halaxe diote anitzek— bizimodu baretsu baterako giltzarria omen. Andres Iñigoren kasuan, berriz, kezka-buru eta ardura iturri, etengabe ibili baita, hara eta hona, euskararenak zertzen eta atontzen. Ikastaro trinkoak, EGA titulua emateko azterketak eta Nafarroako Euskararen Kontseilukidetzak eman dute lekukotasunik zehatzena, orain arte esan eta eginarena.

Ez dator, hala ere, Andres Iñigo esku hutsik Akademiara. Emendio onak ditu besapean, nola tituluak —lizentziatura eta doktoregoa, Filosofia eta Letretan—, hala etxeko lanak, azken hamalau-hamabost urteotan ari eta ari diharduelako Akademiagintzan.

Ari eta ari esan dut, ari izanarena baztertzea legezkoa ez bada ere. Eginen artean, Euskaltzaindiaren X. Biltzarra, A. Campionen mendeurrenaren antolaketa batzordekidetza (1984). Orobat *euskaltzain urgazletza* (1987), *Onomastika batzordekidetza* (1988), III. *Onomastika Jardunaldiak* (1990), *Jagon Sailkidea* (1991), *Ahoskera Jardunaldiak* (1998) eta abar.

Abar horrek ez lidake bidea itxi behar, basoaren argigunea ikusi eta aipatzeko. Besteak beste, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaritza. Ez da, ez, lan samurra izango egunerokotasun horrek izan dezakeen pisuari eustea. Hor ere, egunak ordu eta orduak egun, Nafarroako euskararen alde, langile aspertuezin baten ahalegina, gaur gure artera batzen duguna.

Erromes natorrela lehen adierazi dizuet. Nondik natorren ere azaldu. Zertara natorren... ez behar bezain argi. Ikustera eta ikastera, nafarren izena eta izana ezagutzera eta, ahal den neurrian, erresuma horren euskara-zantzuak jasotzera.

Bidelagun nahi dut Andres Iñigo eta harenak ditut, argi dago, eguerdi honetako norabideak, Nafarroan zehar, zuokin batera, egin nahi dudan erromesaldi honetan.

Erromesa, sarri askotan, bideari ekin aurretik, ernegaturik egon ohi da. Uzkur, burumakur, oinak zirkin erkin, erromesaldia bukatzeko gauza izango ote den kezka biziarekin. Orduantxe behar da laguntzailea. Harengana noa, eta Andres Iñigok erakusten dit bidea, zabal bezain egoki. Habil tentu handiz —badiost berak belarrira—, sarritan sasileku eta estropezu harriak aurkituko baitituk.

Haren atzetik jarri eta bagoaz biok, Nafarroaren euskalgintza barna, ikasteko gosekide.

Lehen-lehenean, JAGON Saileko lurrak ikusi ditugu. Lur-esparru zabalak, euskararen babesak behar dituen adinakoak. Halakoetan otsorik ez ote da-

goen galdetu diot neure bidaideari eta, hark, erantzule zuzen, datuak tropelka eman, Nafarroako kontu-arrazoiak eskainiz.

Egia esan, beti ezagutu dut kezkatsu eta trebe Iñigo jauna, Jagon Sailaren zereginetan. Betidanik izan du ardura, euskara bera zailtzen duten oztopoena. Aukerak eta abaguneak bilatu ditu euskararentzat, Euskaltzaindiak berak sortzetik dituen eginkizun haietatik abiatuta: *Jagon eta Iker*. Andres Iñigok, dena den, Nafarroako txokora ekarri nau amultsuki, eta behaztopak hitzez hitz erakutsi. Honetara dio berak:

Vascuenceren legeak, hizkuntza eskubideei dagokienez, ez du ezer lotzen eta legealdi bakoitzeko Gobernuaren esku gelditzen dira legearen garapenerako hartu behar diren erabakiak[1].

Bertzetik, irakaskuntza arlotik kanpo: administrazioan, hedabideetan, kultura eta kirol munduan, giza-zerbitzuetan, lan-munduan, etab. legeak deus lotzen ez duenez, ezta Gobernuak medioak jartzen ere, erran daiteke ez dela aurrerapauso nabaririk egiaztatzen ahal.[2]

Beltz jarri dit ikuspegia Andres Iñigo adiskideak. Erromes dabilen honek, ibiltari, Nafarroako gizarteari buruz galdetu izan dio bere aldamenekoari. Bai aurpegia piztu ere horren aldetik! Alde-aldera, datu zehatzak, bost urteotan bilduak[3].

Urtea	Alde	Aurka	Ez alde/ez aurka
1991	%22	%54	%24
1996	%38	%32	%30

Euskara ikasten ari diren helduena ere, onesgarri[4]:

Urtea	Euskaltegi Publikoetan	Euskaltegi Pribatuetan	Osotara
1989	1096	2189	3283
1999	2541	3560	6101

[1] IÑIGO, Andres: «Nafarroa: Euskara bermatzeko bide berriaren beharra», *Euskera*, XLIV (1999), 998. or.
[2] IÑIGO, Andres: «Nafarroa: Euskara bermatzeko bide berriaren beharra», *Euskera*, XLIV (1999), 999. or.
[3] IÑIGO, Andres: «Nafarroa: Euskara bermatzeko bide berriaren beharra», *Euskera*, XLIV (1999), 999. or.
[4] IÑIGO, Andres: «Nafarroa: Euskara bermatzeko bide berriaren beharra», *Euskera*, XLIV (1999), 1000. or.

Bide batez, aipagarri izan daiteke umeen daturen bat ematea, Nafarroan euskararen itxaropena, batez ere nahitaezko irakaskuntzan, horietan islatzen delako. Hori dela eta, honako hauek dira aurten lehendabiziko aldiz aurrematrikulatu diren hiru urteko umeen datuak: Nafarroa osoan, %31 D ereduan (iaz baino %3 gehiago) eta A ereduan %30,78 (iaz baino %1,5 gehiago); gainerako %38,17 G ereduan (erdarazkoan). Datuak Hezkuntzako Euskara Zerbitzutik jasoak dira.

Onespenerako bideak, nonbait, euskararentzat Nafarroan, eta ekimen euskaltzale berriak Ekialdeko euskal herri honetan.

Jagon Sailak, lehen esan legez, sustapen eta zabalkunde lana dakar euskararentzat. Lan gaitza, egungo giro politiko nahasia ikusita. Lan egingarria, Euskaltzaindia bezalako erakunde batentzat, horretan baitago beraren zeregin nagusia, alegia, alderdi politiko guztietatik at, inolako ideologia edo banderapean jokatu beharrean, euskararen izenean jokatzeko, guztiontzat zabalik, euskararen onerako eta duintasunerako.

Hortaz, ez du nahi Akademiak euskara bera zokoratua izan dadin eta bazterretan gal. Aldiz, bizi-bizirik eta egungo gizartearen premiei artez egokitua nahi du Euskaltzaindiak euskara bera, batua eta tokian tokiko ezaugarriei atxikia, Mendebalde, Erdialde, Ekialde zein Iparraldearen eskakizunak aintzat hartuak, betiere, Euskal Herria bera osatzen duen ezaugarritasuna gutxietsi gabe.

Jagon Sailaren lur zabaletan barne, txitean-pitean, etxeak ageri izan zaizkigu. Erromesak, zirtolari, bidaideari esan dio: Nafarroako etxe horiek, zer-nolakoak?

Galderak, nolanahi ere, ez du ustekabean harrapatu gure euskaltzain berria. Berak badaki etxe horiek —berrikitan esan digu eta— izana eta izena badituztela, eta luze ibili da bi horien peskizan. Erromesak ere badaki hori, eta ihardespena entzunaz batera, ikusi du Andres Iñigo bera, azalpen-emaile. Baditu horretarako dohain eta merituak. Izan ere, aspalditik igarri zion onomastikari euskaltzain berriak. Horretarako, haren *Ituren udalerriko toponimia* (1985), edota doktorego tesia, *Malerreka inguruko toponomastikari buruz egindako lana* (1996) eta Patxi Salaberrirekin batera, *Nafarroako antroponimia XVI eta XVII. mendeetan* (1994), hainbat lekutako toponimiari buruz egin dituen azterketak ere bazter utzi gabe. Oraintsu ere, Nafarroako oikonimia lagun, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkari ospetsuan bere lana plazaratu du, Nafarroako ofizio eta ogibideen zertzeladak emanez. Gailendu da, beraz, gure Andres Iñigo gai horietan. Gustuko eta atsegin osokoenak dituela ere ezin uka. Badirudi horretara batu dituela afizioa eta ofizioa.

Non, ostera, haren jarduerarik nabarmenena? Zalantzarik gabe, Akademiaren Onomastika Batzordean. Urte isil askoren emaitza hor, gure eskura, *Nomenclator* eta abarrekoetan mamitua.

Nafarroari dagokionez, bego, esanaren adierazgarri, berak lehen aipatu digun *Nafarroako Herri Izendegia* edota Euskal Herri osorako *Euskal deituren izendegia.* Berak azaldu digunez, onomastika alorraren sail zehatz batzuetan ondutako lanak dira horiek, gizarteak berak dituen edo izan ditzakeen premiei erantzuna emateko.

Iñigok argi ikusi ditu onomastikaren beharra eta horren esanahia gaurko gizartean. Euskararenak kezkatzen du eta euskaratik abiatzen da, hortik norabidetzen baititu bere ahaleginak onomastika gorabeheretan. Hortik dator, etorri ere, haren azalpenaren goiburua: *Onomastika euskararen normalizazioan.*

Badaki, orobat, alferreko saioak izan daitezkeela horiek, zentzuz eta taxuz egiten ez badira eta, oro har, itzaldun erakunde baten eskutik plazaratzen ez badira.

Erakunde hori, lege-aitorpenez eta lanez, Euskaltzaindia ikusten du. Badaki Andres Iñigo jaunak ere, azken onespena Euskaltzaindiari dagokiola eta honek estu jokatu behar duela, euskarari ere aitor dakion edozein hizkuntzari zor zaiona.

Horrexegatik, euskara batua eta hizkuntzaren kalitatea ekarri ditu agerira. Bi horietan ikusten dut haren larria, pertsona orori dagokiolako, mintzamena bezalaxe, izena. Izena ere, esan gabe doa, lekuetara zabaltzen da, eta bere legeak ditu, hizkuntzaren arabera. Ezagunak ditu Iñigo jaunak euskararen izenean gauzatu diren aldrebeskeriak, onomastika eta toponimiaren arloe-

Ezkerretik eskubira: Juan Ramón Elorz, Nafarroako Gobernuko ordezkaria; Jose Mari Gorosterrazu, Iturengo alkatea eta Andres Urrutia Badiola, berbaldia egiten.

tan. Horiei bidea erraztu baino gehiago, denon onerako jokatu nahi du nafarrak. Horrexegatik egiten dio alde onomastika zentzudun horri, euskararen erroak eta sustraiak ondo ikertu, eta formula komunak iristeko gauza dena.

Ez da erraza, antzinako tradizioaren eta oraingo boladen arteko tenkadura bizian baitago euskararena. Halakoetan ere boladak eta aldiak ditugu eta, jakina, bolada eta aldi horiek nolabait gaineratu, eta hizkuntzari zor zaiona egoki moldatu.

Badira, tartean, Andres Iñigo eta Patxi Salaberriren hitzak, Nafarroako sustraiak eta zimentarriak erakusten dizkigutenak Onomastika gaietan. Entzun ditzagun horiek:

Kontua da Nafarroako XVI eta XVII. mendeetako dokumentazioan XIV. mendean azaltzen ziren izenetako asko eta asko artean ere bizirik zeudela, hots, normaltasun osoz ibiltzen zirela. XVIII. mendean ere uste dugu izen horietako franko azaltzen direla, baina gure ikerlanak batik bat lehenagoko aipatu bi mende horiek izan ditu xede, eta oraingoz horietara mugatuko gara. Izenok horren "berandu" arte bizirik egoteak bide eman diezaguke, gorago erran dugun bezala, gaurregun ere horietako asko eta asko erabilgarri izan daitezkeela, alegia, umeak bataiatzeko orduan ponteizentzat jar dakizkiekeela pentsatzeko. Bestela ere hor daude gure euskal autore zaharrek ibiltzen dituzten hainbat sainduizen, batzuetan kanpoko pertsonaia entzutetsuen izenen euskal erabilera zuritzeko ibili izan direnak, baina bestalde baditugu dokumentazioan hain arrunt eta ugariak diren pertsonaizenak, bai eta halaber (hagio)toponimian eta oikonimian aurkitzen ditugun hainbeste izen jator, eta tamalgarria da ikerketarik ez eginagatik honelakoak gehiago aintzakotzat ez hartzea, bi alor horiek harrobi (izenobi, alegia) aberatsa izaki eta.

Hiru iturburu nagusi, beraz, antroponimia zehazterakoan: dokumentazio zaharra, euskal autoreak, eta hagiotoponimia eta oikonimia.

Nolanahi ere, antzinako eta tradiziokoei muzin egin gabe, gaurkoaren pentsamenduan jarraitzailea:

"...gaurregun ere horietako asko eta asko erabilgarri izan daitezkeela, alegia, umeak bataiatzeko orduan ponteizentzat jar dakizkiekeela..".

Lan erosoa denik ezin baieztatu. Hortxe ibili ohi dira onomastika batzordekoak, Iñigo jauna barruan, borroka bizian sartuta, zer bakoitzari nondik heldu, euskal tradizioan eta agiritegian. Norbanako batzuen ameskerietan baino, oinarriak dituen onomastika berri baterako abiadan.

Abiatze hori gizarteak berak eskatzen du, euskararen baitan bizi nahi horretan. Euskarak berak ere, batasunaren zurrunbiloan murgilduta, badu zer zehaztu, onomastikaren alorrean, eta zehazte lan hori ez da, sarri askotan, lan erraz eta arina.

Batasunaren on-gaitzak horiexek ere... Batasuna eta, esan beharrik ez badago ere, kalitate kontuak, sistematizazio zehatza behar duelako horrek, norberekeriak alde batera utzita eta euskararen duintasunari zor zaiona gordeta.

Ez bitza inork nire hitzak okerretara uler. Ez naiz ari —ezin— norberak izenak aukeran erabiltzeko eskubideaz, ezta gure mendiak, kaleak, herriak, basoak eta abar lehendik zituzten izendazio horiek aldatzeaz ere. Ari naiz, dudamuda nimiñoena ere izan gabe, euskal izenak (antroponimoak, toponimoak eta abar) zeintzuk eta, horien aldeko hautua eginez gero, nola eta zein modutan gomendatu eta erabili beharraz.

Lan hori, bestela badirudi ere, ez da aspaldiko jakituria itxiaren adierazle, edota aditu gutxi batzuek euren goi mailako bilera itxietan asma dezaketen kontua. Lan horrek egunerokotasun osoa du, egunean-eguneangoak aldarrikatu baitira edonon, euskal izenen korapiloak. Hitz batez esateko, gizartean txertatua dugu hori eta Euskaltzaindiak horri egin behar dio jaramon, indarge eta tolesgabe ikusi nahi ez badu bere burua gizartearen aurrean.

Nabarmen gerta dakiguke, horien artean, euskal izen eta deituren arazoa. Hori entzun dugu azken urteotan, barra-barra, aldizkari eta komunikabideetan. Kanpainak ere antolatuak izan dira, euskaldunon deituren grafiak gaurkotzeko eta euskalduntzeko. Orobat, gure kale, mendi, baso, erreka eta leku-izenak auzitan izan ditugu maiz euskara bera tartean dugula, Nafarroan (Iruña/Iruñea) zein Bizkaian (Bilbo/Bilbao).

Askorentzat halako eztabaidak eta katramilak alferrekoak izan arren, euskararentzat aberasgarri direlakoan nago, Euskaltzaindiak berak argitu behar izan digulako, lehen esandako zimentarriak aintzat hartuta, zein den euskarari dagokiona.

Onomastika batzordea izan da horren protagonista eta, horren harira, Andres Iñigo euskaltzain berriarekin batera, ezin isildu Nafarroan Jimeno Jurío eta Patxi Salaberriren eginak, Nafarroatik bertatik eta beren beregi burutuak, sarri askotan Andresekin batera. Ezin ahaztu eta eskerrik gabe utzi Satrustegi euskaltzainkidea ere, egungo baino latzagoak izan ziren urte haietan lan eskerga egin zuena, euskararen onerako eta Nafarroan bertan, onomastika bera modurik sutsuenean jorratuz. Orobat, Ondarra eta Salaburu nafar euskaltzainkide errime eta jatorrak.

Bada garaia, haatik, onomastika horren inguruan Euskaltzaindiak praktikara eraman dituen kontu batzuen berri eman dezagun. Hartara, azpimarratu:

a) Hego Euskal Herrian, Nafarroan eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan, onartu da, legez eta historian lehendabizikoz gainera, euskal deiturak ortografiaren ikuspegitik egokitzeko prozesua Euskal Herrian bertan burutik burura egitea, Madrilera agiriak igorri gabe, orain arte egin izan den bezala. Hortxe ditugu azaroaren 5eko 40/1999 Legea eta berori garatu duen erregelamendua, otsailaren 11ko 193/2000 Errege Dekretua. Hortxe aldarrikatu da, modurik ofizialenean, zein beharrezko den grafia zuzena erabakitzeko ahalmena.

b) Erabakitze eginbehar horretan, eta euskarari dagokionez, Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo ere -hainbat izen eta deitura euskaldun dabiltzalako barreiaturik estatuan zehar-, Euskaltzaindia da erakunde ofiziala eta, horren ariora, haren *Euskal deituren izendegia* delakoa, zirt edo zart egitekoa, argitalpen ofiziala den aldetik. Horra hor, besteak beste, ortografia eta gramatika kontuetan euskarazko izenak eta deiturak zehazteko eta finkatzeko lanabesa.

Izenak eta deiturak, halaxe esan dut, eta halaxe diot, makurretan ibili gabe, ondotxo baitakit izenena, oraindik behinik behin, laugarren argitalpenaren zain duela Euskaltzaindiak. Halakoa aurki izango dugula uste dut, eta bertara bilduko dira azken urteotako berrikuntzak eta bestelakoak.

c) Euskaltzaindia bera, hau ere historian lehendabizikoz, zuzeneko harremanetan jarri da Justizia Administrazioarekin, onomastikaren alorrean duen informazioa erregistro zibiletan zabaltzeko.

Dagoeneko, bilerak izan ditugu Bilbon, aurtengo martxoaren 11n, eta Donostian, maiatzaren 6an, bake epaileei eta Erregistro Zibileko arduradunei Euskaltzaindiaren langintza hau adierazteko. Emaitzak ere laster izango ditugu eskura, bilera eta jardunaldi horietan eskaini baitu bere burua Euskaltzaindiak, euskal onomastikaren inguruan suerta daitezkeen zalantzak argitzeko.

Horretarako egin dute ahalegin bere izia, Onomastika batzordeak eta, JAGON Saileko Sustapen batzordeak. Hemendik luzatzen dugu gonbitea Nafarroan ere bide bertsutik joateko, bertako onomastika altxorra ikertu eta zabaltzeko. Azken batean, nafarren eskuetan ikusi nahi luke Euskaltzaindiak ondare hori, euskararen on eta probetxurako.

Jagon Saila eta Onomastika Batzordea. Erromes etorri, bidaia egin eta Andres Iñigo adiskidearen alorrak ezagutu izan ditugu. Berak aurreko bi horietan esparru maiteenak eta habiak, irakaskuntza ere ahantzi gabe. Xedeetan barne, euskara batua, kalitateduna. Goiburuan, Nafarroa eta Euskal Herri osoa.

Hala ikusten dut nik neuk Andres Iñigo bidaidea, zuokin batera egin dugun erromesaldi honetan. Ez dakit bide zabalegietan ez ote garen ibili. Nago, eta nire ezinegonak horretara narama, ez ote dugun bidezidorrik soil-soilean zapaldu, Nafarroako euskalgintzaren esparru oparoak arreta abegikorragoa eskatuko bailiguke. Betoz horretarako ahaleginak. Atsegin eta pozkarioz onartuko ditugu.

Hurrengoaren zain, beraz, geratu behar. Bien bitartean, zuri, Andres Iñigo adiskide horri, nagokizu. Andres batengandik Andres batengana: Zorionak. Zatoz guregana eta ekar iezaguzu zure nafartasuna, zure euskalduntasuna.

Egizu zuk ere, behinolako euskal idazle urdazubiar eta goraipatu —bera ere inguru honetakoa— haren antzera, gure artera etorri eta egon zaitez, gurekin batera, *konpainia on batean, euskaldunik baizen ezen lekuan.* Orduan bezalaxe, *solasak eta perpausak* denon artean jarriko ditugu.

ANDRES IÑIGO ARIZTEGIREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEAN EUSKALTZAINBURUAREN MINTZALDIA

Ituren, 2000-V-27

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Jose Mari Gorestarrazu alkate jauna eta herri honetako zinegotziak,
Juan Ramon Elortz Nafarroako Gobernuaren ordezkari jauna,
Bertze agintari, parlamentari eta alkateak,
Euskaltzain andrea,
Euskaltzain kideak,
Andres Iñigoren familia,
Jaun-andreak.
Eguerdi on.

Zuri, lehenik, alkate jauna, esker-hitzak, zuri eta herri honetako zinegotzi guziei, hemen iragan baititugu bi egun lan ona eginez, atzo goizeko 10etatik ordu biak arte eta arratsaldean 4,30etarik zazpiak arte, eta ukan baitugu harrerarik hoberena udaletxean. Euskaltzaindiaren izenean, beraz, har itzazu eskerrik beroenak.

Iturenen dago egun Euskaltzaindia. Baina zer da Euskaltzaindia? Duela 82 urte Euskal Herriko lau diputazioek sortu zuten euskararen zaintzeko eta bultzatzeko Euskaltzaindia izena hartu zuena. Hamabi euskaltzain ziren orduan, 9 Hegoaldekoak, 3 Iparraldekoak, orain 24 garelarik, haietan 17 Hegoaldekoak eta 7 Iparraldekoak, ni barne. Gutartean badugu, oroxtian agurtu dudan emakume bat, erran nahi baita guk laurogei urtez egin dugula espainiol Akademiak eta frantses Akademiak egin ez dutena 300 urtez. Euskal Herri osoa bildua da Euskaltzaindian, bere euskalki guziekin. Eta, hain zuzen, euskalkiak aipatzearekin, nahi nuke argi eta garbi adierazi Euskaltzaindiak, duela orain hogeita hamar bat urte pentsatu baldin bazuen behar zela euskara batua sortu eta bultzatu, ez dituela sekulan ez arbuiatu eta ez baztertu euskalkiak.

Gure lehenbiziko euskaltzainek hartu zituzten xedeak 1920.eko hamarkadan, erranez behar zirela landu hiztegia eta gramatika, behar zela ere Hizkuntz Atlasa egin eta euskara literario bat bultzatu. Guk, gure belaunaldiak, azken 30 urteetan betetzen ditu xede horiek. Batzordeen bitartez egiten du lan Euskaltzaindiak. Hiztegigintzan 12 liburuki agertuak dira, Gramatikan 5 liburuki

dira lanaren lekuko; Dialektologi batzordea Hizkuntz Atlasaren obratzen ari da, aurten publikatu delarik Antologia bat eta pentsatuz datozen urteetan kaleratuko direla hamar liburuki beren koloreetako mapa ederrekin. Ez dut aipatuko Onomastika batzordea, uste baitut jakin duzuela zer den eta zertan ari den Andres Iñigo eta Andres Urrutiaren mintzaldiekin. Bi hitz, aldiz, Literatura batzordeaz. Estilistikako hiztegi baten lantzen ari delarik, sustatzen ditu biltzarrak eta kongresuak gure lehenagoko idazleei buruz, hala nola ohoratu dugularik Oihenart, XVII. mendeko idazlea, 700 orrialdeko liburu mardul batek biltzen dituela eginikako mintzaldi eta txostenak.

Lan horien sustatzeko ez da bakarrik ari Euskaltzaindia, biltzen baititu gure unibertsitateetan euskarari buruz bermatzen direnak, izan ditezen euskaltzain oso, urgazle edo bakarrik batzordekide. Argi dago, beraz, zer den Euskaltzaindiaren jokamoldea, denen biltzea, euskalki guzien biltzea, euskararen alorrean lan egiten duten irakasle-ikerle guzien biltzea, helburua finkatuz eta koordinaketa eginez. Hori da Euskaltzaindiaren xedea, horretan murgildu da 30 urtez eta segituko du urratu bidea hemendik aitzina.

Azken urte hauetan Euskaltzaindiak aldatu du bere arautegia. Lehen, hiltzen zelarik euskaltzain bat, euskalki bereko bertze euskaltzaina izendatzen zen. Aldaketa eginez gero, jadanik euskalki bereko hiru euskaltzain baldin badira, hutsik dagoen aulkia libre da, erran nahi baita edozein euskalkitako batek bete lezakeela, kontutan hartuz gutiengoa hiru izanez gehiengoa zortzitan dagoela euskalki batentzat. Hori gertatu da iaz, hautatu dugularik nafar bat, Andres Iñigo Ariztegi, bizkaitar bat Federiko Krutwig zendu delarik. Hauxe da lege berria, bete daitekeena ala ez, bainan orain Nafarroak bost euskaltzain baditu.

Euskaltzain berriaren hitzaldia entzun duzue, bertze euskaltzain baten erantzuna ere. Euskaltzain berriak hautatzen du non eginen duen sarrera hitzaldia eta nor izanen den erantzulea. Parisen frantses Akademian, Madrilen espainiol Akademian, beti Akademiaren egoitzan irakurtzen dira sarrera mintzaldiak. Guk, Euskaltzaindian, bertze ohidura bat daukagu. Gehienetan sortu den herrian edo bizi denean egiten du sarrera euskaltzain berriak eta hori gauza ona da. Alabainan herri batek bere semeari emaiten ahal dio merezi duen ohorea, hauxe bera gertatzen dena, gaur, Iturengo herri honetan, hainbertze jende bildua ikusten baitut gela nagusi honetan. Bai, Andres Iñigo Ariztegik bildu ditu egun bere inguruan herritarrak eta adiskideak, Udalak haundizki ohoratzen duelarik. Herritarrek eta bereziki gazteek gogoan atxikiko dute luzaz gaurko ekitaldia.

Duela 455 urte agertu zelarik lehenbiziko liburua euskaraz, nafar batek, Nafarroa Beherekoa izanikan ere, idatzi zuen *Kontrapas* deritzan olerkia euskararen ohoretan, han ospatzen zuela Garaziko herria, sortu zen herria. Zioen lehenbiziko bertsuan:

Garaziko herria
Benedika dadila,
Euskarari eman dio behar zuen tornuia

Eta, nik, haren ildotik ibiliz, diot egun:

Iturengo herria
Benedika dadila,
Euskarari eman dio Iñigo euskaltzain berria.

Ohore, beraz, Iturengo herriari, berriz ere Euskaltzaindiaren izenean eskerrik beroenak eta Andres Iñigo Ariztegi euskaltzain berriari, ongi etorri.

GERHARD BÄHR-en MENDEURRENEKO EKITALDIA

Legazpi, 2000-V-06

EUSKALTZAINDIARI ONGI ETORRIA

Legazpiko Udaletxean, 2000-V-05

Juan Ramon Larrañaga,
herriko alkatea

Egunon guztioi eta ongi etorri Legazpiko herri honetara.

Guretzat ohore handia da Gerhard Bähr euskalariaren jaiotzaren mendeurrena ospatzen dugun urte honetan, Euskaltzaindiaren batzarra bertan izatea.

Egia esan, 1995.urtean, Gerhard Bähr-ren heriotzaren 50. urteurrena ospatu zenean, askok jakin genuen Legazpin euskarak liluratu eta horren garapenaren alde lana egindako legazpiar alemaniarra genuela.

Gaur egun Gerhard Bähr Legazpin ezagunagoa da eta jaiotzaren mendeurrena dela eta antolatutako egitarauarekin Euskal Herri osoan ere ezaguna izatea lortu nahi genuke.

Gerhard Bähr Alemanian bizi izan zen garaia oso nahasia izan zen, eta gaur Euskal Herrian bizi dugunarekin zerikusia duela esatera ausartuko nintzateke.

Baina giro hartan murgilduta Gerhard Bährek euskara ezagutu, maitatu eta horren garapenaren aldeko lana egin zuen, Euskal Herriari identitatea ematen dion elementu garratzitsuenetariko bat gal ez zedin ahaleginduz.

Zuen lana ildo beretik doa. Atzoko afarian ikusi nuen euskararen indartze bidean ez duzuela minutu bat ere galtzen. Beraz, animo eta berriro ere nire ongi etorria adieraziz lan bikaina egin dezazuela bihotzez opa dizuet.

Eskerrik asko.

GERHARD BÄHR

Legazpi, 2000-V-06

Juan Ramon Larrañaga,
herriko alkatea

Sailburu anderea, Diputatu jauna, Euskaltzaindiko lehendakari jauna, Bähr familia, jaun-andre, lagun guztiok: eguerdion eta ongi etorri Legazpiko herri honetara.

Atzo Euskaltzaindiko kideak agurtzeko aukera izan nuenean, Gerhard Bähr guretzat ezagun berria dela adierazi nien. Nik uste dut legazpiar gehienok 1995. urtean, heriotzaren 50. urteurrena ospatu zenean, jakin genuela Legazpin euskarak liluratu eta horren garapenaren alde lana egindako legazpiar alemaniarra genuela.

Gaur egun Gerhard Bähr Legazpin ezagunagoa da eta jaiotzaren mendeurrena dela eta antolatutako egitarauarekin Euskal Herri osoan ere ezaguna izatea lortu nahi genuke.

Gerhard Bähr Alemanian bizi izan zen garaia oso nahasia izan zen, eta gaur Euskal Herrian bizi dugunarekin zerikusia duela esatera ausartuko nintzateke.

Baina giro hartan murgilduta Gerhard Bähr-ek euskara ezagutu, maitatu eta horren garapenaren aldeko lana egin zuen, Euskal Herriari identitatea ematen dion elementu garrantzitsuenetariko bat gal ez zedin ahaleginduz.

Ospakizun honek oraindik egiteko geratzen zaigunarekiko konpromezua indartzeko balio dezala.

Eta bukatzeko, esker beroenak Gerhard Bähr-en urteurrena ospatzea bere lan bikainarekin posible egin duten batzordekideei.

GERHARD BÄHR-EN MENDEURRENAREN OSPAKIZUNA

Legazpiko Udaletxean, 2000-V-06

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Juan Ramon Larrañaga, Legazpiko alkate jauna.
Mari Karmen Garmendia, Kultura sailburu andrea.
Luis Mari Bandres, Gipuzkoako Kultura diputatu jauna.
Gerhard Bähr-en familia.
Jaun-andreak.
Egun on.

Zuri mintzo natzaizu lehenik, alkate jauna, bi hitzen aipatzeko: lehena, ohore zuri eta Legazpiko herriari; bigarrena, eskerren bihurtzeko. Eskerrak, harrera eder bat ukanik hemen iragan baititu Euskaltzaindiak bi egun oso lan ederra eginez, hain zuzen areto nagusi honetan. Azpimarratu nahi nuke atzo 24 euskaltzainetarik 23 bilduak ginela, aspalditxo honetan ikusiak ez genituenak, bai Patxi Zabaleta eta bai Aita Villasante euskaltzainburu ohia etorri baitira eta atsegin haundiarekin egin diegula ongi etorri anaikorra. Ohore ere, ez baitu Legazpik ahantzi sortu zela duela orain ehun urte euskalari ospetsu bat herri honen auzo baten, familiaz alemana, Gerard Bähr izenekoa. Jaio zen 1900.eko maiatzaren 6an. Egun berean mende baten buruan, bilduak gara aleman euskalariaren oroitzapenetan.

Egia da XIX. mendean euskalari jakintsu gehienak atzerritarrak zirela. Aipatzekoak dira Humboldt lehenik alemanetan XIX. mendearen hasieran eta Schuchardt, Saran egona euskararen ikasteko XIX. mendearen bukaeran. Halaber aurki daitezke Van Eys eta Ulhenbeck, Luchaire, Bonaparte printzea eta Vinson, horiei esker euskara agertu baita hizkuntzalaritza orokorrean. Mende honetan alemanek euskal ikerkuntzari ematen diote bultzada bat. Horiek dira Gerhard Bähr eta Karl Bouda, azken honek agertu zuela bertzearen tesia *Eusko Jakintza* agerkarian.

Ikusiz zer emaitza oparoa eskaintzen zuten atzerritarrek, Julio de Urkixok sortu zuen 1907an *Revista Internacional de Estudios Vascos* delako aldizkaria, hain zuzen biltzeko mundu guziko euskalarien lanak, finkatzen zirela denbora berean lokarri sendoak atzerritar eta euskaldun ikerlarien artean. Euskaltzaindia sortu zenean duela orain laurogei urte baino gehiago, are gehia-

go sendotu ziren lokarriak, zeren eta bere bigarren bilkuran, 1919ko urriaren 26an ohorezko euskaltzain izendatuak izan baitziren Hugo Schuchardt, Julien Vinson eta C.C. Ulhenbeck, urgazleetan sartuz Henri Gavel, Ramón Menéndez Pidal eta Parisko Saroïhandy. Geroxeago, azaroan, urgazle izendatu ziren Spencer Dodgson, H. Winkles, H. Urtel, T. Linschmann eta Albert Leon. Ikusten den bezala, Euskaltzaindiak eskuak zabalik bereganatu zituen ohorezko edo urgazle gisa orduko atzerritar euskalaririk ospetsuenak.

Bide bera segitu du oraingo belaunaldiak. Duela hogei urte, Gernikan eta Leioan Euskaltzaindiak bildu ditu mundu zabaleko euskalariak, sortaldetik sartaldera, erran nahi baita Japoniatik Estatu Batuetara, haien artean gehienak europarrak zirela, baina ohartuz halere hedatzen ari zela euskalarien eremua. Eta hain zuzen areto nagusi honen xoko batean ikusten baitut gurekin, gramatika batzordean lanean ari den ingeles euskalari bat, Alan King jauna, agurtzen dut plazerekin, erakusten dugula denbora berean sekulan baino gehiago harremanak badirela atzerritar ikerleen eta Euskaltzaindiaren artean.

Alabaina, garai berri batean bizi gara. Eusko Jaurlaritzak gobernatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan, Hezkuntza sailburu, Kultura sailburu eta Hizkuntza Politika sailburuorde bat dituela euskararen bultzatzeko. Euskaltzaindia ere hor dago osoki onartua Madrilen, Gasteizen eta Iruñean eta berdin hiru foru aldundietan; hor daude unibertsitateak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustukoa, Nafarroakoak, Iparraldekoak, haietan lanean ari diren euskal ikerleak Euskaltzaindiak biltzen dituela bere baitan, izan diten euskaltzain oso, urgazle edo batzordekide. Badira irratiak, bada telebista euskaraz mintzo direnak, *Internet*en ere euskara sartzen ari da. Gero eta euskaldun gehiago gaude Euskal Herrian, euskara hizkuntza ofiziala delarik Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako parte batean. Konparatzen ditugularik Gerhard Bähr-en garaia eta gurea, baikorrak izan gaitezke, euskarak, euskal irakaskuntzak, euskal ikerkuntzak ez baitute sekulan hainbeste arrakasta ukan. Baina, denbora berean, neurtzen dugularik eman diren urratsak, on da oroitzea zer izan diren euskalariak iraganean, nola jokatu diren, zer eman eta helarazi diguten. Gerhard Bähr-en semearen eta familiaren aintzinean ospatzen dugularik Legazpiko alemana bere jaiotzaren mendeurrenean, Euskaltzaindia agertzen da pozik bere lekukotasunaren eskaintzeko.

Eskerrik asko.

GERHARD BÄHR-EN MEDEURRENA

M. Carmen Garmendia,
Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua

Herriko agintari,
Gerhard Bähr-en ahaide,
euskaltzain,
legazpiar,
goierritar,
jaun-andreok,
agur t'erdi.

Poz bikoitza dut barruan zuekin batera Bähr euskalari alemana ohoratzerakoan; batetik, euskararen inguruko ekitaldi bat ospatzen dugu, euskaltzale baten omenez; bestetik, berriz, Udana, Legazpi, Ormaiztegin bizitako familia honek gure herritarrekin eta etxekoekin izandako harremanen oroitzapenak eta oihartzuna gogorarazten dizkit.

Ez naiz Bähr-en bizitza eta euskarari buruzko lanak aipatzen hasiko, horien guztien berri argi eta xehetasun handiz eman baitigute aurreko hizlariok. Ez naiz hasiko ezta nire herritarren, are gutxiago nire familiaren eta Bähr familiaren arteko harremanak zer-nolakoak izan ziren berritzen ere. Aipamen bat egin nahi nuke halere: hementxe dago, gure artean, gure izeba Mila, urteetan zehar Bähr-tarrekin harremana zaindu duena.

Gogoeta pare bat bakarrik egin nahi nituzke ekitaldi honen bukaera borobiltzeko. Euskarak izan ditu etxean eta kanpoan etsaiak: Liburu Beltza idatzi dutenak; euskara gutxietsi eta heriotza opa izan diotenak; are okerrago, gorrotatu eta hiltzen saiatu direnak, Frantzia handiaren eta bakarraren eta Frantziaren antz-irudira hizkuntza eta kultura bakarreko nazio bakar bat izan nahi duen Espainiaren ohoretan eta mesedetan.

Baina euskarak izan ditu lagunak ere, etxean eta kanpoan: *Liburu Zuria* idatzi dutenak; euskara miretsi, maitatu, ikertu, goraipatu, ikasi, landu dutenak eta eguneroko premietara egokitzen saiatu direnak. Besteak beste, eta kanpotarrak bakarrik aipatzeko, Webster eta Dodgson ingelesak, Van Eys eta Uhlenbeck holandarrak, Vinson, Saroihandy eta Hérelle frantsesak aipa ditzakegu. Eta batez ere alemanak: Humboldt, Stempf, Schuchardt, eta nola ez, gaur gogoratzen eta goraipatzen dugun Gerhard Bähr. Euskarari ospea ez ezik au-

rrerabidea ere eman zioten jakintsuok. Gure esker ona, beraz, euskararen alde lan egin duten guztiei.

Azkenik, bigarren gogoeta hauxe egin nahi nuke. Bähr etorkina dugu, etorkinen semea, jatorriz atzerritarra. Webster ere etorkina dugu, Lapurdin bizi ziren anglikanoak zaintzera etorritako apaiz anglikanoa. Biak saiatzen dira, nor baino nor, euskalduntzen, euskara ikasten, hemengo ipuinak biltzen, euskal nortasuna aitortzen eta berenganatzen.

Baina ez dira bakarrak. Beste asko ere gogotik saiatu da bertako egiten eta euskalduntzen. Alde horretatik ere esker oneko izan behar genuke etorkin askorekin. Nork esan behar zigun, orain dela urte batzuk, beren seme-alabak ikastoletara eta euskal eskoletara bidaliko zituztela, euskara ere ikas dezaten? Beren seme-alabak euskaldun izatea erabaki dute beren kabuz; komunikabide eta politiko askoren kontrako aldarrikapenei entzungor eginez, gainera, askotan.

Baditugu era guztietako zailtasunak. Baina baditugu inoiz ez bezalako baliabideak eta erakundeak ere. Baditugu laguntzaileak. Baditugu ahalegin handia egiten ari diren irakasleak, funtzionarioak eta herritarrak. Baditugu beren seme-alabak euskaldun izan daitezen beren borondatea erakusten duten gurasoak.

Ez dezagun guztia beltz ikusi. Beldur zen Bähr Francoren garaiko larderiak ez ote zuen mendeetako hizkuntza zaharra itoko. Gutako asko ere beldur ginen. Baina ez zuten erabat ito. Askoren ahaleginen bidez arnasa berritzen ere hasi zen azkenerako. Pozteko eta eskertzeko moduko urrats eta ahaleginak ere egin ditugu azken urteotan.

Guk ere, Bähr-ek bezala, "min hartuko" genuke euskara galduko balitz. Antzinako hizkuntza bitxi bat eta guztion ondasun bat ez ezik, geure-geurea den hizkuntza bat, geure kulturaren eta nortasunaren puska bat eta geure herri honen ezaugarririk nabarmenetako bat ere galduko baikenuke. Baina zailtasunak-zailtasun, eragozpenak-eragozpen, erasoak-eraso, ez dezagun etsi. Bähr asko ere bada gure Herrian, zorionez. Elkartzen bagara aurrera egingo du euskarak. Gure esku da euskararen etorkizuna. *Ekin eta jarrai,* beraz, Euskaltzaindiak eskatzen digun bezala.

UNAS PALABRAS A LA FAMILIA BÄHR

Legazpi, 6-V-2000

M. Carmen Garmendia,
Consejera de Cultura del Gobierno Vasco

Unas palabras, para terminar, a la familia de Gerhard Bähr, especialmente a su hijo, a quien acabo de conocer esta mañana, aunque me habían hablado muchas veces de él.

Lo he dicho en euskera, desde mi más tierna infancia tuve igual que mis hermanos y mis hermanas especialmente noticia de la familia Bähr. Desde nuestros abuelos, nos hablaban con mucha admiración del modo en que la familia Bähr se integró entre nosotros y del modo en que especialmente Gerhard Bähr supo amar el euskera, haciéndolo incluso objeto de sus investigaciones. La sorpresa fue mayúscula para nosotros, cuando, recuerdo todavía, en el año 1960 Mercedes Bähr vino con sus hijos a Ormaiztegi a pasar aquel verano y pudimos descubrir que Mercedes Bähr todavía conservaba muchísimos recuerdos, pero además era capaz de contar muchas cosas en euskera, a pesar de haber transcurrido muchos años desde su última estancia entre nosotros. Creo que esta es la relación que se estableció entre los Bähr y todos los que por aquí vivimos, desde Oñati hasta Ormaiztegi, pasando por Brinkola, por Legazpia.

Creo que es un ejemplo de cómo tanto las personas, las familias que vienen desde fuera hacia nosotros, como nosotros que vivimos aquí, tanto los que vienen desde fuera hacia nosotros o nostros desde aquí hacia fuera, somos capaces de convivir, de respetarnos, de entendernos o de establecer unos lazos, que como estamos viendo en este caso, perduran a pesar del transcurso de los años, a pesar de los muchísimos abatares, que tanto allí como aquí nos ha tocado vivir.

Por lo tanto, como decimos en euskara, "ongi etorri", sean Uds. todos, una vez más, bienvenidos entre nosotros, y espero, igual que todos los que están aquí con nosotros, vívamente que esta relación continúe en el tiempo. Estén seguros de que cuentan Uds. con nuestro respeto y nuestra estima, que se ha ido gestando en torno a todos, pero especialmente a la figura de su padre.

GERHARD BÄHR-EN MENDEURRENEAN

Luis M. Bandres,
Gipuzkoako Kultura diputatua

Agintariok.
Gerhard Bähr-en familia.
Lagunok.
Jaun-Andreok:
kaixo, eguerdion guztioi.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol diputatua naizen aldetik, atsegin handiz hartu dut gaur alemaniar jatorrizko Gerhard Bähr legazpiarrari eskainitako omenaldi honetan izateko aukera. Merezitako omenaldia inondik ere, euskalari ez ezik euskaltzale ere bazen gure Gerhard Bähr. Eta ez euskeraren alde egin zuen lan handiagatik bakarrik: 1921. urtean euskaltzain urgazle izendatu zuten, Legazpiko aditzari buruz prestatu zuen txostenarengatik. Gerora Resurreccion Maria Azkueren kolaboratzailerik maiteenetakoa izan zen. Alemaniarretik Schuchardt-en lanak euskaratu zituen eta baita Azkueren *Latsibi* bizkaieraz idatzitako nobela gipuzkerara aldatu ere. 1926an kimika, frantsesa eta ingelesa irakasteko tituluak lortu zituen. Ondorengo urteetan berriz hiztegi etimologiko bat, dialektologiari buruzko lanak eta artikulu asko eta asko argitaratu zituen *Riev* eta *Euskera* aldizkarietan. Dena dela bere, lanik haundiena: *Baskisch und Iberisch* doktorego tesia, 1940an aurkeztu zuen. Tesi horretan euskara eta iberiarraren arteko harremanari buruzko teoria bertan behera bota zuen.

Bereziki Euskal Herria eta euskara bihotzez maite izan zituelako ("Zein nahi garaitan Euskalerriko gauzak darraizkit: batez ere, euskera maitea" idatzi zion Alemaniatik eskutitz batean Azkueri) eta euskararen inguruko ikerketa eta lan ezberdinak garai zailetan (II. Mundu Gerra, Francoren Altxamendua,....) burutu zituelako azaltzen diogu gure eskerrona.

Horregatik, eta baita euskal hizkuntzaren inguruko ikerketak aurrera eraman zituelako (Koldo Mitxelena eta Euskal Herriko Unibertsitatea sortu aurretik), bera eta Schuchardt eta Karl Bouda (euskalari alemanak) izan zirela goi mailako euskararen ikerlan zientifiko bakarrenetakoak, merezi du gorazarre hau.

Hau da Gerhard Bähr-en jaiotzaren mendeurrena ospatzeko martxoaren 21ean hasita egin diren eta egingo diren ekintza guztiak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak atsegin handiz eman dio ekintza guzti horiek antolatu dituen batzordeari eskatu zigun laguntza eta babesa. Etenik gabeko eta borondatez betetako lana izan da Gerhard Bähr batzordearena. Eta txalotzekoa benetan Legazpiko Udana auzoan jaiotako alemaniar legazpiarra nor izan zen eta zer egin zuen hobeto ezagutzeko balio duelako. Guretzat ohore handia izan da ahal izan dugun neurrian laguntzea eta parte hartzea gipuzkoar honen omenaldian.

Eskerrik asko!

GERHARD BÄHR-EN MENDEURRENEAN

Legazpi, 2000-V-06

Jose Luis Esnal,
KUTXAko Gizarte Ekintzako ordezkaria

Mahaiko kideoi eta areto honetan zaudeten lagun guztioi nire agurrik beroena. Nire aurretik esan diren hitzek, nik uste dut, nahiko sakondu dutela, mamia erakutsi, Gerhard Bähr-en izenaren aurrean.

Enpresa bateko kide edo langile naizenez, nire asmoa ez da kultura lanetan dabilen jende ospetsuaren aurrean ezer erakusten ibiltzea. Hauxe azpimarratu nahi nuke, hala ere: irakurria dut Gerhard Bähr 19 urterekin, gazte, hasi zela gehienbat euskara sakontzen; eta hori, nire ustez, azpimarratzeko gauza da, euskaldunberria zelako eta euskara bere gurasoetatik ez, bestela hartu behar izan zuelako.

Nik uste dut merezitako omenaldia dela gaurkoa eta honelako ekintzak ikusita, esan daiteke, euskara maitatzen duenak kultura ere maitatzen duela. Guk, KUTXAtik, gure laguntasuna edo gure bultzakada txikia eman dugu.

Hor, batzar gelako sarreran, hartu dudan liburu batean, gauza bat ikusi dut; semeak esaten du bere aitaz:

"Aitaren tesia 1975. urtean irakurri nuen eta arras interesgarria iruditu zitzaidan, ideiak horren labur eta garbi adierazten zituelako".

Eta gero jartzen du:

"Hau da, esaldi bakarrean gauza asko esateko gaitasuna zuen". Hori, nik uste dut, orain, momentu honetan, gure Euskal Herrian behar dugun gauza bat dela, hainbeste hitz egin gabe, hitz gutxitan gauza asko esan. Eta euskararen alde dauden lekuetan hitzak bakarrik ez, ekintzak azaltzen diren lekuetan nik esango nizueke KUTXA zuen atzean izanen dela.

Eskerrik asko guztioi.

GERHARD BÄHR

Legazpi, 2000-V-06

Aitor Gurrutxaga

Gerhard Bähr jaio zenetik lehenengo mendeurrena ospatzeko asmoz sortu zen herri mailako batzordearen izenean, har bezate hemen bildutakoek, bertakoek zein kanpotarrek, gure agurra eta ongi etorria.

Gurea lan xumea izan da, ez gara gu eginkizun hauetan trebatuak, baina borondate handiz aritu gara herkide genuen hizkuntzalari alemaniarraren lana ezagutzera emate aldera. Eskerrak eman nahi genizkieke eginkizun honetan laguntasuna eskaini diguten erakundeei, hala nola, Legazpiko Udala, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa, Euskaltzaindia eta Estatu Espainiarrerako Alemaniako Enbaxadari. Gai hauetan ezinbestekoa izan ohi den babes finantzarioaz gain ekimen honek aurrera egin zezan nolabaiteko eginahala egin duten guztiei, mila esker.

1995ean, Gerhard Bähr hil zenetik 50 urte bete zirenean, Udanako alemanari omenaldia egin bazitzaion ere, horri gutxi iritzita, beharrezko ikusi zuten batzuek hizkuntzalariaren bizitza eta lana ezagutarazteko saiaketa areagotzea. Sorlekura mugatu barik, Bähr-en ezaupidea esparru zabalagoetara, Euskal Herrira, alegia, hedatzeari interesgarri iritzi zioten. Aipatu asmoaren ildotik, Bähr familiaren argazki zaharrez hornituriko eta Gerhard-en beraren lan zein gutunetatik hautaturiko esaldi batzuen aipamenarekin atondutako egutegiaren ondotik, *Gerhard Bähr 1900-1945* erakusketa ibiltaria moldatzeari ekin genion. Euskal Herriko hainbat lekutan Bähr-en lanaren eta bizitzaren inguruan hainbat hitzaldi antolatu dira; Joxeba Lakarra eta Oroitz Jauregi Gerhard Bährek Resurrección Maria Azkue, Julio Urkixo eta Hugo Schuchardt euskalariekin izandako gutundegiaren edizio kritikoa prestatzen ari dira; Elixabete Garmendiak *Gerhard Bähr* Bidegileak bildumako ale berria prestatu du; *Gerhard Bähr-en idazlan hautatuen bilduma,* **Iker**-eko ale berria, aurki argitaratuko dute. Mendeurrenaren batzordeak ere egin ditu ahaleginak argitalpen hauek aitzinatzeko.

Gerhard Bähr, artean gaztea, onenak emateke, Bigarren Mundu Gerraren hondarrean hil zuten. Ergelkeria litzateke errealitatea izkutatu nahi izatea, hau da, Udanakoak Gernika kixkali zutenak gudalagun izan zituen. Guk nahiago

genukeen horrela izan ez balitz. Dena den, haren idatziak irakurtzeko lana hartzen duenak, aise antzemango du Bähr-ek euskara eta Euskal Herriarendako zuen zinezko maitasuna.

Egiazko maitasun horren erakusgarri, Legazpin bildu ziren atzo eta gaur ere badira gaur Gerhard-ek biziki estimatzen zuen Euskaltzaindia eta berau osatzen duten euskaltzainak. 1920an Euskaltzaindiak Iruñean egindako bilkura batean ezagutu zituen Bähr-ek garai hartako euskaltzainak. "Ura zan jakitun batzarra ta euskaltzale bilgua" idatzi zion Azkueri. Hemen dira, beraz, beste aditu batzuen artean, hizkuntzalari alemaniarrak euskal hizkuntza eta Literaturari egindako ekarpena azter dezaketenak. Etxekoak eta senitartekoak salbu, ziur nago Gerhard-ek berak nekez asmatuko zuela urtemuga biribil hau ospatzeko lagun talde hoberik biltzen. Alemaniatik euren aita, aitona, osaba zenaren omenaldira propio etorri direnek, jakin dezatela.

GERHARD BÄHR-EK R. M. AZKUE*REKIN* ETA J. URKIJO*REKIN* IZANDAKO KORRESPONDENTZIA

Legazpi, 2000-V-06

Oroitz Jauregi Nazabal,
EHUko bekaduna

Lan honetan, Gerhard Bähr, legazpiarrak, R. Mª Azkue, Julio Urkijo eta Hugo Schuchardt-ekin izan zuen korrespondentzia bildu eta edizio baterako prestatzen ari gara. Gure helburua, gutun hauek ahalik eta jende gehienak irakurri eta erabiltzea denez, alemanez zeuden gutunak gaztelaniara itzuli ditugu. Lan hau egiteko aukera Legazpiko Udalak eskaini zigun, Bähr-en jaiotzako mendeurreneko ospakizunak aukera ona direlako Bähr-ek mende hasierako euskalari nagusienekin izan zuen korrespondentzia-harremanaren berri emateko; horrela, meatzetako injeniariaren semeaz eta garai hartako egoeraz irudi bat egiteko eta aurrekoa osatzeko aukera daukagu.

Egia esan, gu lan honekin hasi aurretik, zati bat egina zegoen. Jose Luis Ugarte eta beste zenbaitek, Bährek Azkue eta Urkixorekin zuen korrespondentzia zati handi bat transkribatu zuten eta alemanez zeudenak gaztelaniara itzuli zituzten. Gu, noski, lan horretaz baliatu gara, baina zuzendu eta osatu egin behar izan dugu. Horretarako iturri zuzenetara jo dugu: Bähr-Azkue korrespondentzia Euskaltzaindiko liburutegiko Azkue fondoan dago eta Bähr-Urkixorena, berriz, Donostiako Koldo Mitxelena liburutegiko Urkixo fondoan. Esan bezala, iturrietara joan eta orijinalak konprobatuz egin dugu lan. Horrela zenbait irakurketa oker zuzentzeko aukera izan dugu eta lehendik ez zeuden zenbait kartaren berri emateko ere bai.

Baina lan hau egiteko, Azkue eta Urkixorekin izan zuen korrespondentziaz gain Hugo Schuchardt garaiko linguista nagusiari bidali zion korrespondentzia ere lortu ahal izan dugu. Gutun hauek, Austriako Graz hiriko Unibertsitateko fondoetan daude eta Bernhard Hurch-i esker lortu ditugu. Bereziki interesgarria izan da bi pertsonaia handion arteko gutunen berri ematea; izan ere, Schuchardt euskara eta iberikoa bat zirela zioen teoriaren jarraitzaile zen

eta aldiz, G. Bähr izan zen bere *Baskisch und Iberisch* tesiarekin hori horrela izateko arrazoirik ez zegoela frogatu zuena.

Gutunen edizioak pertsona, garaia eta beste zenbait alor ikusteko modu bat eskaintzen digu; pertsonalki ezagutzeko aukera ematen digu, nahiz eta askotan modu hori nahikoa indiskretua dela iruditu. Karta hauen edizioarekin esan daiteke, Bähr-i buruz genuen ideia apurra eta irudia garbiagoa eta zehatzagoa dela; berri asko ematen dute bai garaiko egoerari buruz, bai interesei buruz, eta bai euskal hizkuntzalaritzari buruz ere. Baina dena den, aipatu behar da hemen bildu ditugun gutun gehienak norabide bakarrekoak direla; hau da, G. Bährek aipatu autoreei bidalitako gutunak dira nagusiki hemen bildutakoak; bi norabidetakoak ere badaude (Azkue, kasu), baina hutsune handia dago, ez dago osotasunik. Berez, korrespondentzien bidez irudi oso bat egitea zaila bada, tartean falta diren gutunek arazo hori areagotu egiten dute. Beraz, irudi osorik egin ez badezakegu ere, guztiz lagungarri dira.

Guztira 165 gutun dira hemen bildu ditugunak eta horietarik 134 Bährek bidalitakoak dira, gainontzekoak aipatu autoreek Bähr-i bidalitakoak.

Dena den, Azkue fondoan dauden gutunak ez dira soilik Azkueri bidalitakoak edota Azkuek berak bidalitakoak. Hor daude baita ere Gregorio Maidagan "Zadorlaripekoa" bezala sinatzen duen Euskaltzaindiko idazkariaren zenbait gutun, eta baita Friedrich Bähr, Gerharden aitak bidalitako zenbait gutun ere. Hona hemen kopuruak:

Bähr-ek Azkueri: 57
Azkuek Bähr-i: 18
Bähr-ek Maidagani: 1
Maidaganek Bähr-i: 5
F. Bähr-ek (aitak) Azkueri: 1

Gutun hauez gain badira Bähr-ek Euskaltzaindiko bekadun gisa zegokion dirua jaso zuela adierazten duten zenbait idazki ere: 11 denera; 4 Gerhard-ek berak sinatuta eta gainontzeko 7ak bere aitak sinatuta.

Urkixorekin zuen korrespondentziari dagokionez,

Bähr-ek Urkixori: 57
Urkixok Bähr-i: 1

Eta Schuchard-i dagokionez, aldiz, norabide bakarreko gutunak daude soilik, Bähr-ek Schuchardti bidalitako 15 gutun.

Esan bezala, bildutako 165 gutunetatik 134 dira Gerhard Bähr-ek sinatutakoak. Nabaria denez, gutun gehienak norabide bakarrekoak dira, tarteko erantzun ugari falta dira. Baina honek ere badu bere arrazoia, G. Bähr-ek berak Azkueri eta Urkixori bidalitako azken gutunetan adierazten duenez. Honela idazten dio Urkixori:

Es verdad que hace un mes estuve también en Alemania con motivo del bombardeo de Hannover en el cual perdí mi casa y, lo que más siento, mi biblioteca. ¡No me queda ya un solo libro vasco! Vd. se figurará lo grave que es esa pérdida para mi. (1942-12-9).

Gutunetan erabilitako hizkuntzari dagokionez, esan behar da 3 hizkuntza aurki daitezkeela: alemana, gaztelania eta euskara.

Schuchardt-i alemanez idazten zion, noski.

Urkixori 57tik 55 gaztelaniaz eta 2 alemanez; Urkixok berak bidalitako gutun bakarrean gaztelania darabil.

Azkueri, 57tik, 45 alemanez, 6 gaztelania eta 6 euskaraz; Azkuek aldiz, 18tik 15 euskaraz eta 3 alemanez.

Maidaganekin zuen korrespondentzia euskaraz dago, bi norabideetan. Friedrich Bähr-en gutunak, aldiz, gaztelaniaz daude.

Gutunak bidalitako urteei begiratzen badiegu, esan behar da Bähr-ek Azkueri 1920-1944 urteen artean bidali zizkiola. Urtez urte bidalitako gutun kopurua ikusita, 1936-1944 urteen tartean, hau da, azken urteetan, beherakada nabarmena dago. Hauetariko zenbait urte gutunik gabekoak dira (1937, 1940, 1941). Azkuek bidalitako gutunen urteei begiratzen badiegu, esan behar da urte asko daudela gutunik bidali gabekoak, baina, Bähr-ek bidalitako gutunak irakurri ondoren, suposatu behar dugu bilduma honetan ez ditugula Azkuek Bähr-i bidalitako gutun guztiak jaso.

Urkixori, 1921etik 1944ra bitartean bidali zizkion. Hemen ere badira zenbait urte gutunik gabekoak (1924, 1925, 1938, 1941). Oro har, esan daiteke erdi aldera, 1926-1932 arteko tartea dela oparoena; Azkuerekin gertatzen den moduan, bukaera aldera gutunen kopurua nahiko jaisten da.

Schuchardt hizkuntzalari handiarekin izan zuen harremana Azkue eta Urkixorekin izan zuena baino laburragoa izan zen: 1920-1924 artean bidalitako gutunak ditugu, soilik.

Gutunen tamainari dagokionez, esan behar da Urkixori bidalitako 57 gutunek gutxi gorabehera 53 orrialde hartzen dituztela eta luzeena 3 orrialdekoa dela. Azkueri bidalitako 57 gutunek gutxi gorabehera 64 orrialde hartzen dituzte eta luzeena 6 orrialde t'erdikoa da. Schuchardt-i bidalitako 15 gutunek gutxi gorabehera 45 orrialde dituzte; hemen aurkitzen ditugu, beraz, gutunik luzeenak: bada bat 7 orrialdekoa eta beste bat 11 orrialde t'erdikoa.

Gutunetan aipatzen diren gaiak era askotakoak dira: ugariak dira eguneroko bizitza aipagai duten gutunak: osasun kontuak, ikasketa kontuak, markoaren galera, gizartearen egoera (batez ere gerra garaian). Kartetan adierazten denez, kezka handia zuen Euskal Herriko (berak beti España jarri arren) gertakariez eta irriki handiz jarraitzen zituen hemengo gertakizunak egunka-

rietan. Nazionalen aldekoa zen eta horrelaxe adierazten zuen gutunetan. Honelaxe idatzi zion Azkueri:

> *En particular anhelamos todos la victoria del Generalísimo Franco que creemos próxima. Cada día seguimos el curso de las operaciones en España y nos alegramos mucho del progreso continuo de los nacionales (1938-8-4).*

Ugariak dira baita ere zorionak emateko idatzitako gutunak: urtebetetze egunetan, Gabonetan, Azkue espainiar hizkuntzaren-akademian sartu zenean, Urkixo diputatu aukeratu zutenean, etab.

Gutunen bidez ematen zituzten autore, liburu, eta artikulu desberdinen erreferentziak; Bähr da, orohar, lehenengoa autoreen edo lanen aipamena egiten duena. Hauexek dira aipatzen diren autore batzuk: Lacombe, Meyer-Lübke, Marr, Urtel, Gavelenz, Linschmann, Lewy, Rohlfs, Bouda, Schuchardt, Zyhlarz, Uhlenbeck, Trombetti, Humboldt, etab. Esan beharra dago autore hauek garai hartako onentsuenetakoak zirela eta aipamen hauek Bähr-en hizkuntzalari maila agerian uzten dutela.

Autore eta lanen aipamenez gain, hemengo euskalariek aukera ezin hobea zeukaten hemen aurki ezin zitezkeen liburuak lortzeko, baita Bähr-ek berak ere hemengo lanen berri izateko. Eta horrelaxe egiten zuten. Elkarren arteko harremana etengabea zen alderdi honetan. Ugariak dira liburu eta artikuluen eskakizunak bi aldeetatik, bai Bähr-ek hemengoei egindakoak eta bai hemengoek Bähr-i egindakoak.

Elkarren lanen berri ere gutunen bidez izaten zuten, hau da, zertan ari ziren, nola zeuden azterketak, zeintzuk ziren etorkizunerako asmoak, etab. Baita izan zituzten arazoak eta zalantzak ere.

Gai hauek guztiak errepikatu egiten dira bai Azkue, bai Urkixo eta bai Schuchardten gutunetan ere.

Euskarari buruzko aipamenak ere ugariak ziren, noski.

Azkueri, Euskaltzaindian garai hartan ziren eztabaidei buruz bere ikusmoldea ematen zion. Horrela, euskara batuaren premia somatzen du eta horrelaxe adierazten dio Azkueri. Azkueren moduan, erdialdeko euskalkia oinarritzat hartzearen aldeko zen. Ez da ahaztu behar Bähr bera izan zela Azkueren *Latsibi* obra erdialdeko euskalkira, berak baturako edo proposatzen zuenera, itzuli zuena.

Neologismoen arazoa ere garai hartan puri-purian zegoen eta nabari da gutunetan. Azkuek erreferentziak eskatzen dizkio aleman hizkuntzan neologismoen inguruan gertatu zenari buruz eta Bähr-ek zenbait liburu bidaltzen dizkio eta zenbait erreferentzia eman ere bai. Baita iritziak ere. Alderdi honetan, aranazaleen guztiz kontrako zen, oinarri zientifikorik gabeko hizkuntza as-

matzaileak zirela esanez. Gutun batean Sabino Aranari abizena aldatzen dio eta Alemaniako beste batena jartzen: Hitler, alegia. Berak adierazten duenez, hizkuntza arazoetan zuten jarreragatik. Honelaxe idazten dio Azkueri Sabino Aranaren Ixendijari buruz:

> *En mi opinión, este escrito de Arana Goiri es —por utilizar una palabra de moda— ¡"Catastrófico"! Esto no se puede decir a los aranistas, claro está, además siento una gran simpatía por ellos, pero donde comienza la política y el culto al héroe (el Maestro ha dicho...), desaparece frecuentemente la razón. Esto lo estamos viviendo todos los días aquí en Alemania. ¡Solo falta sustituir "Hitler" por Arana ta Goiri'tar ...Sabin! (1933-1-10).*

Beste zenbait gaiez ere luze mintzatzen da Azkuerekin, hala nola, pasibitateaz eta hizkuntza errejistroez.

Azkuek Bähr-i bidalitako gutunean ugari dira Euskaltzaindiak hartutako erabakiak eta Euskaltzaindiari buruzko berriak, nolabait ere Bähr-ekin zerikusia dutenak: bekaren kontua, Schuchardt-en lanen itzulpenak egiteko eskaerak, *Erizkizundi Irukoitza* betetzeko proposamena, etab. Iritzia ere askotan eskatzen zion.

Urkijori bidalitako korrespondentzian Euskaltzaindiaren inguruko kontuak ere azaltzen dira. Dena den, azpimarragarriak dira autore eta lan desberdinei buruzko aipamen ugariak. Baita Urkijo zuzendari zen *R.I.E.*Veko aipamenak ere.

Schuchardtekin zuen korrespondentzian ere hizkuntzazko gaiak ugariak dira, eta badira hemen besteekin aipatzen ez dituen zenbait gai. Schuchardten egoera zein den jakinda (ohean gaixorik baitzegoen), hasiera hasieratik bere eskura dituen datuak eskaintzen dizkio Schuchardt-i: berak bildutako Legazpi eta inguruetako datuak.

Schuchardt-ek zuen intereseko gai bat prosodiarena zen eta gai honi buruzko aipamen, uste eta datuak ere eskaini zizkion Bähr-ek. Aipagarria da Bizenta Mogel-en ipuin batzuk traskribatu eta gero berak markatzen ziola azentua iruditzen zitzaion lekuan. Baina ipuin batean, berari iruditutako lekuan azentua ipintzeaz gain, emakume bati eman zion irakurtzeko eta emakumearen azentu moldea markatu zuen. Bi azentumoldeak ipuin berberaren gainean markatuak daude, kolore desberdinak erabiliz.

Umeen hizkuntzan ere egin zituen behaketak eta bere iritzien berri eman zion Schuchardt-i. Haurren hizkuntza formetan galera handia zegoela adierazi zion eta, horri aurre egiten ez bazitzaion, euskararen galera oso urrun ez zela egongo zioen (ezer egin ezean, 50 urteren buruan ingurune hartan euskara galduko zela esan zuen). Baina zorionez, bere iragarkizunak ez dira bete.

Hauez gain, beste zenbait gai ere aipagai ditu Bähr-ek: dialektologiaren inguruko datuak, aditzari buruzkoak, grafia, etab. Bere usteak ere azaltzen dizkio Schuchardt-i euskarari buruzko lanei eta euskalariei buruz. Guztien artean Julio Urkixo zuen fidagarrientzat.

Baina benetan aipagarriena teoria vasco-iberistaren inguruko auzia da. Jakina da Schuchardt teoria honen aldeko sutsua izan zela, eta Bähr, aldiz, *Baskisch und Iberisch* tesian ideia hori ezin froga zitekeela esan zuena. Alabaina, elkarren arteko korrespondentzian ez dago gai honi buruzko aipamen gehiegirik. Kontuan hartu behar da Schuchardt 1927an hil zela eta Bähr data hori baino geroago hasi zela gai honen inguruan serioski lanean, nahiz eta aurretik ere interesa izan. Beraz, Schuchardt-i bidalitako gutun hauetan ez dirudi eztabaidarik izan zenik bien artean gai honen inguruan; eta egindako aipamenak oso zeharkakoak dira. Gai hau, Bähr-ek Urkixori bidalitako korrespondentzian ageri da eta oso modu zabalean gainera. Hona hemen aipu batzuk:

> *Yo estoy ocupado con la cuestión ibérica tantas veces tratada por nuestro Schuchardt. Sin embargo, las lecturas en que se basaba eran defectuosas, pues las de Gómez Moreno marcan un progreso muy importante (1936-6-1).*
>
> *La Iberische Deklination de Schuchardt está basada en las inscripciones de la península entera y, por lo tanto, contiene una serie de citas y de ejemplos que hoy día deben descartarse. Lo que he hecho yo es, pues, examinar los datos de Schuchardt, de los cuales la mayoría no quedan en pie (1939-6-20).*

Beraz, Schuchardt-en usteen aurkakoa zen eta euskara eta iberikoa loturik egotea ezin frogatuzkoa zela zioen:

> *Es pues innegable la semejanza del tipo fonético vasco y del ibero. Pero, a pesar de ser bastante seguras las lecturas de esta última lengua, no se deslumbra en los textos ningún vocablo vasco ni tampoco ninguna flexión o numeral u otro elemento característico de indudable autenticidad. Las semejanzas deben explicarse pues por la larga convivencia de los dos pueblos o por un parentesco muy lejano. La cuestión está pues donde estuvo antes de Humboldt (1939-6-20).*

Bähr-en ekarpena garrantzitsua izan zen vascoiberismoaren teoria deusezteko. Aipagarria da aipu honek eta geroago Mitxelenak *La langue iberen* esan zituenak antz handia dutela.

Arazoa konponbidetik urrun ikusten zuen. Baina ikerketa horietan jarraitzeko gogo faltarik ez zuen eta horixe adierazten du hurrengo aipuak:

> *(...) siento no poder continuar a ocupar del problema vasco-ibero, pues, aparte de que no siempre dispongo de tanto tiempo como en*

estas semanas, me faltan los libros necesarios, siendo imposible en estas circunstancias trabajar metódicamente. Cuando vuelva a casa, o sea, terminada esta campaña, pienso dedicarme nuevamente y con ahínco a ese problema (1942-9-23).

Dena den, garaiak ez ziren egokienak ikerketarako, bazegoen arazo premiakoagorik, eta horrelaxe geratu ziren legazpiarraren ikerketarako asmo on guztiak. Bere tesia, iberiarra eta euskara familia berekoak izatea ezin froga zitekeela zioena, 1940an irakurri zuen Göttingen-eko Unibertsitatean. Baina ezin izan zuen argitaratuta ikusi, izan ere 1945ean hil zen eta Eusko Jakintzak 1948an argitaratu zuen, Karl Boudaren ardurapean. Aipatu behar da oso eragin urria izan duela Bähr-en tesi lanak eta arrazoietako bat argitalpenarena izan dela, alegia, hain eremu urriko argitaletxe batean agertu izana.

DISCURSO PARA REMEMORAR EL CENTÉSIMO ANIVERSARIO DEL NATALICIO DE GERHARD BÄHR
OCURRIDO EL 6. 5. 1900 EN LEGAZPI. ESPAÑA

Ayuntamiento de Legazpi,
6 de mayo de 2000

Hans-Peter Bähr. Karlsruhe. Alemania.
Traducido por Anita Schwender. Santa Fe. Argentina

Ilustres señores, queridos amigos:

Nos hemos reunido hoy en Legazpi para festejar el centésimo aniversario del natalicio de Gerhard Bähr, mi padre. Me cabe el gran honor y la alegría de decir algunas palabras aquí, en el lugar mismo de su nacimiento, no sólo como hijo sino también como miembro de la familia Bähr. Nos embarga una profunda emoción al ver la deferencia, la cordial amistad que se profesa a mi padre y a través de él a todos nosotros. ¿Dónde más, nos preguntamos, existe una amistad tan hondamente sentida, tanta fidelidad a una familia, que fuera cariñosamente acogida hace ya más de cien años en esta región y que permaneció aquí apenas 30 años, una amistad cuyos lazos no se han roto ni en los buenos ni en los malos tiempos?

En primerísimo lugar deseo expresar mi más sentido agradecimiento a los hombres y mujeres que pueblan estas tierras. Ellos han sabido conservar los recuerdos de un tiempo que parece tan remoto, reviviéndolo una y otra vez. Esta conciencia histórica unida al amor por su hermosa tierra se trasunta en muchos aspectos, en cosas que trascienden a la familia Bähr. Agradecemos de corazón y muy especialmente a todos aquellos que se esforzaron para preparar y llevar a cabo esta fiesta. Estamos abrumados por la excelente organización, ya que sabemos que los preparativos se iniciaron cinco años atrás, cuando se nos invitó a compartir aquí mismo el quincuagésimo aniversario del fallecimiento de mi padre. En aquella ocasión tía Mercedes pudo venir con nosotros. Hoy, debido a su avanzada edad (95 años), no pudo acompañarnos, pero envía a todos sus más cariñosos saludos.

Me gustaría colocar mis palabras bajo el epígrafe "Gerhard Bähr en sus tiempos". Trataré de describir algunos aspectos de su personalidad yendo más

allá de lo que puede percibirse a través de sus publicaciones y de los escritos que vosotros conocéis. Deseo que sepáis que el homenaje que se tributa a Gerhard Bähr aquí en Legazpi fue para mí un gran desafío y un aliciente para ocuparme de la imagen de mi padre como jamás lo hubiese hecho, si no se hubiese dado esta oportunidad. Fue una especie de confrontación con un padre al que nunca conocí en forma consciente, puesto que murió en 1945 durante la defensa de Berlín, siendo yo un niño de escasos dos años y medio.

Como científico siempre se procura trabajar con documentos auténticos. En esta ocasión, el material es muy escaso, como ocurre en muchos estudios científicos, pero cuento con las narraciones de mis tíos Joaquín y Friedrich Bähr y, por supuesto muy especialmente, con las de tía Mercedes y mi madre. El matrimonio de mi padre con Erika, mi madre (cuyo apellido de soltera era Micha), duró tan sólo tres años y esto en tiempos de guerra, lo que redujo la convivencia a tan sólo unos pocos meses. Otras fuentes de información fueron relatos de maestros míos que habían sido colegas de mi padre. Mi madre no desaprovechó la oportunidad de inscribirme en Hannover en el gimnasio (Tellkampfschule, antiguo gimnasio real) en el que habían sido profesores mi padre así como también mi abuelo materno Hermann Micha. Tal vez por eso advertía yo que algunos de los maestros de más edad, los que habían conocido a mi padre y habían sido sus colegas, me trataban con atención especial, casi se diría con afecto.

Otra fuente importante de información sobre mi padre fueron los originales de sus trabajos científicos y, fundamentalmente, su voluminoso intercambio epistolar. Las cartas fueron recopiladas aquí en Legazpi, escrupulosamente ordenadas y traducidas del euskera al español y viceversa. En especial Ignacio Arbide ha escrito sobre Gerhard Bähr, por ejemplo en 1975, en ocasión del septuagésimo quinto aniversario de su natalicio (publicado en la revista *Asociación La Salle*).

* * *

"Gerhard Bähr en sus tiempos" quisiera dar a conocer algunos aspectos de su vida que transmiten más su personalidad. Para ello tomaré algunos capítulos de su vida, intentaré echar luz sobre su entorno en Udana, hasta donde lo conozco, decir algo sobre su educación en Alemania y describir luego distintas facetas de su personalidad. Un capítulo fatal, en todo el sentido de la palabra, es la guerra y sobre ese tiempo quisiera extenderme un poco en base a tres agendas cuyos originales tengo ante mí y que hasta ahora no fueron analizados sistemáticamente.

La época en que la familia Bähr se afincó en Legazpi (Udana), hace unos 100 años atrás, fue en verdad una época de oro. Una imagen muy representativa aparece en el calendario fotográfico que fuera editado en ocasión del aniversario de la ciudad de Legazpi, una idea excelente. Aun cuando se pasen por alto acontecimientos desgraciados, que seguramente han ocurrido, el con-

traste con los tiempos ininterrumpidamente terribles de la primera y segunda guerra mundiales es más que evidente.

Las postrimerías del siglo XIX y el comienzo del siglo XX fueron épocas de auge para el País Vasco. El descubrimiento local de minerales dió impulso a una naciente industria que cimentaba las bases para un país floreciente. El joven experto en minería y padre de mi padre, Friedrich Bähr, ingeniero en minería de Osterode en el Harz con su joven esposa Johanne (de apellido materno von Daacke), se encontraban en su elemento dentro de ese espíritu de progreso. No sólo pusieron en el mundo a cinco retoños, que se criaron en estas tierras y sintieron a este suelo como su patria; mi abuelo también marcó hitos en el ámbito técnico: la aplicación de nuevos métodos de beneficio, explotación y procesamiento del mineral, nuevos medios de transporte, la introducción de nuevos dispositivos, desde generadores hasta el teléfono. Mi padre aprendió el euskera de niño. Se lo enseñó su hermana Mercedes, que lo había aprendido casi sin darse cuenta con sus compañeros de la escuela. Siendo la única niña, no pudo disfrutar del privilegio de educarse con maestros particulares en su casa. Creo que el único que se interesó realmente por los idiomas fue mi padre. Es que las condiciones del entorno eran ideales para apropiarse de más de un idioma: además del alemán, el español, el euskera y el francés.

Como dije anteriormente, los hijos varones de la familia Bähr estaban destinados a gozar de una esmerada educación y para ello se los envió a temprana edad -mi padre recién contaba 12 años- como internos a un colegio en Alemania. Para dar vida a Gerhard Bähr como niño de 12 años, me permitiré leer una carta escrita el 26.10.1912, desde el internado en Pforta, cerca de Naumburg a su abuela en Osterode. Su letra era aún infantilmente torpe, pero ya escribía con letras latinas.

Querida abuela:

Te felicito de todo corazón en tu 70 (septuagésimo) cumpleaños, deseando que puedas gozar siempre de una salud feliz. Me da mucha pena no poder ir para tu cumpleaños, pero, ya sabes, queda demasiado lejos y el rector tampoco me autorizaría.

En España ya nevó y aquí no falta mucho para ello. En realidad este lugar no está nada lindo, porque todos los árboles han quedado sin hojas y el sol brilla a lo sumo dos horas por día; pronto habrá desaparecido del todo detrás de los árboles. Durante la primera hora de clase, de 7 a 8, debemos encender la luz y el tiempo está casi siempre horrible. Del 15 al 17 de noviembre se realiza aquí los Martinispiele (el torneo de Martini) con los alumnos de los cursos medios y superiores. Lamentablemente estoy ahora en un cuarto muy feo y el preceptor Schattenberg es casi demasiado severo.

27.10.1912

Acabo de volver de un paseo y quiero describírtelo un poco. Primero fui a los "Saalhäuser" (cantina?) donde tomé café con torta. Después fui con un compañero de una clase más avanzada a Kösen y desde allí cruzamos un montículo y nos internamos en los Alpes. Son rocas próximas a Pforta que tienen una altura de 3-4 metros y que nos gusta escalar, especialmente por las caras verticales. En algunas partes resulta casi temerario hacerlo. Pero basta por hoy, querida abuela. Por favor saluda a todos de mi parte, también a tía Henni, tía Augusta y a Gretchen. Te saluda cariñosamente una vez más

Tu nieto

Gerhard Bähr.

* * *

Es lógico que veamos y homenajeemos a Gerhard Bähr aquí en Legazpi principalmente como lingüista, pero quisiera recalcar que fue un hombre de múltiples aptitudes e intereses. Obviamente, su interés se centraba fundamentalmente en los idiomas y esto en todos sus aspectos, es decir, no sólo le interesaba investigar sobre la lengua de los vascos, sino también hacía investigación lingüística relacionada con la etnología. Al mismo tiempo -y se trata aquí de una actividad totalmente diferente-, se dedicaba intensamente a la traducción de y a distintos idiomas. Además enseñaba lengua, primero en el Gimnasio y luego, durante la guerra, para la formación de intérpretes.

Sé que también era un excelente deportista. Así no sólo era profesor de gimnasia, sino también miembro muy activo del club de gimnastas de Hannover (Turnklub Hannover - TKH). En este campo sus intereses coincidían con los de mi madre, una mujer muy amante de los deportes, que ya jugaba al tenis en la primera mitad del siglo pasado (y continuó practicando este deporte hasta la edad de 80 años). También practicaba canotaje (con canoas plegables) y ciclismo, y disfrutaba, igual que mi padre, de extensas caminatas. Por ejemplo, mi madre solía contarme de una caminata memorable que realizó con mi padre, desde Hannover (a la vera del río Leine) hasta Hamelín (a las orillas del río Weser), un trecho de más de 50 km, que cruza dos cadenas montañosas (Deister y Süntel). Llegados a Hamelín, se sentaron en un café a saborear café con tortas pero, se quejaba mi madre, en vez de permanecer cómodamente sentados, mi padre insistió en visitar a sus antiguos caseros con los que se había hospedado una temporada cuando aún era un joven aspirante a profesor. Tampoco ha de ser muy conocido su interés por la química, materia que había profundizado tanto, que en una de sus cartas insinuaba que hubiese podido dedicarse enteramente a esta especialidad. Buceando en mi propio interior, debo confesar que, si bien reencuentro en mí su amor por los idiomas, no he sido bendecido en la misma medida con el interés por los deportes o la química.

Vayamos ahora a los cuadernos de notas (en realidad, agendas de formato pequeño) que tengo ante mí. Se trata de anotaciones de los años 1939, 1942 y 1943 complementadas por un cuaderno adicional que cubre el período 1943--44. Hay muchas semanas en las que las hojas están en blanco. Muchas de las anotaciones del año 1943 se refieren a detalles de su actividad como soldado en Rusia. En parte trasuntan la crueldad de la guerra. Probablemente esto se debía a que sabía mucho más que los demás y se le había prohibido hablar sobre tales temas. Mi madre me contaba que le había pedido insistentemente que no permaneciera con nuestros parientes en Bützow (Mecklenburg), de donde se podría deducir que ya sabía que esa parte de Alemania caería bajo la dominación rusa. También comentaba a mi madre que los crímenes cometidos por el nazismo en Europa oriental acarrearían consecuencias terribles a nuestro país.

En general, los hombres y mujeres de nuestra generación no se dan cuenta cabal de la enorme fortuna que es la paz. Tener conciencia nacional, el orgullo de una identidad propia, nacional o regional, es en principio algo muy positivo. Sin embargo, se revierte en algo negativo y destructivo tan pronto se esgrime contra otros. Es de lamentar que en todos los tiempos y en todas las naciones, los seres humanos se dejen seducir con tanta facilidad a seguir ciegamente consignas radicales. La historia del nazismo en Alemania debería servir de ejemplo y enseñanza para Europa.

* * *

Permítanme ahora extraer algunos puntos de las anotaciones de mi padre, que muestran al ser humano de carne y hueso. En 1939 pesaba 71 kg y medía 1,80m. Su severísima miopía se evidencia en muchas anotaciones, incluso figuran las dioptrías (-15 en el ojo derecho, -11 en el izquierdo!!) y sus citas con el óptico. (Debe haber tenido que reponer muchos anteojos!). Evidentemente tenía también problemas con los dientes a juzgar por las frecuentes visitas al odontólogo registradas en su agenda.

Los idiomas fueron siempre el centro de su interés, como lo demuestra la siguiente anotación en la agenda de 1939:

Fita: "Restos de la declinación céltica y celtibérica en algunas lápidas españolas" *Ciencia cristiana* (pp. 172) (Madrid 1878).

Por otra parte, en la misma agenda se encuentra una página y media de resúmenes intitulados "Pueblos británicos", que comienzan con los del paleolítico y neolítico e incluso abarcan ganado celta e irlandés. Andaba siempre a la captura de palabras que despertaban su curiosidad. Así en octubre de 1943 registraba en su agenda el término "conceptuación = concepto de que lo merece a su jefe". En la página opuesta anotaba algunos vocablos rusos y así sucesivamente.

Durante la guerra, la comunicación con el hogar era de importancia capital. El correo funcionaba admirablemente. Siendo un hombre escrupuloso y sistemático, mi padre había registrado y enumerado minuciosamente todo el intercambio epistolar con mi madre, Erika Bähr. Las cartas mismas ya no existen, ni las de Gerhard ni las de Erika Bähr. En el año 1943 había escrito 59 cartas a mi madre, en tanto que ella le había escrito 62. Esto significa más de una carta por semana, especialmente si descontamos los períodos en que podía venir a casa durante los períodos de licencia. El día de su casamiento, el 30 de enero, está escuetamente anotado en la agenda como "(viaje) a Hannover". El viaje de bodas se realizó, según la agenda, a Hildesheim y Goslar y después de una semana mi padre tuvo que regresar a Berlín. En aquel entonces se desempeñaba en el departamente de intérpretes. Una fecha importante del año 1942 fue mi propio nacimiento, el 7 de noviembre. Ese día no se encuentran anotaciones de importancia, pero el 10 de noviembre a las 11 hs. aparece la siguiente leyenda subrayada con rojo "Telegrama de Trudi". "Trudi" era una tía de mi madre, la Sra. Gertrud Rosenwanger de Bützow, que le comunicaba la feliz nueva del nacimiento de un hijo varón sano, al que le habían puesto de nombre Hans-Peter Bähr. Esta tía siempre fue para mí "Tati", porque, cuando pequeño, mi lengua infantil era incapaz de articular "Tante Trudi" y así quedó "Tati" para toda la vida.

Dando un vistazo retrospectivo, se trasluce que los tiempos más felices de la vida de Gerhard Bähr fueron los que pasó en España, aquí en Legazpi. Este país, su idioma y su gente lo marcaron para siempre. Y esto no sólo vale para él, sino para la familia Bähr toda. Hoy puedo decir que la influencia y el amor por el País Vasco se ha transmitido a hijos y nietos. Algunos han venido, otros lamentan muchísimo no poder estar aquí por razones profesionales, pero todos conocemos esta faja de tierra y nos sentimos unidos a ella y a su gente. Nos sentimos bien aquí. Las honores que se rinden a mi padre, a la familia Bähr, son una parte muy importante de nuestra vida. Más allá de eso, hemos encontrado en este país amigos sinceros y nos sentimos felices de que los lazos perduren a través de las generaciones. Hago votos por que así continúe.

¿Cuál será la razón de ello? Seguramente existen muchas cosas que hacen que Alemania y el País Vasco se asemejen: el clima, la topografía, la laboriosidad de su gente.... Pero lo determinante es la calidad humana, la franqueza y la profunda amistad de la que nos enorgullecemos. Nuevamente muchas gracias por todo.

OBSEQUIO DE HANS-PETER Y BRIGITTE BÄHR A EUSKALTZAINDIA

Ayuntamiento de Legazpi,
6 de mayo de 2000

Hans-Peter Bähr

Los trabajos de Gerhard Bähr sobre el Euskara quedaron inconclusos. Agradezco sinceramente a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia por haber recopilado y ordenado sistemáticamente los escritos de mi padre y por haber traducido y publicado parte de ellos. Yo también quisiera aportar algo personal a tan arduo trabajo y, como modesta muestra de mi reconocimiento, hago entrega en este acto a la Real Academia de la Lengua Vasca de una copia de su agenda del año 1939, que nos acerca a Gerhard Bähr como persona, más allá de su condición de lingüista.

El año 1939, comienzo de la Segunda Guerra Mundial, es un hito que afecta hondamente la vida de Europa de la segunda mitad del siglo XX. Hasta el comienzo de las actividades bélicas, la agenda sólo registra anotaciones personales "normales". De allí en adelante apenas fue utilizada. Los apuntes personales consignan caminatas (por ejemplo, por el bosque de Hildesheim, por Stadthagen, por Celle...), actividades deportivas (voleyball, gimnasia en aparatos) y visitas a la ópera y a conciertos.

Muchas anotaciones se centran en el mundo escolar, con nombres y calificaciones de sus alumnos, pero es evidente que también juegan un papel importante los idiomas inglés, francés e incluso griego, con lo que llena apretadamente dos páginas del apéndice. Algunos registros están escritos en estenografía, posiblemente en el sistema "Stolze-Schrey", anticuado ya en aquel entonces. Figuran calificaciones escolares, por ejemplo las del examen final del bachillerato, que resultaron relativamente bajas y oscilan entre 3 y 4, lo que corresponde a un 30-50 %. (Evidentemente era un profesor muy exigente). Me tocan muy hondo los comentarios sobre clases dictadas por maestros practicantes, sobre todo los de los que más tarde serían mis propios maestros, por ejemplo, las prácticas de los Sres. Heynhold, Brinkmann y Ellwanger.

También es interesante para nosotros hoy ver cuáles eran en 1939 los libros de lectura obligatoria para los estudiantes del último año del bachillerato. Prácticamente ninguno de esos autores se leen en la actualidad y casi todos ellos tienen un trasfondo propagandístico dado por los nacionalsocialistas, incluso las cartas de Federico el Grande y *Así hablaba Zaratustra* de Nietzsche. Idéntica intención tenían los escritos de los generales prusianos Scharnhorst, Gleisenau, Moltke y Schlieffen. Los autores "modernos" de aquella época, con clara orientación nacionalsocialista, estaban representados por Rosenberg, Chamberlain, Göbbels, Grimm y, por supuesto, Hitler con *Mi Lucha.*

La guerra ya se insinúa en agosto por las frecuentes movilizaciones y ejercicios militares. Evidentemente, mi padre viajaba mucho y le gustaba viajar, aunque pocas veces llegaba más allá de las fronteras de Alemania.

Gerhard Bähr cayó en 1945 durante los últimos combates en defensa de Berlín. Sin embargo -y esto es evidente aquí en Legazpi- Gerhard Bähr y su familia siguen vivos en el seno de esta comunidad. Y, si bien no tengo recuerdos directos de mi padre, ya que lo perdí siendo un niño de tan sólo dos años y medio, el hecho de que la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia se ocupara tan exhaustivamente de sus trabajos científicos y los honores que le rinde año tras año su pueblo natal, me han acercado a él como jamás lo hubiese hecho sin vuestro estímulo. Por eso, y por el inalterable afecto que se nos brinda, vaya con este pequeño obsequio nuestra más profunda gratitud.

OBSEQUIO DE HANS-PETER Y BRIGITTE BÄHR AL PUEBLO DE LEGAZPI

Ayuntamiento de Legazpi
6 de mayo de 2000

Brigitte Bähr

El matrimonio Bähr quiere obsequiar al pueblo de Legazpi con una gráfica original del artista alemán de reconocido prestigio Bruno Treiber.

Es el n.º 4 de una serigrafía de 10 que representan lugares diferentes del camino de Santiago. Esta obra, concretamente, recoge tres imágenes del País Vasco, como son el túnel de San Adrián, el monte Udalaitz y el friso de los 14 apóstoles de Oteiza en Arantzazu, Oñati.

Cuenta la leyenda que hasta el mismo emperador Carlos I de España y V de Alemania tuvo que agachar su cabeza para pasar el tunel de San Adrián, siendo la única vez en su vida que hizo tal cosa, precisamente en el País Vasco.

El mismo día que recibí por correo vuestro calendario dedicado a Gerhard Bähr con una foto de la familia Bähr, sacada en frente del túnel de san Adrián, me llegó el anuncio de la obra de Treiber, y pensé en corresponder con esta obra hecha por un artista alemán.

Creemos que puede simbolizar un puente y una unión entre nuestros corazones.

Muchas gracias.

ACTO PÚBLICO EN HOMENAJE A GERHARD BÄHR, EN EL CENTENARIO DE SU NACIMIENTO, CELEBRADO EN EL AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI. 06-V-2000

Paul Schröder,
Cónsul de Alemania en San Sebastián

Excmo. Sr. Alcalde,
Excma. Sra. Consejera de Cultura,
Excmo. Sr. Diputado de Cultura,
Sr., Sra. Bähr, y
Señoras y señores.

Es para mi un placer y un honor el poder dirigirles unas palabras en el día de hoy en este acto tan entrañable. El embajador de la República Federal Alemana Sr. Joachim Bitterlich, quien por motivos de agenda no ha podido asistir personalmente a este entrañable acto, me ha rogado les transmita sus saludos más sinceros, especialmente a la familia Bähr. Gerhard Bähr se nos adelantó en el tiempo, contribuyendo con sus esfuerzos al reforzamiento de las relaciones entres nuestros pueblos. La semilla que él sembró debemos conservarla, la debemos incentivar.

En este sentido deseo dar las gracias a todos los que con su esfuerzo han hecho posible un acto tan emotivo como el de hoy.

Muchas gracias.

NAFARROA OINEZ 2000 DELA-ETA, SAN FERMIN IKASTOLAN, ZIZUR TXIKIAN, NAFARROAN, ANTOLATURIKO EKITALDIAK

NAFARROA OINEZ 2000 DELA-ETA, EUSKALTZAINDIAK SAN FERMIN IKASTOLAN ANTOLATUTAKO EKITALDIAK

PRENTSAURREKOA

2000-IX-26

Andres Iñigo,
Nafarroako ordezkaria

— Zaretela ongietorriak!

— Mahaikideen aurkezpena:

• Ane Apezetxea, San Fermin ikastolako irakasle eta Nafarroa Oinez, 2000ren koordinatzailea.

• Patxi Salaberri, euskaltzain urgazlea, NUPeko irakasle titularra. Aurkeztuko dugun ekitaldiko hizlarietako bat.

• Andres Iñigo, Euskaltzaindiaren ordezkaria Nafarroan.

— Dakizuenez, San Fermin Ikastola da aurtengo Nafarroa Oinez antolatzen duena eta, hori dela eta, Euskaltzaindia ere gonbidatu du ospakizun horren inguruan parte hartzera.

— Ezaguna da Euskaltzaindiak duen ohitura urtean zehar Euskal Herriko lurralde bakoitzean osoko bilkuraren bat egiteko, ospakizunen baten inguruan. Adibidez:

• Iaz Etxarri-Aranatzen Victoriano Huiziren *Gramatika Bascongada* mendeurrena zela eta.

• Orain dela bi urte, Donezteben Euskal Besten 75. urteurrenaren ospakizunean.

• Orain dela hiru urte, Iraizotzen, A. Polikarporen mendeurrena zela eta.

* * *

Aurten, jadanik bilera bat egin badu ere Nafarroan (maiatzean, Iturenen, nire sarrera hitzaldia zela eta), hagitz gogo onez hartu zuen San Fermin ikastolak luzatu zion gonbita:

• San Fermin ikastola dugulako Nafarroan abian jarri zen lehendabizietakoa eta, gainera, ikasketa prozesu osoa duena: 3tik 18 urtera, Batxilergoa barne.

• 30 urte bete dituelako abian jarri zenetik.

• Eta Euskaltzaindia Iruñean (hiriburuan) frankotan bildu bada ere, lehendabiziko aldia izanen delako Iruñerriko herri batean biltzen dena.

Bi egunez izanen da Euskaltzaindia San Fermin ikastolan, aste honetako ortzegunean eta ortziralean, 28an eta 29an, alegia.

Esku programan dituzuen honako ekitaldi hauek antolatu ditu:

1. 28an, ortzegunean:

— 12:00etan, Zuzendaritza bilera.

— Arratsaldeko 6:00etan, "Euskal onomastika eta egungo legeria"-ri buruzko III. Jardunaldia.

Asko dira, eta ia egunero, Nafarroako ordezkaritza honetara ailegatzen diren kontsultak, bertzeen artean, izen eta deituren aldaera ofizialaz eta grafia zuzenaz galdetzen dutenak. Hori dela eta, Euskaltzaindiaren bi batzordeen zeregina elkartuz –Onomastika eta Sustapen batzordeena, alegia–, antolatu da III. Jardunaldi hau, oraingo honetan Nafarroako bake-epaitegi, udaletxeetako idazkari eta mankomunitateetako euskara teknikariei zuzendua, hots, beren ogibide edo karguarengatik gai honekin zerikusi zuzena dutenei, alegia. Gonbidatuen zerrenda 300etik gorakoa izan da.

— Hizlariak honako bi hauek izanen dira:

• Andres Urrutia, euskaltzain osoa eta Sustapen batzordeburua "Euskal izen eta deiturak: grafia eta legea" izenburutzat duen gaiaz arituko da.

• Mikel Gorrotxategi, euskaltzain urgazleak eta Onomastika batzordeko idazkariak "Deiturak normalizatzeko irizpideak" azalduko ditu.

Partaideei bi hitzaldi hauen txosten osoak banatuko zaizkie.

2. 29an, ortziralean:

— 10:00etan hasi eta goiz-arratsaldez osokoen bilkura.

(Hiztegi Batuaren 2. itzulirako irizpideak finkatzea eta lehendabiziko hitz saila aztertzen hastea izanen dira gai nagusienak).

— Arratsaldeko 6:00etan: ospakizunaren ekitaldi irekia.

• Ekitaldi honen ardatza "Euskara Iruñerrian" izanen da.

• Patxi Salaberrik azalduko digu zeintzuk diren Iruñerriko euskararen ezaugarriak.

• Juan Jose Zearretak, euskaltzain urgazleak, San Fermin ikastolaren egoitzan –orain dela 28-30 urte, Verbo Divino-koen egoitza zen garaian– antolatu ziren alfabetatze-euskalduntze eta udako euskal ikastaroen historiara hurbilduko gaitu.

• Pakita Zabaletak, NUPeko irakasleak, Iruñerrian euskararen berreskuratzearen prozesua nolakoa izan den eta nolakoa den azalduko digu.

• Azkenik, Mertxe Berasategik, San Fermin ikastolako zuzendariak, ikastetxearen 30 urteko historia eskainiko digu.

Hizlari hauekin batera, mahaiburuan izanen ditugu Ikastolako Presidentea eta Euskaltzainburua eta ekitaldian zehar bertako abesbatzak abesti batzuk eskainiko dizkigu.

Ekitaldi honetarako gonbita igorri zaie: ikastolako gurasoei, Nafarroako gainerako ikastola guztiei, Nafarroako Gobernuaren ordezkariei, talde parlamentarietako ordezkariei, Nafarroako Gobernuaren euskara arduradunei eta hezkuntza eta kultura erakundeei.

ACTOS ORGANIZADOS POR LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA EN LA IKASTOLA SAN FERMÍN CON MOTIVO DEL NAFARROA OINEZ 2000

RUEDA DE PRENSA

26-IX-2000

Andres Iñigo,
Delegado de Euskaltzaindia
en Navarra

— Reciban ante todo nuestra bienvenida.

— Presentación de la mesa:

• Ane Apezetxea, profesora de la ikastola San Fermín y coordinadora del Nafarroa Oinez, 2000.

• Patxi Salaberri, académico correspondiente y profesor titular de la UPNA. Es uno de los ponentes de las jornadas que vamos a presentar.

• Andres Iñigo, delegado de Euskaltzaindia en Navarra.

— Como es sabido, la edición del Nafarroa Oinez del presente año corre a cargo de la Ikastola San Fermín. Con tal motivo, la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia también ha sido invitada a participar en los actos organizados en torno al Nafarroa Oinez.

— Es conocida la costumbre de Euskaltzaindia de celebrar al menos una de sus reuniones plenarias anuales en cada uno de los territorios de Euskal Herria, en torno a alguna celebración. Por ejemplo, en Navarra se ha reunido en:

• El año pasado en Etxarri-Aranatz, con motivo del centenario de la *Gramatica Bascongada* de Victoriano Huizi.

• Hace dos años en Doneztebe/Santesteban con motivo del 75 aniversario de las Fiestas Vascas.

• Hace tres años en Iraizotz para celebrar el centenario del P. Polikarpo.

— Este año, aunque ya ha celebrado una reunión en Navarra –el pasado mes de mayo, en Ituren, con motivo de mi ingreso en Euskaltzaindia–, la Academia acogió con sumo gusto la invitación cursada por la Ikastola San Fermín:

• Porque, además de ser una de las primeras ikastola que empezó a funcionar en Navarra, es la única que tiene establecido el proceso educativo completo –de 3 a 18 años, incluido el Bachillerato–.

• Porque cumple 30 años de existencia.

• Porque a Euskaltzaindia, se le ha brindado la ocasión de reunirse por primera vez en un pueblo de la Cuenca de Pamplona. (A lo largo de su historia se ha reunido muchas veces en Pamplona capital, pero nunca en pueblos de la Cuenca).

— La Academia estará presente en la ikastola San Fermín los próximos días 28, jueves, y 29, viernes.

Los actos programados, tal como pueden consultarse en el programa de mano, son los siguientes:

1. Día 28, jueves:

— 12:00. Reunión de la Junta de Gobierno de Euskaltzaindia.

— A las 6:00 de la tarde, III Jornada sobre "Onomástica vasca en el marco de la legislación vigente". Son muchas, prácticamente diarias, las consultas que se reciben en esta delegación de Euskaltzaindia en Navarra referentes a las formas oficiales de nombres y apellidos y a la correcta grafía de los mismos. Por ello, la Academia ha considerado oportuno incluir en el programa de actos académicos esta Jornada –organizada de modo conjunto entre sus comisiones de Onomástica y de Status de la lengua–, dirigida en esta ocasión a las personas que por su oficio o cargo tienen relación directa con el tema, a saber: juzgados de paz, secretarios de ayuntamientos y técnicos de euskera de Mancomunidades de Navarra. Las invitaciones cursadas superan la cifra de 300.

— Ponentes:

• Andres Urrutia, académico de número y presidente de la comisión de Status, que desarrollará el tema "Nombres y apellidos vascos: grafía y ley".

• Mikel Gorrotxategi, académico correspondiente y secretario de la comisión de Onomástica, que expondrá los "Criterios de normalización de apellidos".

A los asistentes se les entregarán los textos íntegros de ambas ponencias.

2. Día 29, viernes:

— A partir de las 10:00 horas: sesión plenaria de la Euskaltzaindia.

(Los principales temas del orden del día son la aprobación de criterios para la 2ª vuelta del Diccionario Unificado y el comienzo del análisis del primer bloque de palabras del mismo).

— A las 6:00 de la tarde: sesión pública conmemorativa.

• El tema central sobre el que versarán las ponencias será: "El euskera en Pamplona y su cuenca".

• Patxi Salaberri, académico correspondiente y miembro de la Comisión de Onomástica expondrá las características del euskera de la Cuenca de Pamplona.

• Juan Jose Zearreta, académico correspondiente, nos acercará a la historia de los cursos de alfabetización y euskaldunización y cursos de verano que hace 28-30 años tuvieron como escenario la actual sede de la Ikastola San Fermín –cuando era seminario-residencia de los PP. del Verbo Divino–.

• Pakita Zabaleta, profesora de la UPNA, analizará el proceso de recuperación del euskera en Pamplona y su cuenca.

• Finalmente, Mertxe Berasategi, directora del centro, versará sobre los 30 años de historia de la Ikastola San Fermín.

Presidirán el acto la Presidenta de la Ikastola y el Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia. El acto estará amenizado por el Coro de la propia ikastola.

Han sido invitados a este acto, además de los padres de los alumnos del centro, las demás ikastolas de Navarra, representantes del Gobierno de Navarra, representantes de los partidos políticos de Navarra con representación parlamentaria, cargos responsables del euskera del Gobierno de Navarra e instituciones educativas y culturales.

SOBRE EL EUSKERA DE PAMPLONA Y DE SU CUENCA

29-IX-2000

Patxi Salaberri Zaratiegi,
miembro correspondiente
y miembro de la Comisión de Onomástica

En este trabajito hacemos un primer análisis del euskera de Pamplona y de su Cuenca, perdido principalmente durante la mitad del siglo XX. El estudio del habla de esta zona lo hacemos basándonos fundamentalmente en los numerosos textos —en su mayoría de carácter religioso— que investigadores como Pedro Díez de Ultzurrun, Patxi Ondarra, Jose María Satrustegi y otros han publicado. Estos textos están escritos de manera clara en el dialecto navarro empleado en la capital y en sus alrededores, el cual presenta una serie de rasgos que lo caracterizan frente al euskera de otras zonas. Sin embargo, y a pesar de la innegable afinidad que las hablas de la Cuenca presenta entre sí, existen diferencias de carácter fonológico, gramatical (verbo y declinación), semántico... etc., que están siendo estudiadas en la actualidad —próximamente se publicarán en *ASJU* los trabajos del conocido dialectólogo Iñaki Camino sobre el mismo tema—, a fin de poseer un conocimiento más amplio y detallado del euskera de una zona tan importante en Navarra como es la capital y su Cuenca.

Hemos tomado como base de nuestro estudio las obras de Juan de Berain (Uterga, siglo XVII), Elizalde (Muzki, siglo XVIII), Lizarraga (Elkano, siglos XVIII y XIX), y los materiales recogidos en la segunda mitad del siglo XIX por el príncipe Luis Luciano Bonaparte, autor de la conocida clasificación —y mapa— de los dialectos y subdialectos de la lengua vasca, materiales publicados hace ahora unos años por Patxi Ondarra en la revista *Fontes Linguae Vasconum* y pertenecientes a las hablas de Elkano, Puente la Reina, Gares, Oltza y Goñi. También hemos utilizado varios catecismos y sermones escritos en el euskera de la Cuenca y sus alrededores y no hemos rechazado, claro está, las transcripciones de las grabaciones de los últimos hablantes (por ejemplo el testimonio de Anotz, en el valle de Ezkabarte recogido por Koldo Artola) de la zona objeto de estudio.

IRUÑERRIKO ETA INGURUKO IBARRETAKO EUSKARAREN GAINEAN

Iruñea, 2000-IX-29

Patxi Salaberri Zaratiegi,
euskaltzain urgazlea eta Onomastika batzordekidea

0. Sarrera

Gaur aurkezten dugun lan hau Iruñeko Udalak *Iruña eta euskara* izenpean 1995eko abenduan antolatu jardunaldietarako prestatu genuen lanaren ume da, alegia, nafar hiriburuko euskara nolakoa ote zen zehaztu nahian jardunaldi haietarako egindako sistematizazio saioaren ondorioa.

Saio hura burutzeko esku artean genituen Iruñeko eta inguruetako liburu, testu, eta datuak —horietako franko bederen— aztertu genituen, ikusten ziren ezaugarri komunak eta toki batetik bestera, zendea edo ibar batetik bestera agertzen ziren desberdintasunak zehazte aldera.

Hizkuntza gertakarien arteko mugak azaltzen hasi aitzinetik, ohar batzuk egin nahi ditugu, hemen agertuko direnak «cum mica salis» hartu behar direla adierazteko. Izan ere, aintzat hartu ditugun idazleen lanak —liburuak—, hots, Muzkiko Elizalderen *Apezendaco dotrina christiana uscaras*, Beriainen *Tratado de Como se ha de oyr missa* eta *Dotrina christioarena euscaras* eta Elkanoko Lizarragaren lan ugariak (bibliografian ageri direnak) literaturaren, nolabaiteko literaturaren barrukotzat jo behar dira, azalari dagokionez bai behintzat, Muzkin, Utergan edo Elkanon arruntak ziren hainbat gertakari —fonetiko bereziki (ikus Salaberri, 1994)— alde bat uzten dituztelako, beren lanei goragoko maila bat ematearren, zalantzarik gabe.

Konparaziorako, Elizalderen lanean ez da sekulan agertzen Muzkin indartsua zen goiko bokalen ondoko *a* > *e* hersketa (cf. Lekuonak karrikaratutako herri horretako testuak [Lekuona, 1973]; Ikus gerok egindako alderaketa, *in* Salaberri, 1994). Beriainen liburuan, bestalde, beti **j**- dago ([x] itxuren arabera) noizbehinkako **I**- batzuk alde bat uzten baditugu (hauek ere [x]-ren ordezkatzaile dira, ordea), Utergan, zenbait hitzetan behinik behin, hasierako [j], Iruñerri osoan bezala, [∞s] ebakitzen zela baldin badakigu ere (ikus P. Ondarrak 1980an argitara emandako herri honetako katixima). Aieka honetatik Utergako euskara ibar bereko (Itzarbeibarko) Garesko hizkeratik urruntzen bide zen, herri hartako katiximako euskara dirudien bezala —Patxi Ondarrak horrela uste du— bertakoa bazen bederen.

Bestelako testuak (erlijio testuak dira gutiz gehienetan) euskara herrikoiagoan idatzirik ohi daude, baina horrelakoetan ere badirudi egileak batzuetan gorago aipatu idazleek zuten nahi hura bera —herri hizkera soila baino zerbait jasoagoa moldatzea, alegia— izan zutela.

Iñaki Camino dialektologo ezagunak lan zeharo interesgarria apailatu du Goñerriko hizkeraren inguruan (Camino, 1999), baina donostiar ikertzailearen lana ez da alderdi horretara edo Kokoerrira mugatzen: inguruko ibarrak ere aztertzen ditu, hauetako euskara aldameneko haranetako hizkera orain desagertuarekin eta gaurdaino euskaldun iraun duten Ergoienerrikoarekin eta Aranatz aldekoarekin erkatuz. Jakina, hauen ondoan dagoen Arakil ere solasgai hartzen du, bai eta ere berak hain ongi ezagutzen duen Nafarroako Pirinioetako alderdia, Aezkoatik Eguesibarreraino, Artzibar, Erroibar eta Esteribar tarteko direla. Iristen duen ondorioetako bat da Eguesibarko euskara, Lizarragak ibiltzen duena, Artzibarkoaren arrunt irudia zela. Hau bateratsu dator, aldaketatxo batzuk badaude ere, ikertzaile honek berak doktorego tesian atera zuen ondorioarekin, alegia, Aezkoako euskara Artzibarkoarekin eta Eguesibarkoarekin lotu behar delako ustearekin (ikus 1997: 277-296, 287 bereziki).

Bestalde, Orreaga Ibarra irakasleak bere tesian (1995b) eta lehenagoko (1995) eta geroagoko beste lan batzuetan (1995b, 1997, 1998, 2000) Basaburu, Ultzama, Anue, Imotz, Atetz, Esteribar eta Erroibarko euskara ikertu du, hots, Iruñerriarekin edo Iruñerri ondoko ibarrekin mugatzen duten haranetako hizkera. Ultzamako euskara Izagirrek aztertu zuen, orain hogeita bost urte (1966).

Irizar langileak datu interesgarri anitz biltzen ditu, aditzaren inguruan bereziki, 1981eko eta 1992ko bere liburuetan. A. M. Etxaidek ere (1989) hainbat herritako datuak bildu ditu, hiztegiaren arlokoak gehienbat, Iruñerritik hurbil dauden Esteribar, Anue, Ultzama, Atetz eta Imozkoak, besteak beste. R. M. Pagolaren 1992ko lanean Goldaratz, Beuntza, Beramendi, Larraintzar eta abarretako datuak jasotzen dira.

Nafarroako leku anitzetako euskara zaharraren azterketarako J. M. Satrustegiren *Euskal testu zaharrak* (1987) bilduma ezin baztertuzkoa da, gure lanerako bereziki Bonapartez geroztik oraintsu arte Hegoaldeko goi-nafarrera deitu izan den euskalkian (1) idatzitakoak. Ikertzaile beraren beste anitz lan ere arrunt interesgarri suertatzen zaizkigu, Nafarroako testu zaharrak bildu eta ukitzen dituztenak: "Ultzamako euskal testu argitaragabeak" (1995), "Olaibarko euskal bertso papera" (2000)... eta abar (ikus bibliografia).

Kokoerritik ez hagitz urruti dagoen Sakanerriko euskara oraino bizirik dugu eta, beraz, datuak lortzea irispidean da. Gainera, Damaso Intzaren as-

(1) Euskalkien sailkapen berrirako ezinbestekoak dira Camino (1995 eta 1997), Ibarra (1995a eta 1995b) eta Zuazoren lanak (1995, 1998, 2000). Azentuan oinarritutako sailkapenerako Mitxelena (1988 [1957-1958], 1990 [1961]), Txillardegi (1984), Hualde (1995, 1997) eta Gaminde (1998) ikus daitezke.

paldiko artikulua dugu (1922), Izagirreren beranduagokoa (1967) eta hondarreko urteotako lanak: batzuk dialektologia arlokotzat (Solís, 1993; Zuazo, 1995; Maiz & Mundiñano, 1998; Erdozia, 2000, 2000b) har ditzakegu, beste batzuk oro har literaturaren barrenekotzat eman daitezke (Bidador, 2000), eta beste batzuk, buruenik, ez genituzke ez multzo batean ez bestean sartuko, baina alderdi horretako euskara ezagutzen laguntzen digute (Karasatorre & Erdozia & Ulaiar, 1991). Testu zaharrak ere badira (cf. Satrustegi, 1999).

Euskal dialektologian argitu beharreko puntu ilunenetako bat, gure irudiz, Nafarroako hiriburuko euskararen nolakoa da, nolako zehatza erran nahi dugu, bestela bai baitakigu guti goiti-beheiti Iruñeko hizkerak nolakoa izan behar zuen. Zorionez hor dugu Joanes Amenduxeko iruinsemeak XVI. mendean idatzi zuen olerki labur-polita, bai eta, orobat, «Independentziako Gerra» deitu izan denean frantses militarrek eragindako, idatzarazitako «Espoz eta Mina» gerrillariaren kontrako "bandoak", orain urte mordoxka bat (1974: 145-150) Aingeru Irigaraik argitara eman zituenak.

Zorigaitzez, Amenduxen olerkia zaharregia da nafar hiriburuko azken mendeotako hizkeraren berri zehatza jakiteko, eta bandoen egilea nor izan zen ez dakigu, ez eta iruindarra zen ere, nafarra zela eta nafarreraz egiten zuela garbi dagoen arren.

Hiriburuko toponimiaren azterketak (ikus Jimeno Jurío & Salaberri, 1994) nolabaiteko laguntza ematen digu zenbait puntu hobeki ezagutzeko (cf., erraterako, *dinda* izenak Iruñean zuen erabilera itxuraz zabala: *Urradinda, Zakudinda, Dindatxikia* edo *Langinobraria*-n dugun *langin* 'langilea' hitza, Elkanokoak ere erabiltzen duena), baina, ohi bezala, laguntza hori murritza da eta bestelako iturririk —testurik, alegia— ez bagenu «euskaldunen hiri buruzagiko» euskarak gordean iraunen luke, hein handi batez.

Eskualde hau dialektologiaren aldetik biziki garrantzizkoa dela dudarik ez dago. Zilegi bekigu hona Iñaki Caminoren hitzak ekartzea (1999: 14):

> *Gure iritzian, Nafarroako hizkerak neurri batean bederen banatzen dituzten ezaugarri batzuk Iruñetik biziki hurbil iragaten dira: ikusi besterik ez dago Oltzako hizkeratik Eguesibarkora badela aldea, nahiz orografiaren eta distantziaren aldetik honetarako arrazoi nabarmenik ez dagoen; bien artean, gainera, teorian bederen homogeneizatzaile lana bete lezakeen Nafarroako hiriburua dago. Pentsa liteke, bestalde, Iruñeko edo Iruñerriko euskararen barrenean ere aldeak zeudela gune batetik bestera (...)*

Iruñerriko euskara aztertzeko garrantzi handikoak dira, inolako zalantzarik gabe, iragan mendean Bonaparte printzeak Elkanon, Garesen, Oltzan eta Goñin bildu eta orain urte batzuk *FLV*-en Patxi Ondarra euskaltzainak (1982) karrikaratutako datuak, bestela ezagutuko ez genituzkeenak direlako batetik (Gareskoak partikulazki), garai berekoak, sinkronia berekoak direlako bigarrenik, eta irudi duenez tokian tokiko ohiko euskara islatzen dutelako azkenik.

Printzeak aipatu herri horietako euskarara itzularazitako testuak ere, orain urte batzuk (1991n) Euskaltzaindiak argitara emandako Bonaparteren *Opera Omnia Vasconice*-n azaltzen direnak, hagitz baliagarriak dira inguru honetako hizkera ezagutzeko.

A. Irigarai (1974: 67-69) biltzen duen Zildotz herrixkako 1773ko udal agiria ere garrantzi handikoa da, bere laburrean, Ezkabarteko euskararen azterketarako. Honi esker badakigu haran honetako euskarak, ekialdeko herrietakoak bederik, Elkanokoarekin amankomuneko ezaugarri batzuk bazituela, uste izatekoa zen bezala, baina aldeak ere ez direla gutxi. Iruñe ondoko haran horretako (Ezkabarteko) hizkeraren berri izateko ezinbestekoak dira, aipatuez lekora, Koldo Artolak Anozko azken euskaldunaren ahotik bildutako datuak (1985) eta Pedro Díez de Ultzurrrunek (1960) argitaratutako Makirriaingo dotrina.

Nolanahi ere, azken urteotan kaleratu diren testu zaharrek huts larria dute, Iñaki Caminok Goñerriko testuez ari delarik bere lanaren atarikoan dioen bezala, usu ez baitakigu xuxen nor zen idazlea ez eta non eta noiz idatzi zituen ere. Edo idazlea zein den jakin arren batzuetan ez dakigu izkribu horiek aurkitu diren herrietako euskaraz idatzirik dauden ala ez.

Txulapain aldean, bestalde, euskara orain dela gutxi iraungi da, eta badira bertako euskara nolakoa zen erakusten diguten grabaketak eta hauetatik abiaturik osatutako egunkariko artikuluak. Alderdi honetarako, Olloibarko eta Goñerriko datu batzuk *Erizkizundi Irukoitza*-n (Euskaltzaindia, 1984) biltzen dira, zenbaitetan datu horien erabateko fidagarritasunaz duda egiteko aski arrazoi izanagatik. Artolaren datuak ere (1992) garrantzi handikoak dira haran honetako euskararen berri jakiteko; hemen, gainera, egun biltzerik ez legokeen Arakil, Odieta, Olaibar, Esteribar, Erroibar eta Artzibarko datu interesgarri anitz jasotzen ditu egileak. Damaso Intzak (1974) egindako esaera zaharren bilduma ere munta handikoa da, bertan Atetz, Anue, Odieta, Itza, Txulapain eta bestetako datuak biltzen direlako, besteak beste.

Iruñerritik mendebaldera dauden ibarretako euskara aztertzeko aipaturikako Garesko materialak ditugu, Beriainen lanak æXVII. mendekoak dira hauek, alabainaæ, Utergako katixima, Muzkiko testuak, Elizalderen dotrina eta Satrustegik karrikaratutako testu zaharrak æezkon-formulak dira batzuk, lekuan lekuko hizkera islatzen ez dutenakæ. Gerok (Salaberri, 1998) Arabako mugako ibarretako hizkeraren argitasun batzuk eman ditugu, bertako toponimian aurkitzen ditugun ezaugarri dialektalez baliaturik (Arabako euskararen inguruan Knörr [1998] eta Zuazo [1989, 1999] ikus daitezke).

Orain Iruñerriko euskararen ezaugarri batzuk aipatuko ditugu, denak herri guztietakoak ez badira ere. Ikus daitekeenez helburu didaktikoak isoglosak —fonetikoak eta morfologikoak gehienbat— erabiltzera eraman gaitu, nahiz ongi dakigun hauek, maizkara, hizkuntza errealitatea ez dutela ongi erakusten (gai honetaz ikus Chambers eta Trudgilll, 1994: 139 eta hurr.).

1

a > e hersketa

Lotsagarrie
gauze
eskuen



2

eu > au

neurritu > naurritu

euri > auri

deus > daus

eun > aun



3

Sinkopa: atera > atra, oberena > obrena



4

Arratoi > arratio, arrazoi > arrazio, saroi > sario



5

Hitz hasierako [j]-en tratamendua

yai > xai / jai

yan > xan / jan

yarri > xarri / jarri

yo > xo / jo



6

[ilV] > [i $\overset{l}{\underset{v}{}}$ V] bustidura

ilabete > illabete

ortzilare > ortzillare



7

[inV] > [i n̥ V] bustidura

sinestatu > siñestatu

baitzine > baitziñe



8

$[\,{}^{i}_{n}nV] > [\,{}^{n}_{v}V]$ bustidura

gaina ⇨ gaña

oinaze ⇨ oñaze



9

Ergatibo plurala

gizonak egin dute / gizonek egin dute



10

Datiboa


-ai / -ei // -ari / -eri, -egi
Usi
Urnitzola
Anoeta
Nabatz
Zildotz
Olio
Goñi
Oltza
Goñerria
gizonai, gizonei
Elkano
IRUÑEA
Ibero
gizonari, gizoneri
Muzki
gizonari, gizonegi
Uterga
Gares

11

Genitivo singularra: *-aren, -an // -aren, -ain*



Gizonare, gizonaren

12

Ablatibo plurala
-eta(r)ik / -etatik / -etati



13

Soziatiboa
-a(re)ki, -eki / -arekin, -ekin



14


Instrumentala
-az / -ez
-as / -es
Usi
Anoeta
Nabarniz
Zildotz
Mandiain
Elkano
-az / -ez
-as / -es
IRUNEA
-as / -es
Umitzola
Ollo
Goñi
Goñerria
-as / -es
Olza
Ibero
-as / -es
-az / -ez
Muzki
Uterga
-as / -es
Gares

15

"Verbisation"

Ikusten(d)ut > ikusteunt, ikustaunt, ikustont



16

Dizkiot, nizkio(n) / tiot, nitio



17

diotet "diet"



18

Iraganaldia

garbitu zioten / garbitu ziote

kantatu zuten / kantatu zute



19

Iraganaldiko trinkoen bokala (*-e-* vs. *–a-*)



20

jan nuke(a) "jan nezakeen"



21

Geroaldia



22

Nor - nori saila

izan (orainaldia)

*edin (iraganaldia)

(orain eta iraganaldia)



23

edan banez(a), balez(a), eror banindedi, banedi



edan banez(a), edan balez(a)

eror banindedi, eror banedi

24

Errezebi dezadan, geldi da(d)ien /
errezebitu dezadan, gelditu da(d)ien



25

Izan na(d)ien, da(d)ien,
izan zeien, zaien, zidaien



26

Noaie 'noa', doaie 'doa', zoeie 'zihoaṇ'



27

izandu, botatu, egondu, ibildu,

idukitu, iraundu, jakindu



28

edatera (e)man
tentazioan erortzera utzi



29

Goazen atras kontua
gaixtatus joan, ikusis joan



30

arren adoratzera joateko
onen eta gaixtoen juzgatzeko (juzgetzeko)
lagunaren iltzeko



31

arturik, eginika, itorik, izanikan...



Ondorioak

Gu hemen ohar batzuk egitera mugatuko gara, ondorio finkoak ateratzeko gurea baino ikerketa sakonagoa eta ezagutza hobea behar baita (ikus aipatu dugun Caminoren azterketa bikaina). Gehienez ere mapei begiratu bat eman ondoan hau erran daitekeela uste dugu:

1. Isoglosa (isofono, isomorfo) batzuek alderdi osoa harrapatzen dute: *eu* > *au*; sinkopa; *arrazoi* > *arrazio* metatesia; [}inV] > [ùnV] bustidura; hirugarren pertsona pluraleko marka (*o* + *te*), nor-nori-nork sailean; trinkoen bokala, iraganaldian; *jan, xan nuke(a)* 'jan nezakeen'-en tankerako adizkiak; *aditzoina* + **ezan, *edin*, baldintza alegiazkoan; aditzoinaren eta partizipioaren arteko aldizkatzea, indikatibotik kanpo; *-ie*-dun formak, **edin*-en subjuntiboko adizkietan (*da(d)ien* vs. *dedin*); *noaie*-ren taxuko adizki "luzatuak"; aditzaren era bukatu analogikoak (*izandu, egondu, idukitu...*); zenbait aditzen gobernamendua (*eman, utzi* + aditzizena adlatiboan, *joan* + aditzaren era bukatua instrumentalean...); aditzizenaren objektu zuzena genitiboan (hautazkoa, irudiz); *-ikako* bidezko erlatiboak.

2. Batzuetan erdiko gune bat bezala gelditzen da, iparraldekotik eta hego-mendebaldekotik bereizita: *xan / jan / yan*, soziatiboa (*noreki* vs. *norekin*); "verbisation" delakoa (aditz metatesia).

3. Beste isoglosa batzuk ipar-ekialdetik hego-mendebaldera doaz, hemen aztergai hartu dugun alderdia bitan zatituz: *a* > *e*, [ilV] > [iùlV], [inV] > [iùnV] bustidurak, ergatibo plurala (*-ek* vs. *–ak*). Behin edo beste isoglosak Uterga (aldaera orokorrarekin batean) eta Gares baizik ez ditu harrapatzen (*izanen, izain / izanko*).

4. Inoiz ekialde / mendebalde zatiketa dago: datiboa (*gizonai, gizonei / gizonari, gizoneri – gizonegi*), ablatibo plurala (Muzki eta Uterga bereziak), genitibo singularra.

5. Muzki eta Uterga (eta batzuetan Gares) beren kabuz doaz ezaugarri batzuetan: ablatibo plurala (aldaera ugaritasuna); *-zki-* aditz pluralgilea (honetan Iberorekin eta Garesekin batera, antza); txandaketa, iraganaldiko sudurkarian; orainaldiko **edin*, nor-nori sailean; aditzaren era bukatuak partitiboa hartzen duenean *–(r)ik*, *-(r)ika* nahiz *–(r)ikan* agertzea.

Bukatzeko erran nahi dugu lan hau hurbiltze saioa besterik ez dela eta geroko ikerketak baietsi edo ezetsi beharko dituela hemen, ausardia handiegiaz beharbada, segurutzat ematen direnak.

Bibliografia

Artola, K. (1985):

—— "Ezkabarteko euskara, Iruñeko udal dermioaren ondokoa, Celedonia Zenoz andrearen ahotan", in *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 95-112.

—— (1992): "Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-eta (hurbiltze-saiakera)", *FLV* 60, 187-227.

Beriain, J. de (1980 [1621]): *Tratado de como se ha de oyr missa*, argitalpen faksimila, Hordago, Donostia.

—— (1626): *Dotrina christioarena euscaras*, Iruñea.

Bidador, J. M. (1992): "Noticias y restos del euskera de Val de Ollo", *FLV* 60, 277-295.

—— (2000): *Sakanako Euskal Idazleen Antologia (I)*, Nafarroako Gobernua & Bierrik Elkartea, Iruñea-Urdiain.

Bonaparte, L.L. (1882): "Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del valle de la Burunda", *Revista Euskara* V, 120-121.

—— (1991): *Opera Omnia Vasconice*, Euskaltzaindia, Bilbo.

Camino I. (1995):

—— "Abiaburu bat aezkeraren azterketarako", in *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiko Urtekariaren gehigarriak XXVII, R. Gómez eta J. A. Lakarra arg., Donostia, 59-160.

—— (1997): *Aezkoako Euskararen Azterketa Dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Donostia.

—— (1999): "Goñerriko hizkera (I)", *ASJU*, XXXIII, 5-78. Lan osoa hiru zatitan aterako da, egileak dioskunez, aipatutako aldizkarian (*ASJU* 33/1, 1999 eta *ASJU* 34/1 eta 34/2, 2000). *FLV*-rako ere prestatu omen du gai honen inguruko lanen bat.

Chambers, J.K. & Trudgill, P. (1994): *La Dialectología*, Visor Libros, Madril.

Díez de Ultzurrun, P. (1960): "El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828", *Euskera* V, 377-403.

Elizalde, F. (1735): *Apezendaco Dotrina Christiana Uscaras*, Iruñea. *FLV* 64, 1994, 41-65-en jatorrizko edizioaren argitalpen faksimila dago.

Erdozia, J. L. (2000): "«Erizkizundi irukoitza» Sakana erdialdean", *FLV* 83, 53-72.

—— (2000b): "Sakana erdialdeko azentuaren deskribapena", *FLV* 85, 417-439.

Etxaide, A.M. (1989): *El Euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Euskaltzaindia (1984): *Erizkizundi Irukoitza*, Iker-3, Bilbo. Ana Maria Etxaidek paratutako argitalpena.

Gaminde, I. (1986):

—— "Esteribarreko Aditzak", *FLV* 48, 183-203.

—— (1998): "Nafarroako azentu ereduen sailkapena", *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak. Iruñea, 1997ko azaroa (24-28)*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, Iñaki Camino arg., 23-48.

Hualde, J. I. (1995):
—— "Euskal azentuen sailkapenaz eta historiaz", *Euskal Dialektologiako Kongresua* (Donostia, 1991ko irailak 2-6), «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiko Urtekariaren Ggehigarriak XXVII, R. Gómez eta J. A. Lakarra arg., Donostia, 189-208.
—— (1997): *Euskararen Azentuerak, ASJU*-ren gehigarriak XLII, Gipuzkoako Foru Aldundia & Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.
Ibarra, O. (1995):
—— "Ultzamera", *Euskal Dialektologiako Kongresua* (Donostia, 1991ko irailak 2-6), «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiko Urtekariaren gehigarriak XXVII, R. Gómez eta J. A. Lakarra arg., Donostia, 553-578.
—— (1995b): *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
—— (1997): "Erroko testu argitaragabe bat eta beste batzuen iruzkina", *FLV* 75, 265-282.
—— (1998): "Ultzamako hizkeraren deskribapena", *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak.* Iruñea, 1997ko azaroa (24-28), Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, Iñaki Camino arg., 89-110.
—— (2000): *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.
Intza, D. (1922):
—— "Burundako euskalkia", *Euskera*, II, 3-42.
—— (1974): *Naparroa'ko euskal-esaera zarrak*, Institución Príncipe de Viana, Iruñea.
Irigarai, A. (1974): *Una Geografía Diacrónica del Euskara en Navarra*, Ediciones y Libros, Iruñea.
Irizar, P. (1981):
—— *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, 2 liburuki.
—— (1992): *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional*, Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua, Iruñea.
Izagirre, K. (1966):
—— "Ultzamako euskeraren gai batzuk", *BRSVAP* XII, 1966, 403-667.
—— (1967): "Altsasuko euskeraren gai batzuk", *ASJU* I, 1967, 45-97
Jimeno Jurío, J. Mª & Salaberri, P. (1994):
—— *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona / Iruña*, Onomasticon Vasconiae 12, Euskaltzaindia, Bilbo.
—— (1999): *Artajona. Toponimia Vasca / Artaxoa. Euskal Toponimia*, Altaffaylla Kultur Taldea & Nafarroako Gobernua & Sociedad de Corralizas y Electra de Artajona, Lizarra.
Karasatorre, R. & Erdozia, J. L. & Ulaiar, E. (1991): *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia*, Altaffaylla Kultur Taldea, Tafalla.

Knörr, H. (1998): *Lo que hay que saber sobre la lengua vasca en Álva / Arabako euskarari buruz jakin behar dena*, Caja Vital Kutxa Fundazioa, Gasteiz.

Lekuona, M. (1973): "Textos Vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella", *FLV* 15, 369-390.

Lizarraga, J. (1979):
—— *Dctrina christioarén cathechima*, PV-Euskaltzaindia, Iruñea.
—— (1983): *Koplak*, J. Apezetxeak paratu argitalpena, Euskaltzaindia, Bilbo.
—— (1990): *Urteko Igande Guzietarak Prediku Laburrak*, Patxi Ondarrak paratu argitalpen kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo.
—— (1994): *Jesus, Maria eta Santuen Bizitzak*, P. Ondarrak eta J. Apezetxeak parartu argitalpena, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Maiz, E. & Mundiñano, I. (1998): *Etxarrieratik Sakanerara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Mitxelena, K. (1988 [1957-58]):
—— "A propos de l'accent basque", *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, *ASJU*-ren gehigarriak 10, J.A. Lakarrak M. Etxenikeren eta B. Urgellen laguntzarekin paratutako argitalpena, Donostia, 2 ale, 220-239. Jatorrizkoa *BSL*-en atera zen, 1957-1958, LIII, 204-233.
—— (1990 [1961]): *Fonética Histórica Vasca*, «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiaren gehigarriak IV, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 4. argitalpena.

Ondarra, P. (1965):
—— *Voces vascas de Bacaicoa*, *BRSVAP* XXI, 3-4. Separata, Donostia, 1965.
—— (1980): "Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga (Valdizarbe)", *FLV* 35-36, 173-221.
—— [Bonaparte, L. L.] (1982): "Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi", *FLV* 39, 133-228.
—— (1987): "Textos en vascuence en el pueblo de Goñi", *FLV* 49, 117-140.
—— (1989): "Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)", *FLV* 53, 97-144.
—— (1990): "Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII. m.)", *FLV* 55, 73-121.
—— (1991): "Goñerrin aurkitutako beste sei testu", *FLV* 57, 131-168.
—— (1992): "Goñerrin aurkitutako testuak (IV)", *FLV* 60, 297-333.
—— (1993): "Goñerrin aurkitutako testuak (V)", *FLV* 62, 137-153.
—— (1993b): "Goñerrin aurkitutako testuak (VIII)", *Euskera* 38-1, 59-124.
—— (1993c): "Goñerrin aurkitutako testuak (IX)", *ASJU* 27/1, 59-124.
—— (1993d): "Goñerrin aurkitutako testuak (X)", *ASJU* 27/3, 903-947.
—— (1994): "Goñerrin aurkitutako testuak (VI)", *FLV* 67, 521-554.
—— (1995): "Goñerrin aurkitutako testuak (II)", *FLV* 68, 173-190.

Pagola, R.M. (1992): *Euskal Fonetika Nafarroan*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2 ale.

Salaberri, P. (1992):
—— "Toponimia, dialektologiaren ikerbide", in *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*, Iker-7, Euskaltzaindia, Bilbo, 619-645.
—— (1994): "Elizalderen *Apezendaco dotrina christiana uscaras*", *FLV* 65, 7-39.
—— (1996): "Iruñea: toponimia eta hizkuntza", *Iruña eta Euskara / Pamplona y el Euskara*, Iruñeko Udala, Lizarra, 21-44.
—— (1996b): "Amenduxen olerkiaz. Oharrak", *FLV* 71, 87-97.
—— (1998): "Arabako mugako nafar hizkeren inguruan", *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak. Iruñea, 1997ko azaroa (24-28)*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, Iñaki Camino arg., 49-87.
—— (2000): "Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan", laster ateratzekoa.

Satrustegi, J. Mª. (1987):
—— *Euskal testu zaharrak*, Euskararen lekukoak-13, Euskaltzaindia, Iruñea.
—— (1987): "Textos dialectales en documentos religiosos vascos", *FLV* 50, 317-331.
—— (1988): "Textos dialectales en documentos religiosos vascos", *FLV* 52, 267-289.
—— (1995): "Ultzamako euskal testu argitaragabeak", *FLV* 70, 525-540.
—— (1999): "Arakil aldeko euskara, *FLV* 81, 343-348
—— (2000): "Olabairko euskal bertso papera", *FLV* 84, 277-287.

Solís Senar, G. (1993): "Lizarragako euskararen azterketa", *FLV* 62, 95-123.

Txillardegi (1984): *Euskal Azentuaz*, Elkar, Donostia.

Zuazo, K. (1989):
—— "Arabako euskara", *ASJU*, XXIII-1, 3-48.
—— (1995): "Burundako hizkera", in *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiko Urtekariaren gehigarriak XXVII, R. Gómez eta J. A. Lakarra arg., Donostia, 297-364.
—— (1998): "Nafarroako euskal hizkerak", *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak. Iruñea, 1997ko azaroa (24-28)*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, Iñaki Camino arg., 1-22.
—— (1999): "Arabako euskararen kokagunea", *FLV* 80, 165-184.
—— (2000): *Euskararen sendabelarrak*, Alberdania, Donostia.

Zubiri, J. J. & Perurena, P. (1998): *Goizueta eta Aranoko Hizkerak*, Nafarroako Gobernua & Goizuetako Udala & Aranoko Udala, Lasarte-Oria.

ALFABETATZEA-EUSKALDUNTZEA ETA 'UDAKO IKASTAROAK'

Zizur Txikia, 2000-IX-29

Juan Jose Zearreta,
euskaltzain urgazlea
eta Erakundeko ekonomi eragilea

Alfabetatzea, gau eskolak, euskarazko klaseak, neguko eskolak, neguko ikastaroak, ikastaro trinkoak, eta abar dira 60. hamarkadan euskara berreskuratzeko egin ziren ahalegin desberninei emandako izenak. Geroago etorri ziren AEK, euskaltegiak eta barnetegiak. Baina ez goaz ahalegin horren historia egitera. Gure lan honen helburua apalagoa da: gaur hartzen gaituen eraikuntza honek, nahiko aldatua bestalde, euskararekin izan dituen loturen aipamen zenbait egitea da. Horregatik, agian, "Zizur Txikiko Colegio Mayor Verbo Divino eta udakoa euskal ikastaroak" zatekeen izenburu egokiagoa aipatuko dugun eremua eta gaia zehazkiako mugatzen duelako.

Ezaguna da etxe honen eta euskararen arteko loturak aspaldikoak direla, hain zuzen ere, San Fermin ikastolaren 30. urteurrena ospatzen ari baikara. Baina, ziur asko, ezazagunagoak gertatzen dira 1971 eta 1972 urteetan hementxe bertan eman ziren udako euskal ikastaroekiko xehetasunak. Goazen, bada, udako euskal ikastaroen historia xumea aipatzera.

Baina ur handiagotan sartu baino lehen argi dezagun, udako euskal ikastaro hauek Euskaltzaindiaren babespean eta babes horri esker egin ahal izan zirela.

Ikas-irakas materiala aipatzekotan: Patxi Altuna, euskaltzainak, egokitutako *Euskera hire Laguna-I-II eta Ariketak,* Alfabetatze Batzordeak prestaturiko *Lehen Urratsak eta Ariketak, Euskal kantak* eta abar.

UDAKO EUSKAL IKASTAROEN HISTORIA

I - 1968. urtea

Euskara ikasteko udako ikastaroak urte honetan sortzen dira Madrilen ikasten ari ziren zenbait euskal ikasleren eskariari erantzutzeko. Ikastaro hau

Gabirian Aita Pasiotarrek zuten ikastetxean eman zen, barnetegi gisa. Uztailaren 15ean hasi zen eta abuztuaren 2an, hala beharrez, amaitu, egun horretan Gipuzkoako probintzia "ley de excepción" delakoaren pean gelditu baitzen Melinton Manzanas poliziaren hilketa zela eta.

Bertan 45 ikasle aritu ziren.

Irakasleak: Jon Iraola, Joxe Lizarralde eta Xabier Mendiguren jaunak.

II - 1969. urtea

Urte honetan Urretxu, Markina eta Leitzan egiteko asmoa bazen ere, ezinbestekoak ziren baimenak eskatzerakoan, ez ziren lortu Markinakoa eta Leitzakoa egiteko. Ondorioz, Urretxun (60 ikasle), Amorebieta-Etxano herriko Euba auzoan (bi talde) eta Iruñean eman ziren. Urretxu eta Euban, Aita Pasiotarren etxeetan, barnetegi gisa eta Iruñean R.S.A.P. elkarteak utzitako bulegoetan, egunean zehar eskola-orduak bezala.

Irakasleak, Urretxun: bost irakasle, baina izenik ez zaigu gelditu; Euban: Patxi Elgezabal eta Kepa Mallea. Iruñean: ez dakigu ez ikasle kopururik ez eta irakasleen izenik.

Urretxun ikasle izandako Hendrike Knörr euskaltzainburuordeak, honelako testigantza utzi digu:

> "....hori 1969. urtean izan zen, Urretxun, internado-modu batetan, berrogeitsu lagunekin batera..."

(X.Kintana-Joseba Tobar: *Euskaldunberriekin euskaraz* – Cinsa, 1975, 164. orr.).

III - 1970. urtea

Ikastaroak Markinan (47 ikasle – bizkaieraz), Oñatin (23 ikasle – gipuzkeraz) eta Baztango Lamiarritan (30 ikasle) egin ziren uztailaren hasieratik eta abuztuaren erdirarte.

Irakasleak: Patxi Elgezabal, Kepa Mallea, Belen Oleagordia, Juan Jose Uranga, David Zabala eta Juan Jose Zearreta.

Markinako ikasleen zerrendetan, besteak beste, Andolin Eguzkitza eta Jon Manzisidor jaunak agertzen dira.

Aipagarria da, bestalde, urte honetan bertan, Derioko Seminarioan Bizkaiko abadeentzat antolatutako 15 egunetako ikastaroa. Harrezkero, urtez urte egin dira eta oraindik jarraitzen dute edozein ikasleri irekiak.

Irakasleak: Karmelo Etxenagusia (Literatura), Mikel Zarate (Aditza) eta Lontxo Zugazaga (laguntzaile lanetan).

IV - 1971. urtea

Urte honetan, Bizkaiko Alfabetatze batzordeak, lau udako ikastaro antolatu zituen.

Uztailean: Zizur Txikian, barnetegi gisa eta Bilbon ikastaro trinkoa. Abuztuan: Donostian, barnetegi gisa eta Bilbon ikastaro triko bezala.

Zizur Txikiko Colegio Mayor/Verbo Divino, aukeratua izan zen uztaileko barnetegi bezala. Egia esateko, hala beharrez aukeratua, Misioneros del Verbo Divino fraideen esku zabaltasunari esker. Toki hau ziurtatu baino lehen, Bizkaiko Alfabetatze Batzordekideek, antolatzaile bezala, 50 ikastetxe baino gehiagotara joan arren ez baitzuten, beste inon, tokirik aurkitu.

Ikastaroa uztailaren 5etik eta abuztuaren 5ª arte luzatu zen, egunean 8 eskola-ordu emanez.

Guztira 65 ikasle aritu ziren eta bakoitzak, guztira, 5.000,- pezeta ordaindu zituen.

Irakasleak: Sabin Egileor, Patxi Elgezabal, Juan Ignacio Intxaurraga, Joxe Bernardo Jauregi, Jose Ramon Tapia eta Juan Jose Zearreta.

Zilegi bekit, une honetan, zerrendatutako irakasleen artean, aipamen berezi eta pertsonala egitea, hain zuzen ere, abuztuaren 4ean gaiso zital, muker eta luze batek betirako eraman baitzigun Joxe Bernardo Jauregi Apalategi adiskidea.

Ikastaro honetan, Aingeru Irigarai euskaltzaina eta Jose Luis Lizundia euskaltzain urgazle eta idazkariordea izan ziren bisitari eta hitzaldi emaile. Honez gain, eta aipatu Joxe Bernardo Jauregiren ikasleen zerrendan, Beñat Oihartzabal, egun, euskaltzain oso eta Iker Sailburu jaunaren izena aurki dezakezue.

* * *

Abuztuko ikastaroa Leitzako Escuela Agraria deitutakoan egitekoa zen, baina Principe de Vianaren baimena lortu ondoren, eta azken orduko eragozpenen eraginez, Donostiako Seminarioan eman zen, abuztuaren 2tik eta 30ª bitartean.

Guztira 57 ikasle izan ziren, 8 taldetan banaturik.

Irakasleak, aldiz: Anizeto Ajuriagojeaskoa, Ricardo Badiola, Sabin Egileor, Juan Luis Goikoetxea, Lola Ingelmo eta Juan Jose Zearreta. Honez gain, bi andereño: Mª Isabel eta Mª Karmen.

Aipagarria da ikastaro honetan izandakoen artean, 27 neska, magisterio tituludunak, aritu zirela bere euskara lantzen eta hobetzen.

V - 1972. urtea

Aurreko urteetako eskarmentuz, 1972 urtean ez zen toki arazorik, aurreko udatik eskatua baitzegoen Verbo Divino ikastetxea.

Ikastaroak, uztailaren 5etik abuztuaren 5ª arte iraun zuen aipatutako ikastetxean. Bertan 49 ikasle aritu ziren. Ikastaro honetan aritu ziren ikasleei buruz honelako xehetasunak aurkitu ditugu:

Urteak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
- 20	6	3	9
20 – 25	11	14	25
26 – 30	7	3	10
31 – 35	–	–	–
36 – 40	3	1	4
41 – 50	1	–	1
+ 50	–	–	–
Guztira	**28**	**21**	**49**

Euskararen ezagutza	Emakumezkoak	Gizonezkonak	Guztira
Mintzatu	8	3	11
Ulertu eta zailtasunez mintzatu	10	10	20
Zerbait ulertu ez mintzatu	9	9	18
Guztira	**27**	**22**	**49**

Ikastaroa aparteko eragozpenik gabe eman ahal izan zen, baina uztailaren azken egunetan, uste gabeko bisita bat izan zuten: poliziaren "brigada político-social"arena alegia. Etxea inguratu ondoren, hiru buruzagik ikastaroan ziren ikasle eta irakasleen nortasun agiriak eskatu zituzten. Arduradunek uko egin zioten eskariari eta, horren ordez, zerrendak eta nortasun agirien zenbakiak eman zizkien. Polizien buruzagiek alde egin zuten Iruñera, baina muino honen inguruan ohiko ez ziren biztanle zenbait ikusteko beta izan zuten etxebarrukoek. Garai hartako ohitura jarraikiz, ilunabar-gauean hiru lagun eraman zituzten atxiloturik: mutil bat eta bi neska: Maite Madariaga Agirre eta Mitu Madariaga Agirre. Mutila, gipuzkoarra nonbait, bi neskak, aldiz, atzerritarrak, Mexikon jaioak eta Jose Antonio Agirre lehen Lehendakariaren ilobak. Galderak egin ondoren, aske utzi zituzten, baina ez ezeren truke: ikastaroa bertan bera amaitzeko agindua jaso zuten antolatzaileek: "hoy mejor que mañana y mañana, mejor que pasado mañana". Eta hala bete arazi zuten.

Abuztuko ikastaroa ere hemen ematea pentsatua zuten antolatzaileek (6tik – 31ra) baina aipatu gertakizun horren ondorioz, baimen bila hasi beharra izan zuten Euskaltzaindiaren Idazkariordearen laguntzarekin. Lehenbizi, garai hartan Nafarroako Foru Diputazioan hezkuntza eta kultura diputatua zen Ignacio Irazoki jaunarengana jo zuten babes bila. Geroago, Gobernador Civil delakoaren ordezko zereginetan zegoen jaunarekin mintzatu ziren, baina ez zuten beharrezkoa zuten baimena lortu. Jasotako debekuaren fotokopia aurkitu dugu eta honela dio:

" VISTO SU ESCRITO DE 3 DE AGOSTO...." *(ikus eranskina)*

GOBIERNO CIVIL
DE
NAVARRA

Fecha: 10 agosto 1972
Negdo.: 0. P. 12.11
Núm.: 2077
N/Ref.:
S/Ref.:
Asunto: contestando instancia

Visto su escrito de 3 de agosto, con entrada en este Gobierno Civil el diez de los corrientes, en el que solicita autorización para realizar un cursillo de apredizaje de lengua vasca, en regimen intensivo de internado, en el Colegio Seminario del Verbo Divino, sito en Cizur Menor, lamento participarle que segun me informa la Delegación Provincial del Ministerio de Información y Turismo, dicho inmueble no está autorizado para el ejercicio de la industria de hospedaje, por cuyo motivo no me es posible acceder a lo solicitado.

Dios guarde a Vd.
EL GOBERNADOR CIVIL ACTAL.

GOBIERNO CIVIL DE LA PROVINCIA DE NAVARRA

Sr.D. Luis Villasante Cortabitarte
Director-Presidente de la Academia de Lengua Vasca.
Palacio de la Diputación (San Sebastian).-

Antolatzaileek, zer zetorkien susmatuz, Bilboko Santiago Apostol ikastetxean lortu zuten tokia, barnetegia izan behar zuen ikastaroa, ikastaro triko bat bezala emanez.

Aurrera baino lehen eta honekin zerikusi duelako, aipata dezagun, *Euskalduntzen-1, 2, 3* liburukien azaletan ageri den aita Imanol Berritua y ikasle batzuen argazkia, ikastaro honetako ikasgela batean aterea dela.

Ikastaro hau egiteko 49 ikaslek zuten izena emana eta hona hemen eskuratu ditugun xehetasunak:

Urteak	Emakumeak	Gizonak	Guztira
- 20	6	1	7
20 – 25	15	5	20
26 – 30	5	2	7
31 – 35	2	5	7
36 – 40	1	1	2
40 – 50	4	1	5
+ 50	2	-	2
Guztira	**35**	**15**	**50**

Euskararen ezagutza	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Mintzatu	8	4	12
Ulertu / zailtasunez mintzatu	12	6	18
Zerb ulertu / ezer mintzatu	14	6	20
Guztira	**34**	**16**	**50**

Bizitutako gora-behara guztien ondoren, abuztuaren 10ean eman zitzaion hasiera ikastaro honi, Jose Luis Lizundia euskaltzain urgazle eta idazkariordearen hitzaldi batez eta Alfonso Irigoyen euskaltzainaren beste hitzaldi batek eman zion amaiera.

Irakasle lanetan aritu zirenak: Ricardo Badiola, Sabin Egileor, Juan Luis Goikoetxea, Lola Ingelmo, Juan Ignacio Intxaurraga, Josu Legarreta, Gregorio Martikorena eta Juan Jose Zearreta.

1973 - 1974 - 1975 Urteak

Hurrengo urteotako udako ikastaroak, Bizkaiko Alfabetatze Batzordeak antolatutakoak behintzat, Deustuko Unibertsitatean eman ziren, bertako Euskal Kultur Mintegikideak lagun izan zituztelarik.

ZERGATIK IKASI EUSKARA ETA ZERTARAKO

Zergatik eta zertarako arituko ote ziren ikasle haiek euskara ikasten?. Egia esan, oso zaila gertatzen da jakitea, oso testigantza gutxi aurkitzen delako. Besteak beste, garai hartan honelako galde-erantzun sortak egitea eta gordetzea nahiko arriskugarri gertatzen zelako, euskarareriko kontuetan debekua eta oztopoa besterik ez baitzen. Hala eta guztiz ere, geroxeago bada ere, Xabier Kintana eta Joseba Tobar jaunek *Euskaldunberriekin euskaraz* (Bilbo, Cinsa, 1975) liburua argitaratzen dute eta bertan 30 lagunekin egindako elkarrizketak agertzen dira. Hauetan adinagatik edo eta ezagunak direnen zenbait erantzun aukeratu ditugu, garai honetako ikasleen adinkide izan daitezkeelako.

Egileek hitzarrean diotenez euskara ikasteko "aukera hori librea da, ez baitaiteke inor bortxaraz, gogoz kontra, izan nahi ez duena hautatzera behartu" baina askatasun horren barnean, bakoitzak berebiziko arrazoiren batengatik erabaki zuen euskara ikastea. Hona hemen iritzi batzuk:

Gizatasunaren eskakizuna

Argi dago gure gizatasunaren eskakizuna dela euskaldun izatea, gure giza arazoa ez baita konponduko euskararena konpondu arte. Beraz, aterabide bakarra euskara berreskuratzea da. Honela zioen Rikardo Arregik:

> " ... euskaldunok ez gaitezke osa eta ez gure herriari jabetasuna eman euskarazko kultura bidez ez bada".

(Alfabetatze Batzordea: "Alfabetatzea Rikardoren iritzian" –*Jakin* Sorta-1971 – 59. orr.)

> " ... dudarik gabe, pertsona ez du euskarak egiten... baina gaur egun euskara seinale bat, sinbolo bat biurtu zaigu euskaldunen gizagintzan". (Ibid. 192. orr.)

Euskal sentimendua eta euskaltzaletasuna

> " ... neure burua farragarri ez ikusteko, euskaraz ikasi behar; nik errotik, eta edozer irakurri baino lehenago, euskalduntasuna senditu baitut". (Txillardegi)

(X.Kintana-J.Tobar: *Euskaldunberriekin Euskaraz.* Cinsa, 1975 – 78. orr.)

"Serioski hemezortzi urtez ekin nion ikasteari, euskalduntasunak akulaturik, ez filologia zaletasunak edo gisa horretarako beste ezerk" (Juan Antonio Letamendia)

(X.Kintana-J.Tobar: *Euskaldunberriekin Euskaraz.* Cinsa, 1975 – 124. orr.)

"... Euskarak Euskal Herriaren nortasuna egiten zuela konturaturik ikasi nahi izan dut, folklorekeria eta mitologikeria guztiak bota ondoren". (Xanti Lafitte)

(X.Kintana-J.Tobar: *Euskaldunberriekin Euskaraz.* Cinsa, 1975 – 168. orr.)

"Nik beti pentsatu dut Euskal Herrian bizi den batentzat euskara jakitea derrigorrezkoa dela, euskalduna izateko eta gure Herriko kulturan parte hartzeko lehengo pausua delako". (Karlos Azkuenaga)

X.Kintana-J.Tobar: *Euskaldunberriekin Euskaraz.* Cinsa, 1975 – 194. orr.)

"Neure Herriaren hizkuntza jakitea beharrezkoa nuelako" (Arantxa Santamaria)

(X.Kintana-J.Tobar: *Euskaldunberriekin Euskaraz.* Cinsa, 1975 – 178. orr.)

"Txapelak (arraza, jatorria,...) bakarrik ez du bururik euskalduntzen" (Roman Basurto)

(X.Kintana-J.Tobar: *Euskaldunberriekin Euskaraz.* Cinsa, 1975 – 210. orr.)

"... Dudarik gabe herrizale sentitzen nintzelako". (Isabel Lertxundi)

(X.Kintana-J.Tobar: *Euskaldunberriekin Euskaraz.* Cinsa, 1975 – 216. orr.)

Euskaltzaletasuna eta politika

"Arrazoi askorengatik ahantzezinezkoa den 1970. urtean. Sozial egoera batek eraman nindian euskara ikastera".(Joseba Tobar)

(X.Kintana-J.Tobar: *Euskaldunberriekin Euskaraz.* Cinsa, 1975 – 132. orr.)

"Hamasei urte nituela neure herritasunaz konturatu nintzen, eta Bilbon nengoela, erabaki nuen euskaldun moderno bat izatea, gaurko euskaldun hiritar bat izatea." (Natxo De Felipe)

(X.Kintana-J.Tobar: *Euskaldunberriekin Euskaraz.* Cinsa, 1975 – 187. orr.)

Herri miñaren eraginez

"Soldaduzkara joaterakoan hasi nintzen – Caceres-en – eta bertan esan nituen neure lehenbiziko hitzak euskaraz.... zergatik? ... Atzerrian aurkitu nuen neure euskaldun biurtzeko deia, batez ere, lagunak Euskal Herriari buruzko gauzak galdetzen hasi zitzaizkidanean. Orduan euskaldun ez izateagatik lotsatu nintzen. Bilbora itzulita, ikasminagatik hasi, eta gero euskararen ederrak liluratu ninduan". *(B*orja Barandiaran)

(X.Kintana-J.Tobar: *Euskaldunberriekin Euskaraz.* Cinsa, 1975 – 158. orr.)

Integrazioaren bila

"Zarautzen nengoen denbora hartan eta haseratik Zarauzko giroa oso berezia eta jatorra zela ikusi nuen. Berehala konturatu nintzen Euskal Herria herri bizi bat zela eta herri harek onartua izateko, nahaietaez, euskara ikasi behar nuela". (Erramon Zamalloa)

(X.Kintana-J.Tobar: *Euskaldunberriekin Euskaraz.* Cinsa, 1975 – 102. orr.*)*

Nortasuna osatzeko

"Neure burua Euskal Herri honetan osatzeko dudan modu bakarra dukek, seguru asko, gehienik bultzatu nauena.... baina, berriz ere diodan, neure, eta ene herriaren, alienazio historiakoaren gainditu nahia batez ere". *(*Andolin Eguzkitza)

(X.Kintana-J.Tobar: *Euskaldunberriekin Euskaraz.* Cinsa, 1975 – 221. orr.*)*

Bestelako arrazoiak

• Lagunen eraginagatik, ikasgaia zelako, alfabetatzeko, ...

BI AUTU – MAUTU

• 1971 – 1972 urteko udako ikastaroetan etxebarne honetan lau gizatalde desberdin bizitu ziren:

• Misioneros del Verbo Divino kongregaziokideak. Hauen ordezkari eta solaskide, batez ere, eguneroko ibilbide, arazo eta diru-kontuetarako, Gabriel Urralburu eta Hno. Vido izan ziren.

• San Fermin Ikastolako haur eta irakasleak, Jesus Atxa jauna zuzendari (1970 – 1985) zela.

• Paco Andueza, sukaldaria eta honen laguntzaileak. Talde honen lanari buruz, artista guztiekin gertatzen den bezala, harrera desberdinak azaltzen ziren. Batzuen iritziz, prestatzen zituen bazkari-afariak onak ziren, besteen iritziz, nahiko eskasak.

Dena den, mihi gaiztoen esanetan, batez ere mutilen artean, sukaldaritzan barazki, arrain, okela, gatz eta olioaz gain bestelako osagai lasaigarri eta motelgarriak maiz nabaritzen omen ziren. Horretaz galderaren bat egiterakoan, irrifarre aizun batez erantzuten zuen aipatu sukaldari jaunak.

• Eta, jakina, ikastaroetako ikasle eta irakasleak.

Gorago esan denez, ikastaroak barnetegi-gisa eman ziren eta, bataz beste, egunean 8 bat eskolaordu ateratzen ziren, gainontzeko orduak atsedenari eta solasaldiari eskainiaz: pilota partidak, footing, elkarrizketa eta eztabaida luzeak, Iruñera bisitak (goizean, entzierroak ikusteko eta gauaz, burua aireatzeko), eta abar. Bestelako ekintza entretenigarrien artean, bereziki aipatzeko da, 1972. urteko ikastaro barnean xakeak izan zuen lehentasuna. Urte horretan, uztailaren 11tik eta irailaren 1erarte Islandiako Reykiavik-en munduko xake norgehiagoka jokatu zuten Bobby Fischer iparamerikarrak eta Boris Spassky sobietarrak. Oso partida gogorrak eta entzutetsuak gertatu zirenez, egunkariek partida horietan izandako mugimenduen nondik norakoak azaltzen zituzten eta, ohar horiek aurrean zituztela, ikasle-irakasle adituek eztabaida sutsuak eta luzeak bizi izan zituzten. Bestalde, barnetegia bai baina ateak irekiak, beti ere ordutegia beteaz. Ondorioz, sartze —irteteak norberaren erabakiaren esku gelditzen ziren. Ezaguna da, hemen izan ginenontzat, ba zela talde bat goizero "entzierroak" ikustera ateratzen zena ikasle batek zuen Golf "escarabajo" izeneko auto baten eta eskola orduetarako itzuli. Joan —etorri hauetako batean, gure artean maiz gertatu den bezala, apustu bat ere sortu zen: gidariak, aipatu autoa, Zizurretik Iruñera bolantea eta martxak aldatzeko palanka eskuekin ukitu gabe baietz eraman. Esan eta egin. Irabazlea, jakina, auto gidaria.

Soziologia klasikoan tesi onartua da, gizakia bera dela herri baten historia egiten duena. Herri partaideen eguneroko ekintzak dira gizartearen hari historikoa eten gabe josiz gizartegintza aurrera daramatenak. Horregatik, Joxe Azurmendiren esanetan (*Anaitasuna,* 1976- 311zenb.- 21.- orr.) "...gutxiago edo gehiago (alfabetatzeaz ari da) urtez urte eman dio erantzun bat euskal kulturaren eginkizunari. Beraz, gaur eguneko alfabetatze mundua, lehenagotik eten gabe datorren soka baten ondorio bat besterik ez denez". Honaino bada, garai hartan egindakori buruz, gure oroitzapenetan aurkitu ditugunak.

SAN FERMIN IKASTOLA: EUSKARA HOGEITA HAMAR URTEZ NAFARROAN

Iruñea, 2000-IX-29

Mertxe Berasategi Arrizabalaga,
San Fermin Ikastolako zuzendaria

Sarrera: Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra hemen egiteko gonbitea onartu izana eskertu nahi dut San Fermin Ikastolaren izenean. Akademia gure etxe honetara etortzea harro egon eta pozez betetzeko modukoa da, eta, bidenabar, gogo-pizgarria da, zinez, euskalgintzan dihardugunontzat.

Niri, berriz, gure ikastolak azken 30 urteotan egin duen bidea jasotzea dagokit, azken 30 urteotakoa eta ikastolaren historiaurrea dei dezakegun aurreko urteetakoa ere bai.

Eta halaxe eginen dut, baina ez inoren belarriak besterik gabe gozatzeko, baizik eta, nire ustez, ikastolaren sorrerak Nafarroan euskara zabaltzen asko lagundu zuelako. Eta horrek du benetan garrantzia. Egia esan, nik baino askoz gehiago dakite eta nik baino askoz hobeki egin zezaketen lan hori garai hura bertatik bertara bizi zutenek. Hor dira Mugertza, Cortés Izal eta beste hainbeste guraso, irakasle eta abar, ikastolaren sorreran parte hartu zutenak. Horietako asko eta asko gaur egun ere ari dira, zorionez, ikastolaren eguneroko bizitzan parte hartzen.

San Fermin Ikastolako lehen zuzendari Jesus Atxak liburu bat idatzi zuen ikastolaren historia biltzeko 25. urteurrenean: *25. urteurrena: mila bederatziehun eta hirurogeita hamar-mila bederatziehun eta laurogeita hamabost (1970-1995)*, San Fermin Ikastola zer izan zen eta batez ere hirurogeiko hamarkadako azken urteetatik aurrera euskalgintzari Iruñean eta Iruñerrian zer ekarpen egin zion jakin nahi duenak nahitaez irakurri beharrekoa. Niri dagokidana, beraz, laburpen txiki bat egitea besterik ez da, liburu horretan bildutako material oparoaren puskatxo bat hona ekartzea, alegia. Hartara, nire mintzaldi hau bukatutakoan, harengana eta harekin batera bertan dauden beste batzuengana jo dezakezue informazio gehiago jaso nahi baduzue, ni baino jantziago daude-eta azalpen labur eta osatugabe honek argitu gabe utzitakoak argitzen laguntzeko.

NAFARROAN IKASTOLAK SORTZEKO LEHEN SAIOAK

Jose Antonio Mugertzak egin zuen ganorazko lehen saioa mila bederatziehun eta hirurogeita hiruan (1963) Nafarroan ikastola bat sortzeko. Iruñera etorritako errenteriar hark hainbat ate jo zuen, eta jorratutako bide hari esker, lehendabiziko ikastola zabaltzeko baimena eman zion Jesus Laguna egungo Hezkuntza kontseilariaren aitak. Azaroaren 15ean Ntra. Sra. de Iranzu izenarekin abiatzekoa zen proiektu hartara 27 haur bildu ziren, baina, ikastetxea irekitzeko dena prest zegoenean, bezperan bertan, Laguna ikuskatzaileak, hau da, irekitzeko baimena ahoz eman zuen berberak, ikastola ezin zela ireki jakinarazi zuen; izan ere, Batzordeko kide batzuk "politikaren aldetik susmagarriak" ziren.

Bigarren saioak, horrek bai, arrakasta izan zuen, orduan abiatu baitzen Nafarroako lehendabiziko ikastola. Ntra. Sra. de Uxue Ikastola hura Pozo Blanco kaleko 6an seian zegoen eta **lau** haur zituen. Mila bederatziehun eta hirurogeita bosteko (1965) urriaren 25a zen. Ikasturteak aurrera egin ahala gora egin zuen ikasle kopuruak, eta azkenean hamabi ziren. 1965-66 ikasturtean berrogeita hamar ikasle ziren, eta horrek lehenengo lekualdaketa ekarri zuen, Pozo Blanco kaletik San José plazara, leku gehiago behar baitzen. Urte hartan bertan, Jorge Cortés Izal hautatu zuten gurasoek ikastolako lehendakari. 1968an 200 ikasle zituen ikastolak, eta horrek, jakina, bigarren lekualdaketa ekarri zuen, Baionako etorbideko 40ra hain zuzen ere. Baina han ere denentzako tokirik ez, eta bi ikasgela egokitu izan behar zituzten Irrintzi Dorrean eta beste horrenbeste Lakartzela Mendia kalean. 1969-70 ikasturtearen hasieran 308 ikasle zituen Ntra. Sra. de Uxue Ikastolak. Sasoi hartan, dena zen arazo; izan ere,

- ikastetxea legeztatu gabe zegoen, eta ikasgelak sakabanatuta,
- baliabide ekonomikoak urriak ziren,
- instalazioak eta materialak eskasak,
- ikastetxearen titulartasunak arazoak eragin zituen -ea Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen esku ala gurasoen esku egon behar zuen-,
- diferentzia ideologikoak gertatu ziren erlijio eta gizarte gaiak zirela-eta,
- urte haietan, ikastolak espiritu marxistak jota zeudelako ustea zabaldu zen,
- eta abar eta abar

Gauzak horrela, mila bederatziehun eta hirurogeita hamarreko (1970) martxoaren hogeita seian, Batzordeak ohar bat bidali zien gurasoei, ikastola berri bat sortuko zutela iragarriz: San Fermin Ikastola. Haren egoitza Zizur Txikian egonen zen, Jainko-Hitzaren Misiolarien ikastetxe-seminarioan, haiekin lokal batzuen alokairua negoziatu eta gero. Gurasoei esan zitzaien legez, ikastetxeak artzapezpikutzaren oniritzia zuen -hori laguntza handikoa zen sasoi hartan- eta hura izanen zen behin betikoz gurasoen ikastola. Apirilaren 2an

egindako batzarrean, Ntra. Sra. de Uxue Ikastolatik bereiztearen aldeko botoa eman zuen gehiengoak, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak berarena zela uste zuen hartatik alegia. Ikastola hartako 308 ikasletik, 270 San Ferminera pasatu ziren, eta halaxe ekin zion San Fermin Ikastolak bere bideari.

Ikastola berrantolatu egin zen: Ramón Urmeneta zen lehendakari eta Javier Cunchillos, berriz, lehendakariorde. Jorge Cortések nahiago izan zuen albo batean geratu, nahiz eta parte hartzen jarraitu. 1970-71 ikasturtearen hasieran irakasle gehiago sartu zen eta Jesús Atxak hartu zuen San Fermin Ikastolako lehen zuzendaria izateko ardura. Mila bederatziehun eta hirurogeita hamarreko (1970) abenduaren 3an jakin genuen, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zelako, "Centro Cultural San Fermin" legezkoa zela.

Arazoak, baina, bata bestearen atzetik zetozen. Hona batzuk: Gobernuaren begiradapetik libratu ezinik lan egitea; materialik eta testu libururik eza; hezkuntza-instituzio orotan, eta are gehiago sortu berrietan, beharrezkoak diren eztabaidak; ikuspuntu pedagogikoei buruzko eztabaidak; mutiko eta neskatoen hezkidetza; euskara ikasteko "murgiltze" metodoa; haurraren esperientzian oinarritutako ikasprozesua; lehiakortasunaren, memorizazioaren eta diziplinaren aurkako borroka; eskola laiko eta ez dogmatikoaren aldeko apustua; ikastoletarako nahi genuen kudeaketa-eredua; ikastolek pribatuak ala publikoak izan behar ote zuten eta antzeko kontuen eraginez, ikastola osatzen zutenen arteko ikuspuntu ezberdinak -kontrajarriak askotan- agerian geratu ziren. Barrutik begiratuta ere, urte haiek zail-zailak izan ziren. Eta jakina, Jainko-Hitzaren Misiolariei errentan hartutako lokalak ez ziren nahiko, eta, hala, 73-74 ikasturtean, Milagrosa auzoko Santa Zezilia plazako etxabe batean egon ziren zazpi gela, Ntra. Sra. de Iranzu Ikastola, alegia.

Diru-arazoei aurre egiteko, zozketak egin ohi ziren Gabonetan, txosnak jarri ziren sanferminetan O-ko Andramari plazan eta erakusketak antolatu ziren Iruñeko Aurrezki Kutxan eta Ziudadelan. Izan ere, mila bederatziehun eta hirurogeita hamazazpia (1977) arte, Ministerioak ez zion inolako diru laguntzarik eman ikastolari, eta hala eta guztiz ere, ikasle kopuruak gora egiten zuen. Azkenean, mila bederatziehun eta hirurogeita hemezortzian (1978), Jainko-Hitzaren Misiolariekin luze negoziatu ondotik, haien instalazioak erosi ziren, laurogeita bederatzi (89) milioitan.

SAN FERMIN IKASTOLA KANPORA BEGIRA JARRI ETA IKASTOLA BERRIAK SORTZEA

Sarritan, barne-arazo gehien gertatzen den urteetan lortzen dira, kanpora begira, emaitzarik oparoenak, eta halaxe gertatu zen gurean ere; izan ere, San Fermin Ikastolak zerikusia izan zuen, modu batera zein bestera, ikastola berrien sorreran, eta parte hartu zuen garai hartan euskalgintzaren alorrean beharrezkoak ziren beste zeregin batzuetan ere.

Arestian esan dugun bezala, ez geneukan ez materialik ez testu libururik, ez guk ez beste ikastolek ere, eta horregatik hain zuzen ere, ikastolei zerbitzu ematearren, **KIDE** izeneko denda ireki zen mila bederatziehun eta hirurogeita hamabiko (1972) ekainean, Etorkizuna, S.A.k sustatuta.

Enpresa hori bera erabili izan zen bi urte geroago ere beste premia bati erantzuteko, premiazkoa baitzen gurasoak euskalduntzea. Eta halaxe sortu zen, hirurogeita hamalauko (74) udagoienean, **Arturo Kanpion** akademia, euskalduntze eta alfabetatze mugimenduan mugarri izan dena.

Ikastolen Federazioa sortu gabe zegoen orduan, eta horrenbestez, gure ikastolari begira jarri ziren ezinbestean Nafarroako gainontzeko ikastolak. Halatan, irakasleen prakikak, udalekuen antolamendua, eskola-materiala eta emaitza-liburuxkak direla-eta gure ikastolak zer egin, huraxe egiten zuten besteek ere. Ikastolen Federazioa mila bederatziehun eta hirurogeita hamaseiko (1976) abenduaren 20an hasi zen lanean, eta ordura arte, San Fermin Ikastola izan zen, neurri handi batean behintzat, gaur egun Federazioak egiten duen aholkatze eta ordezkatze lan eragingarria egin zuena.

IKASTOLA BERRIAK SAN FERMIN IKASTOLAREN BAITATIK SORTZEA

Mila bederatziehun eta hirurogeita hamaseian (1976), tokirik ez zegoela eta, kanpoan geratu ziren 54 haur, eta arazoari aurre egiteko, batzorde bat eratu zen ikastolan bertan; hortik sortu zen handik gutxira, Fiteroko Monasterioa kalean, Blanca de Navarra Ikastola, bi urteren buruan Errotxapeako Ikastolarekin bat egin eta Herri Ikastola izanen zena.

Urtebete beranduago, ordura arte San Fermin Ikastolako guraso izandako Luis Mari Lasak Donibane Ikastola sortu zuen izen bereko auzoan. Ikastetxe hark udal ikastolarekin bat egin zuen bi urte beranduago.

Mila bederatziehun eta hirurogeita hemzortziko (1978) urtarrilean, gizarte eta politika arloko indar askok osatutako udal ikastola bat irekiko zuela iragarri zuen Iruñeko Udalak. Urtarrilean bertan, San Fermin Ikastolako 165 haur udal ikastola horretara pasa ziren. Kolpe latza jaso zuen orduan ikastolak, ez baitzuen inondik inora ere uste ikasturtearen erdian horrenbeste ikaslek alde eginen zuenik. Halere -iragandako denborak gertakariak beste era batera ikusten laguntzen du-, aitortu egin behar da **Udal Ikastola** sortu izanak asko lagundu zuela, bai orduan eta bai orain, euskararen irakaskuntza Iruñeko beste sektore batzuetara hedatzen.

Hurrengo urteetan, ikasle kopurua handia zenez, berriro ere geratu ziren ikasleak gurean sartu ezinik, eta hala, mila bederatziehun eta hirurogeita hemeretziko (1979) irailean, Francisco de Jaso Ikastola sortu zen, San Fermin Ikastolak zeukan lege-egitura berarekin, hau da, sozietate anonimo gisa. Hango zuzendaria ere bertako andereño bat izan zen: K. M. de Lezea.

BATXILERGOAREN EZARPENA

78-79 ikasturtean Batxilergoa ezarri genuen, sasoi hartan Nafarroan halakorik egitea ezinezkotzat jotzen bazen ere. Batxilergoa ezarri ezean, gure ikasleek moztuta ikusiko zuten euren eskolatzea Oinarrizko Hezkuntza Orokorra bukatu ondoren, eta ezin izanen zioten ekin irakaskuntza ertainak euskaraz ikasteari. Fisika, kimika, filosofia eta antzekoak euskaraz egin zitezkeela pentsatze hutsak barregurea ematen zion bati baino gehiagori. Beraz, ez zen lan erraza izan batxilergoa ezartzea; izan ere, baimen ofizialik gabe hasi ziren urte hartan gure ikasleak, eta azterketak egiteko ikasle libre modura joan behar zuten Gurutzearen Plazako Institutura, artean bitan banatzen zena: mutikoak Vianako Printzean eta neskatoak Ximénez de Radan. Mila bederatziehun eta laurogeita bederatzi-laurogeita hamar (1989-90) ikasturtera arte, BBBko 3. maila bitarte soilik egiten zuten bertan. Selektibitatea gaztelaniaz egin behar zutenez, pentsatzen genuen hobe zela UBI instituturen batean egitea, eta gainera, UBI garestiegia zen ikastolak inongo laguntzari gabe hari aurre egin ahal izateko, eta ikastolak ez zuen batere diru laguntza ofizialik jasotzen. 90ean, berriz, selektibitatea euskaraz egin ahal izatea onetsi zuen Nafarroako Gobernuak, eta orduan, nahiz eta ikasturte hartarako diru laguntza ofizialik jaso ez, Ikastolak UBI ezarri zuen, eta, euskaraz eginiko lehen hautaproba haiek gure ikasle guzti-guztiek gainditu zituzten.

EGUNGO EGOERA ETA DATORRENA

San Fermin Ikastolak, gaur egun, 1.300 ikasle eta 124 langile ditu; horietatik 85 irakasleak dira eta 42 administrazioan eta zerbitzuetan ari direnak. Berrogeita lau mila (44.000) metro karratuko azalera du, 13.000 instalazioek hartzen dute eta gainontzekoa jolasetarako eta kirol jardueretarako erabiltzen da. Gure hezkuntz proiektuak 3 eta 18 urte bitarteko irakaskuntza betetzen du, eta Iruñerri osoko ikasleak etortzen zaizkigu. Unc honetan, aurrekoen ahaleginari eta lanari esker, San Fermin Ikastolak sustrai sendoak dituela esan dezakegu.

Hori hala da, baina ezin gara inozoak izan eta dena egina dagoela pentsatu. Aitzitik, dena dago beti egiteke. Aipatu berri dugun iragana eta egungo egoera oso antzekoak dira. Esan dugun legez, Ikastolaren lehen urteetan traba ugari izan genuen legearen eta gizartearen aldetik eta egoerak ez zion ezertxo ere laguntzen euskarari, baina gaur egun ere, hemen Nafarroan, 2000 urtean, euskararen iraupenean eta garapenean tematuta gaudenok une zailak bizi ditugu, modu leun batean esateagatik.

Lehen zozketak eta txosnak antolatzen genituen diru-arazoei eta instalazio-eskasiari aurre egiteko; gaur, berriz, urriaren 22ko Nafarroa Oinez antolatzeko azken txanpan ari gara buru-belarri, aurten San Fermin Ikastolari baitagokio hura antolatzea. Baina, zergatik Nafarroa Oinez? galde diezaiokegu

geure buruari. Bada, esan dezagun argi eta garbi: horren premia dugulako. Dirua behar dugulako noski instalazioak handitu eta zaharberritzeko, baldin eta LOGSEk ezartzen dituen betebeharrei erantzun nahi badiegu. Begibistakoak dira, hortaz, iraganarekiko antzekotasunak.

AURRERA BEGIRA

Atzera begiratzea ondo dago, hain zuzen ere horrela historiatik ikasi egiten dugulako eta aurrera egiten laguntzen digulako. Etorkizunak ardura digu. Hor ditugu zain erronkak. Horietako bat, jakina, Nafarroan euskararen iraupenaren eta garapenaren alde lanean jarraitzea da. Euskararekin zerikusi zuzena duten alorretan lan egiten dugunoi aurpegiratzen digute itolarria sentitzen dugula euskararen orainari eta etorkizunari buruz ari garenean. Eta saiatzen gara halakorik ez izaten. Baina ikusten badugu, esate baterako, frantsesaren edo gaztelaniaren etorkizuna dela-eta batzuek bizi duten kezka eta haien etorkizuna bermatzearren eta haiek babestearren ezarri nahi diren neurri zuzentzaileak, eta ezarri ezartzen dituztenak, onartu egin beharko zaigu euskaldunoi ere kezkatuta egotea, haiek bezainbeste eta haiek bainoago ere, geure hizkuntzaren etorkizuna dela-eta, zeren ez baitugu ahaztu behar hizkuntza gure arbasoek utzi diguten ondarea dela. Hortaz, eskubide osoa dugu babes-neurriak eskatzeko. Zailtasunak eta erronkak nolakoak, neurriak halakoak. Horregatik, bada, *Nafarroa oinez*ek, hilaren 22an, eta San Fermin Ikastolak, beti, topaleku izan behar dute biharko Nafarroak -etorkizunean ikusi nahi izanen genukeen Nafarroak- gizon eta emakumeen arteko harreman askeetan arbasoek utzitako hizkuntza bizirik gorde behar duela uste duten guztientzat. Hori da gure asmoa. Horrek, jakina, ez du inolaz ere esan nahi gainerako hizkuntzak ikasteari utzi behar diogunik, garbi dugulako eleaniztun izateak ateak zabaltzen dizkigula denoi, ez soilik gure ikasleei, merkatura irtetzeko eta, azken buruan, beste herri batzuekiko komunikazioa eta harremana sendotzeko.

Hona etorkizunean gainditu beharreko beste erronka bat: ezagutza eta informazioaren gizartean nabigatzea. Komunikazio-teknologiak etengabe ari dira berritzen, eta horrek ondo prestatuta egotera behartzen gaitu, gure ikasleak ondo prestatzera; komunikazioaren gizarte berri bat ari da sortzen, mugarik ez daukana, euskarri digitalean gure esku informazio kopuru ikaragarria uzten duena eta lanaren zein garapenaren aldetik aukera berriak eskaintzen dituena. Mundu horretan bizitzeko prestatu behar ditugu gure ikasleak. Euskarak ere lekua izan beharko du, eta berez badu, informazioaren gizarte berri horretan.

Sortu zenean, Nafarroako sektore baten itxaropenak gorpuzten laguntzea izan zen San Fermin Ikastolaren asmoetako bat, eta helburu hori gaur egun ere hor dago. Errealitate horri apal-apal baina etsi gabe egunero erantzutea da, hain zuzen ere, gure ilusiorik handiena eta era berean gure indarrik handiena ere.

Eskerrik asko guztioi.

SAN FERMIN IKASTOLAREN 30. URTEURRENEKO BATZAR IREKIA

2000-IX-29

Zizur Txikia.
Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Amaierako hitzak

Izaskun Arratibel andre agurgarria,
Mertxe Berasategi andre agurgarria,
euskaltzainkideok,
agur andreak, lehenik,
agur jaunak, gero.

Zuei bioi, andreak Euskaltzaindiaren izenean eskerrik bizienak egin diguzuen harrera ederraren gatik. Pozik jakinarazten dizuet atzo Zuzendaritzak eta gaur gure biltzar nagusiak erabaki dutela emaitea San Fermin ikastolari Euskaltzaindiaren brontzezko domina edo medaila eta, denbora berean ere, emaitea hemengo liburutegirako Euskaltzaindiak agertzen dituen liburuetan zuek hautatzen dituzuenak.

Eskerrak ere abesbatzari eta haren Zuzendariari. Jadanik entzun ditugu zenbait kantu, batzu Iparraldekoak, denak ederki xaramelatuak.

Nahi nuke denbora berean agurtu Jesus Atxa jauna; ez dakit nafarra den, ez dakit gipuzkoarra den edo bizkaitarra den. Denetan ibilia da, beraz, Euskal Herri osokoa da. Agurtzen dut bereziki, euskaltzain ohorezkoa hala izendatu dugulakotz euskararen bultzatzaile gisa, egin dituen lanengatik.

30 urte: gazte-gazteak zarete, baina 30 urte horiek badute bere eragina eta hain zuzen, 30 urte horiek lotuko ditut beste 32 urterekin. Hain zuzen, 60ko hamarkadan eta 70ko hamarkadan aurrera egin den pausu edo urrats berezi hori nahi nuke azpimarratu. Duela 30 urte zuek sortu zenuten eta hemen sortu zen ikastola. Bi urte lehenago Euskaltzaindiak egin zuen Arantzazun bere Biltzar famatu hura: beharrezkoa zela, dudarik sabe, euskara batu bat. 32 urte iragan dira eta ikusten dugu zer bide ederra egin dugun 32 urte horietan. Eta nahi nuke

hemen aipatu Euskaltzaindiak egiten dituen lanak, bai *Orotariko Euskal Hiztegia,* 12 liburukirekin; Gramatika, 5 liburukirekin; *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa* diruz lagundua izanen dela jakin dugu azken egun hauetan, eta beraz, lehenbiziko liburukia agertuko da, behar bada aurten; aipa ditzagun ere Onomastika batzordeak eta Literatura batzordeak egiten dituzten lanak.

Lan horiek Euskaltzaindiak bultzatzen ditu biltzen baititu bere baitan Euskal Herriko Unibertsitate guzietan euskarari buruz ari diren ikerle guziak edo bederen gehienak. Guziei esker aurrerapen ikaragarria egin da azken 30 urte hauetan eta beti aintzina goaz etsitu sabe gure helburua dela euskara batuaren finkatzea euskalki guztietan oinarritua delakotz eta beharrezkoa dugulakotz hirugarren milenarioan sartzera goazilarik.

San Fermin ikastolaren 30 urteak ospatzen ditugularik nahi nituzke agurtu eta goraipatu gurasoak. Haiek egin tute hautua: haien haurrek ikasiko zutela euskara eta euskarazko irakaskuntza segituko zutela. Hori da nehork asmatzen ez zuena duela ehun urte.

Nigarrez ari ziren orduan, erranez euskara galtzen ari zela, hiltzera zoala nola hil den Erronkarin eta bertze tokitan. Nigarren ordez etorri da ekintzen garaia, ikastolen sortzea. Hori egin duzue guraso maiteak erakasleen laguntzarekin.

Gaur, Euskaltzaindia zuen artean baldin bada, zuen gomitari erantzunez, da sinbolikoki erakusteko hor dagoela euskararen zaintzeko, euskararen bultzatzeko, euskarari buruz arauen emaiteko, hor dagoela bai Iparraldean, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan ere. Hori da Euskaltzaindiaren lana, helburua, eginbidea. Euskaltzaindiak ez du sekulan amore emanen euskara zalantzan baldin bada. Jokatuko da, nahi ala ez, euskararen alde, hitza ematen du. Adi dezatela denek

Bakoitzak bere eginbideak baditu: Euskaltzaindiak orain bertan aipatu ditudanak, ikastolek euskara hedatuz irakaskuntzan eta xede horri jarraikiz egunero. Argi eta garbi erraiten dut zuok gurasook, irakasleok, ikasleok zaretela Euskal Herriaren esperantza, gu guztion itxaropena.

Gogoan daukat Mixel Labeguerie adiskideak sortu zuen kantua Nafarroari buruz. Gogoan daukat bereziki errepika, eta hitzak aldatuz diotsuet:

Nafarra oi Nafarra
Euskarak badauka zure beharra.

EUSKALTZAINDIAREN ERABAKIAK ETA ADIERAZPENAK

Miguel Sanz Sesma jauna,
Nafarroako Gobernuburua

Jaun Txit Gorena:

Aditzera ematen dizut Akademia erakunde honek, joan den ostiralean, ekainak 23, egoitza honetan egindako hileroko osoko bilkuran, beste gai batzuen artean, berori buru den Foru Erakunde horrekiko honako adierazpen hau aztertu eta onartu zuela:

"Euskaltzaindia Erakundea, 1918an zenbait instituziok sortua da, hauen artean Nafarroako Foru Diputazioak eta 573/1976ko Erret Dekretuaren bidez onartua. Honek dauzkan helburuetarikoen artean, euskararen eskubideen jagotea eta erabilera bultzatzea ditu. Euskaltzaindia erkidegoez gaindiko Instituzioa da.

Eta Erakunde honek, helburuak betetzeko, jarraiko eginkizunak dauzka, alegia:

a) Azken aldion, Nafarroako politikarien artean azalduriko eztabaida dela eta, Euskaltzaindiak bere kezka azaldu nahi du.

b) Bestalde, berorrek gidatzen duen Gobernuko Hizkuntza Politika eta Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusi berria aski izango dela euskeraren presentzia, erabilera eta sustapena bermatzeko, azken aldiotan, Nafarroako gizarteak egunetik egunera geroago eta gehiago eskatzen baitu.

c) Berorrengandik hau eskatzen du, hots, Nafarroako Gobernuburu denez gero, nafar hiritar guztien hizkuntza, *Lingua navarrorum*, eskubide guzti-guztiak bermatuak izan daitezela. Aipatu hizkuntza elkar ulertzeko izan dadila, bai gogoz eta bai elez, eta honela, Nafarroako Foru Erkidegoak aldarrikaturiko hizkuntza legea aurrera eramana eta betea izan dadila".

Honen albiste emanaz batera, har beza nire adeitasunezko agurra.

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua

Bilbon 2000.eko ekainaren 28an

Sr. D. Miguel Sanz Sesma,
Presidente del Gobierno de Navarra

Excmo. Sr.:

Comunico a V.E. que esta institución académica en su sesión plenaria mensual, celebrada en esta sede, el pasado viernes, día 23, debatió y adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo, en relación al Ejecutivo Foral que V.E. preside:

"La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia es una institución supracomunitaria creada en 1918 bajo los auspicios, entre otros, de la Diputación Foral de Navarra y reconocida por Real Decreto 573/1976 para, entre otros fines, *velar por los derechos de la lengua* y *promover su uso.*

Esta Institución, en cumplimiento de sus cometidos:

a) Manifiesta su preocupación ante el debate surgido últimamente en algunos sectores de la clase política navarra en torno al euskera.

b) Espera, sin embargo, que la nueva Dirección General de Universidades y Política Lingüística, creada como consecuencia de la reestructuración realizada por el Gobierno que V.E. preside, sea suficiente para garantizar la presencia, el uso y el fomento del euskera que la sociedad navarra viene demandando cada vez con más fuerza en los últimos años.

c) Solicita de V.E., como presidente de todos los navarros, sean observados con la máxima garantía los derechos lingüísticos de todos los ciudadanos navarros que eligen la *Lingua navarrorum* como vehículo de comunicación y se cumpla así, en espíritu y letra, la legislación lingüística promulgada por la Comunidad Foral de Navarra".

Dando cumplida noticia de ello, reciba el atento saludo de

Jean Haritschelhar, presidente

Bilbao, 28 de junio de 2000

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

108
LAPURDIKO UDAL IZENDEGIA

1) Herri izenak euskaraz

Herri izena	*Herriaren izen ofiziala*	*Herritar / izena*
Ahetze	Ahetze	aheztar
Ahurti	Urt	ahurtiar
Ainhoa	Ainhoa	ainhoar
Angelu	Anglet	angeluar
Arbona	Arbonne	arbonar
Arrangoitze	Arcangues	arrangoiztar
Azkaine	Ascain	azkaindar
Baiona	Bayonne	baiones / baionar
Bardoze	Bardos	bardoztar
Basusarri	Bassussarry	basusartar
Beskoitze	Briscous	beskoiztar
Biarritz / Miarritze	Biarritz	biarriztar / miarriztar
Bidarte	Bidart	bidartar
Biriatu	Biriatou	biriatuar
Bokale	Boucau	bokales
Donibane Lohizune	Saint-Jean-de-Luz	donibandar
Ezpeleta	Espelette	ezpeletar
Getaria (Lapurdi)	Guéthary	getariar
Gixune	Guiche	gixundar
Haltsu	Halsou	haltsuar
Hazparne	Hasparren	hazpandar
Hendaia	Hendaye	hendaiar
Hiriburu	Saint-Pierre-d'Irube	hiriburutar
Itsasu	Itxassou	itsasuar
Jatsu (Lapurdi)	Jatxou	jatsuar
Kanbo	Cambo-les-Bains	kanboar
Larresoro	Larressore	larresoroar
Lehuntze	Lahonce	lehunztar
Lekorne	Mendionde	lekondar
Lekuine	Bonloc	lekuindar
Luhuso	Louhossoa	luhusoar
Makea	Macaye	makear
Milafranga	Villefranque	milafrangar

Herri izena	*Herriaren izen ofiziala*	*Herritar / izena*
Mugerre	Mouguerre	mugertar
Sara	Sare	saratar
Senpere	Saint-Pée-Sur-Nivelle	senpertar
Urketa	Urcuit	urketar
Urruña	Urrugne	urruñar
Uztaritze	Ustaritz	uztariztar
Ziburu	Ciboure	ziburutar
Zuraide	Souraïde	zuraidar

2) Herri izenak frantsesez

Herriaren izen ofiziala	*Herri izena*	*Herritar / izena*
Ahetze	Ahetze	aheztar
Ainhoa	Ainhoa	ainhoar
Anglet	Angelu	angeluar
Arbonne	Arbona	arbonar
Arcangues	Arrangoitze	arrangoiztar
Ascain	Azkaine	azkaindar
Bardos	Bardoze	bardoztar
Bassussarry	Basusarri	basusartar
Bayonne	Baiona	baiones / baionar
Biarritz	Biarritz / Miarritze	biarriztar / miarriztar
Bidart	Bidarte	bidartar
Biriatou	Biriatu	biriatuar
Bonloc	Lekuine	lekuindar
Boucau	Bokale	bokales
Briscous	Beskoitze	beskoiztar
Cambo-les-Bains	Kanbo	kanboar
Ciboure	Ziburu	ziburutar
Espelette	Ezpeleta	ezpeletar
Guéthary	Getaria (Lapurdi)	getariar
Guiche	Gixune	gixundar
Halsou	Haltsu	haltsuar
Hasparren	Hazparne	hazpandar
Hendaye	Hendaia	hendaiar
Itxassou	Itsasu	itsasuar
Jatxou	Jatsu (Lapurdi)	jatsuar
Lahonce	Lehuntze	lehunztar
Larressore	Larresoro	larresoroar
Louhossoa	Luhuso	luhusoar
Macaye	Makea	makear
Mendionde	Lekorne	lekondar
Mouguerre	Mugerre	mugertar
Saint-Jean-de-Luz	Donibane Lohizune	donibandar
Saint-Pée-Sur-Nivelle	Senpere	senpertar

Lapurdiko udal izendegia

Herriaren izen ofiziala	*Herri izena*	*Herritar / izena*
Saint-Pierre-d'Irube	Hiriburu	hiriburutar
Sare	Sara	saratar
Souraïde	Zuraide	zuraidar
Urcuit	Urketa	urketar
Urrugne	Urruña	urruñar
Urt	Ahurti	ahurtiar
Ustaritz	Uztaritze	uztariztar
Villefranque	Milafranga	milafrangar

(Euskaltzaindiak, Bilbon, egoitzan, 2000.eko martxoaren 30ean onartua)

109
KOMUNZTADURA APOSIZIOETAN

1. Motak

Aposizioetan honako mota bi hauek bereiz daitezke, besteak beste:

a. Izen sintagmaren barnean gertatzen dena, izen bati beste izen bat –edo gehiago– aposatzen zaionean. Izen sintagma bakarra da eta, hortaz, hondarkia sintagmaren azken buruan baizik ez da ageri. Hau da eskema, labur adierazita: $[[\ ]_i[\ ]_i]_{IS}$.

(1) a. Unibertsitateko errektoreorde Edurne Mendiluz*ek* aurkeztu du txostena.
b. Edurne Mendiluze Unibertsitateko errektoreorde*ari* aurkeztu diote txostena.

b. Izen sintagma osoak aposatuz egiten dena. Horrelakoetan, izen sintagma guztiek daramate hondarkia: $[\ ]_{IS}[\ ]_{IS}$.

(2) a. Matematikako irakasle berri*a*, iazkoaren ordez etorri den*a*, oso atsegina da.
b. Zure lagun*ak*, haur literatura hain ongi ezagutzen duen*ak*, beste liburu bat kaleratu du.
c. Zer esan behar didazue ni*ri*, herria inork baino hobeto ezagutzen dudan *honi*?

Aposizio batzuk lehen modura egiten dira beti: *Gu gazte<u>ok</u>, Urola ibai<u>tik</u>, Axular ikastola<u>ra</u>*... Beste batzuk, berriz, bietara egin daitezke: *Canpion, euskaltzale fin <u>hark</u>* nahiz *Canpion<u>ek</u>, hainbeste aldiz gogoratzen dugun idazle fin <u>hark</u>*. Badirudi, hala ere, etena handia denean bigarren mota erabiltzeko joera nagusitzen dela (ikus *EGLU* 1, 312.or.).

Esan gabe doa egitura konplexuagoak ere egin daitezkeela, aposizio mota biak metatuaz –$[\ ]_{IS}[[\ ]_i[\ ]_i]_{IS}$– edo juntadura erabiliz –$[\ ]_{IS}[[\ ]_i$ eta $[\ ]_i]_{IS}$ –:

(3) a. Koldo Morales*ek*, Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreorde, Akademia Antolakuntza arduradun*ak* baiezkoa eman dio plan berriari.

b. Chaban-Delmas*ek*, Bordeleko auzapez eta Pariseko Diputatuen Biltzarreko kide*ak*, utzi egin ditu kargu guztiak.

Egokiak gerta daitezke horrelako egiturak izen sintagma askoren arteko aposizio jarraituak berarekin izan ohi duen pisua zerbait arintzeko.

2. Komunztadura

2.1. Izenen arteko aposizioan ez dago komunztadura arazorik, hondarkia ez baita izen sintagma osoaren azken buruan baizik ageri. Gogoan izan behar da, hori bai, lehen izenak ez duela, horrelakoetan, mugatzailerik hartzen.

(4) a. Unibertsitateko errektoreorde(**a*) Edurne Mendiluz*ek* aurkeztu du txostena.
b. Zure lagun(**a*) Dublinen bizi den*ari* sari bat eman diote.

Mugatzaile eta guzti eratuak diren izen bereziek, hala ere –*Paulo VI.a, Antso Azkarra, Pernando Amezketarra* eta horrelakoek–, bere horretan gordetzen dute mugatzailea aposizioetan ere:

(5) a. Paulo VI.a Erromako Aita Santu*ak* (*Paulo VI. Erromako Aita Santuak)
b. Antso Azkarra errege ausart*ari* (*Antso Azkar errege ausartari)

c. Pernando Amezketarra bertsolari ezagun*aren* ibilerak (*Pernando Amezketar bertsolari ezagunaren ibilerak)

2.2. Izen sintagmaren aposizioan, berriz, komunztadura egitea da ohikoena, dagokien hondarkia sintagma guztietan ipiniz. Hori da ohikoena eta bitxi da sintagma aposatua kasu markaz gabetua ematea:

(6) a. Nire lagun Fermin*ek*, piano jotzaile trebe*ak*, kontzertu asko eman ditu aurten.
b. Fermin Garro irakasle*ari*, lizentziatura egin berri duen*ari*, eman diote lanpostu hori.

Baina:

(6) c. ??Nire lagun Fermin*ek*, piano jotzaile trebe*a*, kontzertu asko eman ditu aurten.
d. ??Fermin Garro irakasle*ari*, lizentziatura egin berri duen*a*, eman diote lanpostu hori.

Horrela, esate baterako, komunztadura egiten da eskuarki lehen sintagmaren buruan *bat* mugagabea dutenetan edota sintagma aposatuan erlatibo arrunta dutenetan:

(7) a. Orduan esan zezan haren diszipuluetarik bat*ek*, Iudas Iscariot Simonen seme*ak*, hura trahituren zuenak (Lç 187)
b. Zuhaitz ttipi*ak*, oraiño errorik eztuten*ak*, ezin athera ditzakezu (Ax 57)
c. Hetarik bat*ek*, Cleofas deitzen zen*ak*, ihardetsi zion (Lg II 288)

Erabilera lasaiagoan absolutiboan ageri da inoiz sintagma aposatua, lehena bestelakoa izanda ere. Perpaus barnean gutxi-gutxitan gertatzen da hori, ordea, eta ez da gomendatzekoa:

(8) Gure Jainko*ak*, beti xuxen dabilan*a*, ongi gidatzen baitu (M. Ariztia, *Amattoren uzta*, 16)

3. Oharra

Zenbaitetan badirudi bigarren sintagma aposizioa ez baina perpausaren egituratik aparte erantsitako tartekia edo parentesi moduko zerbait dela.

Horrela, esate baterako, perpausaren hondarrean doanean, haren azalpen aske bezala edo:

(9) [...] bere sehi zahar bat*entzat*, aspaldian ezindu*a*, bainan Nagusiak maite zuen*a* bere haurride bat bezain osoki (Arb *Igand* 89)

Perpausaren barnean ere gerta daiteke hori, parentesi izaera agerian dela. Lagungarri izan daiteke horrelakoetan marratxoak erabiltzea.

(10) a. Gure herriko alkate*ak* –musikazale amorratua bera– begi onez ikusi du kontzertu gela berria egiteko proiektua.
b. Haren etxe*an* –aski zabal*a*, ene ustez– erraz kabituko gara denok.
c. Datorren larunbat*ean* –hilak zortzi– hasiko da ehiza garaia.

Erabilera lasai hori areago gertatzen da, hala ere, etenak, tartekiak eta horrelakoak maiz samar izaten dituen euskara mintzatuan, jardun egituratuagoa izan ohi duen idatzian baino.

ARAUA

1. Aposizioa izen sintagmaren barneko izenen artean egiten denean ez da komunztadura arazorik sortzen, hondarkia ez baita sintagma osoaren azken buruan baizik ageri:

- Unibertsitateko errektoreorde Edurne Mendiluze*k* aurkeztu du txostena.
- Edurne Mendiluze Unibertsitateko errektoreorde*ari* aurkeztu diote txostena.

Horrelakoetan, bistan da, lehen izenak ez darama mugatzailerik:

- Unibertsitateko errektoreorde(**a*) Edurne Mendiluze*k* aurkeztu du txostena.
- Zure lagun(**a*) Dublinen bizi den*ari* sari bat eman diote.

Mugatzailea izenaren beraren osagai egina duten izen bereziek, ordea *–Paulo VI.a, Antso Azkarra* edo *Pernando Amezketarra* bezalakoek, alegia–, gorde egiten dute hura aposizioan ere:

- Paulo VI.a Erromako Aita Santu*ak* (*Paulo VI. Erromako Aita Santuak).
- Antso Azkarra errege ausart*ari* (*Antso Azkar errege ausartari).
- Pernando Amezketarra bertsolari ezagun*aren* ibilerak (*Pernando Amezketar bertsolari ezagunaren ibilerak).

2. Izen sintagma osoak aposatzen direnean, berriz, komunztadura egitea da ohikoena, hondarkia sintagma aposatuetan ere ipiniz:

- Nire lagun Fermin*ek*, pianojotzaile trebe*ak*, kontzertu asko eman ditu aurten.
- Fermin Garro irakasle*ari*, lizentziatura egin berri duen*ari*, eman diote lanpostu hori.
- Zure lagun*arekin*, Unibertsitateko irakasle*arekin*, mintzatu naiz gaur.

Komunztadurarik gabeko aposizioak lekukotasun urriagoa du tradizioan, batez ere perpaus barruan kokatua dagoenak, eta, hortaz, ez da gomendatzekoa:

- ?? Nire lagun Fermin*ek*, pianojotzaile trebe*a*, kontzertu asko eman ditu aurten.
- ?? Fermin Garro irakasle*ari*, lizentziatura egin berri duen*a*, eman diote lanpostu hori.
- ?? Zure lagun*arekin*, Unibertsitateko irakasle*a*, mintzatu naiz gaur.

Zenbaitetan, perpausaren joskeratik aparteko eranskin edo tarteki aske gisa ematen da bigarren sintagma eta ez sintagma aposatu gisa. Areago gertatzen da etenak, tartekiak eta horrelakoak maiz samar dituen euskara mintzatuan, jardun egituratuagoa izan ohi duen idatzian baino. Horrelakoetan, jakina, benetako aposiziorik ez dagoenez, ez da komunztadura egiten.

Errazago onartzen dira horrelakoak, tarteki izaera argia denean:

- Gure herriko alkate*ak* –musikazale amorratua bera– begi onez ikusi du kontzertu gela berria egiteko proiektua.
- Haren etxe*an* –aski zabal*a*, ene ustez– erraz kabituko gara denok.
- Datorren larunbate*an* –hilak zortzi– hasiko da ehiza garaia.

(Euskaltzaindiak, Iturenen, 2000ko maiatzaren 26an onartua)

110

IRAUPENA ETA MAIZTASUNA ADIERAZTEN DUTEN SINTAGMA ZENBATZAILEDUNETAN MUGATU SINGULARRA NOIZ ERABIL DAITEKEEN

Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagmetan, zenbatzaileak tartean direla, mugatu singularra noiz erabil daitekeen aztertzen da ondorengo lerroetan. Gaia adibide batzuen bidez aurkeztuko dugu. Adibideotan datozen forma horietatik zein diren zuzenak adierazten saiatuko gara, tradizioaren eta, kasu batzuetan, oraingo erabileraren eta hedaduraren ikuspegitik.

Iraupena adierazteko absolutibo eta instrumental mugagabeak eta inesiboa erabil daitezke euskalkien eta aditzen arabera:

(1) Jonas *iru egunez egon* izan bai zan balearen erraietan, beronelaxe
Gizasemea, Jesus bera, *iru egunez egongo* da lurraren baiten, esan izan zuan
*Jesusek aurretik (Inza *Azalp*, 74)

(2) Ezen hala nola Ionas balearen sabelean *hirur egun eta hirur gau izan* baitzen:
hala izanen da gizonaren Semea lurraren bihotzean, *hirur egun et hirur gau*
(Lç 22)

(3) Erroman *bi urtean* egon zan (Lardizabal, *Test. Zar. Berr. Condaira*, 531)

Adibide hauetan ikusten denez, instrumentalean eta absolutiboan iraupena mugagabearen bidez ematen da aditzera. Baina iraupena adierazteko inesiboa darabilgunean, singularra ala mugagabea behar duen edota bata nahiz bestea onartzekoak diren argitu beharreko kontua da, zeren absolutiboan eta instrumentalean ez bezala, inesiboan erabilera bikoitza baitugu:

(4) *Hiru astean / hiru astetan* asko hazi da haurra.

Bestalde, maiztasuna adierazteko, zenbatzailea, denborazko izen bat (*urtea*, adibidez) + *behin* nahiz *-ero* atzizkia ageri zaigu. Arazoak: batetik hemen ere singularreko forma ala mugagabekoa erabili behar den edota bata nahiz bestea; eta bestetik era zuzenak eta okerrak ongi bereiztea:

(5) *Bi urtetarik behin / bi urterik behin / bi urtez behin / bi urtetik behin / bi urtean behin / *bi urtero* elkartzen dira bazkaltzeko.

Azter ditzagun bi puntuak:

1. IRAUPENA ADIERAZTEKO ERAK

Ezaguna da zenbatzaileak determinaturiko Izen Sintagmak mugagabean nahiz mugatu pluralean deklinatzen direla euskaraz (ikus Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I*, 78. or.):

Bost liburu irakurri behar dituzue ikastaroan zehar (Mugagabea).
Ikastaro honetan irakurri beharreko bost liburuak liburutegian dituzue (Mugatu plurala).

Gauza bera esan genezake leku-denborazko kasuetarako ere. Hauetan ere arau orokorra mugagabean eta mugatu pluralean deklinatzea litzateke:

Zortzi urtetan aritu da ikasten (Mugagabea).
Ikasten aritu den zortzi urteetan ez du besterik egin (Mugatu plurala).

Hala ere, mugagabeko erabileraz gain mugatu singularrekoa ere aurkitzen dugu sarri, batez ere Hegoaldeko testuetan. Konparaziorako, goiko adibideen ondoan, honako moldekoak ere ageri zaizkigu testuetan:

Zortzi urtean aritu da ikasten (Mugatu singularra).

Ekar ditzagun hona, bada, literatur tradiziotik mugatu singularreko adibideak lehenik eta mugagabekoak ondoren:

A. Zenbatzailea + singularra: BOST URTEAN

Zenbatzailea + *hilabetean*

1. Birjiña bere amaren sabelean gure aragiz janzi, ta bederatzi illabetean an egon, ta Belengo Portalean añ pobre jaiotzean [...] (A. Cardaberaz, *Egercicioac III*, 306).

2. Irabazi ugaria sei illabetean ateratzeko (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac II*, 188).

3. Asiko da infernua lurraren zulo oetakoren batetik kea dariola; botako ditu beregandik langosta mota batzuek aiñ amorratuak, eta puzoitsuak, non bost illabetean ibilliko diran bekatariai darraiztela (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac III*, 477).

4. Neuk neukan nik neure barruan Aldabaldoganako maitetasunaren iturburua, ainbeste illabetean egin ditudan amesen iatorri txarra (D. Aguirre, *Auñemendiko Lorea*, 111).

5. Erregiñatzako autuak ziran neskatx gazteak, sei illabetean usan-belar, eta olio gozoz igortziak iduki oi zituzten, ederrago egin zitezen (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. Condaira*, 13).

6. Zere baimena indazu, basora joan, eta lagunakin nere garbitasuna bi illabetean negartzeko (Ib., 136).

7. Aukeran iru gauza ipintzen zazkitzu: erreinu guzian iru urteko gosetea; etsaiaren igesi iru illabetean ibiltzea; edo iru eguneko izurria (Ib., 205).

8. Ordutik itzegiten asi zan, ainbeste illabetean mutututa egon zan Zakarias (Ib., 365).

9. Ainbeste illabetean zai egonda (D. Aguirre, *Garoa*, 120).

Zenb. + *orduan*

1. Bi orduan lagun egin zioten gorputzari, kandelen argitan (A. Anabitarte, *Poli*, 66).

2. Saul-ek gauean bere armadun guziak iru saldotan ipiñirik, Amon-tarrai isillik itsumustuan sartu zitzaien, eta prestatzeko lekurik ere eman gabe, iru orduan, eguzkiak indarra artu arteraño, iltzen aritu ziran (F. I. Lardizabal, *Test. Zarr. Berr. Condaira,* 157).

3. Mamia bear da txuritu, erazaldu eta ur beroan eduki ogei eta lau orduan (A. Iturriaga, *Diálogos* 107).

4. Otzak eta bildurrak dardaraka geunkazan, ta amabi, amairu edo amalau orduan egon bear alantxe! (D. Aguirre, *Kresala*, 89).

5. Ondo egingogu berton egoten bagara galarrena igaro arte, iru edo lau orduan (J. M. Etxeita, *Josecho*, 251).

6. Azkar ibilli bear, lau orduan Aizarnatik Donostira etorriko bada (Uztapide, *Sasoia joan da gero*, 335).

7 Hogoi eta lau orduan hemen deus guti egin ditaike, bainan gelditzen zautan denbora ez dut saldu nahi merke; ditutan etsai guzien ganat inguratu nahi nuke, ene barkamena eskaintzerat eta heienaren eske (Xalbador, *Odolaren Mintzoa*, 347).

Zenb. + *urtean*

1. Esan begi arako odolezko gatxagaz amabi urtean gaisorik egon zan andra errukigarriak; zeure jaztekoaren magaleko erza ukututea zan asko, guztiz osaturik gelditeko (A. Añibarro, *Lora Sorta*, 73).

2. Orain zarean erdia, ozta azi ziñian amabi urtean (Ib., 140).

3. Adan berreun eta berrogeita bi urtean Matusalen seigarren oñeko illobarekin bizi izan zan (F. I. Lardizabal, *Test. Zarr. Berr. Condaira*, 8).

4. Erroman bi urtean egon zan, aitatu dan bezala, Enperadorearen Tribunalak libratzeko agindu zuen arteraño (Ib., 531).

5. [...] Bernardatxo an bizitu zen, lenbizi illabete batzuetan eta geroago bi urtean (F. Goñi, *Lurdesko Gertaerak*, 23).

Zenb. + *astean*

1. Zuek eman zizkidazuten ogei ontzako zikiñagatikan, an egon nauk ogei astean itzalean, eta zuek, urre eta zidarrezko gauzan gañera, berregun bana ontzako gorde zenduztenok, ez dezute oraindikan ankarik sartu iguzki gutxiko aposentuan (A. Apaolaza, *Patxiko Txerren*, 96).

* * *

B. Zenbatzailea + mugagabea: BOST URTETAN

Zenbatzailea + *hilabetetan*

1. Lau illabetetan alkarrekin ibilli ziran gudaritza ondoren eta nunbait, etzuten alkarren berri jakin asarretu ziran egunerarte (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, 76).

2. Esan ziotenez urtean iru illabetetan bakarrik lana egin leikiana, beste bederatzitan euri bizia izaten dalako (J. A. Irazusta, *Bizia garratza da*, 81).

3. Bero ta eltxo ta guzi, bost illabetetan bi gau doi doi galdu nitunan begiak ezin itxiz (Orixe, *Quito-n arrebarekin*, 49).

Zenb. + *ordutan*

1. Aitzulo orretan egon nintzan iru egunez, eta andik zuzen Prantzira jo nun: 24 ordutan 20 legua bide, iñon egonik egin gabe (Orixe, *Santa Cruz apaiza*, 49).

2. Oiek ere bi ordutan katiatuta egon ondoren, zoro-gisa amiltzen dira jolas-lekura (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak. Jainkoa*, 140).

3. Etxera heltzen naizenean, eznaiz hamabi ordutan ohetik jaikiko (G. Aresti, *Ipuinak*, 78).

Zenb. + *urtetan*

1. Ogetabi urtetan egon zan Manilan, da etxeratu zan erdi makalik, baña diru askogaz: etxean, urtebetean jarri zan gizon ederra (J. M. Etxeita, *Josecho*, 356).

2. Amar-amabi urtetan bera baiño beste nagusirik ezagutu ez eban Otoiopek ordezko buruzagia erioan: [...] (E. Erkiaga, *Arranegi*, 80).

3. Iazko aukera eta txolarteak gero ere izango banitu, bi urtetan bukatuko nuke idazlana (K. Mitxelena, *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak*, 95).

Zenb. + *astetan*

1. Jatordu arek eta gau-pasak, sortu dio azken gaitza; ta bi astetan ebaki zigun koplariaren bizitza (N. Etxaniz, *Lur berri billa*, 290).

* * *

2. MAIZTASUNA ADIERAZTEKO

Maiztasuna adierazteko moldeen artean literaturan ez da testigantza askorik zenbatzailedun sintagmen kasuan. Literaturako adibide urriak eta ahozko hizkuntzakoak aztertuz, mugagabeko nahiz mugatu pluraleko zenbait forma aukeran ditugula ondoriozta daiteke.

Hona hemen literaturako adibide urri horiek.

A. Zenbatzailea + mugatua: HAMAR MINUTUTIK BEHIN; HAMAR URTETIK (/-RIK) HAMAR URTERA

1. Amar minututik behin (V-gip G. Garate, *Erdarakadak*, 37).

2. Herriko arno garbi xorta bat hola zortzitik behin gure etxean, bazinaki zer besta den? (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 184).

3. Baita bere dago kondenaturik esatia: eztala ziur ziur, edo ziertuba, bost urterik, bost urtera egin biar daben, ala ez (P. Astarloa, *Berbaldiak II*, 7).

4. Milla urtetik milla urtera aingeru bat zerutik jetxi ta aldiko ondar izpi bat bakarra eramango balu: noizko itxasoko ondartzan aitu...? (*Argi Done Laburra*, 32).

5. Beren bisita egiten dute bost urtetik bost urtera, esanaz: Emen lenago lotsaz gelditurikan ote da? (Txirrita, *Bertsoak I*, 92).

6. Ala bi illabetetik bi illabetera umeak egin ditzake (A. Iturriaga, *Diálogos*, 98).

B. Zenbatzailea + mugagabea: HAMAR MINUTUTARIK BEHIN; HAMAR URTETARIK HAMAR URTETARA; HAMAR URTEZ BEHIN

1. Lau urtetarik behin bazuketen Arrotarrek gizon lanjeros hari gider guzien kentzeko parada ona (J. Hiriart-Urruty, *Mintzaira. Aurpegia*, 130).

2. Lau urtetarik behin doi doia (J. Barbier, *Supazter xokoan*, 20).

3. Bost egunez bein etortzen da (G. Garate, *Erdarakadak*, 37).

4. Eun urtez bein idikitzen (Orixe, *Mireio*, 142).

5. Bi urtez bein edo "Eusko Ikaskuntzak" Bidasoaz andiko ta emendiko euskotar guztiok batzarre batera deitzen gaitu (Lizardi, *Itz-lauz*, 124).

6. Egun biz behin (*Orotariko Euskal Hiztegia,* IV, 499; G-azp).

7. Gutxi gorabera bi illez bein Bordeleko kaietara zijoanak [...] ikusi zezakean ontzi zuri sabelaundi bat (J. A. Irazusta, *Bizia garratza da*, 14).

8. Iru illabetez beingo aldizkaria (Lizardi, *Itz-lauz*, 122).

9. ... eta halarik ere ezta harekin batzen hirur urthetarik hirur urthetara baizen, eta hori bortz egunekotz xoilki,... (S. Pouveau, *Philotea*, 411).

10. Sei oren hek laur urthetarik laur urthetara konplitzen dute egun oso bat eta da bisexte (J. Haramburu, *Devocino escuarra*, 913).

11. ... zergatik lau urthetarik lau urthetarat baita bisuste urthea ... (*Itxasoko nabigazioneko liburua*, 145).

* * *

Literaturako adibide horiez gain ezaguna da Hegoaldeko ingurune zabal batean (gipuzkeraz berezi-ki) erabiltzen den mugatu singularreko egitura:

Bost urtean behin elkartzen dira bazkaltzera.

Baita bizkaieraz oso sustraitua den honako hau ere:

Bost urterik behin elkartzen dira.

* * *

Bada, ordea, ez euskal literaturan ez eta ahozko erabileran ere inongo tradiziorik ez duen moldea, gaur egun hedatuxea dena: zenbatzailedun sintagmari *–ero* atzizkia erantsiz sortzen dena.

**Bost urtero* elkartzen dira bazkaltzera.

ARAUA

Horrenbestez, euskal literatur tradizioa eta ahozko euskararen erabilera kontuan hartuz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia iraupena eta maiztasuna adierazteko zenbatzailedun sintagmen erabileraz:

1. IRAUPENA ADIERAZTEKO

— Absolutiboaz eta instrumentalaz gainera inesiboa erabiltzen da maiz iraupena adierazteko sintagmetan.

— Inesiboko sintagma hauei dagokienez, mugagabea erabiltzea zilegi izanagatik, mugatu singularra erabiltzea hobesten da honako kasu honetan: zenbatzailedun sintagma horrek adierazten duen denbora etengabeko unitate bakar gisa hartzen denean, hots, inesiboaren bidez prozesu edo gertaera baten iraupena adierazten denean. Adibidez,

Hiru astean asko hazi da haurra.
Hiru urtean ikasi du euskara.
Lau urtean lan egin du Afrikan.

Hauetan denetan iraupena adierazten da.

Iraupenik adierazten ez denean, noski, mugagabeak ohiko lekua izango du. Hiru urteko iraupena adierazi beharrean hiru urte desberdinetan gertatu den zerbait adierazi nahi bada, mugagabea beharko da:

Lau urtetan antolatu dute tanborrada.

2. MAIZTASUNA ADIERAZTEKO

— Maiztasuna adierazteko ereduen artean, mugagabeko erabilerekin batera, hots:

Lau urtez behin elkartzen dira senitartekoak.
Lau urtetarik behin elkartzen dira senitartekoak.
Lau urtetarik lau urtetara elkartzen dira senitartekoak.
Lau urterik behin elkartzen dira senitartekoak.

— Formaz mugatu singularra dena ere aukeran dugu:

Lau urtetik behin elkartzen dira senitartekoak.
Lau urtetik lau urtera elkartzen dira senitartekoak.

— Inesiboaren kasuan, berriz, forma mugatua da erabili behar dena honelakoetan:

Lau urtean behin elkartzen dira senitartekoak.

— Maiztasuna adierazteko egituren artean, *[izena + -ero]* gisako esamoldea onartzekoa da:

{Astero, hilero, ordulaurdenero...} etortzen da.

Baina bada hedatuxea den egitura bat, gaitzestekoa dena: *-ERO* atzizkiaren bidez osatua den **[zenbatzailea + izena + -ero]* sintagma:

**Bi urtero* egiten dute bilera batzordekoek.
**Hamabost egunero* etortzen zait bisitan.

— Hamabostero, ordea, onartzekoa da, *hamabostean behin* nahiz *hamabosterik behin*-en parean.

(Euskaltzaindiak, Iturenen, 2000ko maiatzaren 26an onartua)

111
IZEN SINTAGMEN ARTEKO JUNTADURA DELA ETA

Eta emendiozko juntagailuaren bidez kasu-marka bereko izen sintagmak, nahiz sintagmaren barneko osagaiak junta ditzakegu, hurrengo bi adibideek erakusten duten bezala, hurrenez hurren:

Lagunez, adiskideez eta etxekoez mintzatu ziren.

Lagun, adiskide eta etxekoez mintzatu ziren.

Bigarren adibidean, izenak juntatzen ditu *eta* juntagailuak, ardatz anitzeko sintagma osatuaz.

Literatura tradizioan bi egitura horiek nola erabili diren azaltzea eta gaurko erabilera okerrak saihesten ahalegintzea da arau honen helburua.

* * *

1. Kasu markadun sintagmak noiznahi junta daitezke. Batez ere sintagmak singularrekoak direnean, hau da tradizioan ageri den juntabidea (EGLU, IV, 33):

*Galeperra da **gari artetan ta galonduetan** oi dabillen epertxuba* (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 179).

***Jaungoikoari eta lagun urkoari** zor diogun amorioa* (J.B. Aguirre, *Erakusaldiak, III, 435).*

***Mandozainari eta mandoeri** mintzo zen denbora berean* (J.B. Elissamburu, *P. Adame, 26).*

*Esaidazu zer gura dozun: **Zeuk, emaztiak eta neuk** bakarrik apaldutia, edo etxeko guztiok aladabatera?* (J.A. Moguel, *Peru Abarka*, 179).

***Andre dena Mariaz eta bertze saindu batzuez** mintzo* (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 164).

***Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren** izenean* (Otoitza).

* * *

2. Kasu markadun sintagmak juntatu gabe ere, hondarkirik gabeko izenak edo izen taldeak ere junta daitezke, ardatz anitzeko izen sintagmak osatuz (*EGLU,* IV, 33). Sintagmak pluraleko hondarkia hartzen duenean ageri da batez ere juntabide hau:

***Eremu ta basoetan,** bere gorputza lazki nekatzen zuala* (J.A. Ubillos, *Kristau doktriña berri-ekarlea*, 75).

***Abere ta artaldeak** ikusten egurastu zirean arratsalde guztian* (J.M. Echeita, *Josetxo*, 318).

*Len errierta eta alkar eziñ ikusi eta gorrotoa besterik etzan **etxe eta baserrietan** pakezko eta kontentuzko, estimaziozko eta amorezko biziera sartu zan* (G. Arrue, *Santa Jenobeba*, 140).

Ondorengo adibidean, esaterako, izenak juntatzen dira sintagma osoak pluraleko hondarkia hartzen duenean, eta kasu-sintagmak, ostera, singularrekoak direnean:

***Igande eta phesta egunetan,** jaun erretorak bere jendea bil dezala, **mezarat eta predikurat** bezala, bezperetarat ere* (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren Eguna*, 125).

Singularreko sintagmak izan arren, izen juntadura aurki daiteke, bereziki esanahiaz oso hurbil diren izenak juntatzen direnean:

Behala ematen dute gero jakin lekhuan, burdin katea duela ***zango eta eskuan*** (Etxeberri Ziburukoa, *Manual debozionezkoa*, 94).

Gaxua, bera bai jan ebela laster ***bele ta miruak*** (F. Bilbao, *Ipuin Barreka*, 53).

Joko ta nagikerian *igaro ditu egunak eta urteak* (D. Aguirre, *Garoa*, 367).

Zu egongo zera emen aientzat ***zorion ta pakea*** *eskatzen* (D. Aguirre, *Garoa*, 342).

Sartu zan ***korputz eta animan*** *Satanas edo deabrua* (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko Erakasteak*, 121).

Osasun egunetan atsegin eman behar dioela, ***estura ordu ta gaixotasunean*** *adiskide ongilletzat iduki nai dituenak* (V. Mogel, *Ipui onak*, 24).

Edo izenlagunaz edo izenondoaz lagundurik doazenean izenok:

Bialdu egizuz neure ***erri ta etxera*** (Moguel, *Peru Abarka*, 193).

Ezin kendu nuen nik ***nere buru ta biotzetik*** *gogamen au* (Azkue, *Ardi galdua*, 120).

Umien zorionari baño, ***euren, gurasoen, uste ta gogoari*** *geiago ta obeto begiratu oi deutsielako* (D. Aguirre, *Kresala*, 107).

Laguntza ta sari aberatsenak *zagizkoten* (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 76).

Azken adibidean bezala, bi izen juntaturen ondoren izenondoa ageri denean, zalantzak sor daitezke izenondoaren hedaduraz, hau da, ez da argi ikusten izenondoa bi izenei dagokien ala azkenari bakarrik. Kontsidera ondoko adibideok:

Unibertsitateko kargudun eta langile berriek *bihar bildu beharko dute:*

Berez izen sintagmak ez du mugarik ematen interpretazioaren aldetik : kargudunak unibertsitatekoak izateaz gainera berriak izan daitezke, edo ez, eta langileak, berriz, berriak izateaz gainera, unibertsitatekoak izan daitezke, edo ez. Irakurketa guztiak zilegi dira gramatikaren ikuspuntutik.

Horiek horrela, adierazi nahi den egoeran bai kargudunak eta bai langileak, unibertsitatekoak eta berriak badira, orduan guztiz egokia da aurreko erabidea.

Alderantziz, demagun adierazi nahi den egoeran unibertsitateko kargudunak (berriak nola zaharrak), eta langile berriak (ez baitezpada unibertsitatekoak, baina kontestuan emana den erakunde edo toki batekoak) aipatzen direla. Aurreko informazio inpliziturik gabe, goragoko adibidearen irakurketa hori, zilegi izan arren, zail gertatuko da, eta horretaz delako juntabidea ez egokia. Nahiz kasu honetan ere anbiguitatea ez den kendua (bigarren juntagaian izenlaguna ezabatua izaten ahal baita), menturaz, argiago da orduan kasu marka bi juntagaietan agerraraztea :

Unibertsitateko kargudunek eta langile berriek *bihar bildu beharko dute:*

Hemen esandakoek berdin balio dute beste egoeretan ere. Adibidez, izen ardatz bakar bati dagozkion bi izendondo direnean, izenondoen zuzeneko juntabidea hobetsiko da kontrako arrazoirik ez bada testuinguruan :

euskaltzale zintzo eta leialari

(nahiz beste bidea ere gramatikoki zilegi den, eta beharbada testuinguru batzuetan -indar emateko, adibidez- guztiz baliagarri: *euskaltzale zintzoari eta leialari*).

Gauza bera gertatzen da izenlagunekin:

fakultateko eta hiriko kargudunen *aldeko hitzak* (beste bidea, gramatikoki huts gabekoa izanagatik, korapilatsuagoa da : *fakultateko kargudunen eta hirikoen aldeko hitzak*).

* * *

3. Kasu-markadun sintagma eta mugatzailedun sintagma juntatzea, ordea, ez da gramatikala (*EGLU* IV, 42-43):

***Hemengo nagusia eta hango langileei** mintzatu zitzaien

***Itsasoa eta mendietan** ibili naiz*

***Gizon hau eta emazteki hark** egin dute*

***Abereak eta jendeez** mintzo naiz*

Pertsona izenordeek berez izen sintagma mugatuak osatzen dituztenez gero, juntatzen direnean, hondarki osoa (hau da, kasu marka eta guztikoa) izan behar dute (*EGLU* IV, 34-35). Gaizki eratuak dira 'beraz' ondoko formak, lehen juntagaiak, pertsona izenordea izanik, ez baitakar kasu markarik:

***Zu eta niri** gertatu zaigu*

***Ni eta zuk** egingo dugu*

***Gu eta zuetaz** mintzatu ziren*

Aurreko puntuetan aipatu ditugun jokabide horiek oraintsu arte oso molde trinkoan iraun dute euskarazko literaturan eta komeni da euskara batuan eta euskara jasoan haien arabera aritzea.

* * *

4. Azken urteetako erabileran, ordea, ez da zaila aurreko puntuan gaitzetsi ditugun juntadurak bezalakoak aurkitzea, hau da, juntadurako lehen osagaia sintagma mugatua, eta bigarrena kasu-markadun sintagma dutenak:

***Zure senarra eta alabaz** hitz egin behar dizut*

***Zure emaztea eta alabek** egingo dute*

***liburuaren edukia edo itxurari** buruzko kritikak*

liburuaren hastapena eta bukaeran

***itxaropena edo esperantzari** bidea eginez*

ingelesa eta frantsesari buruz

Egitura hauek guztiak, gramatikalak ez diren heinean, baztertzekoak dira ez bakarrik euskara batutik, baita euskaratik beretik ere bai (zeinahi mailakoa den euskararen erabilera, estandarra edo beste maila batekoa).

Lehen bi puntuetan adierazi bezala, aukeran izan dezakegu kasu-sintagmak juntatzea edo izen soilak. Beraz, goiko adibide horien ordain zuzenak beste hauek izango lirateke :

Zure senarraz eta alabaz	edo	***zure senar eta alabaz***
Zure emazteak eta alabek	edo	***zure emazte eta alabek***
Liburuaren edukiari edo itxurari	edo	***liburuaren eduki edo itxurari***
Liburuaren hastapenean eta bukaeran	edo	***liburuaren hastapen eta bukaeran***
Ingelesari eta frantsesari buruz	edo	***ingeles eta frantsesari buruz***

eta abar.

Kontuak askoz nahasiagoak dira oraindik gaurko erabileran, genitibo edutezkoa dakarten izen sintagmen kasuan. Hogeigarren mendea arteko testuetan gaineratiko izen sintagmekin bezalako juntadurak egiten ziren genitibo edutezkoa zegokien sintagmekin ere:

*Sinhesten dut (...) **zeruaren eta lurraren** kreatzaillean* (Gazteluzar, *Egia katolikak*, 38).

Arana Goirirekin bizkaitar literaturaren garaipena dator, hark fundaturiko ***alderdi politikoaren eta aldizkarien*** *bitartez Euskal Herri osotik zabaldun zena* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 381)

Azken urteetako testuetan, ordea, « sintagma mugatua *eta* genitiboko sintagma » egitura zabalduz doa. Bereziki deigarria gertatzen da *–(r)en* artean postposizioaren erabilera. Literaturan, *-(r)en eta -(r)en arteko* nahiz « izena + izena *-en arteko* » egiturak ageri dira, hots, 1. eta 2. puntuetan esandakoaren araberakoak:

Zein hil ukhan baituzue ***tenplearen eta aldarearen artean*** (Leizarraga, *Mateo*, 23, 35)

Zein baita ***Otsagabiren eta Larraneren artean*** (Oihenart, *Atsotitzak*, 6)

Sü eta txilimisten artian (Belapeyre, *Catechima laburra* II, 73)

Ezagutzen du zer diferenzia den ***kreatzaillearen eta kreaturen artean, eternitatearen eta denboraren artean*** (Chourio, *Jesu-Christoren Imitacionea* III, 34, 2)

Atsegin eta kontentuen artean (Aguirre Asteasukoa, *Eracusaldiac* I, 574)

Irokes barbaro ta jentilleen artian (Juan Jose Moguel, *Baseerritaar nequezaleentzaco escolia edo icasbidiac*, 257)

Gure etxian eta zuenan artian *dago kalia* (T. Etxebarria, *Lexicon del euskera dialectal de Eibar*), *Euskera* X-XI (1965-1966) 168. orr.

Hemen ***ahaide eta adixkideen artean*** *beren azken egunen gozoki iragaiteko* (J. Etxepare, *Buruxkak*, 206)

Gaur, aldiz, horrelakoak entzun eta irakur ditzakegu:

****Gobernua eta sindikatuen arteko*** *gatazka*

****Gurasoak eta ikastolen arteko*** *bilerak*

Halere, kontuan izanik juntamolde berri hau ez dela hainbeste hedatu, eta edozein modutan ez dituela tradizioko beste bi juntabideak indargabetu, ez dugu uste gomendatzekoa denik euskara batuan. Horien ordez, behin eta berriz ikusi ditugun aukerak genituzke:

Gobernuaren eta sindikatuen arteko gatazka — *gobernu eta sindikatuen arteko*
Gurasoen eta ikastolen arteko bilerak — *guraso eta ikastolen arteko*

ARAUA

Izen sintagmen arteko juntadura dela eta, tradizioko erabilerak kontuan harturik, Euskaltzaindiak ARAU hauek ematen ditu euskara baturako:

1. Kasu-marka bera dakarten sintagmak beti junta daitezke:

Bilboko jokalariek eta Bermeoko arraunlariek *batzarra egin dute*

Zuri, niri eta beste askori *gertatu zaigu*

Zure etxeaz eta gure lanbide berriaz *mintzatu dira*

Baionatik, Bilbotik eta Gasteiztik *omen datoz ikasle horiek.*

2. Hau da erabili behar den juntabidea, pertsona izenordainak elkartzen direnean:

Zuk eta guk *egingo dugu* (eta ez ****zu eta guk*** *egingo dugu*)

Niri, zuri eta beste lagunei *gertatu zaigu* (eta ez ****ni, zu eta beste lagunei*** *gertatu zaigu*)

Gutaz eta zuetaz *mintzo dira* (eta ez ****gu eta zuetaz*** *mintzo dira*).

3. Halaber, singularreko sintagmetan, kasu-markadun sintagmak juntatzea gomendatzen da:

Itsasoan eta lehorrean *bizi diren narrastiak*

Eskuz eta palaz *jokatzen du*

Amarekin eta amamarekin *bizi da.*

Juntatzen diren izenak oso hurbilekoak direnean, edo izenlagunaz nahiz izenondoaz lagundurik doazenean, ardatz anitzeko sintagma osa daiteke, kasu-marka amaieran ezarriaz:

Gorputz eta arimatik *atera den oihua*

Bere emazte eta alabari *galdetu zien.*

4. Pluraleko sintagmetan, izenak ere junta daitezke, kasu-marka amaieran emanaz. Kasu-sintagmak juntatzea edo izenak juntatzea, aukeran izaten da orduan:

Itsaso, mendi eta basamortuetan *ibili da*

Maite ditut ***lagun eta ahaideak***

Adiskide eta lankideei *kontatu diet*

Meatze eta lantegietatik *atera den oihua*

Maite ditut eguzki, zeru eta izarrak.

5. Determinatzailea duten kasu-markarik gabeko izen sintagmak ezin junta daitezke kasu markadun sintagma batekin:

****Mendia eta itsasotik*** *heldu da ura*

****Adiskideak eta lagunez*** *mintzatu zara*

****Burua eta zangoei*** *behatu nien*

****Bihotza eta buruak*** *horretaratzen nau(te)*

****Gizon hau eta emakume hark*** *esango dizute.*

Genitibodun sintagmetan ere ez da zilegi sintagma mugatu soila eta genitiboko sintagma juntatzea:

****Ikastolak eta gobernuaren arteko*** *bilerak*

****Irakaslea eta ikaslearen arteko*** *harremana.*

(Euskaltzaindiak, Donibane Lohizunen, 2000ko uztailaren 21ean onartua)

BATZAR-AGIRIAK

Legazpin, 2000.eko maiatzaren 5ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
P. Salaburu,
J. San Martin
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi,
Andres Urrutia,
L. Villasante eta
P. Zabaleta
euskaltzainak,
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-
-kudeatzailea eta
JJ. Zearreta, ekonomi eragilea.

Legazpiko Udaletxean, 2000.eko maiatzaren 5ean bildu da Euskaltzaindia hileroko batzarra egiteko. Ezkerreko zutabean jasotzen dira bilduen izenak.

● *Eskuartekoak.*

Gai ordena aldatuz, eskuartekoetatik eman zaio hasiera bilkurari.

Andres Iñigoren sarrera ekitaldiaren xehetasunak eman ditu buruak. Iturengo herrian izango da eta Satrustegi eta Urrutia jaun euskaltzainek lagunduko diote sarrera horretan euskaltzain berriari.

● *1999ko kontuen errendapena.*

J.J. Zearretak aurkeztu eta azaldu du txostena. Sarreren eta irteeren artean dagoen defizita seiehun mila pezetakoa dela adierazi du eta gainerako atalen kontu ere eman du.
Zenbait argitasun eskatu zaizkio eta eman ditu.
Ontzat eman dute euskaltzainek.

● *Aurreko batzar-agiria onartzea.*

Miren Azkaratek aurkeztutako ohar txiki batzuk gorabehera, ontzat eman da aurreko hileko bilkurako agiria.

Urrutia jaunak, dena dela, bere harridura azalduz, bi galdera egin ditu: batetik, arauen argitalpenaz hartutako erabakiaz. Lau liburukitan argitaratzea erabaki denez, zer gertatuko da arauen 2.800 harpidedunekin? Eta bestetik, argitalpenaren arduradun gisa euskaltzain batek bere burua eskaini eta onartu zitzaiola eta, ohiko prozedura hori ote den jakin nahi luke. Idazkariak eta Euskaltzainburuak zenbait argitasun eman dizkiote: lau liburukitan argitaratzeko kontu hori argitalpen batzordeak hartutako erabakia dela.

Bestalde, WEBgunean ere arauak zabalduko direnez eta horrek harpidedunen kopuruan eragina izan dezakeenez, harpidetzaren prezioa jaisteaz ere hitz egin zela Zuzendaritzaren bilkuran. Pello Salaburuk bere burua eskaini baitzuen, onartu egin zitzaiola lan hori bere gain hartzea. Egotzi zaion eginkizuna argitalpena prestatzea dela.

Salaburuk ere azalpenak eman ditu. Argitalpen batzordera bi proposamen eraman zituela esan du eta, azkenean, aipatutako erabakia hartu zela. Dena dela, gaurko bileran gauzak argi uztea behar-beharrezko litzatekeela uste du.

- *Hiztegi Batua-ren berrikustea: "Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko argibideak" txostena onartzea.*

Lehenbizi Miren Azkaratek esku artean dugun *Hiztegi Batua*n hauteman dituen zenbait arazo argitzea eskatzen du. Oraindik ere bai baitaude osatu beharrekoak. "Beti egongo da zerbait", esan du.

Aljebra sartzea onartu da. Forma horretan, hain zuzen, Larramendik eta Lizardik horrela baitzerabilten.

Arrabio: hasieran bi adierarekin zetorren ('salamandra' eta 'eskorpio'). Otsailean 'salamandra' adierarekin bakarrik utzi zen baina 'eskorpio'-rentzat ez da ezer ematen hiztegian, *arrabio* hitza bigarren adiera horretan gehiagotan erabili bada ere. Dena dela, otsaileko erabakiari eustea onartu da, arrabio 'salamandra' adierarekin bakarrik utziaz.

Bermatu: da eta *du* aditza dela esango da.

Biao: adibidea aldatzea eskatzen du Azkaratek 'biaoa egiten dago' ez baita oso egokia, *egin* eta *egon* elkargaitzak izanik. *Biaoa egin du* jarriko da adibide gisa.

eri: *atzamar* eta *behatz* bezala tratatzea beharrezko ikusten du ohargileak. Horrenbestez, *eri* sarreran *Ipar.* eta *Naf.* oharra sartuko da.

heldu: 6. adiera ('oratu, eutsi') eta adibidea (*suge batek heldu zion*) ez datoz bat. Horrenbestez, 7. adiera bat ematea proposatzen da, seigarreneko adibidea hona ekarriz.

kirio* e. **nerbio** sarrera ez da oso bidezko. Zientzia mundurako *kirio* hitza egokia ez izan arren, literaturan erabilia denez, *Liter.* oharra eranstea onartu da, gaitzespen izarñoa kenduz.

polizia: *kidego*-ren ordez beste zerbait behar da, *kidego* hitza ez baitago jasoa. *Elkarte* iradokitzen du ohargileak. Azkenean *kide multzoa* ezartzea onartu da

x leku/toki: koherentzia gordetze aldera *leku* eta *toki* bigarren osagaitzat dituzten hitz elkartuak batera idatzirik ematea onartu da.

x + etxe: marra beharrezkoa duela *zahar-etxe* bakarrik ageri da zerrendan. Gainerakoekin bezala jokatzea onartu da: *zahar(-)etxe*, alegia.

Arrunt. laburdura arazotsua da *arruntkeria* ala *arrunkeria* behar duen erabaki ezean. Eztabaida txiki baten ondoren *arrunkeria* hitza sartzea onartu da eta laburdura gisa *arrunk.* emango da.

Tekn.-en adiera 'teknizismo' balitz, hitz honek zerrendan behar lukeela dio Azkaratek. Laburdura horren erreferentea 'hitz tekniko' izango dela onartu da.

Pertsona izenak direla eta, zenbait ohar aurkeztu ditu Miren Azkaratek:

Santutegiko izen ohikoenak aurkezterakoan jarraitzen den hurrenkera ez da beti bera. Beti ordena berean ematea onartu da: lat., frants., gaztel.

Kintanak egindako oharra: arau batean eta bestean forma bera ageri denean, zergatik ez elkartu? Adib. *Alexandro*, santu izena, eta pertsonaia historikoa; *Apolonio*, *Eusebio*, *Filemon*. Ontzat eman da proposamena. Beraz, sarrera beraren azpian emango dira horrelakoak Eta arazoren bat dagoenean berezirik utziko dira.

Benedikto da santu izena, eta "benediktarrak fundatu zituen santua izendatzeko" dio oharrak.. Baina gero *Hiztegi Batuan*, *beneditar* erabaki zen bere garaian. Sarasolaren aburuz, hitz arruntetan Hiztegi Batuko batzordea da erabakitzailea. *Beneditar* hitz arrunta denez, *beneditar* beharko luke. Hala onartu da.

Bi forma onartu direnean, forma bakoitzari emango zaio sarrera, dagokion tokian. Horrenbestez, *Aines / Ines* eta *Ines / Aines* behar genuke, baina orain *Ines* formak ez du sarrerarik, eta horren bila lihoakeenak ez luke aurkituko. *Aines / Ines* bi sarrerark ematea onartu da.

Bi izenez osatuak daudenetan: *Augusto, Oktavio*; *Androniko, Livio*; *Pilato, Pontzio*, etab.-etan bigarren izenaren arabera eman zaie sarrera. Lehena ere aipatzea egoki ikusi da, hala ere. Beraz, bi sarrera ematea onartu da: *Livio* ik. *Androniko*, adibidez.

Leku izenetan ere zenbait ohar egin dira.

38. arauan, "hiritarren *jende-izena(k)*" aipatzen da. 'Gentilizio' hitzetik ihes egitearren asmatu zen esamolde hori. Itxuraz, Iparraldekoentzat zeharo nahasgarria litzateke, hala ere. *Herritar izena(k)* jarriko da *jende-izena(k)*-en ordez..

Eztabaidaren haritik Urrutiak ohartarazi du zenbait laburduraren azalpen gisa *administratibo, judizial, legislatibo* adjektibo erreferentzialak ageri direla leku-izenen zerrendan, baina adjektibo hauek ez daudela onartuak. Ez da argi adjektibo hauei nork ireki dien atea, baina argi dagoena da ezin direla besterik gabe onartutzat eman. Laburdura hauek kendu eta azalpen osoa ematea errazago litzatekeela dio Sarasolak, gutxitan agertzen baitira. Beste irtenbide bat litzateke hiri bat administrazio hiriburu den ala epaitegi hiriburu den etab. esaten digun informazio hori kentzea. Hiriburua zein den esan eta kito. Hiriburu administratiboa zein den esatea aski litzateke. Gero gauzak ongi aztertzen direnean emango dira dagozkion hitzak. Hala onartu da. *Hirib.* laburdura bakarrik ezarriko da.

Bahrain / Bahrein bi formak ageri dira baina inork ez daki bi diren ala erratua den. Onomastika batzordeko idazkariarekin argitzeko eskatu zaio Miren Azkarateri.

Beijin sartzekoa da.

Hego Afrika ala *Hegoafrika*? Estatu izenaz ari garenean bi osagaiak batera idatzita emango dira.

Kanariak / Kanaria uharteak (Mundu zabaleko uharte nagusiak) ageri da batetik eta *Kanariar Uharteak / Kanariak* (Espainiako Erresumako Probintzia eta Elkarte Autonomoen izenak) bestetik. *Kanariar uharteak* behar du.

Bide batez, azken arau honen izena aldatu egin beharko da, "Autonomia Erkidegoen izenak" emanaz eta ez "komunitateenak".

Gorago onartutako irizpideari jarraituz, Andres Iñigo jaunak *Errioxa, Murtzia* etab. ere sarrera bakarrean ematea eskatu du. Hala onartu da.

Saint Kitts ageri da baina gero hiritarrak *sankistar* dira. Hau ere Azkarateren esku utzi da.

38. arauaren amaierako oharretan ageri diren formak (*Estatu Burujabeen Batasuna, Holanda, Ingalaterra, Serbia, Ulster* eta *Haga*) sartu behar diren galde egiten du Azkaratek eta non eta nola. Dagoen bezala ematea erabaki da. *Friburgo, Hanburgo* etab. estatu izen ez badira ere, hor uztea erabaki da. Eta oraingo argitalpenean, lekuizen diren heinean, beste guztien artean tartekatuak emango dira zerrendan.

Puerto Rico ematen da baina gero *puertoricar* eta *puertoricoar*. Satrustegiren arabera, argi dago bi *r* behar dituela. Bigarren kontua begiratzekoa da.

Amazonas (ibaia) eta beste zenbait bi aldiz agerrarazteak oso bidezko ez dirudienez, horrelakoak behin bakarrik emango dira, gorago onartutako irizpidearen arabera. Bestalde, parentesiak adierazi nahi duenaz zalantza sortu da. Beltzean ematen denean, parentesi artekoak esan nahi du aukerakoa dela. Beltzean ez doanean, parentesi artean doana azalpen bat da.

● *Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko argibideak.*

Azkarateren ohar hauek aztertu ondoren, Ibon Sarasolak euskaltzain guztiei helarazitako txostenaren azterketari ekin dio batzarrak. Metodoa aipatu du Salaburuk: ezin gara sarrera eztabaidatzen hasi.

Kintanak dio txostenaren hasierako baieztapena azkenerako uztea hobe litzatekeela eta, gainera, leunago behar lukeela. Sarasolak leunduko duela esan du.

Urrutia jaunak ohar orokor bat aurkeztu du. Filosofiarekin ez dago ados. Bere kontrakotasuna azaltzeko eskubidea agertu nahi du. Alde batetik, euskaltzainek lana behar bezala egin ahal izateko informazio iturriak eskura izateko eskubidea eta premia aldarrikatu ditu eta bigarren itzuliari ekin aurretik gogoeta sakona egin beharra aipatu du. Patxi Goenagak erantzun dio esanaz *OEH*-ren corpusa euskaltzain guztiek eskura izan ahalko dutela berehala, modu batean edo bestean. Eta EEBS corpusa ere, UZEIrekin sinatua den hitzarmenaren arabera, urtearen azkenerako kontsultagai izango duela Euskaltzaindiak. Gainerako hiztegi etab.-ei buruz, berriz, zerrenda ematea aski litzatekeela.

Gogoeta egin beharko da, baina hori baino lehenagoko kontua da berehala amaitutzat eman nahi den *Hiztegi Batu* honen lehen argitalpena bideratzea. Horretarako sinadurak eskatu zaizkie euskaltzainei, euskaltzain guztiek parte hartu baitute lan horretan. Talde lanean egindakoa denez, puntu guztietan denok ados egotea ezina da. Bozketak ere ugari izan dira. Beraz, lana egin den bezala egin da eta horrek ez du erremediorik. Horrela behar du. Beste kontu bat da bigarren itzulian hasi baino lehen behar den gogoeta egitea. Gauzak horrela, Goenagaren ustez, Urrutiak ez luke izan behar halako zailtasunik bere sinadura ezartzeko.

Altunak hartu du ondoren hitza. Horrelako lan batean 24 lagunek hartu dute parte eta hainbeste bileratan lana burutzeko bide bakarra segitu dena besterik ezin zela izan.

Urrutiak erantzun du esanaz bigarren itzulirako gauzak ongi pentsaturik eta adosturik eramatea espero duela. Bera zenbait gauzarekin ados ez dagoela baina zenbait prozedura eztabaidagarri iruditzen bazaio ere, sinatuko duela, Erakundeari zor dion leialtasunagatik.

Miren Azkaratek *Heg.* laburduraz Sarasolaren sarreran esaten denaz oharra egin du eta aldaketa eskatu. Marka honek beti ez baitauka erdararekin zerikusirik.

Eztabaida luzearen ondoren, onartu da sarrera. Sarasolak biribildu eta gozatuko du eta Zuzendaritzaren esku utziko du lana argitaratze bidean jartzeko.

Behin *Hiztegia*rena amaitutzat eman ondoren, Salabururen arabera, ez da berdin liburu burujabe gisa argitaratzeko moduan aurkeztea edo serie baten barruan. Argitalpen batzordean onartutakoaren arabera, lau liburuki izango lirateke. Honetaz ere eztabaidatzea eskatu du: 1) Hiztegia bere sarrerarekin; 2) Arauak eta pertsona eta leku izenak; 3) Aditz batuaz Euskaltzaindiak hartu dituen erabakiak (bizkaierazko aditza barne); 4) Herritarren izenak.

Lehen biek presa dute eta irakurleen eskuetan lehenbailehen jarri behar lirateke. Berak prestatua du bigarren liburukiak izango lukeen sarrera bat eta hori jarri nahi luke eztabaidan. Hala ere ez du denborarik galdu nahi sarrera koxkor batekin. Azkenean onartu dena izan da euskaltzainei helaraztea bakoitzak bere oharrak egin ditzan. Testua prest dagoen bezain pronto Zuzendaritzaren esku jarriko da, argitalpena bideratzeko.

Hori onartu ondoren, zenbait arazo jarri ditu mahai gainean *Arauei* buruz: *ohiko ohizko*-ren kasuan, adibidez gauza bat esaten da *Arauetan* baina, gero, *Hiztegian* aurreko arau hori nolabait aldatu egin da. *Arazi*-rekin ere gauza bera gertatzen da.

Ordu bietan eten egin da bilkura, bazkaltzeko.

Arratsaldean, 4.30etan eman zaio hasiera bilkurari. Berriz ere lehen utzitako hariari heldu zaio: *Arauetan* bertsio bat baino gehiago dagoenean zer egin, alegia. Azken proposamenari heldu behar litzaioke. Beñat Oihartzabalen arabera, sarreran argitu behar litzateke beti azkenak duela irabazten. Ez du uste dena berriz idatzi behar denik. Ohar bat erantsi: bai *ohiko* eta bai *arazi*-rekin. Gero, arauen testuan, lehenbiziko arauan ohar bat idatzi zer gertatu den azalduz.

Salaburu saiatuko da astelehenean bertan bidaltzen. Telleriak helaraziko dizkio jendeari faxez edo asteartean eskuetan izateko. 15erako oharrak Euskaltzaindian izan beharko lukete berriro. Eta hemendik, printzipioz, inprimategira. Gai aurkibidea gero egingo da. Horrela geratu da kontua.

Ibon Sarasola berriro hiztegira itzuli da eta beste ohar bat ere jarri beharko litzatekeela dio: adibidez, oraingoan *kartera* ez onartuarren, baliteke bigarren itzulian beste adiera batean erabil daitekeela esatea. Adibidez, *Cartera de valores* ezin izan daiteke *zorroa*. Ohar orokor bat egin beharko litzateke, hortaz, aditzera emanaz besterik esaten ez bada, adiera orokor eta arruntena jasotzen dela hiztegian. Esaten ez dena ez dela ukatzen.

● *Hiztegi Batuko Irizpideak: 2. itzulia.*

Denbora aurrera doanez, eztabaidatu da ea merezi duen gai honetan sartzea ala gramatika kontuetan murgiltzea den hobe. Azkenean, irizpideekin hastea erabaki da.

Salaburuk eskatu du Urrutiaren oharrarekin hastea.

Satrustegi jaunak dio gure tesaurusa herrian egon dela eta ez dela gehienetan paperetara iritsi. Horri uko egitea altxor nagusi bati uko egitea dela, hitz horiek balia baitaitezke gaurko premietarako. 2. epe honetan ez al da garaia lehendik genituen hainbat hutsune bideratzeko eta horretarako altxor horretaz baliatzeko?

Oihartzabalek galde egin dio Urrutiari ea arazorik baduen lanaren aitzina segitzeko. Ea baden filosofia arazorik. Corpusekin ala irizpideekin dago arazoa? Zertan da auzia? Oihartzabalen aburuz, corpusen aldetik duguna baino gehiago nekez lortuko dugu epe laburrean.

Sarasolaren arabera, ahalegin berezia egin zen aipatu diren materaialak biltzeko.

Satrustegik dioenez, ekar lezake berak zerrenda bat ez Azkuek ez Euskaltzaindiak esku artean dituen materialetan bildu ez diren hainbat elementuz osatua.

Miren Azkaratek mamuekin ari garela ematen duela esan du. d. eta e. irizpideek sortu bide dute kezka. Metodologia zein datekeen azaltzen saiatu da: corpusa, irizpideak eta prozedura.

Prozedura, funtsean, orain artekoaren antzekoa izango litzateke. Hala ere, orain askoz txosten gehiago egin beharko dira.

Hurrengo bileran atzera hartu beharko da gaia.

Seiak bost gutxitan amaitu da bilera. Ondoren, aspaldiko partez bileran hogeitahiru euskaltzain direla eta argazkia atera du Euskaltzaindaik Legazpiko Udaletxeko eskaileretan.

Euskaltzainburuak	Idazkariak
Jean Haritschelhar	Patxi Goenaga

* * *

Iturenen, 2000.eko maiatzaren 26an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
J. L. Davant,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
P. Salaburu,
J. San Martin
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi,
Andres Urrutia
eta P. Zabaleta
euskaltzainak,
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-
-kudeatzailea eta
JJ. Zearreta, ekonomi eragilea.

Iturengo udaletxean, 2000.eko maiatzaren 26an bildu da Euskaltzaindia hileroko batzarra egiteko. Bilerari goizeko hamaikak laurden gutxitan eman zaio hasiera. Ezkerreko zutabean jasotzen dira bilduen izenak. Ezin etorria adierazi dute P. Charrittonek eta X. Diharcek.

Aurreko batzar-agiria onartzea.

Ohar xume batzuk egin dira hasteko eta amaitzeko ordua dela eta.

Beste oharrik gabe ontzat eman da agiria.

Eskuartekoak

Literatura sariak.

Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatu duten 2000. urteko Txomin Agirre, Toribio Altzaga, Felipe Arrese Beitia eta Mikel Zarate Literatura sarien aurkezpena egin zaie euskaltzainei. Ekainaren 16an egingo da, segurutik, joan den urtean saritutako liburuen aurkezpena, Literatura batzordearen bilera Bilbon egingo dela baliatuz.

EITB-ko euskara aholkularitza.

H. Knörr jaunak azaldu du nola EITB-ko kontseilurako bere izendapena proposatu zuen Euskaltzaindiak eta nola autatua izan zen azkenean. Horrenbestez, neurri batean behintzat Euskaltzaindiaren ordezkari ikusten duela bere burua eta hizkuntza kontuez bereziki arduratua aurkitzen dela. Hizkuntza kontuak behar bezala zaintzen ez direla kontuan harturik, batzorde berezi bat osatzea eskatu zuen. Orain aholkulariak proposatzen dira orain batzorde horretarako. Gutuna irakurri du. Knörr jaunaren proposamena hau litzateke: Miren Azkarate, Lurdes Oñederra, J.L. Goikoetxea eta Patxi Salaberri Zaratiegi jaun-andreak. Beste proposamenen bat ba ote den galde egiten du Knörr jaunak.

Galderari erantzunez, X. Kintanak ere bere burua eskaini du eta, horrenbestez, honen izena gehitu zaio lehengo zerrendari. Hortaz, bost lagunez osatua egongo da taldea.

Iturengo alkatearen ongietorria.

Ondoren Jose Maria Gorosterrazu alkateak euskaltzainei ongietorria egin die. Bere poza agertu du Euskaltzaindiak biltoki gisa Ituren hautatu izanaz eta baita Andres Iñigoren izendapenagatik. Eskerrak eman dizkie bilduei eta lanean aurrera segitzeko eskatu. Euskaltzainek txaloz hartu dituzte Alkatearen hitz hauek.

JAGONET-en aurkezpena.

Miren Azkarateri eman dio hitza ondoren batzarburuak. Jagon sailaren egitasmoez hitz egin duen bakoitzean honelako zerbitzu baten beharra aipatu duela gogorarazi du. Azkarateren ustez, hobe da Euskaltzaindiak berak erantzutea sortzen diren galderei eginkizun hori beste inoren esku utzi baino.

Zuzendaritzari aurkeztu zitzaionean, honek, egitasmoaren izaera kontuan harturik, egokiago ikusi zuen osoko bilkurari aurkeztea eta beronek onartzea. Proiektuaren helburuak, urratsak, etab. aipatu ditu Azkaratek. Denak euskaltzainen esku jarri den txostenean bildurik daude. Hilaren 20ra arteko epea eman zaie oharrak egiteko. Horrela hurrengo bileran (ekainaren 23an) eztabaidatu eta onartu ahal izango litzateke. Ahal dela, irailean martxan jartzea komeni da.

Euskaltzainburuaren hitzak.

Uztaileko bilkura Donibane Loitzuneko Auditorium Ravel delakoan izango dela aditzera eman zaie euskaltzainei.

Hiru gutun idatzi ditu euskaltzainburuak Lionel Jospin Frantziako lehen ministroari, Jack Lang Hezkuntza ministroari eta Catherine Tasca kultura ministroari Madrileko gobernuak eta Frantziakoak Euskaltzaindiarekiko duten jokabide desberdina salatuz.

Kontseilu Orokorrak ere hitzarmen bat nahi omen du. Hortik Euskaltzaindiari laguntza piska bat gehiago etorriko zaiola dirudi. Proposatzen den hitzarmen testuan Euskaltzaindia da euskararen esparruan onartzen den erakunde bakarra.

Eurokarta delakoa nola dagoen galde egin du J. San Martinek. Gaizki dagoela erantzun zaio. "Jakobinoek ez dute ezer ulertzen" esan du euskaltzainburuak. Honetaz Beñat Oihartzabalek lan bat argitaratu du. Honen hitzetan, orain lehen baino zailago dira kontuak. Orain sinatua du karta hori baina konstituzioarekin egiten da topo.

Gramatika araugaiak.

Ibon Sarasolak hala proposaturik, Gramatika gaiekin hastea egoki ikusi da *Hiztegi Batuaren* bigarren itzuliko irizpideen eztabaida geroko utziz.

- *"Mugatu singularra noiz erabil daitekeen iraupena eta maiztasuna adierazten duten zenbatzailedun sintagmetan".*

P. Goenagak egin du araugaiaren aurkezpena. Ondoren eztabaida sortu da. Arauaren gaia iraupena izanik, ez dago argi adlatiboaren aipamena ("handik bi egunetara" bezalakoena alegia). Dena dela, mugatu/mugagabe kontu horri dagokionez, inesiboa eta adlatiboa parean jartzea litzateke zuzenena.

Nolanahi ere, Satrustegiren iritziz, batzordeak esan duena esan badu, ez da arrazoirik bat-batean gauzak aldatzeko. Sarasola ere iritzi bereko agertu da.

B. Oihartzabalek adlatiboaren aipamena kendu egin beharko litzatekeela uste du.

Peillenen ustez, Iparraldeko euskaldunei ongi etorriko litzaieke *hiru urtean* esamoldea, *hiru urtetan* berentzat "hiru urterekin" ulertuko bailukete.

Azkenik, P. Goenagak hartu du berriro hitza eta araua muga estuen barruan sartzea komeni dela esan du: iraupena eta maiztasuna bakarrik hartu gogoan eta mugagabearen arazoak ukitzen dituen beste arloak beste baterako utzi. Gainera, mugagabeak lan monografiko bat eskatzen duela eta noizbait ekin beharko diola eginkizun horri Euskaltzaindiak.

Ondoren, arauak duen bigarren atalari ekin diote euskaltzainek.

Xabier Kintanak Bizkaian *noizero?* galdetzen omen da. Adibideen artean *ordu laurdenero* bezalako adibideren bat jartzea eskatu du. Eskari hau ontzat eman da, baina *noizero* ez da ageri inon corpusean. Beraz, honen aipamenik ez da egingo.

Ondarrak maiztasuna adierazteko *zenbatetik* soila ere aurkitu duela esan du.

M. Azkaratek, araugaiaren testuaren bigarren atalean aipatzen den "arau orokorrak" direlako horiek kentzea eskatu du. Bestalde, iraupena dela eta abstolutiboari eta instrumentalari erreferentzia egin behar bazaie arauan, horrek arauaren azalpenean ere zerbait esatea eskatzen omen du. Bestela, arautik ere kendu egin beharko omen litzateke.

Oihartzabalen iritziz, azalpenean iraupena adierazteko modu bat baino gehiago badela aipatu behar litzateke. Aski da aipamen xume bat egitea sarreran konplikazio handiegietan sartu gabe. Hala egitea onartu da.

Sarasolak nahiago du *sintagma zenbatzaileduna zenbatzailedun sintagma* baino. Onartu da.

Urrutia jaunak azalpenari buruzko ohar teknikoa egin du: lehenbizi hobesten dena eman behar litzateke, gero zer gaitzesten den esan. Prest dago laguntza emateko teknika honetaz. Zerbait egin behar da gauzak errazteko.

Ohar hauekin denekin onartu da araua.

● *"Perpaus izenlagun osagarrien atzizkiak: -eN, -eLAKO".*

Hemen ere P. Goenagaren aurkezpen labur baten ondoren eztabaidari egin zaio leku.

Sarasolari *"... -en berria"* bezalakoek min ematen diote.

Kintanaren aburuz, Euskaltzaindiak –eLAKO gomendatu behar luke. Bestela, -eN bezalakoekin nahasteak sor daitezke, atzizki hori ekibokoa baita.

Knörrek dio, arau hau dela eta, -eLAREN*, -eNAREN* eta –eNEKO* gaitzesterakoan "euskara batua" ez, "euskara" aipatu behar dela soil-soilik.

Garbi dago lehentasuna –eLAKO-ri eman behar zaiola.

Zernahi gisaz, araua aurkezteko modua bera ere ohikoa ez denez (erreferentziak emateko era adibidez, ez da betikoa), berriro batzordera itzultzea proposatu du Goenagak, hobeki lantzeko. Hala onartu da.

● *"Komunztadura aposizioetan"*.

Aurkeztu den araugai honen aurrean Kintanak bigunago jokatuko omen luke.

Arauaren lehenbiziko atala bere horretan onartu da (adibideko *errektoreorde* hitza minuskulaz emanik).

Sarasolaren ustez, perpaus erlatiboetan gauzak desberdin dira. Iparraldekoen *bait*-dun egiturak bultzatu beharko lirateke.

Araugaiaren testuan "tartekiak" aipatzen direnez gero, Salaburuk uste du hau izan litekeela *bait*-egiturak jasotzeko lekua.

Urrutia ez dago ados. Jakin beharko litzateke aposizioak nola egiten diren. Baina itzultzaileei eta antzekoei soluzioak ematea ere Euskaltzaindiaren lana den galdetzen du. Berak testuan ageri den oharra kendu egingo luke.

Oihartzabalek dioenez, argiro esan behar da zer den onartzen dena eta zer ez.

Bestalde, ohar hori bere lekuan dagoela uste du: kentzen bada, arau zorrotzegia gertatuko da.

Salabururen iritziz, Urrutiarena aukera bat da baina kontuan izan behar da norentzat diren arauak. Ulertzeko modukoak izan behar dute. Adibideak eta irtenbideak ere eman beharko lirateke.

Urrutiak erantzun dio: hobe ordu an oharra kendu eta beste hirugarren paragrafo gisa ematea.

Salaburuk arauari argibideak ematea eskatuko lioke eta arazoen aurrean irtenbideak eskaintzea. *Bait*-i buruzko kontua hemen sartuko litzateke.

Oihartzabal ez da ados. Horretan hasiz gero, gauza gehiago izan beharko lirateke kontuan eta behar bada, nahastea sor liteke.

Eztabaidaren konklusioa izan da, azken paragrafoa ohar gisa barik testuaren atal gisa ematea. Gainerakoan, testua dagoen dagoenetan onartu da.

● *"Izen sintagmen arteko juntadura" araugaia.*

Lehendabizi axaleko zenbait ohar egin zaizkio testuari: *libroki* barik *libreki*; *kasu markadun sintagma* ez, *sintagma kasu markaduna*; *inplizitoki*-ren ordez, *inplizituki*; *hondarki* eta ez *ondarki*. *Administratibo* hitza baztertu egin behar da.

Sarasolari araugaian ageri den "oharra", arau gisa, ezin onartua iruditzen zaio. Aurrera pasatu beharko litzateke eta bi lerrotan eman mamia.

X. Kintanak galde egiten du ea *aitaren eta amarentzat* zilegi den Iparraldekoentzat.

Salaburuk ere zalantza bat agertzen du: zer gertatzen da erlatiboak eranstean?

Miren Azkarateren ustez, "... *-ak eta ...-en arteko*" gisako esamoldeak gaur goitik behara sartu dira eta, aipatzekotan, horrelakoak aipatu behar lirateke.

Eztabaida luzatu da. Araua formulatua dagoen bezala ezin da onartu.

Kintanarentzat bi joera daude, bata zaharra eta bestea berria: beti hobekien dokumentatuaren alde egin da apostu. *Aitaren eta semearen...* adibidea sartzeko eskatzen du.

Oihartzabalen arabera, genitiboarekin arazoa dago, baina gainerakoan ez dago hainbesteko kasuistikarik. *Arteko*-ren kasua ez da agertzen zail delako horretaz araua ematea. Bestalde, gramatiketan agertzen dira anitzetan jokabide arraroak. Arraroa dena gramatikaren aldetik onartua edo gaitzetsia izan daiteke. Anitz edo gutxi baliatzea ez da kontua. Gramatikaren aldetik gutxi erabili izanak ez dakar gramatikala ez izatea. Alde honetatik, "ardatz bat baino gehiagoko izen sintagmak era daitezke" nahiz erabilera urriagokoak diren horrelakoak.

Urrutiaren ustez araua ez dago heldua eta atzera batzordera bidali beharko litzateke. Beñat Oihartzabalek eta Miren Azkaratek birmoldatuko dute testua eta hurrengo bilerarako beste formulazio bat ekarriko dute. Dena dela, Gramatika batzordeari adierazi ondoren.

Ordu biak eta hamarrean amaitu da goizekoa.

* * *

Arratsaldean bostak laurden gutxiagotan ekin zaio berriro bilerari.

● *Hiztegi Batuko irizpidek: bigarren itzulia.*

Urrutiak hartu du hitza. Bere jarrera zein den argitu nahi izan du. Haren asmoa bigarren itzulirako beste giro bat izatea zen. Informazioa eskatu zuen eta esan zitzaion zerbait. Administrazio arloari buruz dagoen zerrenda, ordea, ez zaio aski iruditzen. EEBS-ra ere jo du baina hor ez du gauza handirik aurkitu. Iturriak nahi zituen ikusi. EEBS 96 urterarte iristen da eta gauza batzuk oso ahul daude, informazio partziala da. Bestalde, corpusean bilduak dauden hiztegi batzuk ez dira egokiak. Kontuan hartu den materiala oso zaharkitua da. Lege testuetan ez dago bat ere Nafarroatik. Dena dela, nahi luke eztabaidatu nora goazen, zein izango den norabidea. Daukagun informazioa beste modu osoagoan eman beharko litzateke batetik, eta, bigarren, norantz goazen argi izan. Iturriak nolakoak, ondorioak ere halakoak izango baitira.

Sarasola erabat ados dator baina problema tekniko txiki bat ikusten du: eztabaidan jarri diren irizpide hauekin dago landua G-rainoko zerrenda. Euskaltzaindiak lan extra bat hartu beharko luke gutxienez G-rainokoa osatzeko handik eta hemendik etorritakoarekin. Arazoa da teknikoki hori egitea oso zaila dela. EEBS-k eskaintzen duen lagina nahiko desorekatua da eta hori ahal dela konpondu egin beharko litzateke. Azterketa estatistikoak neurri batean ongi daude baina estatistikaz gainera autoritatearen iritzia jakitea ere oso inportantea da. Hori ez zen kontuan hartu, baina hor dago. Kontua litzateke hori nola osatu. G-raino modu jakin batean etorriko zaigu. Horrek ez du erremedio onik.

Urrutiari hiztegiek eta hiztegitxoek ematen diote zer pentsa. Bigarren itzulian eguneroko hitzez gainera zenbait termino teknikoagoak ere jasoak nahi lituzke ikusi. Baina horretarako datu onak behar ditu Euskaltzaindiak begien aurrean.

Kintanak, ildo beretik, eskatuko luke zer aukera egiten den zehaztea. Testu liburuak ere kontuan hartu beharko lirateke. Salduenak behintzat. Erabiliko diren hiztegiak ere zehaztea. Badira haurrendako irudi bidezko hiztegi eder askoak ere, hitz arruntenak jasotzen dituztenak. Bestalde, zalantzako hitzak ez lirateke adibide gisa eskaini behar. Aspaldi honetan egindako lexiko zientifikoak egin direnez, hauetan finkatuenak jaso beharko lirateke, arlo bakoitzetik zenbait.

Oihartzabalek dio hogei mila hitzetik abiatzen dela bigarren itzuli hau. Gero prestasunaren aldetik sartu beharreko beste hainbat daudeke. Horrekin doblatzen da orain arteko hitz kopurua. Hobeki egin daiteke, eta ahal bada, egin behar da. Ilustuketa arrazoizko epeetan egin badaiteke, egin dezagun. Gehiago kezkatzen dute egungo testu arruntek, falta baitira. Baina hiruzpalau urte beharko dira hori martxan jartzeko. Harremanetan dira editorialekin eta abar, baina, nolanahi ere, luze joko du. Aitzina egin behar da, hala ere.

Sarasolari bildurra ematen dio honek guztiak, onena eta ona elkarren etsai baitira. Bestalde, hiztegien inflazioaren bildur da: bakoitzak bere hiztegiñoa badakar eta gainera presio talde gisa edo antolatuz gero, gaizki ibiliko gara. Hemen ere kalitate irizpidea baliatu behar da. Kalitatea testuek markatzen dute eta ez hiztegiek. Zuzenbide arloko hitzak direla eta, espainol eta frantses zuzenbidean adostasuna duten hitzez baliatu behar genuke eta ez diferente direnez. Hortik hasi beharko litzateke. Zientzien alorrean, berriz, gaur egun egiten den %90ek ez du ezertarako balio euskararen aldetik.

Kintanaren arabera, lan horiek besterik gabe onartu ez arren kontuan hartu behar dira. G-raino lan bikoitza proposatuko luke: martxan dagoen lana kontuan hartu eta, aparte, zientzia arloka lan egitea, gero hori bestearekin tartekatzeko.

Sarasolaren ustez, hala ere, tentuz ibili behar da, zeren "kontuan hartze" horrek ordu pila bat eskatzen du.

Goenagak zehaztasuna eskatu du. Ahal dela, gainera, dokumentu batean jaso beharko litzateke bigarren itzulirako prozedura. Prestatutako txostena, hain zuzen, egokia izan liteke. Hau osatu eta hemendik geroko bidea markatuko digun zerbait gauzatzeko gai izan beharko luke Euskaltzaindiak.

San Martinen ustez lana arloka banatu behar bada, gai batean jakituna denari eman behar zaio konfiantza.

Haritschelharren aburuz, lehen pasaldiko jokamoldea ez da hain desegokia: Urrutiak ekarri ditu hainbat hitz. Batzuk onartu dira, beste batzuk ez. Bigarrenean ere edozeinek ekar ditzake hitzak.

Urrutiak hartu du berriro hitza. Hitz arruntetatik aparte, administrazioan, unibertsitatean, etab. badira premia batzuk eta horiei erantzun osoa eman ezin bazaie ere, orientabide batzuk ematea behintzat eta sistematikoki lantzea beharrezkoa litzateke. Baina hori egiteko zer nolako erreferentziak dauden jakin behar da, ez inprobisatzeko. Daukagunetik abiatzen bagara huts batzuk agertuko dira. Eta orduan, oharrak egiten direnean eta eztabaidatzen hasten garenean ez da lekukotasunik izango. Ahalegina egin behar da administrazioaren arloan, komunikabideenean, irakaskuntzan. Corpusa definitu ondoren, maiztasun kontuak aztertu beharko dira eta galbahea jarri beharko da.

M. Azkaratek maila desberdineko gauzak atera direla ikusten du. EEBS-k dituen mugak ditu. Gaurko baliabideak erabat desberdinak dira. Hemendik aurrera beste corpus mota batzuk osatzen hasi beharko luke Euskaltzaindiak. Baina oraingo itzuli honetarako iturriak aldatzea, laginketa berriro definitzea, oso zail ikusten du. Lana geratzea erabakitzen ez bada behintzat. OEH-tik eta EEBS-tik inguru bateko erabilera behintzat jasoko da, mugatua bada ere. Dena dela, horiek aldatzea zail da. Hortik aparte, txosteneko *c-g* puntuetan aipatzen direnak ez dira hain arazotsuak. Beste iturri batzuk aipatzen dira (*Europako Itunen Hiztegia* edo *Lan Harremanen Hiztegia*). Behar bada, arazoa konpon daiteke 2. orrialdean "hiztegi berezituetakoa" esaten denean hiztegi horiek hor sartuz. Azkaratek ez daki hori nahikoa izango litzatekeen. Hortik aurrera, "terminologia" esaten denean, ez da Xabier Kintana bezain baikor unibertsitatearen ikuspegiaz. Terminologia kontuetan datu base onak osatu beharko lirateke egin diren testuekin. Baina nahi genituzkeen corpus horiek oraindik ez ditugu eskura. Ahal balitz, katalanek egin duten bezala, jakintza arlo bakoitzeko 200-400 hitzeko zerrendak osatzea, ongi legoke. Baina hori ere oraindik gordin xamar ikusten du Azkaratek. Dena dela, jendearen ekarpenak, handik eta hemendik, beharrezkoak izango dira eta ongi etorriak. Baina zaila da.

Sarasolak hartu du ondoren hitza eta esan du hiztegi batuko jendeak denbora daramala Euskatzaindiarekin bilera eske eta orain ezin zaiela esan dena gaizki dagoela. Orain esan behar zaiena da gauzak ongi daudela, edo ongi xamar, osatu beharra ikusten bada ere. Orain kontua, hain zuzen, horixe da: nola osatu. Bestalde, A-D bitarteko zerrendak ikusiak ditu eta ez daude gaizki, haren iritziz. Osatu egin behar. Hori da arazoa. Zientzia eta administrazio hiztegiak lantzea oso ondo dago, baina beste hitz batzuk (*txupete, tirante*, ...) ematea askoz premiazkoago ikusten du. Beste arazo bat ere aipatu du: gure artean egiten diren hiztegi arrakastatsuenak elebidunak dira eta ez euskara-euskara motakoak. Eta horrek ere erantzuna eskatzen du. Hori ezin du Euskaltzaindiak egin baina galegoek egiten dutena ez litzateke bide txarra: hitz oinarrizkoenak (kiroletakoak, adibidez, edo eguneroko bizitzakoak) erdara-euskara zerrendetan eman, Euskaltzaindiak nolabait bultzatuak, lana eraginkorrago egiteko. Bestela, euskara-euskara hiztegi batek, nahiz eta Euskaltzaindiarena izan, ez du eraginik.

Goenagak proposatu du, mugak gorabehera, eskaini zaigun bidetik segitzea. Osatu beharrekoak osatu, ahal den neurrian. G letratik aurrerakoa, adibidez. Eta jadanik hirugarren itzulian ere pentsatzen hasi.

Kintanak batxilergorako landutako hainbat testu sartu beharreko ikusten ditu corpusean.

Salaburutentzat kontua da corpusa eta zerrendak nola osatu lana atzeratu gabe. Lantalde bereziren bat osa liteke, behar bada, gauzak osatzeko, adibidez unibertsitateko edo klasikoen bilduman erabili den hiztegia lantzeko. Mahai gaineran gauza jakinak jarri behar dira. Eta horren aurrean erabaki ahalko da gauza egingarria den ala ez.

Peillenek dio ez dela hitzetan ito behar. Badirela munduan zehar zientzia bakoitzeko oinarrizko zerrendez osatutako hiztegiak eta horiez baliatu behar genukeela.

Beñat Oihartzabalen iritziz, gauzak aski laster egin nahi badira ezin dira atzeratu. Euskaltzaindiak egin ditzakeen hutsen artean ez dira denak zaku berean sartzen. Presaka ibiltzeagatik egindako hutsak eta isilik egoteagatik egiten diren hutsak ez dira berdinak. Oinarriak ez dira aski zabalak. Orain ez bada deusik egiten honi buruz, he-

mendik bizpahiru urte barru egoera berean izango da Euskaltzaindia. Behar litzateke oraindanik bertatik indar berezi bat egin corpus horren behar bezala antolatzeko. Gutxienik bizpahiru urte beharko dira horretarako. Aipatzen dira hiztegi bereziak. Ez daki nola diren baina kontuan hartzekoak dira. Berak ezagutzen duen arlo bakarrean, Hizkuntzalaritzan, hiztegia egiteko ez da egongo euskaltzaindiaren beha. Hain zuzen, Euskaltzaindiak ez du gaitasunik gauza horietan iritzi jakinik emateko.

Teknikoki EEBS lagin bat da –dio Sarasolak. Lagin bati ezin zaio kontrajarri testu oso bat. Horrela desoreka sortuko bailitzateke. Beraz, kontuak ez du erremediorik.

Urrutiak eskatzen du EEBS beste lagin batzuekin osatzea, zaharkituak omen diren hiztegien ordez beste batzuk sartzea. Hori administrazioaren eta zuzenbidearen ikuspegitik argi dagoela, baina bestelako arloetan ere gauzak ikustea eskatzen duela. Gutxienez EEBS osatzea nahi luke Urrutiak. Atzerapenik ez. Gero, ahal bada, nazioarteko hitzekin egin zen bezala egin daiteke, arlo bakoitzeko ekarpenekin zerrenda osatzeko.

Sarasolak, hala ere, ez du ikusten argi Urrutiaren proposamena. Berak zer ekarriko lukeen galdetu dio. zerrenda bat (glosario batzuk) ekarriko lukeela erantzun dio; bigarren itzuli honetan 200 edo 300 hitz sartzea planteatuko luke, gizartean diren eragileen artean kontsentsuatuak. Eta beste arlo batzuetan ere gauza bera egitea eskatuko luke.

Sarasola ez da Urrutia bezain optimista, zeren hor zehar dabiltzan zenbait testutako euskara nekez ulertzen baita. Orain dela bost urteko testuetan ageri den euskara ez da fidatzekoa. Beraz, kontuz ibili behar da makinan zer sartzen den. Azken urteotan gauzak asko aldatu dira eta hori kontuan hartu beharko litzateke. EEBS-k hor du, hain zuzen, muga, zaharkitua baita. Zientzia kontuan erne ibili behar da. Administrazio kontuak presa du eta horregatik, behar bada jaramon gehixeago egin beharko zaio. Baina beste arloetako hitzei bigarren itzuli honetan ez du argi ikusten zenbateraino egin behar zaien leku. Etsi-etsian ezin da ibili. Hobe da gauza bati ez erantzun edozer jartzea baino.

Kintanak ondoren UZEI-k argitaratutako hiztegiak aipatu ditu. Egia dela zaharkituak daudela zenbaitetan, baina badute gauza on bat: alboan erdal ordainak dituztela ageri direla zerrendak. Horri begirada bat egin beharko litzaiokeela uste du.

Sarasola ez dago ados: horrek ordu gehiegi eskatuko luke, eta, aukeran, hobe ordu horiek beste zerbaitetan eman. Adibidez, arloka banatutako 1500 hitzen azterketak urte osoko lana eskatuko lioke Euskaltzaindiari.

Satrustegik gogorarazi du bere garaian proposatu zuela inongo hiztegietan ageri ez diren etnografia munduko hitz batzuk ekartzea. Baina alperrik litzatekeela iruditzen zaio. Horietako ofizio asko galduak dira eta horrelako hitzak sartzeak lana atzeratzea ekarriko luke. Horrenbestez, bertan behera uzten duela agindutako lana.

Goenagak galde egin du ea posible litzatekeen kontsentsu batera iristea: hemen dauden iturri hauek onartu, osatu erraz osa daitezkeenak, eta hiztegi honek zenbat arlo besarkatuko dituen erabaki. Gero arlo horietako bakoitzaz nor arduratuko den ebaztea etorriko litzateke. Horrela, glosario batzuk osatuko lirateke gure artean eztabaidatzeko. Hori erabakitzea ona izango litzateke.

Haritschelharrek galde egin du bigarren itzuliak, bere hogei mila hitzekin, zenbat denbora eskatuko duen, diru laguntzak eskatzeko orduan hori garrantzizkoa baita. Diru kontuak ere planteatu behar baitira.

Mirenek Kintanaren eskaintzari buruz bere zalantza erakutsi du. Gauza bat da unibertsitateak liburuxka hori atera izana. Besterik ezean hori eskaintzea gauza bat da, baina Euskaltzaindiak hori onartzea beste kontu bat da. Gauzak oso berde daude. Zerrenda horretako hitzei buruzko datuak falta ditugu: maiztasuna, nork erabili dituen, etab.

Kintanak erantzun du esanaz hitz gehienak berriak direla. Fakultate bakoitzari eskatu zitzaion gehienik erabiltzen ziren testuen muestra bat bidaltzea.

Mirenen ustez, gauzak oso gordin daude maila horretan sartzeko. Terminologia kontuetan sartu behar bada, zerrenda horretako hitzak baino lehenagokoa da, adibidez, *macizo* nola esan behar den erabakitzea. Urrutiak badio halako testu edo halako zerrenda sartu behar dela, hori errazagoa da, behar bada, sor dezaketen desoreka guztia gorabehera. Askoz hobe dugu, horretarako, ditugun hiztegi entziklopedikoak hartu eta ahalegina egin eskolako testuetan pittin bat gehiago arakatzen. Baina horrelako gauzak -testu horiek hartu, eskaneatu, edo eskatu ea uzten dizkiguten euskarri informatikoan, lematizatu, etab.- ikaragarrizko lana da. Satrustegik lana utziko duelako kontu horretaz, berriz, esan du ezetz: hemen OEH-n bost lekukotasun baino gehiago dituzten hitzak baldin baditugu eta hamabi mila forma inguru baldin badatoz, eta EEBS-en ere XX. mendean argitaratu direnetatik zenbait gauza baldin badira, ona izango litzatekeela lehen proposatu zuen lanarekin jarraitzea, ez, behar bada, nahitaez horiek zerrendaratzeko, baina bai, kontraste modura, hitz bat falta den ikusteko, adibidez. Beraz, lanarekin jarraitu beharko lukeela.

Sarasolak uste du *impasse* batean dagoela batzarra eta proposamen hau egin du: lexikografia erromanikoan egin izan den bezala, puska bat hartu (b-bala) eta horrekin saio bat egin lanari bete-betean ekin aurretik. Teorian ibili ordez, hartuko balitz *b-bala* zerrenda, adibidez, arazoaren benetako neurriaz jabetzeko aukera izango litzateke. Orain artekoa goregi hitz egitea dela iruditzen zaio. Egin liteke saio bat. Satrustegiri eskatuko lioke ez lanarekin segitzeko, baizik orain arte egin duena ekar dezala, zehazki aztertu ahal izateko. Berdin batzordeak egin duenarekin ere. Ikusi zer den egiazki egin dutena. Orduan egin daitezke kalkuluak. Egin denaren puska konkretu bat aztertu behar litzateke. Bana dezatela B letra eta gauza konkretu horren aurrean zer erantsi behar den edo ikusi ahal izango da. Teorian nahikoa eztabaidatu dela iruditzen zaio. Izan ere ezagutzen ez den zerbaitetaz izan da orain arteko solasa.

Oihartzabalek hartu du ondoren hitza. Gauzak modu zehatzean ikustea komeni dela dio. Gainera, aipatu diren kasuak, administrazioari buruzkoa bereziki, txostenean jasoak daude "azken aldiotan egin diren glosario kontsentsuatuak" aipatzen direnean. Ikus daiteke ea asko falta diren, baina zinez behar da corpusen kontu hori hutsetik aztertu oraingo testuak sartuz. Dena osoki ikusi behar da, euskara osoki nola doan ikusteko. Egun guziez gertatzen dira aldaketak. *Egunkaria* ere bada, baina Euskaltzaidiak ez du segitzen zer egiten den eta hori behar bezala muntatzeko ere ez du oraingoz ahalbiderik. Hiruzpalau urte beharko dira eta hori prestatzeko behintzat eska daiteke diru laguntza. Eta esaten delarik hemezortzi urte arteko eskola hiztegia egin beharko litzatekeela, egingo balitz bera kontent litzateke. Geografia, kimika, matematika, historia eta abarretako hiztegia behar bezala egingo balitz, arras kontent litzatekeela, zeren hemezortzi urte arteko eskola hiztegia ez baita batere pobrea gauza berezietan.

Satrustegik, Sarasolari erantzunez, zehaztu du berak bilduak dituenak ez direla hitz zerrenda landuak, zintak baizik. Orduan ez dela kontua zerrendak berehalakoan ekartzea. Orain arte bilduak berrogeita hamar bat hitz edo izango dira, besterik ez. Horiek biltzeko ordu asko sartu dituela eta gero konturatu dela horietatik gutxi batzuk bakarrik izango direla baliagarriak.

Bere lanaren lagin txiki bat ekartzeko eskatu dio Sarasolak.

Horrenbestez, B letrako laginarekin hasteko proposamena onartu da, bakoitzaren ekarpenekin osatzeko eta gerora begirako kalkuluak egiteko.

Eztabaida luzearen ondorioa honela laburbildu du idazkariak: hurrengo bileran bigarren itzuliko B letrarako proposamen bat izango dute euskaltzainek aztergai. Astebete barru banatuko da, ahal dela. Hori aztertzen hasiko da Euskaltzaindia, Kintanak, Urrutiak, Satrustegik, Peillenek eta gainerako euskaltzain guztiek dituzketen proposamenak ere mahai gainean direla. Denek eman beharko lukete bere inpresioa: gustatzen zaion ala ez, eta zergatik; halako eta halako hitz soberan dagoen, edo halako eta halako falta den, honengatik edo hargatik. Hori egin ondoren hasi ahalko da Euskaltzaindia hitzez hitz eta zehazki bigarren itzuliko zerrenda aztertzen, irailean edo.

Zazpietan eman zaio amaiera bilerari

Euskaltzainburuak	Idazkariak
Jean Haritschelhar	Patxi Goenaga

* * *

AGERIKO BATZARRA

Iturenen, 2000.eko maiatzaren 27an

Iturengo herriko etxean, 2000.eko maiatzaren 27an, goizeko hamaikak eta erdietan eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren ageriko batzarrari. Ekitaldi akademikoa hasi baino lehen, Euskaltzaindia, alkate eta zinegotzickin batera, dantzari, txistulari joaldun eta herritar ugari lagun dituztela, A. Iñigo euskaltzain berriaren etxera abiatu dira denek batera sartzeko gero Udaletxera.

J. Haritschelhar euskaltzainburua, H. Knörr buruordea, P. Goenaga idazkaria, J. A. Arana diruzaina eta Miren Azkarate, P. Charritton, J. L. Davant, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola, J. M. Satrustegi, A. Urrutia eta P. Zabaleta euskaltzainak bildu dira aretoan.

A. Aranburu, A. Arejita, R. Badiola, L. Baraiazarra, Pilartxo Etxeberria, J. L. Goikoetxea, M. Gorrotxategi, Mª Pilar Lasarte, J. L. Lizundia, P. Uribarren, M. M. Ruiz Urrestarazu, P. Salaberri, J. J. Zearreta, J. R. Zubimendi euskaltzain urgazleak eta J. Mª Jimeno Jurio euskaltzain ohorezkoa ere batzarkide izan dira.

Aipatutako euskaltzainez gainera ekitaldian parte hartu dute J. M. Gorosterrazu, Iturengo alkateak, J. R. Elorz, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak, M. A. Petrirena, Malerrekako Mankomunitatearen lehendakariordeak, B. Bilbao, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politika Sailburuordetzako ordezkariak, G. Lobera Bizkaiko Diputazioko Euskara zuzendariak eta eskualdeko alkate eta zinegotzi andana batek, foru parlamentari eta kultur elkarteetako kide zenbaitek eta herritar ugarik.

Ezin etorria adierazi dute, besteak beste, Mª Karmen Garmendiak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak eta X. Aizpurua Hizkuntza Politika Sailburuordeak.

Aretoa bete-beterik egon da eta hainbat jende zutik.

Andres Iñigo euskaltzain berriaren sarrera ekitaldia ospatzea zen batzarraren xedea.

Mahaiburuan eseri da J. M. Gorosterrazu, Iturengo alkatea. Honen eskuinaldean J. Haritschelhar euskaltzainburua eta P. Goenaga idazkaria eseri dira eta ezkerretara, J. R. Elorz, Nafarroako Gobernuaren ordezkaria eta M. A. Petrirena, Malerrekako Mankomunitatearen lehendakariordea.

Herriko alkatearen agur hitzen ondoren idazkariak ekitaldiaren zergatia azaldu du laburki. Ondoren, Jose Mª Satrustegi eta Andres Urrutia jaunak euskaltzain berriaren bila joan dira. Txalo artean sartu dira berriro aretoan.

Ondoren, Andres Iñigo euskaltzain berriak bere sarrera hitzaldia irakurri du: *Onomastika euskararen normalizazioan.* Honi Andres Urrutia jaunak erantzun dio *Mendebaldetik Ekialdera errornes baten oharrak* izeneko hitzaldiarekin.

Hitzaldi hauen ondoren, euskaltzainburuak hitz labur batzuk eskaini ditu Euskaltziandiaren lanaren berri emanaz eta ekitaldiaren esanahiaz gogoeta eginez. Gero euskaltzain berriari diploma, domina eta czautailua eman dizkio eta besarkada batez agurtu du. Euskaltziainek ere besarkada eman diote. Udalak ere opari bat eskaini dio Iñigo jaunari eta ekitaldia amaitzeko *Agur Jaunak* jo dute txistulariek.

Ondoren, herriko plazan *Iturengo mutil-dantza* dantzatu diote euskaltzain berriari. Jai giroan beti ere, herri-bazkariarekin amaitu da ospakizuna.

Euskaltzainburuak — Idazkariak

Jean Haritschelhar — Patxi Goenaga

* * *

Bilbon, 2000.eko ekainaren 23an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
P. Salaburu,
J. M. Satrustegi eta
Andres Urrutia (arratsaldean)
euskaltzainak,
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea eta
R. Badiola, argitalpen eragilea (azken orduan).

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan bildu da Euskaltzaindia, 2000.eko ekainaren 23an, hileroko batzarra egiteko. Bilerari goizeko hamarrak eta laurdenetan eman zaio hasiera. Bildutakoen izenak ezkerreko zutabean jasoak ageri dira. Ezin etorria adierazi dute H. Knörrek, B. Oihartzabalek, J. San Martinek eta Ibon Sarasolak.

Euskaltzainburuaren hitzak.

Euskaltzainburuak bileraren hastapenean dolumina azaldu du bere eta Euskaltzaindiaren izenean H. Knorrek anaia galdu berri baitu.

Aurreko batzar-agiria onartzea.

Funtsezko oharrik gabe ontzat eman da agiria.

Eskuartekoak

Idazkariordeak eskuarteko zenbaiten berri eman die euskaltzainei:

1. *XV Biltzarreko* zirkularraren berri, lehenbizi. Delako zirkular hori euskaltzain guztiei banatu zaie eta Euskaltzainditik kanpo ere zabaltzen hasia dela esan du.

2. *Argitalpenen banaketa arduradun* gisa Jon Artza kontratatu berri dela adierazi du. Lehenbizi barne-deialdi bat egin zen eta inor ez zen aurkeztu. Gero, berariazko azterketa gainditu ondoren, Artza jauna kontratatzeko proposamena egin zitzaion zuzendaritzari. Pertsona hau orain arte behin-behineko kontratu batekin ari zen lan horretan.

3. Orain arte *Nafarroako Hizkuntz Politikaren* ardura izan duen Perez de Viñaspre jaunaren gutunaren berri ere eman zaie euskaltzainei. Arratsaldeko bilkuran hitz egingo da luzeago kontu horretaz.

Hizkuntz arauak.

Gramatika araua: *"Izen sintagmen arteko juntadura"*

Miren Azkaratek egin du arauaren testu berriaren aurkezpena. Ondoren eztabaida piztu da eta aurkeztutako testuari zenbait aldaketa egitea onartu da. "Kasu markadun sintagmak" barik "hondarkirik gabeko izenak" edo izen taldeak ere junta daitezkeelako puntuan trabatu da eztabaida eta zenbait zuzenketa egin beharra ikusi da. Bereziki, posposizioen ezkerretara ager daitezkeen juntadurek sortu dute zalantza. Azkenean, arauaren funtsezkoena onartu bada ere, eskatutako zuzenketak jaso ondoren Miren Azkaratek testua atzera ekarriko du hurrengo bileran aurkezteko eta iraileko bilkuran onartzeko. Posposizioen arazoa argitzeko daudekeen datuak ekarriko dira eta aztertu ondoren, iraileko bileran onartzeko moduan egongo da Euskaltzaindia.

Hiztegi Batuaren bigarren itzulia dela eta.

Haritschelhar jaunak ez du argi ikusten "Irizpideetatik" ala *B-bazterzain* hitz-zerrendatik hasi behar den. Zalantza une baten ondoren, zerrendarekin hastea erabaki da, nahiz eta gero irizpideen inguruan mugitu.

Peillenen, Kintanaren eta Satrustegiren oharrak dituzte euskaltzainek mahai gainean.

Miren Azkarateren ustez, hitz zerrendak aztertu baino gehiago zerrendak orekatuak diren ala ez ikustea zen helburua: zer falta den edo zer den sobera. Hori ikustea zen asmoa. Zerrenda begiratu ondoren, zer inpresio atera den ikusi beharko litzateke, corpusa osatu behar bada osatuz, bigarren itzulia hankamotz gerta ez dadin.

Satrustegi jaunak dio adibide multzo bat ekartzeko eskatzen zela ulertu zuela eta horrela, ikusiko zela hitz horiek balio duten ala ez hiztegian sartzeko.

Kintanaren iritziz, zerrenda berandu etorri da eta, horregatik, bere kabuz hasi zela unibersitatean erabiltzen diren zerrendak aztertzen. Baina ohartu da markatuak zituen hitz gehienak ageri direla jadanik zerrendan. Zernahi gisaz, euskaltzain asko kexu agertu dira aurkeztu den zerrendan informazioa emateko modua oso nahasia delako eta laguntza gutxi eskaintzen duelako.

Eztabaida luzea izan da eta euskaltzain ugarik hartu du parte. Bigarren itzuliko irizpideak izan dira batez ere eztabaidagai. Bigarren itzulian erabiliko diren iturriez mintzatu dira denak. Eztabaidarako proposatu zen txostenekoa nolabait osatu egin beharko litzatekeela onartzen dute denek. Horrela, onartu da unibertsitate eta, orohar, irakaskuntza munduan dabiltzan hitz nagusiei leku egitea. Lehenbizi halako *thesaurus* batzuk osatu beharko lirateke eta, gero, horietatik zer geuregana daitekeen ikusi. Gauza bera gertatzen da herri-mailako eta etnografia munduko zenbait hitzekin ere.

Pello Salaburuk eztabaida zehaztea eskatzen du: iturrien zerrenda eztabaidatu, hiztegiak barne. Ahozko iturrien zerrenda ere eztabaidatu. Eta azkenik, erabiliko den metodologia aztertu.

Ahozko hitzak jasotzeko premiaz ados agertu dira euskaltzainak. Arazoa da nola jokatu eta nola eman sarrera. Zerrendak nola aurkeztu da kontua. Arazo tekniko bat bada behintzat: iritzi emaileen zerrenda berriro begiratu behar da eta multzoka bilduz hitz zerrendez galde egin.

Aranak aipatu du artxiboan daudela gordeak Azkueren hainbat eta hainbat fitxa eta haiek ere begiratu beharko liratekeela. Bekadun bat jartzea proposatu du hiztegiari buruzko paper horiek ordenatzeko. Ontzat eman da proposamena.

Corpusa osatzen duten hiztegi eta glosarioen zerrenda ere aurkeztu zaie euskaltzainei eta bigarren itzuliaren iturri gisa baliagarri ikusi dira. Bestalde, *OEH*-ko hitzentzat ezarri den bost lekukotasun izateko baldintza hori jaitsi behar den ere eztabaidatu da, baina ez zaio bidezko iritzi.

Oraindik gaia gehiago zehaztu beharra ikusten bada ere, badirudi iturriak aski finkatutzat eman daitezkeela. Ziurtatu behar da hiztegi batuarekin gaurko euskaldunak dituen premiei modu aski egokian erantzutea. Horretarako, aipatu iturrietan jasoak ez egon arren, esparru jakin batzuetako hitzei leku egin beharko zaie eta baita ahozko iturrietatik datozen zenbaiti ere. Dena dela, bigarren itzuliaren ondoren hirugarrenak ere etorri beharko duenez, hitz jakin batzuei leku egiteagatik lana atzeratzea ez da oso egokia.

Aurrekontuak direla eta.

J. J. Zearretak datorren urteko aurrekontuei buruzko zenbait xehetasun eman ditu. Urtero bezala, aurrekontuak aurkeztu behar ditu Euskaltzaindiak. Aurrekontu arrunta egiteak ez du arazorik. Batzorde eta egitasmoen aurrekontuak egiteko, berriz, batzordeburuei eta idazkariei eskatuko zaie bidal dezatela uztailaren 10a baino lehen, hurrengo urterako asmoen berri, gauza bereziak jasoaz. XV. biltzarrerako ere aurrekontu berezia egingo da. Hau dela eta, azken zuzendaritza bilkuran batzorde berezia osatzea erabaki dela azaldu du Haritschelhar jaunak: euskaltzainburuak, idazkariak, diruzainak eta idazkariordeak osatuko duten batzorde hau arduratuko da aurrekontu hori prestatzeaz.

Ordubietan bilera eten egin da bazkaltzeko. Lauetan hasi da arratsaldekoa.

Web-gunearen aurkezpena.

Lehenbizi, Web-gunearen aurkezpena egin du P. Goenagak. Dagoeneko sarean da Euskaltzaindiaren Web-gunea (www.euskaltzaindia.net). Euskaltzainen aurrean halako bisita gidatu labur bat egin da gune horren ataletara. Horrelakoetan ohi denez, gune hori sarri-sarri eguneratu beharko dela esan zaie euskaltzainei eta dituzketen oharrak helarazi ditzatela eskatu.

Jagonet.

Ondoren, Miren Azkaratek hartu du hitza *Jagonet* proiektua dela eta. Aurkezpen labur bat egin du euskaltzainek jadanik ezaguna duten txostenaren edukia gogoratzeko, zerbitzuaren ezaugarriak azalduz. Jagon sailеko kide den J. R. Zubimendi jauna ere batzarrean da.

Urrutia jaunaren oharrak aurkeztu dira ondoren. Hutsuneak ikusten ditu. Kokapen fisikoa Bilbon nahi luke, eta kokapen birtuala, berriz, Euskaltzaindiaren Web-gunean bertan, ez beste nonbait.

Urrutiaren beste kezka kudeaketa nola egingo den finkatzea da: nork, zertarako, nondik, dirua. Askoz gehiago kezkatzen du edukiak. Planteatzen dena txikiegia ote den dago, beste batzuek zerbait hobea eskaini ahalko dutelakoan. Zenbat iraungo dugun ez

daki. Kontsultei erantzuna ematerakoan argi utzi behar da nork zein mailatan erantzuten duen.

Lizundia jaunak ekintza plan bat, "jardupide" bat, eskatu du. Hurrengo bilerarako ekarri beharko litzateke.

Zubimendik erantzun dio esanaz, apustuak, egiten direnean irabazten edo galtzen direla, ez jokatzen direnean.

Badiola jaunak dio txostenak ez duela argi uzten zer eskaintzen duen. Zer ez duen eskaintzen esaten da. Berak era positiboan nahiago luke.

Ondorio gisa, ñabardurak (nork egingo, non etab.) geroago findu daitezkeela ikusi da. Zehaztasunok zuzendaritzak aztertuko ditu eta Donibaneko bilkuran onartuko dira. Ontzat eman da proiektua, beti ere egindako oharrak kontuan hartuta.

Azken ordukoak.

Elkarri-k aurkeztu duen *30x30 errealitatea, itxaropena* izeneko liburu-proiektuaren berri eman zaie euskaltzainei, bakoitzak zer egin ikus dezan. Haritschelhar jaunaren hitzetan, Euskaltzaindiak, erakunde gisa, ez du horrekin zer ikusirik baina euskaltzain bakoitzak izan dezake.

Nafarroako euskararen inguruko auzia.

Orain arte Nafarroako Hizkuntz Politika zuzendari izan den Pz. de Viñaspre jaunak gutuna idatzi dio Euskaltzaindiari egoeraren berri emanaz. Euskarak Nafarroan har dezakeen norabide berriaz kezka du Euskaltzaindiak eta zuzendaritzak testu bat prestatu du Miguel Sanz jaunari zuzendua.

Testu horren idazkerak eztabaida piska bat sortu du. Kintana jaunak, gutunaren hartzaileak konstituzionalista modura agertzen direnez, Espainiako konstituzioak hizkuntzei halako begiramen berezia erakusten baitie, hori aipatu egingo luke.

Satrustegik ez du uste horretara jo behar denik. Erantzun puntual bat da eta denak nahasi beharrik ez dago. Gainera, hau ez da izango azkena.

Estilo zuzenketa batzuekin aho batez onartu da eta dagokion bidetik helaraziko zaio hartzaileari eta zor zaion zabalkundea ere egingo da.

Eta zazpiak bost gutxitan amaitu da bilera.

Euskaltzainburuak	Idazkariak
Jean Haritschelhar	Patxi Goenaga

* * *

Donibane Lohizunen, 2000.eko uztailaren 21ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
J. M. Satrustegi eta
Andres Urrutia
euskaltzainak,
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-
-kudeatzailea eta
J. J. Zearreta, ekonomi eragilea.

Donibane Lohizunen, Maurice Ravel auditoriumean bildu da Euskaltzaindia, 2000.eko uztailaren 21ean, hileroko batzarra egiteko. Bilerari goizeko 10ak eta erdietan eman zaio hasiera. Bildutakoen izenak ezkerreko zutabean jasoak ageri dira. Ezin etorria adierazi dute P. Altunak, P. Ondarrak, P. Salaburuk eta Ibon Sarasolak.

Euskaltzainburuaren hitzak

Peter Etxeberria, aspaldiko urgazlearen heriotzaren berri eman du lehendabizi euskaltzainburuak. W. Douglass jaunak prestatuko luke hilberri txostena eta gero, euskaraturik, irakurriko litzateke batzar egun batean. Eusebio Erkiagak elkarrizketa luze bat egin zion bere garaian eta hori ere informazio iturri ona izan litekeela esan du.

Ramon Aramon i Serra, *Institut d'Estudis Catalans*-eko idazkari ohia ere hil da. Telegrama bat bidaliko zaio *Institut*-i. H. Knörrek prestatuko du testua.

Aurreko batzar-agiria onartzea.

A. Iñigok ohar bat egin du. Agirian azken puntu gisa Nafarroako euskararen inguruan aipatzen den dokumentua ez zen izan Perez de Viñaspre jaunari emandako erantzuna, auzi hori dela eta, Miguel Sanzendakoa baizik. Beste oharrik gabe, ontzat eman da agiria

Eskuartekoak

Jagon saileko corpus batzorderako kide berriak

Bi kide berri proposatu dira Jagoneko corpus batzorderako: Iraide Iturri Urrutia eta Jon Aurre Azurmendi. Bakoitzaren *curriculumaz* horniturik etorri da proposamena. Aho batez onartu da.

Hurrengo batzarra Nafarroan.

S. Fermin Ikastolaren 30. urtemugaren ospakizunak direla eta jasotako gonbitari erantzunez, Euskaltzaindiaren iraileko batzarra Nafarroan, Zizurren, izango dela aditzera eman da. 2000. urteko *Nafarroa Oinez* jaia ere ikastola horretan egingo da.

H. Knörren kronika laburra Ternua eta Québec-era egindako bidaiaz

H. Knörr berrikitan Ternuan izan da hango *Northern Peninsula Heritage Society* delakoaren urteroko biltzarrean parte hartzeko. Gero Québec-en ere izan da eta Comission de Toponymie delakoaren zuzendaritzakoekin solastatu da. Bisita horien berri emanaz, txosten idatzi bat aurkeztu du Knörr jaunak.

Iparraldeko hizkuntz politika

Euskaltzainburuak aditzera eman du bilkura bat izan dela Iparraldean suprefeturan eta *Convention Pays Basque* txostena aurkeztu dutela. Txosten horren arabera, Euskaltzaindiarentzat orain arte baino laguntza gehiago etor liteke. Dena dela, hautetsiek beharko dute onartu eta orduan ikusiko da zenbatekoa izango den laguntza. Azaroan edo abenduan onartuko dela dirudi.

Hizkuntz arauak.

Gramatika: "Izen sintagmen arteko juntadura"

Gramatika batzordeak prestatu txostenari bere garaian eginiko oharrak jaso ondoren Miren Azkaratek aurkeztu du txosten berria. *Zu eta ni baitan* eta antzekoen benetako adibiderik ez bide da *OEH* corpusean. Aldiz, testigantza ugariak dira *–en eta –engatik* modukoenak. Beraz, atal hori guztia kendu egin du. Baita azkenean ematen zen oharra ere. Horrela onartu da araua, Miren Azkaratek ekarri bezala.

X. Kintanak dio unibertsitatera sartzeko hautaprobetan ikasleek huts egiten dutela maiz ezezko perpausetan laguntzailearen eta aditz nagusiaren arteko hurrenkera erabakitzerakoan. Iradokizuna egiten dio gramatika batzordeari ezezkoetan gertatzen diren ordena kontuak argitzen saia dadila. Hurrengo azterketetan gogoan hartuko dela erantzun dio P. Goenagak.

Hiztegi Batuaren bigarren itzulirako irizpideak finkatzea.

M. Azkaratek hartu du hitza eztabaida zuzentzeko asmotan. Lehenengo puntuari, aztergai izango denari, dagokionez, gogorarazi du orain arteko eztabaidetan hitz zerrendaren iturriak osatzeaz hitz egin dela eta bildua dagoena ontzat ematea erabaki zela, ahozko erabileretatik, etnotestuetatik eta abarretatik osatuz, nolanahi ere. Halaber, terminologia kontuetan ere zerbait egin beharko litzatekeela, arlo desberdinetako hitz zerrendak osatuz. Horretarako, unibertsitate munduan, enpresa eta administrazio munduan, osasun arloan eta abarretan ari direnenen laguntza eskuratu beharra dagoela. Talde bereziak eratu behar liratekeela proposamenak egin ditzaten bigarren itzuli honetan jaso beharreko hitzez.

Elkarrizketak, hala ere, beste bide bat hartu du berehala, euskaltzainek gogoeta luze bati ekin baitiote corpusaren bilketaz eta osaketaz. Oihartzabal jaunak dio Euskaltzaindiak pentsatzen hasi beharko lukeela orain arteko corpusak nola osatu. Orain bada aukera, argitaletxeekin eta idazleekin ados jarriz, egungo hainbat eta hainbat testu eskuratzeko eta horiekin denekin corpus egoki bat osatzeko. Hori lortzea erraz litzatekeela dio eta hor zerbait egin beharko lukeela Euskaltzaindiak. Lege gorabeherak gainditu ondoren, arazo teknikoak ere izango dira informazioa behar bezala antolatzeko baina egin ezinik ez da. Ongi pentsatu beharko litzateke, dena dela, baina arin ibili behar da.

Urrutia jaunaren aburuz, administrazio eta lege esparruan badira hainbat testu kontuan hartu beharrekoak. Bera prest dago HAEE-ekо jendearekin eta administrazio munduan lanean dihardutenekin harremanetan jartzeko eta bere ekarpena egiteko, Euskaltzaindiak ongi baderitza. Irailerako proposamen bat ekar lezake. Gero Hiztegi Batuko lantaldekoekin hitz egin beharko litzateke irizpideak finkatzeko.

Oihartzabalek argi dauka zerbait egin behar dela. Administraziozkoetan ongi egin liteke. Gainerakoetan beharrezkoa da jardunaldi batzuk egitea jendeak ikus dezan nolako beharrak diren gure ikuspegitik, baina irekia izan behar du jendeak eskua sartu ahal izateko. Ezin da izan Euskaltzaindiarena bakarrik, zabala izan behar du, gero eta jende gehiago ari baita lantegi honetan. Bera prest dago jardunaldi horiek eratzeko eta kanpoko jendearen esku-hartzea bilatzeko. Unibertsitateek parte izan behar lukete eta baita Jaurlaritzak ere. Gainera, hemen planteatzen den corpus honetarako diru laguntza eman beharko luke Jaurlaritzak, beste biblioteka mota bat baita funtsean.

Idazkariak hartu du ondoren hitza eta adierazi du corpus berri honen osaera hiztegiaren hirugarren fase baterako izango litzatekeela baina orain berehala hasteko dena *Hiztegi Batuaren* bigarren itzulia dela. Horri ekin beharko zaio irailean bertan eta, horrenbestez, on litzatekeela eztabaida helburu honetara zuzentzea.

Azkaratek parte-hartzaileen proposamenak ontzat ematen ditu baina bigarren itzulirako proposamena egin nahi luke. Dagoeneko esku artean dagoen hori osatzeko, terminologia kontuetan oinarrizko gauza batzuk jaso beharko direla esan zen. Arlo jakinetan zer jende aditu izan daitekeen ikusteko iritzi emaileen zerrenda hartzea proposatzen du. Horiekin talde txikiagoak egin litezke, bigarren itzuli honi begira aholku eman dezaten arlo bakoitzetik zein hitz sar eta zein ez. Azkaratek proposatzen du aholku emaileen zerrenda hartzea eta talde txiki horietako partaide izan litezkeenak aukeratzea. Baina aholkulari berezien hautaketa hori gutxi batzuen esku uztea. Honako euskaltzain hauek proposatu ditu horretarako: Xabier Kintana, A. Urrutia, Miren Azkarate, Ibon Sarasola eta Beñat Oihartzabal. Hauen esku utz liteke zerrenda hori ikustea eta egoki ikusten duten moduan egitea arlokako talde txikien hautaketa. Iritzi emaile horiei beren arloko hitz zerrenda proposatzea eskatuko litzaieke. Zerrenda horiek mugatuak izango lirateke, berrehun bat hitzekoak edo, euskal hitzez osatuak eta ez euskal ordain behar luketen erdal hitzezko zerrendak. Gero hitz horiei sarrera eman ala ez ikusiko litzateke.

Taldetxo bakoitza sei-zazpi lagunek osatua egongo litzateke eta era koordinatuan lan egin beharko lukete. Internet-ek ere laguntza egokia eskaintzen du horretarako. Bestalde, oreka bilatu behar da zerrenda guztien artean, denek pisu bertsua edo izan dezaten. Arloak ere zein diren pentsatu eta erabaki behar litzateke.

Ondoren *irizpideak* (2. puntua) aztertzeari ekin dio batzarrak. Hemen *B-bazterzain* zerrenda hartu da erreferentzia puntu gisa. Lehen kexu zen zenbait euskaltzain gauzak aurkezteko modua aski ilun gertatzen zelako. Oraingo hau Hiztegi Batuko lantaldeak nola lan egiten duen erakusteko dela esan du Azkaratek. Horrela, sarrera bakoitzak daraman letrak zer esan nahi duen azaldu du, banan-banan.

Kintanaren ustez "h." marka ez litzateke jarri beharko hitza euskarazkoa denean. Bestalde, "e." jartzen denean, sistemakikoki jaso beharko lirateke bi sarrerak, gaitzetsia eta hobetsia, horrela, kontsultatzea errazago eta zuzenagoa izango baita. P. Goenagaren ustez, hala ere, honek arazoak ditu, zeren hitz beraren forma gaitzetsien artean bat bai-

no gehiago egon daiteke eta denak ezartzea behar bada ez da itxurazko. Zernahi gisaz, aldaerak espresuki jasotzea erabaki da, bakoitzari bere sarrera emanaz. Gero jendearen zuhurtziaren arabera jokatuko da aldaera gehiegi gertatzen direnean, adibidez.

Kintanak atlasak eman lezakeen laguntzaz baliatzea eskatu du. Behar denean informazio hori ere begiratuko da.

"Forma onartuak" izeneko atalean adibideak kentzea erabaki da, arazoak sortzen baitituzte.

"Eratorri eta elkartu berriak" izeneko paragrafoari ere ez diote oso argia iritzi euskaltzainek. Argiago emango dira atal horretako irizpideak.

Mailegu berriei dagokienez, Urrutiak dio arazoak izan daitezkeela nazioartekotasunaren irizpideari buruz, batez ere ekonomia eta horrelako arloetan, estatuarekin oso atxikiak dauden hitzetan. Horrelakoetan adostasunik ez da izango maiz Iparraldeko eta Hegoaldeko formen artean. Hitz horiek nazioartekotasunaren irizpidea ez dute beteko. Maileguak izango dira baina frantsesak egingo du jokoa beste batzuekin eta gaztelaniak, berriz, ez du jokorik egingo eta orduan frantses mailegua minoritarioa izango da euskaldunentzat. Hori oso nahasgarri izan daiteke. Kasu hauetan tradizioa ez litzateke ez alemana ez inglesa, latin eremuko hizkuntzena baizik. Kasu batzuetan Iparraldeko jokabidea eta Hegoaldekoa desberdinak dira. Hori kontuan hartu beharko litzateke. Nazioartekotasun kontu horrek ez du beti funtzionatzen, eremu batzuetan behintzat ez.

Horrenbestez, zerrendan hitz bakoitza letra batez hornitua agertuko da. H letra daramatenak baztertu diren formak izango dira; F izango dute erabaki ezinik utzi direnak; E letrak ere baztertzen dela esan nahi du eta baztertua den hitzaren ordez beste bat proposatzen dela; gainerakoek A edo B eramango dute, irizpide batengatik edo bestearengatik, eta kasu hauetan batzordeak hitza onartzeko proposamena egingo du.

Ondoren, zerrenda hori lantzeko zein prozedura eramango den azaltzen du txostenak. Orain artekoaren antzekoa izango da prozedura hori. Oraingoan, ordea, hitzen zerrendarekin batera aztergai horretako zenbait hitzi buruz egindako txostenak ere etorriko zaizkie euskaltzainei. Iritzi emaileei, berriz, zerrenda soila. Iritzi emaileen zerrenda honetaz ere eztabaida izan da. Azkenean, zerrenda horretan ere zenbaitek lanerako grina handiagoa erakusten dutenez, hobeki begiratuko da baina, printzipioz iritzi emaile horiei zerrenda soila helaraziko zaie. Norbaitek eskatzen badu, orduan hitzei buruzko txostenak bidaliko zaizkie. Gainera, gerta daiteke iritzi emaile batek hitz jakin bati buruz interes berezia izatea eta besteei buruz ez. Kasu honetan bidezko dirudi dokumentazio osagarri hori eskuratzea.

Charrittonek proposatu du arauak jasotzen dituztenen artean begiratzeko ea hortik inor zerrendara daitekeen ikusteko. Hiztegi Batuko lantaldea ere handitzea proposatu du.

d. paragrafoan esaldi hau gehitzea onartu da: "Hau guztia osatzeko alorrez alorreko taldeak eratuko dira bakoitzak bere proposamen eta ekarpenak egin ditzan."

e. paragrafoa barne funtzionamenduari dagokio. Han aipatzen da Euskara Batuko batzordekideek aho batez jokatuko dutela osoko bilkuretan. Horrela, batzordeko kide bakoitzak aukera bat besterik ez luke izango bere iritziaren alde egiteko. Azkaratek azaldu du neurri hori proposatzearen helburua geure buruari diziplina piska bat ezar-

tzea izan dela. Proposamen honen egokitasunaz luzaz hitz egin da. Azkenean ezabatzea onartu da. Hala cre, orain arteko prozedura piska bat aldatzea erabaki da. Orain arte ez bezala, Euskara Batuko batzordeak euskaltzainek idatziz egindako ohar bakoitzari buruz egindako proposamena berriro cre euskaltzainei banatuko zaie hogei eguneko epea emanaz iritzia emateko. Idatzizko oharrik izan ezean, besterik gabe ontzat emango da batzordearen proposamena. Oharrak izanez gero, banan-banan eztabaidatuko dira batzarrean.

Ohar hauek kontuan hartuta Miren Azkaratek testu berria idatziko du eta euskaltzainei helaraziko oharrak egin ditzaten. Nolanahi ere, hurrengo bileran onartuko da txostena.

Eta horrenbestez, ordu bat eta erdietan eten egin da bilkura, bazkaltzera joateko.

Arratsaldean lauak hamar gutxitan hasi dira euskaltzainak atzera lanean. Ahozko iturriak nola gelditu diren galde egin du Iñigok. Lehen onartutakoak indarrean diraue-la erantzun zaio, hots: horientzat ere leku izango dela bigarren itzuli honetan.

Arana jaunak, bestalde, Azkueren hiztegirako jasotako fitxak aipatu ditu berriro. Altxor aberatsa dagoela esan du eta bekadunen bat edo jarri behar litzatekeela, hirulau hilabetetan horko materiala atontzeko eta hiztegian ageri ez diren hainbat hitz jasotzeko. Beraz, hurrengo aurrekontuan honetarako diru bat jarri beharko litzatekeela esan du.

Jose Mari Satrustegiren ustez, hori baino lehenagoko kontuak badira argitu beharrekoak. Hain zuzen, ahozko tradizioko hitzei leku egiteko izan behar genituzkeen irizpideak jasotzen dituen txostena jarri du euskaltzainen eskuetan. Behar-beharrezko ikusi dute euskaltzainek irizpide hauek ongi zehaztea. Hala ere, denbora faltaz, hurrengo bilerarako utzi da Satrustegi jaunaren txostenean biltzen diren irizpide horien eztabaida.

2001. urteko aurrekontuen aurkezpena

J.J. Zearretak eman ditu azalpenak. Hiru zatitan banatua ematen da aurten aurrekontua: arrunta, batzorde eta egitasmoak eta aurrekontu bereziak.

XV. biltzarrak buruko minak eman ditu, zail izan arren kopuru batzuk zehaztu beharra baitago. Jagonet-en gorabeherak ere zehaztu gabe daude. Euskaltzainek oharrak egiteko aukera eta epea dute. Azken ukituak irailean onartuko dira.

Beñat Oihartzabalen arabera, inkestak egiterakoan erabili ziren argazki eta irudiak eskaneatzeko etab. dirua beharko da, bekarioren bat edo jarri behar bada, langintza horretan arituko dena.

Testu-corpusa aipatzen denez, zer den hori eta non egingo den galde egin du Urrutiak. B. Oihartzabalek erantzun dio. Editoreen eta idazleen lankidetzaz osatu nahi den corpus bat da, egungo testuak bilduko dituena. Gero etorriko dira lematizazioa eta corpus horren ustiaketa. Tartean liburuzainaren txostena ere badagoela aipatu du. Dena dela, oraindik zuzendaritzari ez zaio aurkeztu.

Aurrekontu hauei egin nahi zaizkien oharrak irailaren 20rako Euskaltziandira helaraztea eskatu da.

JAGONET egitasmoaren jardupidea finkatzea.

Azkarate andreak aurkeztu du aurreko bileran eskatu zen Jagonet proiektuaren *jardupidea*. Lehenbizi kokalekua zein izango den zehazten da. Ondoren, zein izango den zerbitzu horren edukia, galderak nola bideratuko diren eta nor izango diren erantzuleak eta arduraduna. Hain zuzen, arduradun gisa Corpus batzordeko idazkariaren aldeko proposamena egiten denez, Urrutia jaunak argitasuna eskatu du. Ez du ongi ikusten, beste inori aurkerarik eman gabe, proposamen hau pertsona jakin baten alde lerratzea. Itxurak gorde egin behar direla uste du, batez ere kontuan izanik diru publikoarekin ari garela jokatzen.

Urrutiak eskatu du Zuzendaritzak kontuan hartzea gai hau eta gauzak horrela behar duten ala beste modu batera egin daitezkeen aztertzea. Idazkariak erantzun dio esanaz luze hitz egin dela honetaz Zuzendaritzan eta proposamena egin den bezala egin bada bi arrazoirengatik izan dela: lanpostu hau plantillakoa ez delako, beste modu batekoa baizik (aldi edo lan zehatz baterako litzateke, kanpoko profesional batek eskain dezakeen zerbitzu-emate gisako zerbait, etab.) eta, bigarren, berau delakoan pertsonarik egokiena. Hala ere, garbi gelditu behar duela euskaltzainen batek beste proposamenik badu orduan hautatze prozesu bati ekin dakiokeela. Urrutiak adierazi du ez lukeela entzun nahi pertsona bat sartu dela zeharreko bidetik. Hori kaltegarria izango litzateke denontzat. Behar den lege-aholkua eskatu behar luke Zuzendaritzak gauzak behar den moduan bideratzeko. Hala egitea onartu da.

Bostetan amaitutzat eman da bilera. Ondoren, ageriko ekitaldia hasi da.

Euskaltzainburuak	Idazkariak
Jean Haritschelhar	Patxi Goenaga

* * *

AGERIKO BATZARRA

Donibane Lohizunen, 2000.eko uztailaren 21ean

Donibane Lohizunen, Maurice Ravel auditoriumean, 2000.eko uztailaren 21ean, arratsaldeko bostak eta erdietan, eman zaio hasiera Gratien Albert Goihenetxeren heriotzaren mendeurrena ospatzeko Euskaltzaindiak eratutako ageriko batzarrari. Goizeko euskaltzain jaun-andre berak bildu dira ekitaldira, salbu H. Knörr eta E. Larre. Euskaltzain horiez gainera, P. Andizabal, X. Arbelbide, S. Basauri, R. Camblong, J. B. Dirassar, M. Goienetxe, D. Landart, J. L. Lizundia, M. Zalbide eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak eta P. Telleria eragile teknikaria ere entzuleen artean izan dira.

Mahaiburu Jean Haritschelhar izan da, ondoan P. Goenaga idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina eta bi hizlariak, hots: Mikel Zalbide eta Manex Goienetxe jaunak. Mahaiburuak herriko auzapez ordearen ezin etorriaren berri eman du hasieran.

Lehenbiziko agurra euskaltzainburuak egin du. Eskerrak eman dizkio udalari ekitaldia ospatzeko eman dituen erraztasunengatik eta gero omenduaren nortasunaren zenbait zertzelada eskaini ditu. Garai hartan Donibane Lohizune leku nabarmena izan zen euskaltasunarentzat. Euskaltzaindiak omenaldia egin nahi izan dio herriko auzapez eta euskaltzale handi izan zenari.

Ondoren, Manex Goienetxe historialariak hartu du hitza omenduaren figura bere garaian eta giroan kokatzeko. Hitzaldiaren izenburua: "Zuri-gorriak Lapurdin eta, bereziki, Donibane Lohizunen, orduko euskaltzaleen artean". Zurien eta gorrien arteko gatazka horrek euskal produkzioaren gehitze handia ekarri zuen, hizlariaren aburuz, norgehiagoka aritzen baitziren maiz.

Bigarren hizlaria Mikel Zalbide izan da: "Albert Goienetxe, XIX. mendeko euskalgintzaren eredu". Hizlariaren hitzetan, Goienetxez hitz egitea Euskal Herriaren eta euskal kulturaren alde ilunez hitz egitea da. Goienetxeren belaunaldia aztertu du eta gainerakoekin alderatu. Garai hark izan zituen alde txarrak azpimarratu ditu hizlariak: frantsesa euskararen betiko esparruak inbaditzen hasi zen. Eskolak familiari lekua kentzen dio. Euskara eskolan sartzen da baina erdarara hobeki iristeko bide gisa. Ikuspegi aski kritikoa eskaini du hizlariak.

Belaunaldi horren alde onak ere aztertu ditu Zalbidek: euskal kultura modernizatzen hasi ziren, nahiz eta modu itxi samarrean. Batasun zabal baten alde lan egin zuten. Nolanahi ere, euskaltzale handi bat izan zen eta hark antolatutako jaiek eta batzarrek, izan zituzten mugak gorabehera, besteak zirikatzeko ere balio izan zuten.

Azkenik, Haritschelhar jaunak eskerrak eman dizkie bilduei eta seiak eta erdietan amaitutzat eman da bilkura.

Euskaltzainburuak	Idazkariak
Jean Haritschelhar	Patxi Goenaga

* * *

Zizur Txikian, 2000.eko irailaren 29an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
C. F. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
J. M. Satrustegi,
Andres Urrutia eta
Patxi Zabaleta
euskaltzainak,
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-
-kudeatzailea eta
J. J. Zearreta, ekonomi eragilea (3. gaian).

Zizur Txikiko San Fermin ikastolan bildu da Euskaltzaindia, 2000.eko irailaren 29an, hileroko batzarra egiteko. Bilerari goizeko 10ak eta erdietan eman zaio hasiera. Ezkerreko zutabean jasoak ageri dira bildutakoen izenak. Ezin etorria aditzera eman dute P. Altunak, X. Diharcek, Pello Salaburuk eta Ibon Sarasolak.

Euskaltzainburuaren hitzak

Jacques Allières hizkuntzalari eta euskaltzain ohorezkoaren heriotzaren berri eman du euskaltzainburuak lehenbizi eta Erakundearen dolumina agertu. Hilberri txostena egiteko bere burua eskaini du.

Bestalde, Euskaltzaindiak San Fermin ikastolari egindako harreragatik eskerrak eman beharko litzaizkiokeela esan du. Liburu sorta bat oparitzea proposatu da eta onartu, esker onaren seinale.

Aurreko batzar-agiriak onartzea

Andres Iñigok ohartarazi du Txarrittonek Hiztegi Batuko lantaldean nafar bat sartzea eskatu zuela. Paskual Rekalderen izena ere proposatu zela, gainera. Hala ere, agirian ez dago hori jasoa. Hori gehitzea onartu da. Eta hala, azken batzar eguneko bi agiriak ontzat eman dira.

Hizkuntz arauak: Hiztegi Batuaren bigarren itzulirako irizpideak onartzea

Batzordearen ordezkari gisa, Miren Azkaratek hartu du hitza. Uztaileko bileraren ondoren txostena berridatzi eta euskaltzainei bidali zitzaien. Txosten hori da, hain zuzen, eztabaida eta onarpenerako mahai gainean jartzen dena.

Andres Iñigok dio dena ongi jasoa dagoela baina ez duela oso argi ikusten hogei eguneko kontu hori. Mirenek azaldu du arazoa.

Urrutia jaunak Miren Azkarateren ahotik entzun nahi luke nola lan egin behar den, ez baitu ikusten nola gauzatu behar den, adibidez, aipatzen den ahozko tradizio

hori geureganatzea ez eta ere horrek nolako eragina izan behar duen bigarren itzuli honetan. Beste arloetako ekarpenak ere nola egingo diren zehaztea nahi luke: Euskara Batuko batzordean kontu hau nola ikusten den, alde batetik, eta bestetik, Legazpin esandakoa errepikatuz, materiala (EBBS, corpusak etab.) eskuratu beharra bigarren itzulirako: . Ez dago prest buru-belarri lanean sartzeko informazio hori eskuan izan gabe. Erredakzioaren kontra ez dauka ezer.

Beste zenbait argibide ere eskatu zaizkio Azkarate andreari.

Proposamena honako hau litzateke: 1) Hiztegi Batuko lantaldeak zerrenda prestatuko du (zerrenda + txostenak); 2) hau bidaliko zaie euskaltzainei eta iritzi emaileei; 3) hauen oharrak berriro joango dira Hiztegi Batuko lantaldera; 4) ohar horiek aztertu ondoren, zerrenda soilduak Euskara Batuko batzordera eramango dira eta hemendik osoko bilkurara; 5) hemen euskaltzainek hogei eguneko epea izango dute oharrak egiteko; 6) ondoren, berriro Euskara Batuko batzordera; 7) honen txostena denen artean banatuko da berriro jendeak azter dezan. Hemen beste hogei eguneko epea izango dute euskaltzainek Euskara Batuko batzordearen txostenari idatziz erantzuteko. Hurrengo hileko bilkuran idatzizko oharrak bakarrik eztabaidatuko dira. Oharrik ez duten puntuak ontzat emango dira besterik gabe.

Errazena litzateke lehenbiziko epe honetan iritzi emaileen taldea osatzea eta hemen txertatzea arlo desberdinetako zerrendak. Ez litzateke nahitaezko zerrendak bere txandan txertatzea, gero ere egin liteke: hilero-hilero ahal dena sartu eta gaienerakoa gero ere sartzeko aukera izango da.

Satrustegi jaunaren ustez, prozedura astunegia gerta liteke eta zama handiegia gerta liteke euskaltzainentzat. Lehenbiziko parte hori arindu egin beharko litzateke, jende askok interes berezirik ez bailuke izango.

Urrutiak adierazi du, aurreko bileran agindu bezala, hitz egin duela HAEE-ko jendearekin eta lanerako prest daudela. Unibertsitateko jendea eta beste profesional batzuk bil daitezkeela lege-administrazio arloko hitz zerrenda landuz joateko. Haren ustez, bi zeregin izango lituzke taldeak: zerrenda osatzea eta hirugarren itzulirako testuak sartzea corpus egokia eraikitzeko.

Peillen jaunak dio uda honetan mekanikari buruzko zerrenda bat prestatu duela; hala ere lanbide heziketako jende bat behar lukeela. Zerrenda bat prestatuko dute baina ez dute bilerarik egingo, faxen bidez egingo baitute lan.

Kintanak erantzun dio esanaz unibertsitatean mekanika aspaldi irakasten dela eta hango jendearekin mintzatuko dela.

Ondoren, eztabaida sortu da ea, prozedura arintze aldera, epeak murriztu ote daitezkeen. Hiztegi Batuko lantaldeak prestatzen dituen hasierako zerrenda luze horiek ere euskaltzain guztien eskuetan jartzea on den ere eztabaidatu da. Azkenean, jaso nahi ez dituztenei ez bidaltzea onartu da.

Kintanaren ustez lantaldeak ongi eratzea garrantzi handiko kontua da. Urrutiak egin duen bezala bera ere prest dagoela beste horrenbeste egiteko. Teknologia mundua ere hor dago.

B. Oihartzabalek bere kezka azaldu du aipatzen diren arlo horietan euskararen aldetik egon daitekeen batasunaz, hiztegi batuaz ari baikara.

Andres Urrutiak dio daukagun materialaz aparte, lantaldeen ekarpenak izango ditugula. Hauek proposamenak Hiztegi Batuko lantaldeari egingo dizkiote eta hauek Euskara Batuko batzordeari. Lantaldeak bostehun bat hitz proposatuko lituzke arlo bakoitzeko lantaldeak. Bestalde, hirugarren faserako behar den finantzabidea eta bekadun bat jartzea ere aztertu beharreko kontuak dira. Idatziz ekarriko du proposamena hurrengo bilerarako.

H. Knörrek arazoak aipatu ditu: bata corpusa eskumenean izatea eta bigarrrena gaikako hiztegiez zer egin behar den jakin behar litzateke.

Urrutiak hiru arlo ikusten ditu premiarik handienekotzat: irakaskuntza, administrazioa eta komunikazioa. Erantzun batzuk eman behar ditugu.

Azkarateren arabera, arlo batzuk beste batzuk baino landuago daude. Behar bada, bigarren itzuli honetan ez da lortuko nahi litzatekeen oreka hori.

Gauzak ez daude oso argi, Oihartzabalen ustez, lantalde kontu horretan. Administrazio munduarena aski argi dagoela dirudi, baina unibertsitate munduari lotua dagoena ez dago hainbeste. Argi dago lantaldea ez dela iraunkorra izango etab. Baina behar litzateke jakin hastapenetik nola jokatzen dugun. Adibidez, eguneroko hitzendako erran zen bigarren itzulian eskumenean diren hitzak sartu behar zirela.

Lantaldeen kopuruaz ere eztabaidatu da. Zabaleta jaunak lau lantalde ikusten ditu: aipatu diren administrazio, irakaskuntza eta komunikabideenaz gainera, laugarrena ahozko iturriei dagokiena litzateke. Prozedura soiltzea eskatzen du, bestalde.

Eztabaida luze honen ondoren, Miren Azkaratek ea dokumentua onartzen den galdetu du. Zabaletaren soiltze proposamena bozkatu da: 6. orrialdean "c" kendu eta honako hau erantsi "d" atalean: Euskara Batuko batzordeak euskaltzainen *eta iritzi emaileen nola lantaldeen* oharrrak...

Honako emaitza izan du bozketak: emendakinaren alde: 5; batzordearen alde: 8; zuri: 5. Beraz, Zabaletaren proposamena ez da onartu eta testua dagoen dagoenean eman da ontzat.

Hortaz, bigarren itzulian lanean hasteko *A-abusain* zerrenda denek dutenez, Adurizi esango zaio pasa dezatela zerrenda hori forma soildura. Horri ahozko hizkerakoak gehituko zaizkio.

Lantaldeei dagokienez, Urrutiak datorren hilerako proposamena ekarriko du. Komunikabide mundua dela eta, Jagon sailean bada lantalde bat. Eska dakieke zerrendak elkarrekin trukatu eta proposamen bat egin dezatela. Dirassar jaunari ere eskatzea proposatzen du Xarrittonek, izan ere Iparraldekoak eskas dira. Miren Azkarate izango da taldearen arduraduna.

Irakaskuntzaz, lantalde handiegia ez da komeni. Xabier Kintanak bere burua eskaini du arduradun gisa.

Miren Azkaratek beste lantalde bat proposatu du eguneroko hitzak biltzeko. Berasategi eta honen kideek ekarpen ona egin dezaketela uste du.

Iñigo jaunak "c" puntuan aipatzen den materiala posta elektronikoz bidaltzea eskatu du. Hala egingo dela agindu zaio eta orobat posta elektronikoa erabiltzen duten guztiei.

Satrustegiren ustez, berak egitekoa egiteko ez da lantalderik behar. Berak egin lezake itzuli honetakoa. Baina hirugarren faserako norbaitek serioski prestatu beharko luke proiektua eta ongi zehaztu zein izango litzatekeen prozedura. Gure altxorra da eta idazleek ez dute jaso.

Barne-erregelen berridazketa.

Lizundia jaunak egin du proposatzen diren puntuen aurkezpena. Lege batzordeak egin zuen proposamena eta Zuzendaritzak bere egin du proposamen hartatik zenbait aukera eginez.

Eztabaida luzea izan da eta argibideak eskatu eta eman dira. Zernahi gisaz, oharrak hilaren 20rako egin beharko dira, idatziz.

Aurrekontuak

Zearreta jaunak egin du aurkezpena. Zuzenketarik ez dela etorri esan du, salbu Miren Azkaraterena, Jagon saileko aurrekontuak bitan bereizteko eskatuz.

Honetaz aparte, hasierako zirriborroari egin zaizkion aldaketen berri eman du: OEH-ko taldearen egoitza berriko lanak ordaintzeko zerbait erreserbatzea; argitalpen prestaketarako atala zabalkunde eta prentsa zerbitzu baterako uztea;.Jagonetekoa ere desglosatzea informatizazio zerbitzua egokitzeko eta osatzeko diru bat ezartzea. XV. biltzarraz ere datu gutxi dago eta, horrela, gutxi gorabeherako kalkulu bat egin dela. Toponimian ere aurrekontu mardula dago. Herri aginteek eskatzen duten lan batekin lotzen da hori. Proiektuak zehazteko daude oraindik, hala ere.

Xarritton jaunak ere hartu du hitza: Kontseilu Orokorrak dirua emanez gero bi liburu atera litezke: Irizarrena eta Goienetxerena. Irizarrena unibertsitateak hartuko duela erantzun dio Haritschelhar jaunak.

Bestalde, Urrutiak galde egin du ea lantaldeen egitasmoak sartuz gero, hori aurrekontuan agerrarazteko modurik baden. Erantzun zaio horretarako beti egoten dela aukera. Finantziazioa lortuz gero ere problemarik izango ote litzatekeen galdetu du Urrutiak. Ezetz erantzun zaio.

Jagoneteko arduradunaren kontratua nola egingo den galdetu dio azkenik Urrutia jaunak Zuzendaritzari. Lizundiak erantzun dio: 23. maila izango du, egunerdiko lana , eta ez da plantillakoa izango. Kontratu merkantila egingo zaio.

Horrenbestez, ontzat eman dira 2001.eko aurrekontuak.

Eskuartekoak

Galeusca

Urriaren 12-15 bitartean Lekeition egingo diren Galeuscako ekitaldien programa azaldu zaie euskaltzainei. Euskaltzaindiak parte hartuko du ekitaldi horretan. Gainerako euskaltzainak ere gonbidatuak daudeke.

Euskaltzain ohorezkoak izendatzeko proposamenak

Euskaltzain ohorezkoak izendatzea egoki ikusten du Zuzendaritzak eta proposamenak egitea komeni dela adierazi du euskaltzainburuak. Ahal bada, datorren hilaren 20rako hautagaien izenak eta *curriculum vitae* ematea eskatzen da.

Azkenik, Henrike Knörrek hartu du hitza Miren Azkarateren izendapenaren berri emateko: Miren Azkarate izango da EITB-ko hizkuntz arduraduna hemendik aurrera. Baina honek aldaketa bat dakar, zeren bere garaian eratutako batzordean aholkulari bat izendatu beharko baita Azkarate andrearen ordez. Proposamena hurrengoan egingo da.

Eta horrenbestez, ordu biak eta hogeian amaitutzat eman da bilera. Ondoren, taldeko argazki bat egin die euskaltzainei Pello Telleria jaunak.

Euskaltzainburuak	Idazkariak
Jean Haritschelhar	Patxi Goenaga

* * *

IKERGAIAK

TORIBIO ETXEBARRIAREN *LEXICON*-i gehigarriak

2000-VI-19

Juan San Martin

Toribio Etxebarriaren "Lexicón del euskera dialectal de Eibar" deritzan lan sakon bezain eredugarria Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian 1965ean argitaratu zen, X-XI alean. Laster agortu zenez, 1982an bigarren argitalpena izan zuen. Baina hori ere laster agortu zen eta hirugarrenez, lehenago aditz laguntzaileari buruz egina zuen lanarekin batera *Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar* 1998. urtean egitara eman zuen Eibarko Udalaren Euskara Batzordeak. Lan honen azken orrialdeetan nik 1990ean *Euskera* agerkarian egin nizkion gehigarri batzuk ezarriz.

Baina nik bildutako hitz guziak ez zeuden han eta orain gehigarri hura luzapenez eskaini nahi dut. Hala ere, adierazi beharra dut zenbait gaitan egin nituen lanak ere, gehigarri bezala, hor daudela argitaraturik. Adibidez, honako hauek dira: "Eibarren erabiltzen diren burdin langintzako hitz teknikoak" (*Euskera,* III, 1958. 141-158. orr.), "Eibarren teknika gaietan egin dan eboluziñoari buruz" (*Euskera,* IV, 1959, 127-138. orr.), "Perretxiku izenak Eibarren" (*Euskera,* XX, 1974, 317-324. orr.), "Txori izenak Eibarren" (*Euskera,* XXIV, 1979, 271-277. orr. eta "Botanika lexikoa Eibarren" (*Euskera,* XXXV, 1990, 337-344, orr.).

Orain, lehengo haiei jarraituz nator. Hemengo hitz hauetan azentua ere kontutan hartu dut, guretzat gauza bera ez denez, adibidez: **abixária**, *impulso* eta **abíxaria**, olloeri arraultzagintzarako jartzen zaiena; **básua**, *el vaso* eta **basúa**, *el bosque;* **gáltzia**, *perder, pérdida* eta **galtzía**, calcetín; **gizónak**, *el hombre* eta **gízonak**, *los hombres;* **miña,** *dolor* eta **miiña**, *lengua, mingaina* (bi **ii** edo **í** luzearekin); **píntxia** taillerretako errekadista edo ofizio ikaslea eta **pintxía** kolorea daukan gauza. Baina, horrez gainera, bereizketarik gabekoetan ere, ematen diogun azentua jarri nahi izan dut, den bezala baliatzeko.

Bestalde, laurehun eta berrogeitamar hitzetik gorako Toribio Etxebarriaren zerrenda honetarako, XVIII. mendean Eibarko Udalak agertu zuen Ordenantza haietarik ere zenbait hautatu dudala. Orduko eibartarrek, herkideek hobeto uler zezaten, bertako hizkerara itzuli baitzuten Pedro Cano Mucientes erregeren korrejidoreak Gipuzkoan hauteskundeetarako jarri zituen Ordenantzak (P. Cano Mucientes zeritzan hura 1754.etik 1758.era bitartean izan zen Gipuzkoako korrejidore).

Ordenantza horien eskuizkribua Toribio Etxebarriak berak eman zion Gregorio Mujikari 1908. urtean eta honek handik bi urtetara argitaratu zuen *Monografía Histórica de la villa de Eibar* (1910) liburuaren eraskinean, 464-467. orrialdeetan.

Badira 1685eko *Kopla zaharrak* ere, Pronbintziako Artxibategian aurkituak eta Antxon Narbaizari esker Eibarko Udalaren Ego ibarrak 1992an argitaratuak. Epaiketa batean ahoz esana idatzira aldatua zenez, bere euskara ez da zuzena eta agertzen diren hitz guziak ezin ditzakegu jatortzat eman.

XIX. mendearen lehen partean, Franzisko Arrate eibartarra izan zen parroko Aginaga auzoko San Migel elizan eta zenbait sermoi eibarreraz idatzirik utzi zituen. Horietako bat, 1992an, adibidetzat argitaratu nuen, Euskaltzaindiak Fr. Luis Villasanteren omenez argitaratu zuen *Iker-6* alearen 435-449. orrialdeetan.

Gaur egun, ahoskeraz, era arruntean ezagutzen ez diren zenbait hitz agertzen zaizkigu beste zerbaiti erantsiak; zalantzarik gabe, gure hirian noizbait erabiliak izan ziren oroitagiri bitxiak ditugu. Esate baterako, **uzta** ez dugu erabiltzen, baina **uzta-pikua** hor dugu Sanjuanak inguruan lehen uztarekin batera heltzen den pikua.

Euskal izena	*Izen ofiziala 1998*	*Udalerriaren euskal izena*
Kanpantxu	Kanpantxu	*Ajangiz*
Kortezubi	Kortezubi	*Kortezubi*
Kukullaga	Kukullaga	*Etxebarri*
Kurtzea, -a	Cruz (La)	*Galdakao*
Kurtzero	Kurtzero (Ugarte)	*Muxika*
Kurtziaga-Arropain	Kurtxiaga-Arropain	*Ispaster*
Lamiako	Lamiako	*Leioa*
Lamindao	Lamindao	*Dima*
Landa	La Campa	*Urduliz*
Landa	Landa	*Sondika*
Landaberde	Landaberde	*Forua*
Landotz	Landotz	*Muxika*
Lanestosa	Lanestosa	*Lanestosa*
Lanzas Agudas	Lanzas Agudas	*Karrantza*
Lariz	Lariz	*Gizaburuaga*
Larrauri	Larrauri	*Mungia*
Larrauri-Markaida	Larrauri-Markaida	*Mungia*
Larreineta	Reineta (La)	*Trapagaran*
Larruskain-Amalloa, -a	Amalloa	*Markina-Xemein*
Laukariz	Laukariz	*Mungia*
Launtzain	Launzain	*Areatza*
Lauroeta	Lauroeta	*Loiu*
Laxier	Laxier	*Gizaburuaga*
Lazkoiti (San Andres)	San Andres Lazkoitiko	*Iurreta*
Leagi	Leagi	*Mendexa*
Legizamon	Legizamon	*Etxebarri*
Leiz-Miñota	Leaniz-Miota	*Elorrio*
Lekeitio	Lekeitio	*Lekeitio*
Lekerika	Lekerika	*Nabarniz*
Lekeriketa	Lekeriketa	*Elorrio*
Lemoa	Lemoa	*Lemoa*
Lendoñobeiti	Lendoño de Abajo	*Urduña*
Lendoñogoiti	Lendoño de Arriba	*Urduña*
Libao	Libano	*Arrieta*
Libaroa	Libarona	*Gatika*
Likoa	Likona	*Mendexa*
Llona	Llona	*Mungia*
Loiate	Loiate	*Igorre*
Loiola-Elexalde	Loiola-Elejalde	*Arratzu*
Lumo	San Pedro de Lumo	*Gernika-Lumo*
Lutxana-Enekuri	Lutxana-Enekuri	*Erandio*
Magdalena	Magdalena	*Ubide*
Magdalena	Magdalena	*Berriatua, -a*
Maguma	Maguna	*Muxika*
Malats	Malats	*Aulesti*
Mallabia, -a	Mallabia	*Mallabia*

Euskal izena	*Izen ofiziala 1998*	*Udalerriaren euskal izena*
Mañaria, -a	Mañaria	*Mañaria*
Mandaluiz	Mandaluniz	*Fruiz*
Mañua, -a	Mañu	*Bermeo*
Manzaneda de Biáñez	Manzaneda de Biáñez	*Karrantza*
Markaida	Markaida	*Mungia*
Markina-Xemein	Markina-Xemein	*Markina-Xemein*
Markio	Markio	*Ugao*
Marmiz	Marmiz	*Mendata*
Martiartu	Martiartu	*Arrigorriaga*
Martzaa	Marzana	*Atxondo*
Marutxaga	Marutxaga	*Mungia*
Matienzo	Matienzo	*Karrantza*
Maurola	Maurolas	*Mungia*
Meabe	Meabe	*Markina-Xemein*
Meaka	Meaka	*Morga*
Meakaur	Meakaur	*Morga*
Mekoleta	Mekoleta	*Otxandio*
Meñakabarrena	Meñakabarrena	*Meñaka*
Mendazoa	Mendazona	*Ispaster*
Mendeika	Mendeika	*Urduña*
Mendieta	Mendieta	*Ajangiz*
Mendiola	Mendiola	*Abadiño*
Mendiondo	Mendiondo	*Urduliz*
Mendiondo	Mendiondo	*Laukiz*
Mendotza	Mendoza	*Gamiz-Fika*
Mendraka	Mendraka	*Elorrio*
Mentxaketa	Mentxakaetas	*Laukiz*
Mercadillo	Mercadillo	*Sopuerta,*
Merelludi	Mereludi	*Berriatua, -a*
Merika	Merika	*Nabarniz*
Mespelerreka	Regato (El)/Mespelerreka	*Barakaldo*
Mesterika	Mesterika	*Meñaka*
Metxika	Metxikas	*Errigoiti*
Milikua, -a (San Juan)	San Juan	*Garai*
Mimetiz	Mimetiz	*Zalla*
Moiordin-Barrondo	Moyordin-Barrondo	*Zaratamo*
Molinar	Molinar	*Karrantza*
Montellano	Montellano	*Galdames*
Moreaga	Moreaga	*Sopela*
Morgaondo	Morgaondo	*Morga*
Mundaka	Mundaka	*Mundaka*
Muñecas, Las	Muñecas (Las)	*Sopuerta,*
Mungia	Mungia	*Mungia*
Muniketa	Muniketa	*Muxika*
Muntsaratz	Muntsaratz	*Abadiño*
Murgoitio	Murgoitio	*Berriz*
Murrieta	Murrieta	*Abanto-Zierbe*
Murtatza	Murtatza	*Bedia*

Euskal izena	*Izen ofiziala 1998*	*Udalerriaren euskal izena*
Murueta	Murueta	*Murueta*
Murueta	Murueta	*Orozko*
Muxika-San Roman	San Roman	*Muxika*
Narea	Narea	*Aulesti*
Natxitua, -a	Natxitua	*Ea*
Nocedal	Nocedal	*Ortuella*
Oba	Oba	*Dima*
Odiaga	Odiaga	*Amoroto*
Oka	Oka	*Muxika*
Okamika	Okamika	*Gizaburuaga*
Okango	Okango	*Berriz*
Olabarri	Olabarri	*Igorre*
Olabarrieta	Barrietas (Las)	*Sopuerta,*
Olabarrieta	Castaños (Los)	*Abanto-Zierbena*
Olabe	Olabe	*Mendata*
Olarra	Olarra	*Arantzazu*
Olatxua-Olabarri, -a	Olatxua-Olabarri	*Arrieta*
Olazabal	Olazabal	*Dima*
Olazabal	Olazabal	*Atxondo*
Oma	Oma	*Kortezubi*
Oñarte	Oñarte	*Morga*
Ondarroa	Ondarroa	*Ondarroa*
Orconera	Orconera (La)	*Ortuella*
Ordorika	Ordorika	*Muxika*
Ormaetxe	Ormaetxe	*Muxika*
Oromiño	Oromiño	*Iurreta*
Oromiño	Oromiño	*Zornotza*
Orozketa	Orozketa	*Iurreta*
Ortuella	Ortuella	*Ortuella*
Osma	Osma	*Mallabia*
Otxandio	Otxandio	*Otxandio*
Otxaran	Ocharan	*Zalla*
Otzerinmendi	Otzerimendi	*Zeanuri*
Pando	Pando	*Turtzioz*
Pando	Pando	*Karrantza*
Pandozales	Pandozales	*Balmaseda*
Parkotxa-Barrionuevo	Parcocha-Barrionuevo	*Trapagaran*
Paúles	Paúles	*Karrantza*
Peñueco	Peñueco	*Balmaseda*
Picón	Picón	*Abanto-Zierbena*
Plentzia	Plentzia	*Plentzia*
Pobeña	Pobeña	*Muskiz*
Portua, -a	Puerto (El)	*Zierbena*
Portugalete	Portugalete	*Portugalete*
Portuondo-Basaran	Portuondo-Basaran	*Mundaka*

Euskal izena	*Izen ofiziala 1998*	*Udalerriaren euskal izena*
Pozueta	Pozueta	*Muxika*
Presa	Presa	*Karrantza*
Putxeta	Putxeta	*Abanto-Zierbena*
Quadra-Lakabex	Quadra (La)	*Gueñes*
Ranero	Ranero	*Karrantza*
Ribas, Las	Ribas (Las)	*Sopuerta,*
Rigada	Rigada (La)	*Muskiz*
Rioseco	Rioseco	*Karrantza*
Rodayega	Errotaiega	*Gordexola*
Romaña	Iglesia (la)	*Turtzioz*
Sallobente-Mendibil	San Lorentzo	*Berriz*
San Agustin Etxebarria	San Agustin	*Elorrio*
San Anton	San Anton	*Aulesti*
San Ciprián	San Cipriano	*Karrantza*
San Esteban Derio	San Esteban	*Derio*
San Esteban Galdames	San Esteban	*Galdames*
San Esteban	San Esteban	*Karrantza*
San Juan Muskiz (1)	San Juan	*Muskiz*
San Julian	San Julian	*Muskiz*
San Mames	San Mamés	*Zierbena*
San Miguel de Linares	San Miguel de Linares	*Artzentales*
San Pedro Abanto (1)	San Pedro	*Abanto-Zierbena*
San Pedro Galdames (1)	San Pedro	*Galdames*
Sandamendi	Sandamendi	*Gordexola*
Sanfuentes	Sanfuentes	*Abanto-Zierbena*
Sangrices	Sangrices	*Karrantza*
Santa Cruz	Santa Cruz	*Artzentales*
Santa Juliana	Santa Juliana	*Abanto-Zierbena*
Santecilla	Santecilla	*Karrantza*
Santelices	Santelices	*Muskiz*
Santiago	Santiago	*Atxondo*
Santurtzi	Santurtzi	*Santurtzi*
Sarasola	Sarasola	*Arteaga-Gaztelu--Elexabeitia*
Saratxaga	Saratxaga	*Plentzia*
Sarria, -a	Sarria	*Berriz*
Sertutxa	Sertutxa	*Gatika*
Sestao	Sestao	*Sestao*
Sierra	Sierra	*Karrantza*
Sodupe	Sodupe	*Gueñes*
Solarte-Gallete	Solarte-Gallete	*Ispaster*
Solatxi	Solatxi	*Zeberio*
Sollano-Llantada	Sollano-Llantada	*Zalla*

Euskal izena	*Izen ofiziala 1998*	*Udalerriaren euskal izena*
Soloaran	Soluanes	*Ispaster*
Soscaño	Soscaño	*Karrantza*
Suceso, El	Suceso (El)	*Karrantza*
Sukarrieta	Sukarrieta	*Sukarrieta*
Totorika	Totorika	*Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz*
Traña-Matiena	Traña-Matiena	*Abadiño*
Trapaga-Causo	Trapaga-Causo	*Trapagaran*
Trapagaran	Valle de Trapaga/Trapagaran	*Trapagaran*
Traslaviña	Traslaviña	*Artzentales*
Traslosheros	Traslosheros	*Artzentales*
Triano	Triano	*Abanto-Zierbena*
Triano	Triano	*Ortuella*
Trobika	Trobika	*Mungia*
Txabarri	Txabarri	*Galdames*
Txakala	Txakale	*Muxika*
Txatxarramendi	Txatxarramendi	*Sukarrieta*
Txipio	Txipio	*Plentzia*
Ubide	San Juan	*Ubide*
Ubilla-Urberuaga	Ubilla-Urberuaga	*Markina-Xemein*
Ugaldeguren Santimami	Santimami	*Zamudio*
Ugaldeguren Santimami	San Mames	*Derio*
Ugao	Ugao-Miraballes	*Ugao*
Ugaran	Ugaran	*Amoroto*
Ugarana, -a	Ugarana	*Dima*
Ugarte	Ugarte	*Arteaga-Gaztelu-Elexabeitia*
Ugarte	Ugarte	*Muxika*
Ugarte	Ugarte	*Gordexola*
Ugarte	Ugarte	*Gatika*
Ugarte	Ugarte	*Trapagaran*
Ugartegoikoa, -a	Ugarte Goikoa	*Muxika*
Ugeraga	Ugeraga	*Sopela*
Unamuntzaga	Unamuntzaga	*Markina-Etxebarria*
Unda	Unda	*Muxika*
Undagoitia, -a	Untxigoiti	*Muxika*
Undurraga	Undurraga	*Zeanuri*
Uparan	Uparan	*Areatza*
Urarte	Pontón (El)-Urarte	*Gordexola*
Urberuaga	Urberuaga	*Forua*
Urbi	Urbi	*Basauri*
Urduña	Orduña	*Urduña*
Urezarantza	Uresarantze	*Gorliz*
Uria, -a	Larrabetzu	*Larrabetzu*
Uribarri	Uribarri	*Arrankudiaga*
Uribarri-Zabaleta	Uribarri-Zabaleta	*Nabarniz*

Euskal izena	*Izen ofiziala 1998*	*Udalerriaren euskal izena*
Uribe	Uribe	*Zeanuri*
Urigoiti	Urigoiti	*Orozko*
Uriondo	Uriondo	*Zeberio*
Urioste	Urioste	*Ortuella*
Urizar	Urizar	*Lemoiz*
Urkiola	Urkiola	*Abadiño*
Urkitzaur	Urkizaur	*Bakio*
Urkizu	Urkizu	*Igorre*
Urresti	Urresti	*Gatika*
Urriola	Urriola	*Aulesti*
Urrutia, -a	Urrutia	*Amoroto*
Usansolo	Usansolo	*Galdakao*
Usparitxa	Usparitxa	*Muxika*
Valle	Valle	*Zierbena*
Villañoko esparrua	Bilañoko Esparrua/ Cerca de Villaño	*Urduña*
Villar	Villar (El)	*Santurtzi*
Zabala	Zabale	*Muxika*
Zabala-Belendiz	Zabala-Belendiz	*Arratzu*
Zabaloetxe	Zabaloetxe	*Loiu*
Zabalondo	Zabalondo	*Mungia*
Zalbidea, -a	Zalbides	*Urduliz*
Zaldibar	Zaldibar	*Zaldibar*
Zaldu	Zaldu	*Gordexola*
Zallo	Zallo	*Gernika-Lumo*
Zangroiz	Sangroniz	*Loiu*
Zangroiz	Zangroiz	*Sondika*
Zaramillo	Zaramillo	*Gueñes*
Zaratamo	Zaratamo	*Zaratamo*
Zeinka-Zearregi	Zeinka-Ziarregi	*Markina-Xemein*
Zelaia, -a	Zelaia	*Mendexa*
Zelaia, -a	Zelaia	*Arantzazu*
Zelaieta	Zelaieta	*Gautegiz-Arteaga*
Zilloiz	Zilloniz	*Muxika*
Ziortza-Goierria, -a	Goierria-Ziortza	*Markina-Xemein*
Zollo-Elexalde	Zollo-Elexalde	*Arrankudiaga*
Zornotza	Amorebieta	*Zornotza*
Zubero	Zubero	*Aulesti*
Zubialde	Zubialde	*Zeberio*
Zubiaur	Zubiaur	*Bakio*
Zubiaur	Zubiaur	*Orozko*
Zubieta	Zubiete	*Gordexola*
Zugastieta	Zugastieta	*Muxika*
Zugaztieta	Arboleda (La)	*Trapagaran*
Zuloaga	Zuluaga	*Arrankudiaga*
Zurbao	Zurbano	*Gatika*

Euskal izena	*Izen ofiziala 1998*	*Udalerriaren euskal izena*
GIPUZKOA		
Abaltzisketa	Abaltzisketa	*Abaltzisketa*
Aduna	Aduna	*Aduna*
Aginaga	Aginaga	*Eibar*
Aginaga	Aginaga	*Usurbil*
Aginaga	Aginaga	*Zumarraga*
Aia	Aia	*Aia*
Aia Ataun (1)	Aia	*Ataun*
Aiastia (San Migel)	San Migel	*Elgoibar*
Aitza	Aitza	*Zarautz*
Aizarna	Aizarna	*Zestoa*
Aizarnazabal	Aizarnazabal	*Aizarnazabal*
Akartegi	Akartegi	*Hondarribia, -a*
Akerregi	Akerregi	*Hernani*
Albiztur	Albiztur	*Albiztur*
Aldaba	Aldaba	*Tolosa*
Alegia	Alegia	*Alegia*
Alegia	Alegia	*Gabiria*
Alkiza	Alkiza	*Alkiza*
Altamira	Altamira	*Beasain*
Altzaga	Altzaga	*Altzaga*
Altzibar-Karrika	Altzibar eta Karrika	*Oiartzun*
Altzo	Altzo	*Altzo*
Altzola	Alzola	*Elgoibar*
Altzolarats	Altzola	*Aia*
Amasa	Amasa	*Villabona-Amasa*
Amezketa	Amezketa	*Amezketa*
Amute	Amute	*Hondarribia, -a*
Andatza	Andatza	*Aia*
Andoain	Andoain	*Andoain*
Anduaga (Santa Lutzia)	Santa Lutzi-Anduaga	*Ezkio-Itsaso*
Angiozar	Angiozar	*Bergara*
Anoeta	Anoeta	*Anoeta*
Añorga	Añorga	*Donostia*
Antzizar	Antzizar	*Beasain*
Antzuola	Antzuola	*Antzuola*
Aozaratza	Aozaratza	*Aretxabaleta*
Apotzaga	Apotzaga	*Eskoriatza*
Apotzaga-Etxebarri	Apotz-Etxebarri	*Aretxabaleta*
Arama	Arama	*Arama*
Arantzazu	Arantzazu	*Oñati*
Araotz	Araotz	*Oñati*
Aratz-Matxinbenta	Aratz-Matxinbenta	*Beasain*
Aratz-Matxinbenta	Matximenta	*Ezkio-Itsaso*
Arditurri	Arditurri	*Oiartzun*
Areantza	Areantza	*Aretxabaleta*
Aretxabaleta	Aretxabaleta	*Aretxabaleta*
Argisain (Santa Marina)	Santa Marina	*Errezil*
Arkarazo	Arkarazo	*Aretxabaleta*
Arkolla	Arkoll	*Hondarribia, -a*
Arragua	Arragua	*Oiartzun*
Arrasate	Arrasate edo Mondragón	*Arrasate*

Euskal izena	*Izen ofiziala 1998*	*Udalerriaren euskal izena*
Arrate	Arrate	*Eibar*
Arrate (San Gregorio)	San Gregorio	*Ataun*
Arriaran	Arriaran	*Beasain*
Arrieta	Arrieta	*Zegama*
Arrietamendi	Arrieta-Mendi	*Azkoitia, -a*
Arroabea, -a	Arroa Bekoa	*Zestoa*
Arroagoia, -a	Arroa Goikoa	*Zestoa*
Arrutiegia, -a	Arrutiegia	*Aia*
Artadi	Artadi	*Zumaia*
Artzainerreka	Artzain Erreka	*Mutriku*
Artzalluz	Artzailuz	*Errezil*
Askizu	Askizu	*Getaria*
Asteasu	Asteasu	*Asteasu*
Astigarraga	Astigarraga	*Astigarraga*
Astigarreta	Astigarreta	*Beasain*
Astigarribia	Astigarribia	*Mutriku*
Ataun	Ataun	*Ataun*
Atsobakar	Atsobakar	*Lasarte-Oria*
Auzotxikia, -a	Auzotxikia	*Tolosa*
Azkoitia, -a	Azkoitia	*Azkoitia, -a*
Azkue (San Roke)	San Roke	*Elgoibar*
Azpeitia, -a	Azpeitia	*Azpeitia, -a*
Azpilgoeta	Azpilgoeta	*Mendaro*
Aztiria, -a	Aztiria	*Gabiria*
Baliarrain	Baliarrain	*Baliarrain*
Barrenaldea, -a	Barren-Aldea	*Zegama*
Basalgo	Basalgo	*Bergara*
Beasain	Beasain	*Beasain*
Beasainmendi	Beasainmendi	*Beasain*
Beballea, -a	Beballara	*Asteasu*
Bedaio	Bedaio	*Tolosa*
Bedoña	Bedoña	*Arrasate*
Beizama	Beizama	*Beizama*
Belauntza	Belauntza	*Belauntza*
Berastegi	Berastegi	*Berastegi*
Berezao	Berezao	*Oñati*
Bergara	Bergara	*Bergara*
Berrobi	Berrobi	*Berrobi*
Bidania, -a	Bidania	*Bidania-Goiatz*
Bidasoa	Bidasoa	*Irun*
Bolibar	Bolibar-Ugazua	*Eskoriatza*
Brinkola	Brinkola	*Legazpi*
Buruntza	Buruntza	*Andoain*
Deba	Deba	*Deba*
Donostia	Donostia/San Sebastián	*Donostia*
Eibar	Eibar	*Eibar*
Eitzaga	Eitzaga	*Getaria*
Elbarren (San Martin)	San Martin	*Ataun*
Elbarrena, -a	Elbarrena	*Zizurkil*

Euskal izena	*Izen ofiziala 1998*	*Udalerriaren euskal izena*
Eldua, -a	Eldua	*Berastegi*
Elduain	Elduain	*Elduain*
Elgeta	Elgeta	*Elgeta*
Elgoibar	Elgoibar	*Elgoibar*
Elizalde	Elizalde	*Oiartzun*
Elizmendi	Elizmendi	*Asteasu*
Elkano	Elkano	*Aia*
Elkano	Elkano	*Zarautz*
Elorregi	Elorregi	*Bergara*
Elosua, -a	Elosu	*Bergara*
Endoia	Endoia	*Zestoa*
Epela, -a	Epele	*Hernani*
Erdoizta	Erdoizta	*Errezil*
Ereñotzu	Ereñozu	*Hernani*
Ergoien	Ergoien	*Oiartzun*
Ergoiena, -a	Ergoiena	*Amezketa*
Errekaballea, -a	Errekaballara	*Asteasu*
Errenteria	Errenteria	*Errenteria*
Errezil	Errezil	*Errezil*
Errotaldea, -a	Errotaldea	*Alegia*
Eskoriatza	Eskoriatza	*Eskoriatza*
Etxabe	Etxabe	*Aizarnazabal*
Etxetaballa	Etxetaballa	*Aia*
Etxezarreta	Etxezarreta	*Aizarnazabal*
Ezama	Ezama	*Errezil*
Ezama (Santa Lutzia)	Santa Luzi	*Tolosa*
Eziago	Eziago	*Hernani*
Ezkio	Ezkio	*Ezkio-Itsaso*
Gabiria	Gabiria	*Gabiria*
Gaintza	Gaintza	*Gaintza*
Galartza	Galartza	*Aretxabaleta*
Galdoa	Galdona	*Mutriku*
Garagaltza	Garagaltza	*Oñati*
Garagartza	Garagartza	*Mendaro*
Garagartza	Garagartza	*Arrasate*
Garibai	Garibai	*Oñati*
Garin	Garin	*Beasain*
Gaztelu	Gaztelu	*Gaztelu*
Gellao	Gellao	*Eskoriatza*
Gesalibar	Gesalibar	*Arrasate*
Getaria	Getaria	*Getaria*
Goialdea, -a	Goialdea	*Zegama*
Goiatz	Goiatz	*Bidania-Goiatz*
Goiballea, -a	Goiballara	*Asteasu*
Goiburu	Goiburu	*Andoain*
Goribar	Goribar	*Oñati*
Gornutz (Montaña)	Montaña	*Hondarribia, -a*
Goroeta	Goroeta	*Aretxabaleta*
Gudugarreta	Gudugarreta	*Beasain*
Hernani	Hernani	*Hernani*

Euskal izena	*Izen ofiziala 1998*	*Udalerriaren euskal izena*
Hernialde	Hernialde	*Hernialde*
Hondarribia, -a	Hondarribia	*Hondarribia, -a*
Ibarbia	Ibarbia	*Errezil*
Ibarra	Ibarra	*Ibarra*
Ibiri	Ibiri	*Mutriku*
Idiazabal	Idiazabal	*Idiazabal*
Idotorbe (San Pedro)	San Pedro	*Elgoibar*
Igeldo	Igeldo	*Donostia*
Ihurre	Yurre	*Olaberria, -a*
Ihurre (San Blas)	San Blas	*Tolosa*
Ikaztegieta	Ikaztegieta	*Ikaztegieta*
Iraeta	Iraeta	*Zestoa*
Irun	Irun	*Irun*
Irura	Irura	*Irura*
Iruretaegia, -a	Iruretaegia	*Aia*
Itsaso	Itsaso	*Ezkio-Itsaso*
Itsaso-Alegia	Itsaso-Alegia	*Ezkio-Itsaso*
Itsasondo	Itsasondo	*Itsasondo*
Iturriotz	Iturriotz	*Oiartzun*
Itziar	Itziar	*Deba*
Izarraitz	Izarraitz	*Azkoitia, -a*
Izurieta	Izurieta	*Aretxabaleta*
Jaitzubia, -a	Jaizubia	*Hondarribia, -a*
Jauregi	Jauregi	*Hernani*
Kalezar	Kalezar	*Usurbil*
Kosta	Kosta	*Hondarribia, -a*
Kurpidea, -a	Kurpidea	*Aia*
Landerbaso	Landarbaso	*Donostia*
Langaurrealdea, -a	Langaurrealdea	*Alegia*
Laranga	Laranga	*Mutriku*
Larraña	Larraña	*Oñati*
Larraul	Larraul	*Larraul*
Larrekoetxea, -a	Larrekoetxe	*Lasarte-Oria*
Larrino	Larrino	*Aretxabaleta*
Lasao	Lasao	*Zestoa*
Lasarte	Lasarte	*Lasarte-Oria*
Laskoain (San Esteban)	San Esteban	*Tolosa*
Lastur	Lastur	*Deba*
Laurgain	Laurgain	*Aia*
Lazkao	Lazkao	*Lazkao*
Lazkaomendi	Lazkaomendi	*Lazkao*
Leaburu	Leaburu	*Leaburu*
Legazpi	Legazpi	*Legazpi*
Legorreta	Legorreta	*Legorreta*
Leintz Gatzaga	Leintz-Gatzaga	*Leintz Gatzaga*
Leizotz	Leizotz	*Andoain*
Letea, -a	Letea	*Errezil*
Lezesarri	Lezesarri	*Oñati*
Lezo	Lezo	*Lezo*
Lizartza	Lizartza	*Lizartza*

Euskal izena	*Izen ofiziala 1998*	*Udalerriaren euskal izena*
Loinatz	Loinatz	*Beasain*
Loiola	Loiola	*Azpeitia, -a*
Maltzaga	Maltzaga	*Eibar*
Mandubia, -a	Mandubia	*Ezkio-Itsaso*
Marin	Marin	*Eskoriatza*
Martindegi	Martindegi	*Hernani*
Mazmela	Mazmela	*Eskoriatza*
Meaga	Meaga	*Getaria*
Meatzerreka	Meatzerreka	*Arrasate*
Mendarozabal	Mendarozabal	*Mendaro*
Mendelu	Mendelu	*Hondarribia, -a*
Mendiola	Mendiola	*Eskoriatza*
Mijoa, -a	Mijoa	*Mutriku*
Mizkia	Mizkia	*Mutriku*
Montezkue	Montezkue	*Tolosa*
Mugitzagaina, -a	Mendi-Txiki	*Aizarnazabal*
Murgia, -a	Murgia	*Oñati*
Mutiloa	Mutiloa	*Mutiloa*
Mutriku	Mutriku	*Mutriku*
Nuarbe	Nuarbe	*Azpeitia, -a*
Oikia	Oikia	*Zumaia*
Olabarrieta	Olabarrieta	*Oñati*
Olabarrieta	Olabarrieta	*Mutriku*
Olaberria, -a	Olaberria	*Olaberria, -a*
Olaran	Olaran	*Zegama*
Olaskoagaegia, -a	Olaskoegia	*Aia*
Olatz	Olatz	*Mutriku*
Oñati	Oñati	*Oñati*
Ordizia	Ordizia	*Ordizia*
Orendain	Orendain	*Orendain*
Orexa	Orexa	*Orexa*
Oria	Oria	*Lasarte-Oria*
Orio	Orio	*Orio*
Ormaiztegi	Ormaiztegi	*Ormaiztegi*
Ormaolamendi	Ormaola-Mendi	*Azkoitia, -a*
Oro	Oro	*Aretxabaleta*
Osinaga	Osiñaga	*Hernani*
Osintxu	Osintxu	*Bergara*
Pagoaga	Pagoaga	*Hernani*
Pasai Antxo	Pasai Antxo	*Pasaia*
Pasai Donibane	Pasai Donibane	*Pasaia*
Pasai San Pedro	Pasai San Pedro	*Pasaia*
Plaza	Plaza	*Mendaro*
Portua, -a	Portua	*Hondarribia, -a*
Salbatore	Salbatore	*Beasain*
Sallobente-Ermuaran	San Lorentzo	*Elgoibar*
San Prudentzio	San Prudentzio	*Getaria*
Santa Barbara	Santa Barbara	*Hernani*

Euskal izena	*Izen ofiziala 1998*	
Santiago Errioa, -a	Santio Erreka	*Aia*
Santxolopeztegi	Santxolopetegi	*Oñati*
Segura	Segura	*Segura*
Senpere	Senpere	*Lazkao*
Sorabilla	Sorabilla	*Andoain*
Soraluze	Soraluze/Placencia de las Armas	*Soraluze*
Telleriarte	Telleriarte	*Legazpi*
Tolosa	Tolosa	*Tolosa*
Torreauzo	Torreauzo	*Oñati*
Txarama	Txarama	*Leaburu*
Txikierdi	Txikierdi	*Usurbil*
Ubera	Ubera	*Bergara*
Udala	Udala	*Arrasate*
Ugaldetxo	Ugaldetxo	*Oiartzun*
Ugarte	Ugarte	*Amezketa*
Ugartemendi	Ugartemendi	*Beasain*
Upazan	Upazan	*Asteasu*
Urdaiaga	Urdaiaga	*Usurbil*
Urdaneta	Urdaneta	*Aia*
Uribarri	Uribarri	*Oñati*
Urkizu	Urkizu	*Tolosa*
Urnieta	Urnieta	*Urnieta*
Urrestilla	Urrestilla	*Azpeitia, -a*
Urretxu	Urretxu	*Urretxu*
Urrexola	Urruxola	*Oñati*
Urteta	Urteta	*Zarautz*
Urtsuaran	Ursuaran	*Idiazabal*
Usabal	Usabal	*Tolosa*
Usurbil	Usurbil	*Usurbil*
Villabona	Villabona	*Villabona-Amasa*
Zaldibia	Zaldibia	*Zaldibia*
Zañartu	Zañartu	*Oñati*
Zarautz	Zarautz	*Zarautz*
Zarimutz	Zarimutz	*Eskoriatza*
Zeatz	Zehatz	*Aizarnazabal*
Zegama	Zegama	*Zegama*
Zerain	Zerain	*Zerain*
Zestoa	Zestoa	*Zestoa*
Zikuñaga	Zikuñaga	*Hernani*
Zimizarga	Semisarga	*Hondarribia, -a*
Zizurkil	Zizurkil	*Zizurkil*
Zubialdea, -a	Zubialde	*Aizarnazabal*
Zubierreka	Zubierreka	*Lazkao*
Zubieta	Zubieta	*Donostia*
Zubieta	Zubieta	*Usurbil*
Zubillaga	Zubillaga	*Oñati*
Zumaia	Zumaia	*Zumaia*
Zumarraga	Zumarraga	*Zumarraga*

BERRIAK

F. KRUTWIG-EN OMENALDIZ GREZIARA EGINIKO BIDAIAREN KRONIKA

1999.eko irailean

Xabier Kintana Urtiaga

1999.eko **irailaren 3an,** goizeko 8,45ean, Bilboko aireportutik Juan Jose Zearreta, Anton Artiñano eta hirurok irten eta, Madrilen eta Bartzelonan eskalak egin ondoren, arratsaldeko lehen orduetan Atenasera heldu ginen. Bertan Sorkunde Belar andrearekin, Lasa Apalategiren alargunarekin, elkartu eta beste hegazkin bat hartu ondoren Kretara abiatu ginen, aski atzeraturik. Khania hiriko aireportura heldu ginenerako jadanik gaua zen. Casa Delfino deritzon hotelean ostatu ginen, eta hiri zaharreko jatetxe txiki batean egin genuen afari-legea.

Irailak 4. Biharamun goizean, Khaniaren inguruan dagoen Nekazaritzaren Aurrerapenerako Ikastegi eder batera joan ginen, helenisten Kongresu bat egiten ari zen lekura. Hara heltzean, Juan Jose Pujana jaunak, Euskal Lege Biltzarraren lehendakari ohiak, ongi etorria eman eta egun hartako programan Federiko Krutwig Sagredoren omenaldia nola zegoen antolaturik azaldu zigun. Ospakizuna 12etan hasi zen Pujanaren beraren grezierazko hitzaldi batekin. Ondoren neronek, Euskaltzaindiaren izenean, bi orrialde irakurri nituen euskaraz, Athanasios A. Tzaknakys kazetari gazteak, erdaraz ere prestaturik eraman nuen testuaz baliatuz, grezierara pasartez pasarte itzuliak.

Beste greziar hizlari batzuek ere hartu zuten parte, Federikoren bizitza eta helenismoaren alde eginiko kultur emaitzak azpimarratuz, Sofopolis edo "Jakituriaren Hiria" sortzeko asmoa batez ere. Azkenik, Alexandros Babatsikos poetak zirrara handiko poema bat eskaini eta jendaurrean irakurri zuen. Biltzarkideen artean Federikoren omenaldiko diploma batzuk banatu ziren eta guk ere horrelako batzuk ekarri genituen.

Biltzar hartan ez ginen gu izan euskaldun bakarrak. Baziren, halaber, Olga Omatos Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia, Geografia eta Historia Fakultateko greziar hizkuntza eta literaturako irakaslea eta beronen hiru ikasle euskaldun ere.

Egun berean, arratsaldeko 5etan, Khaniako portutik itsasontzitxo batean guztiok itsasora irten ginen, greziarrek berek antolaturiko txango batean, Egeoren ur ezinago urdinetan Federikoren errautsak jaurtitzeko, Kreta uhartearen ipar kostatik hurbil. Guztiok pentsatu genuen nekez aurki zitekeela hilerri ederragorik hura baino. Hautsak itsasoratzen ziren artean, *Agur Jaunak* kantatu genion han ginen euskaldun guztiok. Arratsean Kretatik irten eta Atenasera bihurtu ginen A. Artiñano, J. J. Zearreta eta ni, Novotel izeneko hotelean ostatzeko.

Irailak 5. Biharamun goizean hirurok Akropolis aldera joan ginen, Krutwig jaunaren azken errauts multzoa bertan uzteko. Partenon ondoan barreiatu genituen arrautsok, haren nahia bete zedin.

Bazkaldu Plaka auzotegian egin genuen, jatetxe baten terrazan. Arratsaldea Atenasko toki ikusgarriak bisitatzen eman genuen, haien artean Parke Botanikoa, bero handiko klima hartan gerizpe atsegina eskaini ziguna.

Irailak 6. Hurrengo egunean, astelehenez, museoak itxirik egon ohi zirela kontuan harturik, Atenastik Delfosera abiatu ginen, ibilaldi antolatu batean, hango tenplu, orakulu eta estadio famatuak ikusteko asmoz. Kultur ostera ezin interesgarriagoa izan zen.

Irailak 7. Astearte goizean Arkeologi Museo Nazionala bisitatu genuen. Bazkaltzera alde zaharrera joan ginen, Monastiraki deritzon auzotegiraren ondora. Hango patio bateko jatetxean bazkaltzen ari ginela, 2,30 aldean, lurrikara bortitz batek astindu zuen hiria hamar bat segunduz. Gure ondoko etxe zahar bat -zorionez bizilagunik gabea!-bat-batean erori eta inguruko etxeetatik erlaiz-zatiak jausten hasi ziren. Eraikin guztiek dantzan zihardutenlurraren barru-barrutik zetorren indar eta orroi beldurgarrien eraginpean.

Jendea txilioka zebilen eta ikara handiz toki guztietara sakabanatzen hasi ziren. Ondoren beste lurrikara txikiago batzuk gertatu ziren. Inon seguruago ezin egon gintezkeela konturaturik, geunden jatetxean bertan gelditu eta bazkaltzen amaitzea erabaki genuen, ahalik eta patxada handienean. Greziar sukaldaritza aski ona dela aitortu behar.

Bazkalostean kaleetan zehar ibili eta lurrikarak eginiko kalteak geure begiekin egiaztatzeko aukera izan genuen. Turistentzako denda askotan - auzune hartan oso ugari - anitz plater, ontzi eta pitxer hautsi ageri ziren lurrean, erabat hondaturik. Leihoetako berinak ere maiz puskaturik ikus zitezkeen. Jendea plazetan pilatzen zen, eta telefono publikoen aurrean pertsona ilada luzeak egiten ziren. Dendetako kalte materialak oso ugari izan ziren (dendari batek segundu haietan lau milioi drakma [= 2 milioi pezeta, hau da, 12.000 euro] galdu zituela aitortu zigun) eta etxe zaharren ondoan aparkaturiko automobil asko hondaturik ageri ziren, eroritako harri eta adreilu kondarren azpian. Elizak zabalik zeuden eta jendea haraxe abiatzen zen, otoitz egitera.

Berehala hotelera itzuli ginen, geure senideei ongi geundela esateko. Bidean gure bidai agentziako arduraduna, Miltiades jauna, aurkitu genuen Sintagma plazan. Berak azaldu zigunez, lurrikararen epizentroa Atenastik hogeita bat kilometrotara izan omen zen, eta seismoa Richter eskalan 5,7koa izan arren, ez genuela beldurrik izan behar, Atenas aldea harri sendo eta sakona daukan gune baten gainean kokatua delako.

Hotel inguruko etxe zaharren fazadak eta teilatu puskak edonon agertu arren, hotela bera ongi zegoen. Kalte bakarra hoteleko souvenir-dendan nabari zitekeen, pitxer eta figura batzuk dardararekin lurrera erori eta bertan hautsi zirelako. Edonola ere, turista asko beheko solairura jaitsiak ziren, beren maletak eta guzti, handik lehenbailehen alde egiteko gogoaz. Greziatik ihes egiteko histeria kolektiboa nabari-nabari ageri zuten turista gehienek.

Bestetik, gure hotel inguruko lorategietan kosovar eta bosniar familia babestu batzuk metatzen ziren, belartzaren gainean mantak jarrita, gaua zerupean emateko prest. Telebistak etengabeko berriak eskaintzen zituen, eta erreskate-lanak zertan ari ziren ze-

hazki azaltzen. Horrela, etxe-hondakinen azpian harrapaturiko pertsona batzuen salbamena zuzenean segitu eta ikusteko parada hunkigarria izan genuen.

Ez zitzaigun batere erraz gertatu Euskal Herrira telefonatzea. Linea guztiak blokeaturik zeuden, hainbeste deirengatik, baina iluntzean etxekoekin harremanetan jartzeko aukera izan genuen, haiek lasaitzeko.

Irailak 8. Eguerdiko lurrikara handiaren ondoren beste seismo txikiago batzuk ere sentitu genituen. Kalean ez baina hotel barruan geundenean horiek nolabaiteko ikara ematen ziguten, eraikin hartan harrapaturik geldi gintezkeelako. Gauerdian beste astinaldi bat izan genuen eta goizeko bostak inguruan beste bat, handiagoa. Orduan ohetik altxa eta maletak prestatzen hasi ginen. Dutxatu, bizarra moztu eta burua apaintzeko beta hartu genuen. Gosaldu ondoren, maletak hotelaren harreralekuan utzi genituen. Hirian zehar beste ibilalditxo bat egin genuen, zenbait souvenir eta opari erosteko. Bazkaldu Omonia plazako Neon izeneko kafetegian egin genuen, gure ohiko afaldegian, prezio merkean autozerbitzu ona eskaintzen zuten eta.

Arratsaldeko 3,20ean hotelera taxi bat heldu zen gure bila, aeroportura eramateko. Ohi bezala, zirkulazio handia zegoen Atenasen eta denbora asko behar izan genuen haraino heltzeko. Aireportua zoroetxe hutsa zen. Turista guztiek nola edo hala hiritik ihes egin nahi zuten, hegalaldi-datak aldatu eta sinetsi ezineko jukutriak eginez. IBERIA konpainiaren portaera, gurekin behintzat, txarra eta gizabiderik gabea izan zela azpimarratu behar dut.

Atenastik Bartzelonarako bidaia berretsirik genuen baina ez ziguten egiaztatu nahi izan Bartzelona-Bilbao artekoa, eta lotura hori lortuko ote genuen jakin gabe, zalantza horrekin egin behar izan genuen itzuleraren lehen partea. Atenastik 6etan atera ginen, Bartzelonara hiru ordu geroago heltzeko. Zorionean Kataluniako aireportuan Bilborako txartela lortu eta azkenean, gaueko hamar t'erdiak aldean, uste baino ordu erdi beranduago, Euskal Herrirantz irten ginen. Hamaika t'erdietarako jadanik Sondikara helduak ginen. Gure Odisea txikia amaitua zen.

KRETAN F. KRUTWIG-EN OMENALDIAN EGINIKO HITZALDIA

Kretan, 1999ko irailaren 4ean

Xabier Kintana,
euskaltzain osoa

Κυριαι και κυριοι, καλημερα / Jaun-andreok, egun on:

Ohore handia bezain pozgarria da enetzat, non eta hemen, Greziar zibilizazio eta kulturaren iturburu garrantzitsuetako batean, Federiko Krutwig Sagredo euskaldun helenista handiaren oroitzapenezko omenaldi honetan, Euskaltzaindiaren izenean hitz batzuk esan ahal izatea. Poz berretua, bestalde, haren adiskide izateko aukera paregabea izan nuelako. Deus gutxi esan dezaket Krutwig jaunak Greziako hizkuntzaren alde egindako ahalegin eta lanei buruz, zuek ez dakizuenik. Gauza bat ordea, azpimarratu nahi nuke hemen, beharbada, zuen artean bederen, hain ezaguna ez datekeena.

Federiko Krutwig Sagredok zekizkien hizkuntza ugarien artean (gaztelania, alemana, frantsesa, ingelesa, italiera, txinera, arabiera, hindiera...) bi ziren, bereziki, berak bihotzez maitatu eta miretsiak: greziera eta euskara. Bigarrenak euskaldun egin zuen, Euskal Herriko seme jator. Lehenengoak, aldiz, europar, eta mendebaldeko kultura zaharrenaren partaide eta osakide. Bi hauek bereziki ikertu eta landu zituen, eta bietan garrantzi handiko emaitzak eskaini ere bai.

Greziera klasikoa ikasi eta jakiteak mundutar kulturan zer nolako munta duen behin eta berriro azpimarratzen zigun. Eta ez nostalgia hutsez, lehena orainarekin, eta are etorkizunarekin ere, uztartzen ederki zekitenetakoa baikenuen Federiko. Hori dela eta, ondo ohartua zen fisika kuantiko modernoak erakusten digun denboraren ulerkuntza berria hobeki eta zehazkiago adieraz daitekeela greziera klasikoaren egitura gramatikalekin oraingo ohiko hizkuntzetan baino. Horrek aski ongi adierazten digu Krutwigen interes zientifikoa ez zela arlo bakarrera mugatzen, orain unibertsitatean hainbeste bultzatu nahi den diziplinartekotasun horretan ere maisua baitzen, Bizkunde Aroko jakintsuen urratsei jarraikiz.

Egiazko kultura izateko, greziera jakiteak duen garrantzia aldarrikatu ez eze, bere baitan praktikatu eta, erbestetik heldu bezain laster, horretarako elkarte bat sortu zuen 1985ean, *Jakintza baitha* deritzona. Horren partaide batzuk gurekin ditugu, horien artean Juan Jose Pujana jauna, Eusko Legebiltzarraren Buru-ohia, *IEPAΞ Hierax* izeneko aldizkaria argitaratzen arduratzen direnak.

Europak Greziako hizkuntza eta kulturari zenbat zor dien ongiegi zekien Krutwigek. Popper-en eta Whitehead-en iritzikoa zen erabat: "Mendebaldeko filosofia osoa

Platonen orrialdearen behealdeko oharrak besterik ez dela" alegia, uste hori mendebaldar zibilizazio osoari hedatuz. Egia da, noski, Martin Bernal-ek bere *Black Athena* liburu sonatuan zarata handiegiz azpimarratu duen bezala, Grezia klasikoak ere elementu batzuk jaso zituela inguruko herrietatik bere merkatal harremanetan, feniziarren alfabetoa edo eta Egiptoko eskulturaren hasierak, adibidez, baina, Mary Lefkowitz-ek oraintsu bere *Not out of Africa* zinematografi oihartzuneko liburu bikainean ongi frogatu duenez, bakarrean bizi ez den edozein herriren ohiko tratuak gora behera, greziar pentsalari eta artistek bilakaera berezia eta garapen propio bezain originala jakin zieten ematen kanpotik harturiko osagaiei. Eta guztiok gaituzue haien zordun.

Bestalde, Euskal Herriko hizkuntza nazionalari nagokiola, Federiko Krutwig Sagredok aparteko ekarpenak utzi dizkigu. Bata, dudarik ez, literatur hizkuntza batuaren bultzada. Bestea, terminologi irizpide zabalak ezartzea. Dakizuenez, euskara da Mendebaldeko Europan indoeuroparra ez den hizkuntza bakarra. Azken bi mila urteotan erdarez inguraturik egoteak, ordea, lexikoan mailegu asko harrarazi dizkio euskarari, bai latinetik eta bai ondorengo erromantzeetatik ere. Mailegu horietako batzuen fonetika bereziak (errege < regem, lege, bake < *pacem,* gerezia < *cerasia,* gisu < *gypsum,* gertu < *certu)* ongi frogatzen du haien zahartasuna, gure datuen arabera latinezko *-ge-, -gi-, -ke-, -ki-* silabek beren leherkaritasuna III. mendeaz gero galdu zutenez gero. Maileguzko hitz hauek, bestalde, erabat asimilaturik daude hizkuntzan eta maiz hizkuntzalaria izan ezik, ez da erraza izaten horiek kanpotik helduak direla asmatzea.

Geroagoko erromantzeen eragina, ordea, gaztelania-frantsesena batez ere, nabarmenagoa izan da, eta gure hizkuntza orain 20 urte arte ofizialtasunik gabe eta eskoletatik bazterturik egoteak izugarrizko lexiko murrizte eta barbarismo uholdeak ekarri dizkio azken bi mendeotan, grezierari turkiarren pean gertatu zitzaionez. Hori dela eta, indoeuropar edo eta aldameneko hizkuntza nagusien jatorria ez duten Europako beste anitz hizkuntzen antzera (hungariera, finlandiera, bretoiera, txekiera...), hiztunengan, eta bereziki idazleengan, maiz defentsako garbizaletasuna sortu ohi da, eta mintzaira arrotz ofizialetik datozkien berba guztiak beren hizkuntza propioan nola edo hala birmoldatzen ahalegintzen dira, hitz berriak sortuz.

Baina nolabaiteko garbizaletasuna hizkuntza guztietan onargarria bada ere, joera hori azken muturreraino eramanez gero, absurdu bezain kaltegarri bihurtzen da. Guk ere zapalduen konplexupean, ideologia horretako apostolu batzuk izan ditugu, XVIII. mendeko Manuel Larramendi jesuitagandik hasi eta joan den mendeko Sabino Arana eta beronen oraintsu arteko epigonoengana helduz. Horien arabera, euskaraz ongi egiteko, edozein erdaratako hitzak saihestu behar ziren, lexiko osoa euskal erro garbietatik sortuz. Unamuno bera ere iritzi berekoa genuen. Irtenbiderik gabeko bide estu horretan geundela, behinola Koldo Mitxelena irakasleak umorez esan zuen, azken buruan, biologian bezala, hizkuntzetan ere garbizalekeriazko birjintasunak antzutasuna besterik ez dakarrela aldean.

Alde horretatik, Federiko Krutwig izan zen gure artean espainiera-frantsesetatiko mailegu arrunten eta goi mailako kultur hitzen artean errotik bereizi beharra zegoela oharrarazi zigun lehenbizikoa. Funtsean, Pernando Amezketarraren egia biribil horietako bat zioen, Colonen arrautza ospetsuaren kasuan bezala, ordura arte inor hartaz konturatua ez bazen ere: "Nazioarteko hitzak, definizioz, nazio guztietan erabiltzen direnak izanik, geureak ere baditugu euskaldunok, geu ere beste nazio bat garenez gero". Bere inguruan eskola polita sortu zen berehala, eta Francoren kontra zerabilen borro-

kagatik atzerrian bizi behar izan arren, idazle gazte gehienak erakarri zituen. Krutwigen iritziak onartuz, Euskaltzaindiak ere adierazpen sonatu bat egin zuen 1959an, era horretako kultur hitzak, grafia egokiturik, euskal berbak zirela adierazteko. Zer esanik ez, orduan ireki zen leiho horrek kanpoko aire fresko berria ekarri zion gure mintzairari, idazle eta irakurle guztiok eskertua.

Gaur egun, inolako lotsarik gabe, aitzitik, europar tradizioaren iturri garbienetatik edaten dugulako harrotasunaz, euskaraz ere *arkitektura, biologia, fisika, lexikologia, metafora, patriarka, telefono* edo *zibernetika* erabiltzen ditugu, Federikok erakutsiriko bidetik abiatuz.

Eta besterik ez, jaun-andreok, bihotzez eskertzen dizuet erakutsi diguzuen abegikortasuna eta Krutwig jaunaren omenaldi honetan Europako azken hizkuntza egiazki barbaro honetan ni entzuteko izan duzuen kortesiazko eroapenagatik. Eskerrik asko. Ευχαριστο!

TXILLARDEGIREN BIBLIOGRAFIA, AZKUE BIBLIOTEKAK PARATUA

Donostia, 2000-VII-13

José Antonio Arana Martija

Henrike Knörr euskaltzainburuordeak, Zuzendaritzak 1999.eko uztailean egindako bilera baten, Jose Luis Alvarez Enparantza euskaltzain urgazleari Euskal Herriko Unibertsitateak eskainiko zion omenaldi liburuan Euskaltzaindiak parte hartzea proposatu zuen. Euskaltzainek egin ditzateken lanetatik aparte, Euskaltzaindiak berak, kide duen Instituzio gisa, liburu horretarako zerbait prestatzea erabaki zuen Zuzendaritzak eta Azkue Bibliotekaren zerbitzuak erabiliz, Txillardegiren Bibliografia paratzea egokia iruditu zitzaion.

Azkue Bibliotekako zuzendaritzak, Euskaltzaindiaren agindua onartu zuen iraileaan eta bere ondarearen katalogazio lanaren plangintza baztertu gabe, lan berri honen arduraz jabetuz, urria/abendua bitartean burutzeko konpromezua hartu zuen, gero 2000. urtarrilean bukatu zuelarik. Hainbat idazlan eta liburu kaleratu dituen urgazle honen emaitzaren bilketa zehatza egitea benetan neketsua gertatu zen eta egunkarietan aspaldidanik argitaratuak aurkitzea eta zerrendatzea epe laburrean egin ezinezkoa ikusi zenez, bibliografia mugatu beharra argi zegoen. Beraz, *Euskaldunon Egunkaria* izan ezik, beste egunkarietan kaleratutakoak baztertu ziren asmatutako plangintzan. Aipatu euskarazko egunkarian argitaratutakoez gainera, aldizkarietakoak eta liburuak katalogatzen ari izan zen Azkue Biblioteka 954 izenburu edo sarrerak bilduz. Katalogo mardula, txukun koadernatuaren bi ale prestatu ziren, bata Txillardegiri emateko eta bestea Euskaltzaindiaren artxiboan gordetzeko.

Zuzendaritzari aurkeztu zitzaion Katalogo hau 2000.eko martxoaren 3an, Pruden Gartzia bibliotekaren zuzendariak prestatutako hitzaurre batekin, non agertzen den lana prestatzeko jarraitu den metodologia eta xehetasunak. Prest zegoen, beraz, Txillardegiri liburua aurkezteko parada eta ekintza hori nola burutu ere, orduan erabaki zen. Donostian Zuzendaritzak bilera egingo zuen egunean opari gisa ematea iruditu zitzaien bildutakoei. Eta azkenean, uztailaren 12an egingo zen bilerara Txillardegi deitzea pentsatu zen. Eta hala egin ere. Baina egun horretan omenduak Baionan liburu aurkezpena zeukala eta hurrengo egunerako atzeratu zen eskaintzaren unea.

Esan bezala, Donostiako ordezkaritzan bildu ziren Txillardegirekin Henrike Knörr buruordea, Jose Antonio Arana Martija diruzaina eta bibliotekaria, Pruden Gartzia eta Jose Luis Lizundia idazkariordea eta kudeatzailea. Euskaltzaindiaren ordezkari horiek esandako hitz batzuen ondoren, Jose Luis Alvarez Enparantzak jarraian doazen lerroak irakurri zituen, bere esker ona azalduz. Bodega Martin izeneko jantokian bazkalduz

bukatu zen hain samur gertatu zen ekintza, *huntaz eta hartaz* hitz eginez, batere saminik gabe. Onomastika batzordea ere egun berean Donostian bildu zenez, Txillardegi bera mahaiburu zela, han zeuden otorduan Jose Maria Satrustegi eta Andres Iñigo euskaltzain osoak eta Mikel Gorrotxategi urgazlea ere.

TXILLARDEGIREN BIBLIOGRAFIA: 1956-1999

Donostia, 2000-VII-13

Jose Luis Alvarez Enparantza/Txillardegi

Agur adiskide eta lankideok:

Gaurko egun hau oso berezia da niretzat.

"Azkue Bibliotekak" Euskaltzaindiaren aginduz *Txillardegiren Bibliografia: 1956-1999* lan mardula nik eskuz esku jasotzerakoan, ezin utz dezaket aukera hau ezer erantzun gabe.

Ezkerretik eskubira: Prudentzio Gartzia, Azkue Bibliotekako zuzendaria; Jose Luis Alvarez Enparantza/Txillardegi, euskaltzain urgazlea; Henrike Knörr, euskaltzain oso eta euskaltzainburuodea eta Jose Antonio Arana Martija, euskaltzain oso, bibliotekaria eta diruzaina.

Baina labur mintzatuko natzaizue.

Data pare bat oroitaraztetik hasiko naiz.

1947an hasi nintzen euskara lantzen. Urte hartantxe prestatu bainuen, amaren laguntzaz baliaturik, neure lehenengo euskal gramatika "pertsonala": "ni naiz, zu zera, bera da..." blok zatar batean zutabetan paratua.

"Hi haiz"ik ez, jakina: "hablar de hi es muy ordinario", esaten baitzuen amak...

Geroztik, luzaz, 53 urte luzez, nola-hala, euskara lantzeari eutsi diot. Eta gaur berton ere horretan saiatzen naiz.

Eta 1950an, 20 urte nituelarik, euskaraz idazten hasi nintzen. Maila pertsonalean batetik, Bilbotik egunero-egunero bidaltzen bainion gutun bat gaur neure emaztea denari (hura bai "idatz-praktika" ona!). Baina baita izkutuko "prentsan" ere: *erne* isilpeko aleetan aurki daitezke (sinadurarik gabe, jakina) nire lehenengo izkribuak.

Baina sinatutako lanetara etorrita, Prudenek (*) ongi bildu duenez, Alphonse Daudet-en ipuin labur baten itzulpena izan zen nire bataioa. Eta irribarre egin dezazuen, xehetasun batzuk kondatuko dizkizuet.

"Asteasu-ko Beltza" deitzen zuten Antonio Arrueren mandatua betetzeko prestatu nuen itzulpena 1956an: "Aita Gaucher-en mixtela". Zuetakoren batek irakurria duke agian *Egan* aldizkarian.

Caballero izeneko tolosar bat zen garai hartan Gipuzkoako Diputazioko Presidentea. Caballero hau karlista zen.

Hots, honek, fama zenez, berorika hitz egiten omen zion Arrueri! Alegia, asteasuarra gorago zegoen barne-eskalafoian Aldun-Nagusia baino! Eta hau frankismo betean ez zen xehetasun apurra.

Urte haietan, esan beharrik ez, euskararen aldeko lana egin nahi izanez gero, kolore horretako "apaidiñak" bilatu behar ziren; Euskaltzaindiaren kondaira ezagutzen duzuenok ongi dakizuenez.

Hala ere nik neuk, harrigarri gerta badakizueke ere, hein batez, harreman onak izan nituen Arruerekin; ordurako "separatista"tzat fitxatua eta gartzelan egondakoa banintzen ere.

1957ko uztailean ezkondu nintzenean, oso erloju dotorea erregalatu zidan Arruek; lau bolatxo jiraka ibiltzen diren horietakoa.

Eta uda hartantxe izendatu ninduten "urgazle" (**), Aresti-rekin eta idazle-mordoxka batekin batera.

Geroztik 43 urte joan dira. Bizi oso bat, jakina.

Baina, lasai, ez dizuet neure biziera kondatuko. Ezagutzen duzue, gutxi gora behera bederen.

(*) Prudentzio Gartzia, Azkue Bibliotekako zuzendaria.

(**) Euskaltzain urgazle.

Urte luze horietan Euskaltzaindiarekin gorabehera saminak izan ditudala gauza ezaguna da.

Baina joanak joan, eta beude denak beren horretan. Ez da gaurko eguna aspaldiko zaurietan xurgatzeko une egokia.

Gaur nire Bibliografia osoa biltzen duen bilduma bikain hau eskaintzea erabaki duzue.

Nik, Euskaltzaindiak bezala euskara dut, eta izan dut beti, kezka nagusi. Eta, euskara esanez, Euskal Herria esaten dut- Euskara baita gure herriari izana bera ematen diona.

Pruden Gartzia lankideak zehaztu dituen *954* izkribu horiek lekuko (*30* bat liburu barne), ahal nuena egin dut gure hizkuntzari arnasa emateko.

Euskaltzaindia, bestalde, Euskal Herri osoko erakunde nagusia da. Eta nik, honetan ere aburukide, ez dut Bidasoa-Ahuñemendiko muga ontzat ematen. Haritschelhar ipartarra honenbeste urtez Euskaltzainburu egon izanaz pozten naiz. Irakaskai ederra eman duzue honetan. Bai horixe!

Euskaltzaindiak, azkenik, ospe-maila galanta eta errespetua lortu ditu euskal gizartean, et hau altxor garrantzitsua da gure hizkuntzaren etorkizunari buruz.

Egoitza dotoreak eta liburutegi galantak lortu ditu Euskaltzaindiak; eta lankide mordoska egoki bana hiriburuetan.

Nekez egon ninteke ni, beraz, Euskaltzaindiaren aurka. Eta ez nago, jakina. Zenbait erabaki, kontsentsu eta bazterketa nabarmenetan arrunt kontra egon banaiz ere.

Bibliografia zehatz hau zuek prestatzea eta eskuz esku ematea, ohore zait. Eta pozgarri ere bai, jakina.

Ez dut ahantziko.

Euskaltzaindiari, horretaz, eta Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako zuzendari eta adiskideari bereziki, eta bihotzez.

Mila esker anitz!

TERNUAN ETA QUÉBEC-EN
(Euskaltzaindiarentzako txostena)

Donibane Lohizune, 2000-VII-22

Henrike Knörr

Ternuako Northern Peninsula Heritage Society deritzanak gonbidaturik, eta Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak horretarako eman diruari esker, uztailaren 23tik 25ra Ternuan parte hartu nuen elkarte horrek urtero antolatzen duen historia biltzarrean. Biltzar hori Selma Huxley Barkham historialariaren eraginez egiten da, Ternua eta Labrador probintziak ordaindua.



Québec-eko Commission de Toponymine deritzanaren egoitzan.
Ezkerretik eskuinera: Henri Dorion, Chistian Bonnelly, Henrike Knörr eta Marc Richard. 2000ko ekainaren 28an.

Biltzarra Ternuako Ipar-mendebaldeko kostan dagoen Bird Cove herrixkan izan zen, entzuleria handiarekin. Hamabi txosten aurkeztu ziren bi egun horietan, Ternua eta Labradorreko historiari buruz.

Aukeraz baliaturik, zenbait bisita egin genituen biltzarkideok. Jakina denez, euskaldun arrantzaleak han aritu ziren XVI. eta XVII. mendeetan. Ternuako kosta hori *the Basque coast* deitzen zen garai batez, eta asko dira han eta Labradorren gure herritarrek jarritako izenak, hala nola *Baia Ederra* (egun *Bonne Bay*), *Portutxoa* (orain *Port-au-Choix*), edo *Ferrol Zaharra* (gaur *Plum Point*). Ternuako ingelesean gelditu da euskal hitzen bat, nahiz eta desitxuratua: *barratxo*, "badia bateko lur-muturra", gaur *barachois*. Ezaguna da orobat Martin Oihartzabal Ziburukoak frantsesez idatzi eta 1579an Bordelen argitaratu zuela itsasgizonentzako arruta-liburua, ia mende bat geroago Pierres Etxeberri, ezizenez *Dorre*, donibandarrak euskarara itzuli zuena, testu gehiago sarturik, *Itsasoko nabigazionea* tituluarekin (Baiona 1677, ikus facsimile argitalpena, Donostia 1985). Etxeberrik egin zuen, gainera, Ternuako mapa bat, hango agintariek eskaturik.

Bisita horien artean aipa daiteke Labradorreko Red Bay-ra egin nuena. Euskaldun baleazaleen *Buttus* izenez ezaguna zen portu horretan museo interesgarri bat dago, berriztapen lanak egin ondoren hil honen 29an berrinauguratuko dena. Toki hura *National Historic Site* gisa aurkitzen da duela zenbait urtez gero.

Ternuako Sinposiumaren bukaeran.
Ezkerretik eskuinera: René Enguehard, Françoise Enguehara, Selma Huxley, Robert Cormier, Henrike Knörr.
2000ko ekainaren 25ean.

Québec.eko bisita

Québec-era joan nintzen gero, eta han bilera interesgarri bat izan nuen *Commission de Toponymie* izeneko zuzendaritzakoekin. Horietako bi, Henri Dorion eta Christian Bonnelly, Donostian izan ziren hizlari aurreko egunetan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak antolaturiko mintegian.

Commission de Toponymie hori 1977an sortu zen, René Levesque Québec-eko presidenteak aurreko urteko hausteskundeetan irabazle gertatu ondoren. *Charte de la langue française* deritzan legeak aipatzen zuen 3. kapituluan, Office de la langue française izenekora lotua.

Lan handia burutu du batzordeak probintzia osoko izenen gainean, argitalpenetan eta urteko txostenean nabari denez. Lehendik elkarrekin genituen loturak sendotu dira orain. Bereziki aipagarri iruditzen zait nazioarteko mailan (demagun, Frantziako Institut Géographique National, Nazio Batuak, Michelin mapa eta giden argitaletxea, e.a.) egiteko asmoa dugun lana, gure leku-izenen forma jatorra erabil dadin.

AURKEZPENAK

TOPONIMIA MEDIEVAL EN EL PAÍS VASCO
LIBURUKIEN AURKEZPENA

EN LA PRESENTACIÓN DEL ÚLTIMO VOLUMEN DE *TOPONIMIA MEDIEVAL EN EL PAÍS VASCO* DE ÁNGELES LÍBANO ZUMALACÁRREGUI

Bilbao, 2000-V-12

Henrike Knörr, académico de número
y presidente de la Comisión
de Onomástica de la Real Academia
de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia

Es el de hoy un día importante para todos. Presentamos el cuarto y último volumen de *Toponimia medieval en el País Vasco,* de la Profesora Ángeles Líbano Zumalacárregui, una extensa recopilación de nombres de lugar, mayor y menor, de la vieja Vasconia, cada uno con su contexto.

Desde los primeros pasos de los estudios vascos, en el sentido más amplio de este concepto, y también restringiéndolo a la lengua vasca, ha sido un constante *desideratum* el disponer de repertorios toponímicos abundantes y fiables como instrumento esencial para la investigación. En el caso de la lengua vasca, es evidente que el interés era comparativamente mayor (comparativamente en relación con otros dominios lingüísticos), pues los textos propiamente en euskara comienzan en una fecha tardía, de modo que debemos conformarnos con lo que nos transmite la onomástica. Pero la misma investigación histórica precisaba de estos materiales, debidamente ordenados, para dilucidar no pocos puntos oscuros y para identificar rápidamente infinidad de nombres.

Ése era y es el objetivo de esta colección, Onomasticon Vasconiae: la publicación de materiales onomásticos, paso previo para la investigación que aporta conclusiones y perspectivas.

Ha sido un alto honor acoger en esta colección el fruto del trabajo, largo y penoso, de Ángeles Líbano, cuya tenacidad y entrega quisiera destacar en estas breves palabras. Es conocido que desde hace ya muchos años ella ha cultivado el campo, muchas veces árido e ingrato, de los nombres propios, principalmente personales, en la Edad Media, casi siempre en asociación con el excelente medievalista vizcaino José Ángel García de Cortázar. Son contribuciones que, juntamente con otras publicadas en los últimos años, ayudan a comprender mejor nuestro pasado lingüístico e histórico, cuya complejidad salta a la vista, con sus interrogantes, sus problemas, sus enigmas.

Este libro, como varios de la misma colección, no podrían haberse materializado sin el generoso patrocinio de la Universidad del País Vasco, institución con la que Euskaltzaindia tiene un convenio desde hace ya varios años. Deseo expresar aquí a la Uni-

versidad, representada en este acto por el Rector, el profundo reconocimiento de la Academia por este amparo, por esta colaboración que esperamos siga siendo tan fértil como hasta ahora.

En este rincón, dramáticamente convulso, de la Europa suroccidental, tenemos derecho a la esperanza y a un futuro de paz y libertad. Para conseguir ese futuro no son en modo alguno secundarios los desvelos en pro de la cultura y de la enseñanza. Estas parcelas, importantísimas, que cultivamos, y entre ellas la atención a nuestro pasado histórico y lingüístico, sirven para hacernos más conscientes de una riqueza que no debe echarse por la borda, ni debe simplificarse en nombre de tal o cual pensamiento raquítico y espurio. Yo quisiera destacar una vez más el papel que a las Universidades y a las Academias les corresponde en la propagación de un espíritu abierto, para conquistar un porvenir más plenamente humano.

PRESENTACIÓN DE LA OBRA *TOPONIMIA MEDIEVAL EN EL PAÍS VASCO* (4 VOLS.). Bilbao, Euskaltzaindia, 1995, 1996, 1999, 2000

Bilbao, 12-V-2000

Ángeles Líbano

Excelentísimo Sr. Rector de la UPV/EHU, Excmo. Sr. Vicepresidente de Euskaltzaindia, Academia de la Lengua Vasca, estimados compañeros, familiares y amigos aquí presentes, señoras y señores, la obra que presentamos hoy es el resultado de años de trabajo iniciado en la década de los ochenta y financiado, en parte, por Euskaltzaindia, Institución a la que estoy doblemente agradecida. Mi más sincera gratitud va dirigida a esta Casa en general, y en particular a aquellos miembros de la *Comisión de Onomástica* que no dudaron en apoyar la iniciativa que, en el otoño de 1987, se presentaba con la incertidumbre de la investigadora consciente de las dificultades que debe afrontar en un proyecto tan ambicioso, pero dispuesta a luchar si cuenta con el apoyo necesario de las Instituciones, compañeros de equipo y además prestigiosos medievalistas. El acto académico que nos ha reunido hoy aquí, en la sede de Euskaltzaindia en Bilbao, es culminación brillante de aquel voto de confianza; el proyecto de *Toponimia medieval en el País Vasco* –en el que incluimos también la comunidad de Navarra– ha llegado definitivamente a su fin.

Deseo hacer público reconocimiento aquí a las diversas, continuas y desinteresadas colaboraciones que se nos han ido ofreciendo desde los inicios de nuestro trabajo hasta los últimos momentos; sería incorrecto e injusto por mi parte ignorar el inestimable respaldo de prestigiosos medievalistas, filólogos y, en definitiva, buenos compañeros que impidieron con sus orientaciones y apoyo el desánimo, incluso el descarrilamiento del arduo proyecto que nos impusimos; a todos ellos desde aquí mi más sincero y profundo agradecimiento.

La ayuda institucional para llevar a buen puerto nuestro trabajo llegó también de mano de otras instituciones; en primer lugar la Universidad del País Vasco/EHU y la Diputación Foral de Álava subvencionaron la edición del primer volumen (correspondiente a la letra A) presentado en el Vicerrectorado del campus de Álava.

Finalmente, en este punto deseamos ofrecer un particular reconocimiento al responsable de las labores editoriales de esta Casa y buen compañero don Ricardo Badiola, sin cuyo empeño y dedicación la edición de los tres volúmenes restantes hubiera sido imposible.

Tras estas obligadas palabras de reconocimiento reseñaré brevemente unas líneas sobre el objetivo, espacio, tiempo y *corpus* de este proyecto. En él ofrecemos la recopilación de la toponimia mayor, *macrotoponimia* –o nombres de espacios o lugares mayores– y menor, *microtoponimia* –espacios de extensión geográfica más reducida– que figura en los documentos notariales y concejiles referidos a Álava, Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra; sabíamos desde nuestro planteamiento inicial que el proyecto era muy extenso y ambicioso, y que contaríamos en principio con cuatro becarios, recién licenciados, que a media jornada fueron subvencionados por Euskaltzaindia; en aquellos años nos empujaba también el ánimo de nuestra juventud. El espacio geográfico estaba bien delimitado en cuanto al tiempo, la propia documentación nos guió a concretar el estudio desde la primera documentación existente, más o menos de comienzos del siglo X hasta el XIII, centuria en la que los análisis toponímicos basados en testimonios medievales debe llevarse a cabo individualmente, pues la documentación resulta ya inabarcable en conjunto.

El problema añadido que presentan los territorios de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya es que los textos relacionados con cada uno de ellos se encuentran dispersos en cartularios y diplomas medievales referidos a otros territorios, es decir, en la documentación de la Rioja, Aragón y Castilla; Navarra cuenta con sus propios testimonios. A manera de ejemplo, se ha expurgado el *Cartulario de Valpuesta*, el de *San Millán de la Cogolla*, *El Cartulario de San Juan de la Peña*, *La Colección Diplomática de la Rioja*, etc., además de las obras de medievalistas historiadores y otros estudiosos, como G. Martínez Díez, E. Barrena Osoro, J. Mª Lacarra, G. Balparda y de las Herrerías, que reúnen en sus páginas textos referentes a la formación de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya.

Aplicaciones y estudios histórico-lingüísticos

De forma muy general pasaré ahora a especificar algunos de los estudios que se pueden realizar a partir del riquísimo material contenido en estos volúmenes. Los nombres propios de lugar, esto es, la toponimia, son elementos léxicos que, si bien en numerosas ocasiones permanecen fosilizados, reflejan, no obstante, diversos fenómenos sobre el desarrollo y acontecer lingüístico que pueden ser una gran ayuda para la interpretación y comprensión de asuntos relacionados con la historia de los pueblos y de su cultura, manifestaciones de sus creencias, mitos y otros factores relacionados son su vida cotidiana.

Pues bien, tomando como punto de partida este material, hemos ido trazando en líneas generales, en el territorio que elegimos, la convivencia lingüística de determinadas variedades comunicativas; el contacto, como indicaba Luis Michelena, se realizaría, en primer lugar, entre la lengua vasca y la latina, y después entre aquélla y la romance. Así pues, las variaciones de los nombres de lugar muestran que en el antiguo territorio por donde se extendía la lengua vasca se utilizaba, en los siglos X-XIII el romance, continuador del primitivo latín, junto a la lengua autóctona. De aquí los cambios o acomodaciones de los topónimos: el *Fuero de Vitoria* advierte textualmente:

"Placuit mihi ... populare in prefata uilla cui nouum nomen imposui scilicet *Victoria*, que ante uocabatur *Gasteiz*".

Las dos lenguas, la románica y la no románica, convivieron libremente en una misma área, sin que podamos establecer con fiabilidad meridiana las fronteras territoriales entre una y otra; véanse la formación de compuestos toponímicos sobre vocablos vascos: *Ataondo, Ataburu, Iturgoien, Huribarri...*, y latino-romances: *Alta Petra, Burgo Novo, Villamorosa, Villa Nueva ...*

Otro dato que podemos destacar como estudiosos de la historia de le lengua románica de nuestra zona norteña es que, si bien los redactores de los textos, los amanuenses, utilizaban una lengua específica propia de su oficio en la Alta Edad Media, el latín, conocían otra variedad a la que se refieren con cierta frecuencia y claridad en aquellos casos en que debían agregar el nombre de lugar o topónimo, indicativo de un núcleo de población o de una posesión. Bien es sabido que el onomástico no suele mantener siempre la evolución general del sistema lingüístico por muy diversas razones, y en esta situación particular, el amanuense no disponía de fórmulas o sintagmas aprendidos en el período de formación como escriba; sin embargo, era capaz de escribirlos; aunque no le hubieran enseñado cómo hacerlo. Consideramos por ello que sería su propio conocimiento lingüístico el que determinaba la decisión de cómo grafiar las nuevas entidades de población, reflejando en cierto modo el nombre y uso por el que los posibles lectores del documento identificarían el lugar o propiedad nominada, de modo que pudiera reconocerse tanto ésta como su propietario. Así pues, al registrar las entidades nuevas agregaba la fórmula latina *qui vulgo uocatur, qui vulgo dicitur*

uilla que dicitur Nalda, que sita est prope rivum, *qui vulgo uocatur* Iregua" [1]; "De ipso monasterio quod est situm in valle que *uulgo dicitur* Oiuni" [2].

Ante términos más concretos se decidía por expresiones como *que vocatur, quo vocitant, qui dicitur, que apellatur...;* citamos como ejemplo los siguientes; ante *decania,*[3] "unum monasterium [...] Cum tres suas decanias, una Ibargorzorika et alia *decania quo vocitant Tuda" (Millánl,* 1082); *loco,* "una area pro tribus solidus et medio et de *loco qui dicitur Izurzu* de Munio Gominiz de Muniken" (*Guipual,* 0947); *pardina* [4], "Ego prefatus rex Petrus et dono illam *pardinam que vocatur Oroztegui* , cum suis terminis et appendiccis omnibus" (*Guipual,* 1101); *villa, "*areas salinarum quae habui compara-

(1) Rodríguez de Lama I., *Colección diplomática medieval de la Rioja (923-1168),* (3 vols.), Logroño, 1976 [1187]

(2) Lacarra, J.Mª, *Colección diplomática de Irache. I.* (958-1222), Zaragoza, 1965 [1032].

(3) 'Fincas o iglesias rurales propiedad de un monasterio' que aglutinaban, a su vez, diversas posesiones y derechos (García de Cortázar, J.A. *El dominio del monasterio de San Millán de la Cogolla (siglos X al XIII). Introducción a la Historia rural de Castilla altomedieval,* Salamanca Universidad, 1969:211.

(4) 'Terreno de pasto' variante propiamente aragonesa (Nortes Valls, O., "Estudio léxico latino medieval en diplomas aragoneses anteriores a 1157. (Términos referentes a la composición de la sociedad y de la vida rural", *Archivo de Filología Aragonesa XXIV-XXV,* 1979, 15-255: 331 que ofrecía gran variedad de significados en este territorio; en nuestra cita remite a un 'tipo de explotación con otras propiedades'

(5) El reciente trabajo de Rodón Binué, E., "Documentación léxica latino medieval pirenaica", *Homenaje a la profesora Carmen Orcástegui Gross,* Universidad de Zaragoza, P.U., 1999, 1325-1335:1327, atestigua, en las fuentes latinas medievales, idéntica aclaración.

tas in *villa que dicitur Geniz" (Guipual* , 0947); Ego dompnus Nunnus [...] Comparavi unum solare cum sual divisa *in villa que dicitur Berroztegieta" (Millanl,* 1106) [5].

¿Indicaría este sintagma la forma vulgar de designación toponímica o acaso la forma común? [6].

Para finalizar sólo me queda insistir en mis primeras palabras de gratitud y satisfacción, a la vez que añadir, para corresponder el voto de confianza que las dos instituciones aquí representadas me otorgaron, que dos décadas después de iniciar este trabajo, es decir, en este año 2000, formo parte de un grupo de investigación interuniversitario, coordinado y multidisciplinar, que con ayuda en este caso del Ministerio de Educación y Ciencia, hemos publicado ya un libro monográfico [7] y nos proponemos finalizar un proyecto sobre la *Organización social del espacio en el antiguo Reino de Castilla*, basado en el análisis de los topónimos, en el que soy responsable de la particularización de la zona comprendida por Álava, Guipúzcoa y Vizcaya, y cuyos resultados más relevantes aparecerán en fechas próximas.

Muchas gracias por su amabilidad y presencia.

(6) Cf. Echenique Elizondo, M.T. y Quilis Merín, M. 1993: 623-32. "Latín, castellano y lengua vasca en los orígenes románicos", Hilty, G. (ed.), *Actes du XXe Congrès International de Linguistique et Philologie Romanes* (Zurich, 1992), II, III, Tübingen, Francke Basel, 1993 : 623-32.

(7) "Lengua y organización social del espacio: espacios lingüísticos en el norte peninsular en los siglos IX a XIII", en *Del Cantábrico al Duero: Trece estudios sobre organización social del espacio en los siglos VIII a XIII.* J.A. García de Cortázar (ed.) Universidad de Cantabria, P.U.1999, pp.49-74.

TOPONIMIA MEDIEVAL EN EL PAÍS VASCO

Bilbao, Sede, 2000-V-12

Manuel Montero,
UPV/EHU errektorea

Jaun-Andreok, egunon guztioi:

Hauxe da errektore bezala Euskaltzaindia bisitatzen dudan lehenengo aldia eta esan behar dut atsegin handiz natorrela. Gaur aurkezten dugun obra handi honen hitzaurrean José Angel García de Cortazarrek dioen bezala, toponimia bertan bizi den giza taldearen ispilua da. Leku izenek burura dakarzkigute beste garai batzuetako oihartzunak. Haietara jo behar dugu gure historiaren zenbait alde ezagutu nahi badugu. Beraz, lan erraldoi honi ekin eta bukatu izana beti eskertu behar izango diogu Angeles Libanori hizkuntzalari, antropologo, geografo eta historiagileok bereziki, baita gure munduarekiko interesik duen edonork ere.

Gainera, Euskal Herrian ez da gehiegi aztertu Erdi Aroko toponimia eta kontutan hartu behar da berandura arte idatzi ez zen hizkuntzaren lehenengo berriak ematen dizkigutela leku izen hauek. Horregatik ezinbestekoa da Angeles Libano irakasleak egindako lan erraldoia, XIII. mendea baino lehenagoko dokumentu sakabanatuak astiro eta zehaztasunez aztertuz, orduko eskribauek entzun eta transkribatu zutenaren arrastoa ikertu eta bildu baitu

Hala ere, lan handi hori isilpean geratuko zatekeen, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratzeko ahalegina egin ez balute. Gure hitzarmenak fruitu asko eman ditu dagoeneko eta fruitu gehiago emango du aurrerantzean. Hau bezalako liburuak ez dira inoiz komertzialak izango, baina, zalantzarik gabe, beharrezkoak dira, gure mundua nolakoa izan zen eta zelakoa den ezagutzeko. Toponimia ere denon ondarea da; beraz, zaindu behar dugu. Aurrerakuntza geldiezina da, noski, baina adeitasunez jokatu behar dugu, ingurugiroarekin eta toponimia ere ingurugiroari dagokio, zeren izen zaharrak desagertzen badira, berreskuratu ezin izango dugun gure historiaren zati bat galduko baitugu.

Bestalde, zera azpimarratu nahi nuke: askotan hitz egiten da liburu elektronikoaz, baina ez dut uste inoiz ordezkatu ahal izango direnik hauek bezalako liburu ederrak. Atsegin handiz hartu eta irakurtzen da, ondo zaindu behar dugun objektua da, kanpotik eta lehen esan bezala, barrutik ere.

* * *

La toponimia ha sido muchas veces fuente de polémicas. Para dilucidarlas es y seguirá siendo fundamental la investigación. A partir de ahora los expertos podrán consultar esta magna obra, cuyos dos últimos volúmenes presentamos hoy. Si algún calificativo se puede otorgar al trabajo realizado por la profesora de nuestra Universidad Angeles Líbano sería el de exhaustivo. Esta nunca será una obra de gran difusión, pero también es innegable que será objeto de consulta de todo geógrafo, filólogo o historiador interesado por el País Vasco, porque todos estos topónimos reflejan una realidad histórica y lingüística que ha pervivido a lo largo de los siglos. Creo que el largo camino que ha recorrido esta obra hasta verse culminada ha merecido la pena y le auguro una larga vida.

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: 1999ko *LITERATURA SARIAK*

Bilbo, 2000-VI-16

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.
Euskaltzaindiaren egoitza

Eguerdi on denei. Ongi etorri zuri, Jose Ramon Bilbao BBK Fundazioko ordezkaria eta ongi etorri bero bat ene aitzinean ikusten ditudan saridunei. Berehala hasiko dugu gure ekitaldia eta hitza ematen diot Juan Mari Lekuona Literatura batzordeburuari.

LITERATURA SARIAK: 1999AN SARITUTAKO LANEN ARGITALPENA

2000-VI-16

Juan Mari Lekona,
euskaltzain osoa eta literatura batzordeburua

Eskerrik asko hitza eman didanari, Euskaltzaindiko buru den Jean Haritschelharri. Eta bide batez barkamena eskatu ere bai nire marrantagatik, honek debeku apur bat jartzen dizuelako niri entzuten, eta arreta berezia eskatu ere bai, esaten dizuedana jasotzeko. Barka, beraz.

Gaurko ekitaldira saritutakoak etorri egin zaizkigu lanen aurkezpenera, eta hori estimagarria da guretzat. Bestalde, liburuak, iadanik argitaraturik, berandu antzean iristen zaizkigu ezer tajuzkorik prestatzeko. Horregatik, uste dugu parada honetaz, autoreak hemen egoteaz alegia, guk baliatu behar dugula lanen plazaratzea mamitzeko.

Saritutakoei eskatuko diegu, liburuak hemen aipatzen diren ordenean, bakoitzak bere lanaren aurkezpena egin dezala, esanez zertaz ari den liburua, zergatik gauzatu duten horrela, zein diren helburu nagusiak eta abar. Onuragarri dela uste dugu gure galdera zabalei zuek ikuspegi zehatzetik erantzutea, norberak ezagutzen duenez ongienik egindakoaren kinka bizia.

Lehenik Juan Luis Zabalaren *Hautsia natza* poemategia. Zuzeneko ezagupidea dut liburu honi buruz, epai-mahaikoa izan nintzenez. Eta zer esanik ez autoreaz, Juan Luis nire ikaslea izan zelako Deustuko Unibertsitatean, Donostiako campus-ean. Esango nuke Juan Luis Zabala Azkoitiko eskolarekin lotzen dela, Azkoitian poesi eskola bat izan denez eta badenez, Nemesio Etxanizen inguruan, XIX. mendean Jose Ignazio Arana jesuitaren urratsetan, eta gaur Felipe Juaristi, Iñigo Aranberri eta Juan Luis Zabalaren lanak lekuko. Uste dut euskal poesiak eskola moduko bat daukala Azkoitian. Eta 1999an Felipe Arrese Beitia irabazi zuen poemaren liburua aurkezten dugu. Egileak berak azal diezagula liburuaren mamia eta agertu lanaren asmoak.

Bigarren Aitor Arana, zeinak irabazi baitu Txomin Agirre izeneko saria *Ipuin-entzulea* eleberriarekin. Oraingo euskal literaturan aitzindaritza hartu duen genero honi ez diot izan alorrak merezi adinako ezagutza edo estimurik, poesiari izan diodan bezala. Horregatik irabazleari eskatuko nioke zer-edo-zer esan diezagula, berak ondutako testuari buruz, edota kontestuari buruz ere bai, argigarri izango zaigulako, eleberrigintza hobeto ezagutzeko eta Aitorren beraren ibilpideaz ezaguera zehatzagoa izateko.

Hirugarren, Jose Manuel Odriozola Lizarribar, saiakeraren alorrean Mikel Zarate saria irabazi duena, *Nazio identitatea eta eskola* idazlanari esker. Gauza jakina da, saia-

kera generoa literatura-leihaketetatik kanpo gelditu dela sariketa batzuetan. Hala ere, BBK Literatura leihaketak eta Euskaltzaindiak eutsi egin diote alor honi. Ez dira asko izaten aurkeztutako lanak. Zailtasuna, behar bada, generoak berak ezartzen du, ez delako erraza izaten idazle mordoska edukitzea, ongi jantzia kultura-mailan, generoak eskatu bezala, eta idazle trebatua, esperientzia handikoa, saiakera landuko duena, arnasa luzeko emaitza burutuko duena. Dena dela, guk Jose Manuel Odriozolari eskatuko diogu zer-edo-zer esan diezagula bere lanari buruz: bilatzen dituen helburuak, bere formazioa eta kezkak, estiloa eta abar. Argigarri izango zaigu esaten diguna.

Laugarren Mikel Ugalde Ugarte da, Toribio Altzaga saria irabazi duena, *Bake biltzarraren ildotik* antzerki idazlanari esker. Mikel Ugalde aspalditik dut ezaguna. Hau ere ikasle izana dut Donostiako Seminarioan. Ogibidez irakaslea, teatroa landu izan du batez ere **Ereintza**-n, bere jaioterrian, Errenterian. Euskal teatroak lehen adinbateko garapena herri mailan ez duen horretan, —Hegoaldean behintzat, Iparraldekoak gehiago dabiltzan ustea dugu— eskatuko genioke Mikeli ager diezagula nola ikusten duen teatroaren krisialdia, eta gero jakinarazi saritutako bere teatroaren xehetasunak.

JOXE MANUEL ODRIOZOLA LIZARRIBAR: *MIKEL ZARATE* SAIO-SARIA. 1999

NAZIO-IDENTITATE ETA ESKOLA

1. Estatu-nazioaren aroa

— Estatu-nazioaren nazionalismoan eskola izan da nazio-identitatearen sentimendua eta kultura gehien transmititu duena.

— Kontzientzia nazionalaren ideologia eskola-umearen baitan txertatzeko asmoa zehatza eta planifikatua izan da Estatu-nazioaren aldetik.

— Nazio-identitatea ez da nork bere eskura aukeran daukan nortasun-bidea. Ez da aukerakoa, nahitaezkoa baizik, hots, sozializazioaren prozesuan geure izatearen oinarrian dagoen errealitate soziokulturala da.

2. Globalizazioaren aroa

— Pentsamendu bakarraren aro berri honek lehendik hegemonikoa den Estatu-nazioaren identitate nazionala ez du arriskuan jartzen, baina bai Estaturik gabeko nazio menderatuen nortasuna.

— Erlatibismo kulturala eta unibertsalismoa uztartuz sortuko diren balio nazionalak sustatu behar genituzke euskal nazio-identitatearen garapenerako.

3. Euskal eskola eta nazio-identitatea

— Euskal nazionalismoak oraindik ez du euskal eskolaren bidez euskal nortasuna garatzeko biderik eta modurik aurkitu. Ez asmoetan ez eguneroko jardunetan.

— Euskara umezurtz dabil erabat eskola-umeen artean, ez dauka behar hainbateko hartu-emanik gainerako identitate-elementuekin (kultura, historia...). Euskal balio propioak garatu behar lituzkeen euskal eskolaren oinarriak finkatu gabe dauzkagu oraindik.

Joxe Manuel Odriozola Lizarribar

Jaioterria: Altzo (1948-02-09).

Lanbidea: Euskara irakaslea Pasaiako Udal Euskaltegian.

Argitaratutako liburuak: *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian* (UEU, 1992). *Soziolinguistikaren atarian* (Euskaltzaindia-BBK *Mikel Zarate* saria, 1992). *Hizkuntza, kultura eta gizartea* (Euskaltzaindia-BBK, *Mikel Zarate* saria, 1997).

* * *

JOXE MANUEL ODRIOZOLA LIZARRIBAR: PREMIO DE ENSAYO *MIKEL ZARATE.* 1999

LA IDENTIDAD NACIONAL Y LA ESCUELA

1. En la época del Estado-nación

— En el nacionalismo del Estado-nación la escuela ha sido el principal instrumento transmisor del sentimiento de la identidad nacional.

— El Estado-nación ha mostrado una voluntad clara y planificada de transmitir, desde la propia escuela, la ideología de la conciencia nacional.

— La identidad nacional no es algo que las personas tengan a su disposición de una forma optativa. No es una elección, es algo evidente e inevitable, una realidad sociocultural que está presente en nuestro proceso de socialización.

2. En la época de la globalización

— Esta nueva era del pensamiento único no pone en peligro la identidad nacional del Estado-nación hegemónico, pero sí la personalidad de las naciones sin estado.

3. Escuela vasca e identidad nacional

— El nacionalismo vasco no ha encontrado aún el camino para definir la personalidad vasca a través de la escuela vasca.

— El euskera está totalmente huérfano entre los niños de edad escolar, no tiene las suficientes relaciones con el resto de los elementos que conforman la identidad (cultura, historia...). Todavía están sin perfilar las bases de una escuela vasca que garanticen la consecución de unos valores vascos propios.

* * *

Joxe Manuel Odriozola Lizarribar

Lugar de nacimiento: Altzo (09-II-1948).
Profesión: profesor de euskera en el Euskaltegi Municipal de Pasaia.
Obra publicada: *Gerraurreko gizarte-hizkuntzalaritza Euskal Herrian* (UEU, 1992). *Soziolinguistikaren atarian* (Euskaltzaindia-BBK Premio *Mikel Zarate,* 1992). *Hizkuntza, kultura eta gizartea*" (Euskaltzaindia-BBk, Premio *Mikel Zarate,* 1997).

AITOR ARANA LAUZURIAGA: *TXOMIN AGIRRE* ELEBERRI SARIA. 1999

IPUIN-ENTZULEA

Gizon irakurzale bat munduko ipuinik onenaren bila dabil eta horretarako, emakume idazle ezagun bat bahitu du. Bertatik ihes egiterik ez dagoen bere etxetzarrean sartu eta handik ihes egiterik ez duela erakutsiko dio, harik eta ipuinik onena berari kontatu arte. Idazleak direnak eta ez direnak egingo ditu askatasuna berreskuratzearren, ihesaldiak prestatuz eta, aldi berean, zorioneko ipuin on hori asmatu nahian.

Aitor Arana Lauzuriaga

Aitor Arana (Legazpi, 1963). Hamazazpi urterekin idazten hasia. Lau urtez (1983-1987) euskara irakaslea izana Legazpiko AEK eta Udal Euskaltegian. XUT literatur aldizkariko lankide eta arduraduna. Sei urtez Legazpiko HOTS kultur aldizkariko lankide eta zenbait urtez arduraduna.

Liburu sortuak:

Azkonarren laguna (Elkar, 1987).
Loaren bidez (SM, 1990).
Afrikako semea (Elkar, 1991).
Jainko Txikia (Elkar, 1994).
Ipuin lizunak (Kriselu, 1994).
Urtegi misteriotsua (Elkar, 1994).
Ipuin ilunak (Kriselu, 1995).
Buztantxoren larrialdiak (Elkar, 1996).
Haize gorria (Kriselu, 1996).
Uxue eta Urtzi (Ibaizabal, 1997).
Gaueko ortzadarra (Pamiela, 1997).
Nijterida eta Koomori saguzarrak (Ibaizabal, 1998).
Herauskorritse (Mensajero, 1998).

Itzulpen lanak ere eginak ditu, eta esperantoaren inguruan iharduteaz gain (*Esperantoa ikasgai:* Hots, 1990), euskara-hungariera oinarrizko hiztegia (Gura, 1998), eta ingeleserazkoa (Hippocrene Books, 1998) landu ditu.

Sarien artean, azpimarratzekoak dira Bilintx (1987), Baporea (1989), Azkue (1990), eta Txomin Agirre (1999).

* * *

AITOR ARANA LAUZURIAGA: PREMIO DE NOVELA *TXOMIN AGIRRE.* 1999

IPUIN-ENTZULEA

Un lector se lanza a la búsqueda del mejor cuento del mundo, y con ese propósito secuestra a una conocida escritora. La encierra en su casa, de la que será imposible escapar hasta que no le narre el mejor de los cuentos. La escritora hará lo imposible por recuperar la libertad, preparará una fuga y, al mismo tiempo, intentará crear ese cuento tan ansiado por su secuestrador.

Aitor Arana Lauzuriaga

Aitor Arana (Legazpi, 1963). Comienza a escribir a los diecisiete años. Ejerce como profesor de euskara entre los años 1983 y 1987 en AEK y en el Euskaltegi Municipal de Legazpi. Participa en calidad de responsable en la revista literaria *Xut.* A lo largo de seis años ha sido redactor, y también director, de la revista cultural de Legazpi *Hots.*

Obra literaria:

Azkonarren laguna (Elkar, 1987).
Loaren bidez (SM, 1990).
Afrikako semea (Elkar, 1991).
Jainko Txikia (Elkar, 1994).
Ipuin lizunak (Kriselu, 1994).
Urtegi misteriotsua (Elkar, 1994).
Ipuin ilunak (Kriselu, 1995).
Buztantxoren larrialdiak (Elkar, 1996).
Haize gorria (Kriselu, 1996).
Uxue eta Urtzi (Ibaizabal, 1997).
Gaueko ortzadarra (Pamiela, 1997).
Nijterida eta Koomori saguzarrak (Ibaizabal, 1998).
Herauskorritse (Mensajero, 1998).

También se ha prodigado en el campo de la traducción y es autor de varias obras sobre el esperanto (*"Esperantoa ikasgai": Hots,* 1990). Asimismo ha elaborado un diccionario euskara-húngaro (*Gura,* 1998), y otro euskara-inglés (*Hippocreme Books,* 1998).

Entre los premios recibidos, cabe destacar los siguientes: Bilintx (1987), Baporea (1989), Azkue (1990) y Txomin Agirre (1999).

JUAN LUIS ZABALA ARTETXE: *FELIPE ARRESE BEITIA* OLERKI-SARIA 1999

HAUTSIA NATZA

"Inongo jainkorik eta inolako federen babesik gabe eta hil egin behar duela jakinik bizi den gizakiaren haustura" da poemarioaren gai nagusia, Zabalak dioenez, "eta gai nagusi horri dagokio poema gehienen tonua ere".

"*Hautsia natza* liburuko poemagintza surrealismoaren eta abangoardiaren zordun da", Zabalaren aburuz, "baina badu *after-punk* deitu izan den joera musikalaren arrastorik ere". Nitasun guztiz pertsonal baten barne-hausturaren azalpenaren bidez, egungo eta hemengo gizakia islatzen saiatu naiz, bertso librean, gordin, lakar eta lakatz, baina zuzentasunez eta neurriz hala ere adierazpide poetikoari dagokionez. Kaosa kaiolatzeko ahalegin ordenatu bat da, bere ahaleginaren antzutasunaz kontzientzia osoz jabetua.".

Juan Luis Zabala Artetxe

Juan Luis Zabala (Azkoitia, 1963) Euskal Filologian lizentziatua da, eta 1990z geroztik *Euskaldunon Egunkaria*-n egiten du lan, Kultura saileko erredaktore. Egun, hala ere, lanuztean edo eszedentzian dago, irakurtzeko eta idazteko denbora gehiago izateko.

Narratibako zazpi libururen egilea. Eta argia ikusten duenean bere lehen poema liburua izango du *Hautsia natza*. Honako hauek dira Zabalak orain artean argitaratutako zazpi liburuak:

Zigarrokin ziztrin baten azken keak (Elkar, 1985; nobela).
Ahanzturaren artxipielagoa (Elar, 1987; ipuinak).
Gertaerei begira (Elar, 1988; ipuinak).
Kaka esplikatzen (Elkar, 1989; nobela).
Sakoneta (Susa, 1994; ipuinak).
Galdu arte (Susa, 1996; nobela).
Harri barruko bihotz-borrokak (Elkarlanean, 1999; gazte-literaturako ipuin bilduma).

Liburuez landa, ipuin eta artikulu ugari argitaratu du hainbat aldizkari eta egunkaritan: *Susa, Literatur Gazeta, Plazara, Hemen, Euskaldunon Egunkaria, Egin, Gara, Egan, Ostiela!, Buztinikaria, Putz...*

Hainbat sari ere irabazi du: Tene Mujika ipuin iehiaketaren lehen edizioa 1984an; Resurreccion Maria de Azkue saria urte berean, *Zigarrokin baten azken keak* nobelarekin; Donostia Hiria ipuin lehiaketako 2. Saria eta kazetaritzako Rikardo Arregi saria 1994an; euskarazko narratibako Kritikaren Saria 1997an, *Galdu arte* nobelarekin.

* * *

JUAN LUIS ZABALA ARTETXE: PREMIO DE POESÍA *FELIPE ARRESE BEITIA*. 1999

HAUTSIA NATZA

"La ruptura que sufre en su seno un ser que vive sin creencia en ningún dios ni fe alguna, que además subsiste a sabiendas de que su muerte se encuentra cercana". Éste es, según el autor de la obra, el tema central de la misma.

"El bagaje poético de *Hautsia natza* se apoya en buena parte en el surrealismo y la vanguardia", si bien, explica Zabala, "también muestra cierto tono de *after-punk*. He tratado de dar fiel reflejo de un ser humano contextualizado en la época actual y en un espacio concreto, mediante la ruptura interior de la mismidad más personal, de forma cruda, valiéndome del verso libre, pero manteniéndome formalmente dentro de las reglas de la expresividad poética. Se trata de una forma ordenada de enjaular el caos, pero siempre consciente de que éste es un esfuerzo baldío".

Juan Luis Zabala Artetxe

Juan Luis Zabala (Azkoitia, 1963), licenciado en Filología Vasca, es desde 1990 redactor de Cultura en *Euskaldunon Egunkaria*, si bien en la actualidad se encuentra en excedencia y dedica su tiempo a la lectura y la escritura.

Su trabajo narrativo se resume en un total de siete libros y *Hautsi natza* será su primera obra poética publicada. Estos son los libros que han visto la luz hasta el momento:

Zigarrokin ziztrin baten azken keak (Elkar, 1985; novela).
Ahanzturaren artxipielagoa (Elkar, 1987; cuentos).
Gertaerei begira (Elkar, 1988; cuentos).
Kaka esplikatzen (Elkar, 1989; novela).
Sakoneta (Susa, 1994; cuentos).
Galdu arte (Susa, 1996; novela).
Harri barruko bihotz-borrokak (Elkarlanean, 1999; colección de cuentos de literatura juvenil).

Asimismo es autor de infinidad de artículos de prensa en diversos medios de difusión escrita: *Susa, Literatur Gazeta, Plazara, Hemen, Euskaldunon Egunkaria, Egin, Gara, Egan, Ostiela!, Buztinikaria, Putz...*

También es acreedór de un buen número de premios: la primera edición del concurso de cuentos Tene Mujika, en 1984; el premio Azkue ese mismo año, con la novela *Zigarrokin baten azken keak*; segundo premio del concurso de cuentos Ciudad de Donostia, y premio de trabajos periodísticos Rikardo Arregi en 1994; Premio de la Crítica de Euskadi 1997 por su novela *Galdu arte*.

MIKEL UGALDE UGARTE: *TORIBIO ALTZAGA* ANTZERKI-SARIA. 1999

BAKE BILTZARRAREN ILDOTIK

Bakearen gaiaren inguruan egituratutako antzerki lana da. Gure herrian gerta daitezkeen hainbat gatazka gune haintzat hartu eta horren inguruan halako hausnarketa baten bidetik jarraitzera deitzen gaitu Mikel Ugaldek. Langabezia, euskararen inguruan hainbatek sortu nahi duen auzia, etorkinen inguruko hainbat jarrera, familia barruan gerta daitezkeen gorabeherak eta, azkenik, bakebide politikoa, eta berau sendotzeko zenbait politikarik erakusten duen ezintasuna ditu egileak lan honetan mintzagai. Bakearen gaia, bada, era orokortuan hartzen duela esan daiteke. Beste era batera esanda, arlo bakoitzean bakebidea zabalduz planteatzen du gure gizarteak aldarrikatzen duen bakera eraman gaitzakeen irtenbidea.

Mikel Ugalde Ugarte

Errenterian 1940an jaioa. Lanbide heziketan elektrizista ikasi ondoren, Donostiako Apaizgaitegian filosofia ikasketak egina. Erroman filosofia ikasi eta Valentzian lizentziatua. Helbideen munduan aritua: Zeruko Argian, Eginen lehen aldian, irratian herriko berri emaile bezala. Sindikalgintzan ELAn bost urte egin eta gero, bere urterik gehienak irakaskuntzan eman ditu Santo Tomas Lizeoan, Txingudi ikastolan, Bidebietan, Azpeitian. Gaur egun Donostiako pedagogia aholkularitzategian dihardu. Euskararen Aholku Batzordean lau urte egin zituen bertako lan batzordeen koordinazio lanetan.

Aspaldi honetan isildu samartua den arren, artikulu ugari idatzi izan du Zeruko Argian eta Deian. Inoiz *Egunkarian* ere iritzi artikuluak kaleratzen ditu. "Langileria historian zehar" izeneko bi liburu idatzi zituen. Horretaz gain, itzulpen lanetan ere aritu izan da. Andoni Kortaren omenez idatzitako "Añarberen bila" antzerki lana *Egan* aldizkarian argitaratu zuen.

Gaztetan Ereintza antzerki taldea martxan jarri zuenetako bat izan zen, baina urte asko egin ditu antzerki mundutik at. Duela hiru urte Andoni Kortaren omenaldia zela eta, Ereintza taldea berriro bildu eta geroztik talde lanean dihardu. Joan zen urtean Ugalderen *Jaioko dira berriak* taularatu zuen Ereintza taldeak.

Gaur egun, euskal antzerki talde amateurren elkarteko (EATAE) zuzendaritzako kide da.

* * *

MIKEL UGALDE UGARTE: PREMIO DE TEATRO *TORIBIO ALTZAGA*. 1999

UNA OBRA EN TORNO A LA BÚSQUEDA DE LA PAZ

La obra *Bake biltzarraen ildotik* plantea el momento que actualmente está viviendo la sociedad vasca en la búsqueda de la paz.

El tema de la paz se sitúa en un contexto más amplio. Para ello, a lo largo de la obra se recorren momentos y situaciones que, de alguna manera, pueden ser motivo de conflictos que dificultan la paz. La repercusión que el paro tiene en el ámbito juvenil, la actitud que en ocasiones se muestra en torno al tema de la inmigración de ciudadanos africanos, el interés que determinados grupos tienen por convertir el euskera en fuente de problemas y conflictos, la propia convivencia familiar con las consiguientes dificultades sobre decisiones que han de adoptar los hijos y la incapacidad que algunos políticos demuestran por encarar el tema de la paz constituyen el conjunto de temas sobre los que el autor ha construido su obra.

Mikel Ugalde Ugarte

Nació hace 59 años en Errenteria. Después de estudiar para electricista acude al seminario de Donostia donde estudia Filosofía. En Roma cursa estudios de Filosofía obteniendo posteriormente la Licenciatura de Filosofía y Letras por la Universidad de Valencia. Interesado por el mundo de la comunicación en euskera, trabaja en el semanario vasco *Zeruko Argia,* así como en los comienzos de la vida de *Egin.* Posteriormente, después de un período de cinco años en la Federación de Empleados y Técnicos de ELA, se dedica a la enseñanza de Lengua y Literatura Vasca en Enseñanzas Medias.

Actualmente participa como miembro del Centro de Orientación Pedagógica de Donostia, en el programa de normalización que llevan a cabo centros escolares de la capital guipuzcoana. Ha tomado parte en el Consejo Asesor del Euskera, como coordinador de las comisiones especiales intervinientes en dicho consejo.

Ha publicado una historia del movimiento obrero y tiene traducidos dos libros dedicados a la pintura vasca y la historia de Gipuzkoa, respectivamente. La revista *Egan* publicó la obra teatral *Añarberen bila* (En busca de Añarbe) dedicada a la memoria de Andoni Korta, creador y director del grupo de teatro Ereintza. A lo largo del pasado año, el citado grupo interpretó la obra de Ugalde *Jaioko dira berriak,* de corte costumbrista.

En la actualidad forma parte de la junta directiva de EATAE, agrupación de grupos de teatro amateur en euskera.

BBK-EUSKALTZAINDIA LITERATUR SARIAK: 2000.eko OINARRIEN eta 1999ko LIBURU SARITUEN Aurkezpena

Bilbo, 2000-VI-16

José Ramón Bilbao,
Bilbao Bizkaia Kutxako ordezkaria

Eguerdi on jaun-andreok.

Lehenengo eta behin, eskerrak gura deutsuedaz emon, Bilbao Bizkaia Kutxaren izenean. Eskerrak Euskaltzaindiari, Literatur sariketok kudeatzeagatik. Eskerrak eta zorionak, igaz irabazi eta gaur zeuon beharra liburu bihurturik ikusi dozuen idazleoi. Eta eskerrak baita be, honen barri emongo dozuen kazetarioi, zuek be ezinbesteko maila zarielako kate honetan.

Atsegin osoz aurkezten doguz liburuok eta aurtengo sarien oinarriak. Izan be, BBK eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzak 30 urtetik gora dauka, eta aurrerantzean be halan izango dala esatera ausartuko nintzake.

Aurten sarien oinarrien ganean zera esango neuke, orain artekoak baino pisu gitxiagokoak dirala, baina mamina bera edo handiagoa dala. Hau da, literatura, literaturgileentzat itzi dogu, eta oinarrietatik kendu, orain arteko 12 orrialdeetatik 4ra laburtuz. Baina ez ikaratu. Barrua bete-betea dalako.

Eta oinarriei jagokenez, neurriak eta sariak hortxe dozuez lehengo orrialdean:

- *Txomin Agirre* Eleberri saria: 125 orri, gitxienez, eta 1.300.000 pta.
- *Toribio Altzaga* Antzerki saria: gura dan neurria eta 800.000 pta.
- *Felipe Arrese* Olerki saria: 750 bertso-lerro, gitxienez, eta 800.000 pta.
- *Mikel Zarate* Saio saria: 125 orri, gitxienez, eta 1.000.000 pta.

Lanak aurkezteko epea urriaren 16an amaituko da, gaurtik lau hilera, hain justu. Epaileek, abenduaren 31rako emon beharko dabe euren erabakia; beraz, hilabete bi eta erdi eukiko dabe beharrerako.

Betiko moduan, Euskaltzaindiak eta BBK-k, urtebeterako gordeko dabe eurentzat lan irabazleen argitaralpen-eskubidea, eta gauzak asko aldatzen ez badira, eskubide hori, gaur ikusten dozuen moduan, lanok duin argitaratzeko erabiliko dogu.

Barritasun moduan, azalpenik behar ez dauan baldintza bat sartu dogu 3. atalean, hau da, ez dala onartuko beste inon saritutako lanik.

Hori dana eta beste zehaztasun batzuk be, hortxe dozuez, oinarriotan.

Hemendik aurrera geratzen dan gauza bakarra idazleak animatzea da, partehartze haundia izango dan itxaropen osoan.

Beste barik, abenduan sariak banatzeko barriro alkarregaz izango garalakoan, agur danori.

BBK-EUSKALTZAINDIA
1999ko LITERATURA SARIAK. Azken hitzak

Bilbo, egoitzan, 2000-VI-16

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Ekitaldi honen bukatzeko, ene azken hitzak. Euskaltzaindiaren izenean, zuei, eskerrik beroenak BBK gure laguntzaileari. Elgarrekin lan ona egiten dugu lau sari horiek antolatuz eta pentsatzen dut segituko dugula aspaldian hasi duguna euskararen onerako.

Berriz ere ene zorionak eskaintzen dizkiet lau saridunei eta eskerrak ere kazetariei, ahantzi gabe epaimahaikoak, denen beharra baitugu. Eta orain bukatutzat emaiten dut goizeko ekitaldi hau.

FRAI BARTOLOME SANTA TERESA: *LAN GUZTIAK*

Frai Bartolome Santa Teresa: LAN GUZTIAK

Aurkezpena

Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundiko Jauregian,
2000.eko uztailaren 4an

Aurkezleak / Presentadores

I. Bizkaiko Foru Diputaziotik: Ana Madariaga, Kulturako diputatua;

II. Bilbao Bizkaia Kutxatik, Gorka Martinez BBK Fundazioburua;

III. Euskaltzainditik: J.A. Arana Martija, euskaltzain oso, liburuzain eta diruzaina;

IV. *Karmel* argitara etxetik: Julen Urkitza eta Luis Baraiazarra paratzaile eta edizio kritikoa burutu dutenak;

* * *

Oharra: Euskaltzaindiaren *Euskararen lekukoak* bildumaren 20.liburukia eta *Karmel* sortaren 12.liburukia.

Frai Bartolome Santa Teresa-ren *LAN GUZTIAK* Interneten daude Bizkaiko Foru Aldundiko, BBK eta Euskaltzaindiko Web gunetan.

Frai Bartolome Santa Teresa: LAN GUZTIAK

Bilbon, 2000ko uztailaren 4an.

Ana Madariaga,
Bizkaiko Foru Aldundiko
Kulturako diputatua

Egun on, jaun-andreok:

Atsegin haundiagaz parte hartzen dot, Kulturako foru diputatua nazen honek, Bizkaiko euskereari buruz inoz egin dan argitalpenik garrantzitsuena gizartearen aurrean jartzeko egiten dogun aurkezpen honetan.

Euskal literaturaren benetako bitxi bati buruz dihardugu, egin-eginean bere, bizkaiera klasikoaren jakitunik handienekotzat jotzen dala, XVII. mendeko azkenetan eta XIX. mendearen hasieretan bizi izan zan Frai Bartolome Santa Teresa idazle karmeldarraren *Idazlan Guztiak* edizino kritikoan batzen dituan liburuari buruz.

Gure hizkuntzaren ikertzaile handiak diran Julen Urkitza eta Luis Baraiazarra karmeldarrak gertatutako edizino kritiko honek hainbat gauza barri ditu. Lehen aldiz batzen ditu egilearen lan guztiak. Bertan, orain arte argitaratu bako idazlanak eta eskuizkribuak daukaz.

Arloan jakitunak diranen esanetan, aitatutako egileari buruz inoz egin dan edizinorik ederrena dogu.

Esan daikegu, gainera, argitalpen hau gure Bizkaiko klasikoak ikertzeko oinarrizko eta bazterrezinezko lanabesa dogula, Internet erabiliz be kontsultatu ahal izango da. Bertsino digitala dagoeneko eskura dozue Aldundiaren, Euskaltzaindiaren eta BBKren web orrietan.

Liburu eder hau argitaratuta ikusteak harrotasunez bete nauala autortu behar deutsuet.

Nire poz honek bi iturburu ditu: lehenengoa, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak gogo biziz ikusi eta bultzatu dauan proiektua izatea; bigarrena, erakundeen eta gizarteko taldeen arteko lankidetzaren emaitza dogula ikustea.

Eskerrak emon gura deutset, bada, Euskaltzaindiari eta Karmel argitaletxeari izan daben ekimenagatik eta lan eder hau aurrera eroateko Bizkaiko Foru Aldundira laguntza eske jo dabelako. Era berean, eskerrak Bilbao Bizkaia Kutxari be, beraren laguntza oso preminazkoa izan dalako.

Amaitzeko, lan honek izugarrizko ekarpena egiten deutsola euskal literaturari eta, era berean, oinarrizkoa dogula Bizkaiko kultur ondarea berreskuratzeko nabarmendu gura neuke.

PRESENTACIÓN DE LAS OBRAS COMPLETAS DE FRAI BARTOLOMÉ SANTA TERESA

Bilbao, 4 de julio de 2000

Intervención de la Diputada de Cultura,
Ana Madariaga

Buenos días a todos y todas:

Es una gran satisfacción para esta Diputada Foral de Cultura participar en la presentación en sociedad de la más importante publicación que se haya hecho nunca sobre el euskera bizkaino.

Hablamos de una auténtica joya de la literatura vasca, concretamente de las Obras Completas, en su edición crítica, del escritor Frai Bartolomé Santa Teresa, carmelita de finales del siglo XVIII y principios del XIX, considerado como una de las máximas autoridades del vizkaino clásico.

Esta edición crítica, realizada por dos grandes estudiosos de nuestra lengua, los carmelitas Julen Urkiza y Luis Baraiazarra, presenta importantes novedades. Por primera vez recoge toda la obra de este autor. En la misma se incluyen trabajos y manuscritos hasta ahora inéditos.

A decir de los entendidos en la materia, estamos ante la mejor edición crítica realizada en torno al citado autor. Podemos afirmar, además, que esta publicación se ha convertido en la herramienta básica e imprescindible para la investigación de nuestros clásicos bizkainos, a la cual se podrá acceder, también, a través de Internet. Su versión digital está ya incluida en las páginas web de la Diputación, Euskaltzaindia y la BBK.

Tengo que reconocer que me siento muy orgullosa de que este libro por fin haya visto la luz.

El motivo de mi satisfacción es doble. En primer lugar, porque se trata de un proyecto muy querido por el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, y, en segundo lugar, porque es fruto de la colaboración interinstitucional y social.

Desde aquí quiero felicitar a Euskaltzaindia y a la editorial Karmel por su iniciativa, y agradecerles que contaran con la Diputación Foral de Bizkaia para sacar adelante esta empresa. También expresamos nuestro agradecimiento a la Bilbao Bizkaia Kutxa, ya que su contribución ha sido fundamental.

Para finalizar, destacaría que esta obra, además de ser clave para la recuperación del patrimonio cultural de Bizkaia, su aportación a la literatura vasca es de un valor incalculable

FRAI BARTOLOME SANTA TERESA: *LAN GUZTIAK AURKEZTEAN*

Bilbo, 2000-VII-04

Jose Antonio Arana Martija,
euskaltzain oso, liburuzain eta diruzaina

Egun batzuk barru beteko dira ehun urte 1900.eko uztailaren 31n Bizkaiko Diputazioaren jauregi eder hau inauguratu zen egunetik, Luis Aladren arkitektoaren gidaritzapean hamar urtean eraikitako egoitza, hain zuzen. Eta ehun urte igaro dira Diputazioak bere zerbitzuak hemen kokatu zituenetik, Plaza Barrian zeukan egoitza utziz, non orain dagoen Euskaltzaindiak daukan berea. Gaur dator berriz Euskaltzaindia –ez baita lehen aldia– idazle bizkaitar baten lan osoak aurkeztera, beronek nahi zuen idazkeran Prai Bartolome de Santa Teresa karmeldar etxebarritarrarenak.

Baina jauregi honen aipamena ez da anekdota hutsa, hemen ernaldu baitzen gure Akademia 1918.eko urtarrilean Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu diputatuek sortzea proposatu zutenean, gero lau Diputazioek jaiotza agiria sinatuz. Euskarak eta Euskaltzaindiak beti izan dute etxe honetan babesa, gerra osteko aldi larrietan ere Diputazio honen Euskal Kulturaren Batzordeak eman baitzion bizitzeko arnasa, salbuespenak salbuespen. Baimen eta laguntza horren haria eten barik jarraitu duen instituzioari eskerrik beroenak zor dizkiogu, gaurko gertakizunak ematen baitugu, berriz, eskerrona agertzeko parada.

Duela berrehun urte –ikusten duzuenez ehun urteka goaz– Juan Antonio Mogelekin (1745-1804) harremanak izan zituen Wilhelm Humboldt hizkuntzalari alemanak, eta haren iritzi eta gogoaren aurka euskaldunoi esan zigun gure hizkuntzak ez zuela ehun urte iraungo. Hala gertatuko zen, apika, Bizkaiari dagokionetik, ez balitz sortu bizkaiera literarioaren une eta gunea. Hizkuntza baten indartze, hedatze eta biziarazotzea herrian datza, baina idazleek ematen diote arautzea eta bizi ahal izateko erabileraren normalizazioa. Horrezaz gain, norberaren txokoko mintzaira zatikatuari, moldezko letretan ematen diote goragoko maila. Liburuetan inprimatua ikusteak beste hizkuntzak duten bezalako "kategoria" adierazten die hiztunak soilik direnei.

Hemeretzigarren mendearen hasieran gertatu zen hau Bizkaian. Eta Pedro Antonio Añibarro areatzarra (1748-1830) eta Juan Mateo Zabala bilbotarra (1777-1840) aparte utzita, Markinaldea izan zen bizkaiera literarioaren sorlekua. Hangoak ziren edo han idatzi zuten Juan Antonio Mogel Urkiza, lehen aipatuak, Bartolome Madariga Garate, gaur omentzen dugun Prai Bartolome de Santa Teresa karmeldarrak (1768-1836), Juan Jose Mogel Elgezabal (1781-1849) beste Mogelen lobak, eta Markinako azpieuskalkian idatzi zuen han bizi izan zen Pedro Jose Patrizio Astarloa Iturrik (1751-1821).

Irakurleentzat idazkietan eta entzuleentzat sermoietan finkatu zuten bizkaiera literarioaren oinarria, bakoitzak bere xehetasun eta bereiztasunekin. Eta Louis Lucien Bonapartek ere Markinakoa hartu zuen bizkaieraren eredutzat, Jose Antonio Uriarte frantziskotarrarekin (1812-1869), arrigorriagarrarekin, han izan zituelako harremanak, Markinan bizi izan baitzen 1837tik 1859ra, exklaustrazioaren ondorioz.

Horietatik baten lan osoak aurkezten ditugu gaur Diputazioaren jauregi honetan, Prai Bartolome de Santa Teresarenak, hain zuzen. Idazle honen bizitzaz eta lanetaz ez noa ezer esaten, nik baino hobeto arituko baitira Julen Urkiza eta Luis Baraiazarra karmeldarrak. Baina xehetasun bat nahi nuke azaldu: liburuak argitaratzeko mezenasen falta salatzen zuen Prai Bartolomek, eta hara non, inon bada, eskertuko lukeen Bizkaiko Diputazioaren babesa, ez liburu bat bakarrik, lan osoak baizik argitaratzeko laguntza eman duelako. Berak ezin badu ere, bere izenean paratzaileei eta bebesleei eskerrak ematen dizkiet Euskaltzaindiaren izenean, BBKk ere dirulaguntza eman du argitalpen honetarako eta.

Izatez, Bizkaiko Diputazioak babestu zuen 1986an Euskaltzaindiaren Euskararen Lekukoak izena daukan bilduman 12. zenbakia daraman Prai Bartolomeren *Euskal Errijetaco olgueta ta dantzeen neurrizko gatzozpinduba,* Luis Maria Mujikak prestatua, zeinen lehen edizioa Iruñean egin zen 1816an. Frantzisko Antonio de Palacios frantziskotarrak, Balmasedatik bidali zioten itaun bati erantzunez argitaratu zuen *Respuesta satisfactoria del Colegio de Misioneros Franciscanos de Zarauz,* Iruñean argitaratua 1791n. Liburu hau dela uste dut Prai Bartolomeren iturria, eta Palaciosena Luis Antonio Belluga Moncada kardinalak (1662-1743) Murcian 1722an argitaratu zuen *Contra los trajes y adornos profanos...* liburu mardula.

Baina aipatu dudan bilduman bizkaiera literarioaren belaunaldiko beste bi liburu babestu zituen Bizkaiko Diputazioak: aita Luis Villasantek paratu zuen Juan Antonio Mogelen *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina cristiania* eta Juan Mateo Zabalaren *Sermoiak I,* bigarrena laster agertuko delarik. Gogoan daukat Bizkaiko Diputazioak aita Luis Villasante euskaltzainburua Bizkaiko *seme kutuna* izendatu zuenean, eskatu ziola bizkaitarron Instituzio honi Zabalaren sermoiak argitaratzeko dirulaguntza eta eskaria onartua izanik, kaleratu da aipatu lehen tomoa eta bigarrena era argitaratzeko bidean jarria dago.

Bizkaiera literarioaren beste eredu bat dugu, hots, Pedro Antonio Añibarrok bizkaierara itzuli zuen Axularren *Geroko gero.* Hau ere argitaratuko du Euskaltzaindiak Diputazioaren eta BBK-ren bubesarekin. Beraz, Euskararen Lekukoen bilduman bizkaierazko idazle hauen liburuak irakurtzeko aukeran daude: Mogel, Zabala, Añibarro eta Prai Bartolome, lehenagoko argitalpenaz gain, honen *idazlan guztiak* agertzen baitira gaur aurkezten den liburu mardulean.

Euskaltzaindiaren izenean mila esker *Karmel* aldizkariko paratzaileei, babeslei eta etorri zareten guztioi. Besterik ez.

FRAI BARTOLOME SANTA TERESA: *LAN GUZTIAK*

Bilbo, 2000-VII-4

Julen Urkitza - Luis Baraiazarra,
edizio kritikoa burutu dutenak

Nortasuna eta garrantzia

Frai Bartolome Santa Teresa (1766-1835), Markinako merindadekoa dugu; Etxebarriko udalerrikoa zen baserri batean jaioa; haurtzaroan Xemeingoa zen beste baserri bateanbizi izan zen, baina Markinako lurretan, hau da, Iturreta auzoan.

Dohain handiz jantzia izan zen. Euskal idazle klasiko bihurturik dugun gizon honek bere nortasun aparta alde sozio-erlijiosoan eta kulturalean agertu zuen batez ere.

Euskal idazle klasiko hau zailtasunez beteriko egoera sozio-politiko eta erlijiosoan bizi izan zen. Halako egoerari zegokionez, izaera adoretsua eta buru argia erakutsi zituen beti ere. Markinako karmeldarren komentuaz jabetu zen berriro, Frantsestean, fraideak lau urtez (1809-1813) komentuetatik egotzirik egon ondoren. Geroago, 1822an, konstituzioaren izenean "liberalak" eskubide politiko eta erlijiosoak murrizten dituztenean, Frai Bartolomek Isla-ko (Sestao) karrneldarren komentua salbatuko du, karlisten altxamentua eragotziz eta konstituzioaren aldeko bere merituak Bilboko agintearen aurrean agertuz...

Idazle izatea, predikari izatearen ondorio izango da harengan. Predikari bikaina zen. Ezin agortuzko iturri ugaria agertzen du bere hitzaldietan, baina era berean ugarian galtzen ez dena dugu. Izan ere, argitasuna eta indarra dira haren dohain nagusietarikoak. Bere dohain horiek euskaldunen artean ohitura onak irakasten eta apostolulanean erabili zituen. Hauxe adierazten du Kalahorrako apezpikuak haren liburuetako "icasiquizunac" kristauei elizan irakurtzeko agindua apaizei eman izanak.

Frai Bartolomek lau liburu argitaratu zituen euskaraz eta beste bi zituen gutxienez argitaratzeko prest, zorigaitzez galduak direnak. Argitalpen honetan, lau liburu horiez gain, lehenengoz argitaratzen dugu eskuizkribu bat, 1816an argitaratu zuenaren *(Jaungoicuaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac)* aurreko idazketa eta bertsio guztiz desberdina dena.

Frai Bartolomek estilo bere-berea du. Bizkaieraren hizkuntz egiturak, ziur aski J.A. Mogelen zuzendaritzapean nagusituz zihoazenak, leialki betetzen ditu, baina betiere bere-bereak zituen estiloa eta idazkera agerian utziz.

Argitalpen honen berritasun eta ekarpenak

a) *Sarrera orokorrari dagozkionak*

Liburuak duen alde onetariko bat sarrera orokorra da, zabala eta ongi landua. Haren bizitzaz orain arte ezagutzen zenetik hemen ageri zaigunera alde handia dago, eta hau ikerketa zorrotz baten emaitza izan da.

Lehen aldiz agertzen da haren bizitza bere osotasunean, argibide berri ugariz jantzia. Horregatik, haren bizitzaz orain gauza asko dakizkigu, bai haren bizitza erlijiosoaz eta bai bizitza sozial eta kulturalaz.

Bestalde, edizio kritiko baterako ezinbestekoa zena agertzen dugu: haren hizkuntzaren eta estiloaren azterketa zehatza: grafia, fonetika, morfologia, sintaxia, lexikoa, estiloa etab. Azterketa hau oinarrizkoa gertatzen da, XIX. mendeko Bizkaiko klasikoen errealitatea ezagutzeko.

Horrez gain, hark idatzitako eta eskuizkribu ugaritan gordetzen den guztiaren berri zehatza ematen da; baita berak argitaratutakoaren berri ere.

b) *Haren idazlanei dagozkionak*

Haren bizitza eta hizkuntzaren inguruan ikerketa sakona oinarritzat duela egindako argitalpen honek berritasun eta ekarpen ugari ditu:

– Lehenengo eta behin edizio osoa da, orain arte inoiz egin ez dena. Hau da, Frai Bartolomeren garaian argitaratutako idazkiez gain (*Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba...*, kuñea, 1816, 209 or.; *Jaungoicuaren amar aguindu-*

Ezkerretik eskubira: Luis Baraiazarra, euskaltzain urgazlea; J. A. Arana Martija, euskaltzain osoa; Ana Madariaga, Bizkaiko Foru Diputazioko Kulturako diputatua; Gorka Martinez, BBK Fundazioburua eta Julen Urkitza *Karmel* aldizkariko zuzendaria.

beetaco lelengo bosteen icasiquizunac... Iruñea, 1816, X - 278 -32 or.; *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azqueneco bosteen icasiquizunac...* Iruñea, 1817, IV - 301 or.; *Eleisaco zazpi sacramentuben icasiquizunac...* Iruñea, 1918, VI - 376 or.; Juan Jose Moguel, *Plauto bascongado o El bascuence de Plauto en su comedia Poenulo...,*

1828, 125 or; *Anti-Plauto políglota o Defensa de Plauto bascongado y de la impugnación del Manual de la lengua basca de Mr. Lécluse,* 1829, 29 or.) eta orain dela urte gutxi argitaratutako *Apuntaciones...* (J. Urkiza, *Karmeldarrak Markinan,* 1691-1991. *Historia eta agiriak.* Larrea - Zornotza, 1992, 752-768) izenekoaz gain, lehen aldiz argitaratzen ditugu ondorengo hauek:

1. Eskuizkribu handi hau: *Jaungoicuaren legueco lelengo bost Aguinduben ogueta bost Lecinoe, ta sermoe bat Aita prai Bartolome S^ta Teresa Marquinaco Carmen oinustuco predicadoriac etaraac. Mandamentuben I. Partia. 1807. urtian.* [10] + 296 + [6 + 14] orrialde. 1816an argitaratu zenaren lehenagoko bertsio ezberdin bat dugu.

2. Sermoi bat, izenburu honekin: *Sermon de la Na^d de N. S^a. (Maria Birginiaren jaijotzia),* orain dela gutxi Fidel Altunak aurkitua; *Karmel* gure aldizkarian argitaratzera gonbidatu genuen, baina ordurako hitz emanda zegoen *Anuario del Seminario Julio de Urquijon* argitaratzeko.

3. Hainbat gutun eta oroitidazki, Frai Bartolomek, Ordena barruan izan zituen kargu eta zereginengatik batez ere, gaztelaniaz idatziak.

Hala ere jakinaraztea komeni da, gordetzen diren haren eskuizkribu guztiak ez ditugula argitaratzen, halako idazki asko ez baitira haren gauza pertsonalak; esaterako, Etxebarriko udaleko aktak, bera nobizioen maisu zenean idatzitako Ordenako abituhartze eta profesetako aktak, kontu-liburu, mezetako liburu eta abarretako hainbat eta hainbat orrialde.

Eskuizkribu hauen guztien berri ematen da Sarrera orokorrean.

– *Euscal-errijetaco olgueeta...* liburuaren argitalpen guztiak ahalik zehatzen aztertu dira, gurearekin dituzten ezberdintasunez oharrak idatziz.

– Gainera, edizio kritikoa da; orain arte halakorik ez da egin izan, haren argitaratzaileen iritziz, *Euscal-errijetaco olgueeta...* obrarena baino.

– Testu leiala eta ulergarria ematen da.

FRAI BARTOLOME SANTA TERESA: *OBRAS COMPLETAS*

Bilbao, 2000-VII-4

Edición crítica:
Julen Urkitza - Luis Baraiazarra

Personalidad e imnortancia

Frai Bartolomé de Santa Teresa (1766-1835), natural de la merindad de Markina, nace en un caserío perteneciente a Etxebarria y vive de niño en otro caserío de Xemein, ambos caseríos ubicados dentro del territorio de Marquina, esto es, en el barrio de Iturreta.

Este hombre convertido en escritor clásico vasco, de grandes cualidades, presenta su personalidad más interesante desde dos aspectos, el social-religioso y el cultural.

Frai Bartolomé mostró su personalidad en una época socio-política y religiosa llena de dificultades. Salvó el convento carmelitano de Markina en la época de Napoleón después de una exclaustración de cuatro años (1809-1813), en los que el convento fue utilizado como cuartel. Más tarde, en 1622, cuando en nombre de la constitución los "liberales" limitan libertades políticas y religiosas, Frai Bartolomé salvará el convento carmelitano de la Isla en Sestao mostrando al Jefe político de Bilbao sus méritos constitucionales frente a intentos de insurrección carlista...

En el origen de la actividad de este escritor clásico vasco tenemos que considerar al predicador, pero un predicador de excelentes cualidades: el ritmo y la plasticidad de sus discursos o pláticas dominicales, sus ideas claras y su interpelación personal al oyente en favor de una moralidad sana y humanizante hacían de él un predicador codiciado. Los libros publicados por él, que el obispo de Calahorra mandó que se leyesen en los púlpitos, son un buen testimonio de ello.

Frai Bartolomé publicó cuatro libros en euskara, y tenía al menos otros dos preparados que luego se han perdido. En este tomo, además de los cuatro libros, publicamos un manuscrito inédito, que es una redacción anterior al publicado en 1816 *(Jaungoicuaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac),* y había sido escrito diez años antes)... Esta edición crítica recoge también los textos castellanos de Frai Bartolomé; entre ellos se hallan documentos y cartas autógrafas suyas que en su mayor parte son inéditos.

La importancia de este carmelita como clásico del euskera vizcaíno es unánimemente reconocida por todos los entendidos en la materia. No queremos dejar de lado una cita de la máxima autoridad en temas de lengua y literatura, que es Luis Mitxele-

na. En su obra Historia de la Literatura Vasca dice textualmente: "Frai Bartolomé fue un magnífico orador, tonante y fulgurante a ratos, expositor transparente siempre. Son suyas algunas de las mejores páginas de la prosa vizcaína; su léxico, no muy purista, es de una extraordinaria riqueza y variedad".

El estilo de Frai Bartolomé es inconfundible, pero, entre otras cualidades, podríamos subrayar las siguientes: claridad, plasticidad, ironía y la fuerza de la argumentación. En cuanto a las estructuras del lenguaje, sigue con mucha fidelidad las normas o tendencias que se van imponiendo, probablemente bajo la dirección de Juan Antonio Moguel, pero dejando aflorar siempre su personalidad y su estilo.

Novedades y aportaciones de esta edición

a) *Respecto a la Introducción general*

El libro llama la atención por la magnitud y calidad de la introducción. De lo que se conocía hasta ahora sobre su vida a lo que muestra aquí hay una diferencia notable, y ello ha sido fruto de una seria investigación. Es la primera vez que se presenta su vida en su totalidad con muchísimos datos nuevos de forma que ahora tenemos un amplio conocimiento de su vida y actividad tanto religiosa, social como cultural.

Por otra parte, hemos presentado lo que era tan necesario para una edición crítica: un estudio exacto de su lenguaje y estilo: su grafía, fonética, morfología, sintaxis, léxico, estilo, etc. Este trabajo viene a resultar básico para conocer la realidad de nuestros clásicos del siglo XIX en Bizkaia.

Además se da información exacta de todo lo escrito por él y conservado en muchos manuscritos. Y también todo lo publicado sobre él.

b) *Respecto a sus escritos*

Esta edición, realizada en base a un estudio amplio de su persona o vida y su lenguaje, presenta numerosas novedades y aportaciones:

– En primer lugar se trata de una edición completa, que nunca se había llevado a cabo. Esto es, además de los escritos publicados en tiempo de Frai Bartolomé (*Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba...*, Iruñea, 1816, 209. or.; *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac...* Iruñea, 1816, X - 278 -32. or.; *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco azqueneco bosteen icasiquizunac...* Iruñea, 1817, IV - 301. or.; *Eleisaco zazpi sacramentuben icasiquizunac...* Iruñea, 1918, VI - 376. or.; Juan Jose Moguel, *Plauto bascongado, El bascuence de Plauto en su comedia Poenulo...*, 1828, 125. or; *Anti-Plauto políglota o Defensa de Plauto bascongado y de la impugnación del Manual de la lengua basca de Mr. Lécluse,* 1829, 29. or.) y el escrito publicado hace pocos años de *Apuntaciones...* (J. Urkiza, *Karmeldarrak Markinan,* 1691-1991. *Historia eta agiriak.* Larrea - Zornotza, 1992, 752-768), hemos publicado por primera vez:

1. Un gran manuscrito: *Jaungoicuaren legueco lelengo bost Aguinduben ogueta bost Lecinoe, ta sermoe bat Aita prai Bartolome S^n^ Teresa Marquinaco Carmen oinustuco predicadoriac etaraac. Mandamentuben I. Partia. I807. urtian.* [10] + 296 +

[6 + 14] orrialde. Se trata de una redacción distinta y anterior a la que se publicó en 1816.

2. Un sermón, con el título *Sermón de la Na^d de N S^a. (Maria Birginiaren jaijotzia).*

3. Diversas cartas y memoriales en castellano que escribió frai Bartolomé, en gran parte debido a su cargo y ocupaciones en la Orden.

Sin embargo conviene advertir que no publicamos *todo* lo que se conserva manuscrito suyo, pues no nos ha parecido necesario, por tratarse de algo menos personal, como son las actas del ayuntamiento de Etxebarri, las actas de tomas de hábito y profesiones de la Orden en calidad de maestro de novicios, muchas páginas en libros de cuentas, de misas, etc. De todos estos manuscritos se da noticia en la Introducción general.

– Se han revisado todas las ediciones hechas del libro *Euscal-errijetaco olgueeta...*, hemos anotado sus diferencias con la nuestra.

– Además se trata de una edición crítica, que como tal, según sus editores, sólo se había publicado el escrito de *Euscal-errijetaco olgueeta.*

– Se da un texto fiel e inteligible.

HIL BERRIAK

TERENCE H. WILBUR-EN OROITZAPENEZ

(1924-2000)

Ondo gogoratzen naiz. 1980an izan zen, "Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak" Leioako Euskal Herriko Unibertsitateko campusean egin zirenean. Egunetako baten txango bat egin zen Gernikara, eta bertako zuhaitza bisitatzen ari ginela, ustekabean neure gurasoekin egin nuen topo, Lekeition uda ematen ari zirelarik zerbait egitera etorriak baitziren Gernikara. Orduan urrunetik aitari zein zen Terence Wilbur seinalatu nion, Los Angeles-ko Kaliforniako Unibertsitatean aurreko urteko urritik hain zuzen ere, irakasle neukana. Eta aitak haren patxada, begiratzeko era baketsua eta itxura orokorra –sendo, ile urdin eta kilotan apur bat sartua– esan zidan, "Franklin-ek esan ei zuen moduan, behin urte batzuk igaro eta gero jendaki bakoitza da bere itxuraren erantzule bakarra, eta zure irakasle hori hor ikusita lasai geratzen naiz, irakasle on baten eskuetan zaudelako." Eta aita ez zen bat ere okertu, Terry –hala erizten genion beti– gizon ona zelako, laguntza ematen zekiena eta irakasle gisa bezala, hala lagun moduan beti hor zegoena. Izan ere, UCLA-n eman nituen lehenengo urteotan bera izan zen nire makulu nagusia eta geroagokoetan lagun ezin ordezkatzekoa, eta beti ere irakasle eta tesi-zuzendari zorrotza.

1924ko apirilaren 8an jaio zen Los Angeles-en. Unibertsitateko graduazio-titulua, mundu anglo-saxoniarrean 'batxilergoa' deritzona eta gure diplomatuen mailakoa dena, 1947an erdietsi zuen Berkeley-ko Kaliforniako Unibertsitatean, eta unibertsitate berean urte biren buruan magistergoa. Doktore izatera, Berkeley-n beti ere, 1954an heldu-ko zen. 1952-tik 1953ra Massachusetts-eko Unibertsitatean egin zuen lan lektore moduan, eta 1953ko uztailaren batean UCLA-ko Germaniar Hizkuntzen Sailan sartu zelarik, 1991-ko uztailaren lean erretiratu zen arte bertan izan zen irakasle. Halandaze, 39 urtez lan egin zuen irakasle gisa, horietako 38 UCLAn. Hil, ostera, jaistaldi oso gogor bat pairatu eta gero 2000. urteko martxoaren 7an hil zen, 76 urte bete baino hilabete lehenago.

Interes eta kultura unibertsaleko gizona, hiru izan ziren beraren ikerketaren alor nagusiak: aleman hizkuntza, indoeuropar linguistika eta euskara. Nik dakidala ingelesez gain, alemanez eta frantsesez ondo moldatzen zen eta horretaz gain, gaztelania, euskara, Irlandako gaelikoa eta galesa ulertu eta irakurtzeko gai ere bazen. Bizitzaren azkenean, Andy bere bizi osoko laguna hil baino lehenago eta depresio betean sartu baino lehenago, Bernat Etxepareren liburuaren ingelesezko itzulpen eta argitaraldi batekin aritu zen luze, azkenean ordea, oso aurreratuta eduki arren, ez zuen bururatu ahal izan. Eta hor ederto ikus dezakegu Terry-ren beste alderdi bat, ingelesa zeukan jaiotzezko

hiztuna erabiltzeko maisutasuna, Hona hemen prosa miresgarri horren erakusgarri niri behin, 1986ko irailaren 28an bidali zidan eskutitzaren ondoko pasartea:

"Andy and I just returned from Ireland. For various reasons, a couple of which I'll explain later in this letter, I had to go back. It is still **insula ultissima, corde meo carissima** for me. I also spent some of my happiest days there. It must be explained to you, a Basque who will understand, being Irish is not a mat--ter of genetics, it is a religion unto itself. There is a line from Marianna Moore, when as a girl she tells her grandmother about a nice boy she has met: "He may be perfect, but he is not Irish." As for me, the minute I smell the air of that land, I feel better. Although Ireland and Scotland had a miserable summer with nine weeks of continuous rain and terrible floods, when we were there the sky was bright and sunny and the temperature was never above 12C, for a heat-ridden Angeleno, heaven. We came back to the coolest September I have ever seen in L.A. Last Thursday it rained all day, winter rain. It was downright cold. July and August were unusually cool. We expect the blast of heat in October now.

I spent one school year in a terrible depression. I was in a funk and uninterested. Things had lost their flavor. I was bored stiff with everything. The subject material I had devoted my professional life to went dead on me. I sought the help of a psychiatrist. He helped me drag myself painfully through what I simply had to do. Perhaps I should have taken leave. Then I remembered what you had told me: "Why don't you write a novel?" I took you up on it. That seemed to snap me out of the funk I was in. And I began to work. I was puzzled at first as to how I should proceed. Then the right idea came. Write a letter to Andolin and tell him what happened. Then the narrative flowed. I put the story in the form of a novel although it is primarily autobiographical. When I was very, very young, 19-21, I had a novel and extraordinaty experience. I didn't realize this until I was much older. At the time seemed quite natural..."



* * *

Eta honelako hamaika ekar nitzake hona, hain ziren plazerrez gozatzekoak Terry-k lantzean behin, ni neu Euskal Herrira etorri eta gero, bidaltzen ohi zizkidan gutunak. Eskuzabaltasun horren ondorioz ez dira guti berak hezitako hizkuntzalari garrantzitsuak, hala nola Theo Vennemann, Mervin Barnes, Helmut Esau, Angela della Volpe eta Heidi Waltz. Eta liburuak baino ez aipatzearren, ondoko tituluak aipa daitezke beraren bibliografian:

— *Schuhardt, the Neogrammarians and the Transformational Theory of Phonological Change.* 1972. Amsterdam: John Benjamins.

— Theo Venneman-ekin batera. 1977. *The Lautgesetz-Controversy, a Documentation 1855-86.*

— *Prolegomena to a Grammar of Basque.* 1979. Amsterdam: John Benjamins.

Bizitzako azken urteotako sufrimendu eta pairuak gaindituta, eta denboren erremateraino Andy bere betiko lagunarekin egonen den esperantzarekin, ez zait geratzen eskerrak adieraztea baizik: betiko zoriontasuna aurkitu dukezulakoan, agur eta ohore zuri Terry, gizon ona.

Andolin Eguzkitza

Bibliografia

1. Review of Carrol Reed and Lester Seifert, *A Linguistic Atlas of Pennsylvania German* in *German Quarterly* 29: 54-55 (1956).
2. Review of *Language, Thought, and Reality: Selected Writings of Benjamin Lee Whorf* in *Modern Language Forum* 2: 77-82 (1957).
3. "The Word *Rune,*" *Scandinavian Studies* 29: 12-18. (1958).
4. "*Troll,* an Etymological Note," *Scandinavian Studies* 30: 137-140. (1958).
5. "The Interpretation of Völuspá 22:4: *vitti hon ganda,*" *Scandinavian Studies* 31: 129-136. (1959).
6. "The Phonemes of the Basque of Bakersfield, California," *Anthropological Linguistics.* November 1961, pp. 1-12. (1961).
7. "Time and Zeit," *Germanic Review* 37: 135-141. (1962).
8. "The Germanic Interrogatives of the *how* Type," *Word:* 328-334. (1963).
9. "Ergative and pseudo-Ergative in Basque," *Fontes Linguae Vasconum* 4: 57-66. (1970).
10. "The Ergative Case and the So-Called Ergative-Type Languages," *Proceedings of the Sixth Annual Meeting of the Linguistic Circle of Chicago* 6: 416-424. (1970).

11. Theo Vennemann and Terence H. Wilbur. *Schuchardt, the Neogrammarians, and the Transformational Theory of Phonological Change,* Frankfurt/M.: Athenäum Verlag. (1972). 204 orr.

12. Review of Geneviève N'Diaye, *Structure du dialecte basque de Maya, Language* 48: 963-969. (1972).

13. Review of Herbert Penzl, *Lautsystem und Lautwandel in althochdeutschen Dialekten* in *Lingua* 32: 261-266.

14. Review of Gisela Schneider, *Zum Begriff des Lautgesetzes seit den Jung-grammatikern in Historiographia Linguistica* 2: 110-124. (1975).

15. "Transitive, Intransitive, Ergative: A Terminological Autopsy," *Salzburger Beiträge zur Linguistik* 3: 119-126. (1975).

16. *The Lautgesetz-Controversy: A Documentation* (1885-1886) *Amsterdam Classics in Linguistics* vol. 9. Amsterdam: John Benjamins. (1977).

17. "Causative Sentences in Basque," *The THIRD LACUS Forum* 3: 537-544. (1976).

18. "The Grammar of the Basque Proverb," *The FOURTH LACUS Forum* 4: 638-641. (1977).

19. "The Comparative Construction in Basque," *Essays in honor of Jon Bilbao* pp. 177-180. (1977).

20. "The Ergative, Absolutive, and Dative in Basque," *Fontes Linguae Vasconum* 13: 5-18. (1979).

21. *Prolegomena to a Grammar of Basque.* Amsterdam: John Benjamins (1979), 188 orr.

22. "The earliest stages of the successful resistance to Indo-Europeanization of the Western Pyrennees," *The Journal of Indo-European Studies* 8 (1980). 3-17.

23. "Etxahun and the Basque Popular Tradition," *Basque Artistic Expression* (Journal of the Society for Basque Studies in America.) 1 (1980). 1.31-36.

24. "Basque syntax," *Iker-1* (1981). (Proceedings of the First International Bascologists' Meeting, 1980) pp. 169-186.

25. Review of Luis Michelena's *Fonética Histórica Vasca,* 2nd edition, 1976, in *Language* 56.474.

26. "Hegelian Thought and the Development of Linguistic Theory in the Mid-19th Century," *Matériaux pour une histoire des theories Linguistiques.* Université de Lille III. *Travaux et recheroes.* 1984. 426-436 orr.

27. "Grounding in Basque Sentence and Discourse Structure," Proceedings of the XIIIth International Congress of Linguists, August 29 - September 4, 1982. Tokyo 1983, 1050-1054 orr.

PETER ETXEBERRIAREN BIOGRAFIA LABURTUA

(1918-2000)

Aita: Juan Crisostomo Etxeberria, Lekeition jaio, 1893ko abenduaren 27an. Zakarias Etxeberria eta Elena Goikoetxea Etxeberriaren semea.

Ama: Maria Sarasketa Etxeberria, Bizkaian jaioa, 1895eko abenduaren 31an. Felipe Sarasketa eta Maria Aranzabal Sarasketaren alaba.

Ama, Estatu Batuetara Apatamonasteriotik etorri zen, aita, aldiz, Lekeitiotik.

Peter Ignacio Etxeberria, 82 urterekin zendu zen Washoe Villagen, Renon, 2000.eko uztailaren 5ean. 1918ko ekainaren 29an jaio zen Shostonen, Idahon, gurasoak Maria Sarasketa eta Jon Etxeberria zituelarik. Peter-en ama, jaiotzez Apatamonasteriokoa zen eta aita, berriz, lekeitiarra. Aitaren aldetik, aiton-amonak Zakarias Etxeberria eta Elena Goikoetxea Etxeberria ziren, biak lekeitiarrak. Amaren aldetik, aldiz, Felipe Sarasketa eta Maria Aranzabal Sarasketa ziren, biok bizkaitarrak.

Familia Ely-ra (Nevada), bizitzera joan zen, Peter-ek zazpi urte zituenean. White Pine County-ko Institutuan graduatu zen 1936an. 1939an Renora etorri zen, Nevadako Unibertsitatera eta 1943an graduazioa lortu. Ondoren arma dan sartu zen, Georgian, Fort Bennin-eko ofizial hautagaien eskolan graduatuz. II. mundu gerran, Pazifiko aldean borrokatu zuen, Kwaijalean, Leyte eta Okinawako guduetan gerran. Ondorioz, Brontzezko Izarrarekin eta Purpura Bihotzarekin saritua izan zen.

Armada utzi ondoren, Peter-ek Stanford-eko Zuzenbide Fakultatean ikasi zuen, eta 1949an lizentziatu zen, LLB agiri batekin. Urte berean Nevada Estatuko Epaitegian onartua izan zen eta abokatu gisa aritu zen Renon, 1983ko uztailaren lerarte epaiketetako abokatu bezala espezializatuz. Sasoi horretan, Zuzenbidearen praktika aktibotik erretiratu ostean, joko arazo, lur-ondare eta arazo legaletan espezializatuko zen orientabide enpresa bat sortu zuen.

1951-53ko Nevada Estatuko legegintzaldian Estatuko Prokuradore Jeneralaren laguntzaile nagusi gisa aritu zen. Baita Estatuko senaturako hautatua izan zen ere Washoe County-tik, bertan 1959tik 1963arte egonik. 1963an, Nevadako Estatuko plangintzarako kontseiluko kide izendatu zuten eta hurrengo hiru gobernadoreek kargu horretan berretsi zuten. Kontseilu horretako buru gisa ziharduen, 1973an, Mike O'Callaghan gobernadoreak Nevada Estatuko joko batzorderako izendatu zuenean. 1977ko apiril arte kargu horretan izan zen eta urte bereko azaroan, Las Vegas-eko Caesar's Palace-eko zuzendarien kontseilari izendatu zuten, eta ia 20 urtetan kargu horretan iraun.

Baita Caesar's World Inc., Caesar's New Jersey eta Security Pacific Bank-eko zuzendarien kontseilari izan zen ere urte horietan. Hortaz gain, Nevadako gobernadoreak zaldi basatien batzordeko buru izendatu zuen 1983ko azaroan.

Amerikako epaiketako abokatuen kontseiluko (ABOTA) buru nazionala izan zen, kargu horretarako berrautatua izan zen pertsona bakarra izanik. Amerikako Elkargoko, Nazioarteko legegizonen Akademiako, Nevadako Estatu Epaitegiko, Washoe Countryko legegizon Elkarteko kide eta Nevadako abokatuen Elkarteko sortzaileetarikoa izan zen (NTLA). NTLAk orain asko ez dela, lehen aldiz bizidun bati emandako merezimendu eta lorpenen saria eman zion, Estatu Batuetan izan den legegizon garrantzitsuenetarikoa bezala kontsideratuta zegoen legegizona omendurik.

Peter-ek harro asko bizi izan zuen bere euskaldun jatorria eta bertatik sortu zituen karrera profesional arrakastatsua eta familia zoragarri bat izatera eramango zituen oinarrizko baloreak. Hiru bidaia egin zituen Euskal Herrian zehar, behin amarekin batera, gaztaroan Ameriketara joateko utzi zuen etxea bizitatzera joan zen. Bob Laxalt eta Dick Graves-en laguntzarekin, Sparks, Nevadan 1959an ospatu zen Euskal Jai Nazionala martxan jarri zuen. Haren helburuetako bat, bizitzan hain garrantzitsua izan zuen euskal jatorriarekiko harrotasuna, Ameriketan jaiotako euskal jatorriko haurrei transmititzea zen. Reno Zazpiak-Bat Euskal Elkarteko eta NABOko jarraitzaile sutsua ere izan zen.

Haren lau seme-alabak bizi dira: John eta Cathy emaztea Witton-en (Kalifornian), Mike eta Karen emaztea Sacramenton; Cris alaba eta David Welmerink senarra, Renon, eta Renon bizi dira baita Teresa beste alaba eta Dennis Maloney senarra ere. Baita bizi dira haren 11 biloba eta 2 birloba ere. Bestalde, haren arreba den Marie Ordoki, Ely-n, Nevadan, eta beste iloba ugari ere.

Peter omendu nahian, haren familiak Peter Etxeberria Eskola Diru-laguntzak sortu ditu ABOTA/ 5307 East Mockingbird Lane, Suite 1060, Dallas, Texas 75206; eta Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Instituturako Peter Etxeberria fundazioaren laguntzarekin. Diru laguntzak azken Fundazio honetan egin daitezke eta helbide honetara bidali: 162 postakutxa, Nevada-Renoko Unibertsitatea, Reno, Nevada 89557.

BIOGRAPHICAL RESUME OF PETER ECHEVERRIA

(1918-2000)

Father: Juan Crisostomo Echeverria born 12/27/1893 in Lekeitio.
Son of Zacharias Echeverria and Elena Goicoechea Echeverria.

Mother: Maria Sarasqueta Echeverria born 12/31/1895 in Bizcaya.
Daughter of Felipe Sarasqueta and Maria Aransabal Sarasqueta.

Mother came to U.S. from Apatamonasterio; Father from Lekeitio.

Peter Ignacio Echeverria, 82, died July 5, 2000, at Washoe Village in Reno. He was born June 29,1918, in Shoshone, Idaho, to Marie Sarasqueta and John Echeverria. Peter's mother came to this country from Apatamonasterio and his father from Lekeitio. Peter's paternal grandparents were Zacharias Echeverria and Elena Goicoechea Echeverria, both from Lekeitio. His maternal grandparents were Felipe Sarasqueta and Maria Aransabal Sarasqueta, both from Bizcaya.

The family moved to Ely, Nevada, when Peter was se ven years of age. He graduated from White Pine County High School in 1936. He came to Reno in 1939 to attend the University of Nevada, graduating in 1943. He then entered the Army, graduating from Officers Candidate School at Fort Benning, Georgia. He served in the Pacific Theater in the battles of Kwaijalean, Leyte and Okinawa and was awarded the Bronze Star and the Purple Heart.

After his discharge from the Army, Peter attended Stanford Law School and graduated in 1949 with an LLB. He was admitted to the Nevada State Bar the same year and practiced law in Reno, Nevada, specializing as a trial lawyer until July 1, 1983. At that time, after retiring from the active practice of the law, Peter operated a consulting firm specializing in gaming matters, real estate and legal matters.

He served as Special Assistant Attorney General with the Nevada State Legislature in 1951 and 1953, and was subsequently elected to the State Senate from Washoe County, serving from 1959 through 1963. He was appointed to the State Planning Board in 1963 and was reappointed by three Governors. He was serving as Chairman of the State Planning Board in 1973 when Governor Mike O'Callaghan appointed him Chairman of the Nevada State Gaming Commission. He served in that position until April, 1977. In November, 1977, he was elected to the Board of Directors of Caesars Palace in Las Vegas, Nevada, and served nearly twenty years.

He served on the Boards of Directors of Caesar's World, Inc., Caesar's New Jersey, and Security Pacific Bank. He also served as Chairman of the Nevada Governor's Wild Horse Committee, having be en appointed in November, 1983.

He was a past National President of the American Board of Trial Advocates (ABOTA), being the only man every elected twice to that position. He was a member of the American College of Trial Attorneys, International Academy of Trial Attorneys, the State Bar of Nevada, the Washoe County Bar Association, and was one of the founders of the Nevada Trial Lawyers Association (NTLA). NTLA recently awarded him the first ever Lifetime Achievement Award acknowledging the man who many considered to be one of the finest trial attorneys in America.

Peter's Basque heritage was always a source of tremendous pride for him and the foundation of the values upon which he built both a loving family and a successful career. He made three trips to the Basque Country, once taking his Mother back to see the home which she left at such a young age. Along with Bob Laxalt and Dick Graves, Peter founded the National Basque Festival held in Sparks, Nevada, in 1959. One of his goals for that Festival was to give the American born children of Basque families that pride in their Basque heritage which was so instrumental in Peter's life. He was a strong supporter of the Reno Zazpiak-Bat Basque Club and of NABO.

Surviving are his four children: son John and wife Cathy of Wilton, California; son Mike and wife Karen of Sacramento, California; daughter Cris and husband David Welmerink of Reno; and daughter Teresa and husband Dennis Maloney of Reno. Also surviving are 11 grandchildren and 2 great-grandchildren, as well as his sister Marie Ordoqui of Ely, Nevada, and numerous nieces and nephews.

To honor Peter, the family has established a Peter Echeverria Memorial Scholarship with the ABOTA Foundation, 5307 East Mockingbird Lane, Suite 1060, Dallas, Texas 75206; and the Peter Echeverria Memorial Fund for the UNR Basque Studies Institute. Donations may be made to UNR Foundation/Echeverria Fund and mailed to Advancemen/162, University of Nevada-Reno, Reno, Nevada 89557.

M. Douglas

JACQUES ALLIÈRES

(1929-2000)

Joan den abuztuaren 31-an pausatu da Jacques Allières ohorezko euskaltzaina eta Tolosako Unibertsitateko irakasle emeritoa, ez zituela oraindik bete 71 urte. Tolosan sortua zen 1929-ko azaroaren 9-an eta Tolosan egin ditu estudio guztiak, lehen mailakoak, bigarren mailakoak Tolosako Lycée Fermat delakoan eta gero Unibertsitatean, lizentziatura, CAPES deritzan irakasleen hautatzeko lehiaketa eta 1954 "agrégé de grammaire" titulua bereganatu zuen, erran nahi baita bigarren mailako gradu haundiena frantsesa, latina eta grekeraren irakasteko.

Izendatu zuten Baionako lizeoan, baina denbora guti egon zen beribil istripua ukan baitzuen. Sendatu-eta izendatu zuten Tolosako "Lycée Bellevue" deritzanean. Urte bat bakarrik egon zen lizeo horretan hartu baitzuten Tolosako Unibertsitatean frantses filologiaren irakasle Séguy katedradunaren menpean. Zenbait urtez, Séguy zuela tesiaren zuzendari, inkestak eta ikerketak egin zituen kaskoin herri guztian, aditza zuela aztertzen bereziki. *Le verbe gascon, description dialectale synchronique* aurkeztu zuen Tolosako Unibertsitatean, epaimahaian zirela Séguy, Dubois, Verguin, dialektologian ezagunak ziren katedradun jakintsuak eta haien artean Salamankako Unibertsitateko katedraduna, gure Koldo Mitxelena. Aho batez eman zioten doktore titulua "apto cum laude", laudorio guztiak ongi merezituak. Publikatua da Allières-en tesia egiten duela *Atlas linguistique de Gascogne* delakoan V. liburukia.

Okzitandarra sortzez, kaskoina hain zuzen, kaskoin hizkuntza bazekien eta egin zituen estudioei esker, bertze batzu bereganatu, ikusi dugun bezala frantsesa, latina eta grekera, ahantzi gabe bigarren mailan ikasi zituen ingelesa eta alemana. Okzitandarra izanez nola utz alde batera latinetik datozen bertze hizkuntzak, beharrezkoak baitziren irakaskuntzarako: gaztelania, portugesa, katalana, italiera. Sartuko da ere oraingoan grekeran eta geroxago lotuko zaio errusierari. Okzitandarra eta hizkuntzazalea izanez auzo gisa beraz, Baionako itzulia eginik laburra izanikan ere, bere baitan zeukan jakinminak eraman zuen euskarara, zinez euskaldun bilakatuz direlarik lekuko euskaraz idatzi dizkidan gutunak.

Eta hain zuzen, egun hauetan hartu dut Roger Idiart euskaltzain urgazlearen gutuna, aipatzen duela Allières-ekin ukan dituen harremanak: dokumentu interesgarria jakiteko noiz eta nola Jacques Allières-ek ikasi duen euskara.

«Dena den, Jacques Allières zenaz dudan orroitzapen bat edo bertze nahi nautzun aipatu. 1957-an Tolosan ikasle nintzelarik, usu jiten zen Institut Catholique ikastegira, han ginauden apez euskaldunen ikustera, euskalmintzairan trebatu beharrez. Bertzeak bertze "La parabole de l'enfant prodigue" frantsesetik euskaralat itzul-arazten zaukun eta mañetofonean grabatzen. Bainan guziz gainetik gure sort-herriko mintzairan baizik ez ginuen mintzatu behar, jadanik orduko ari

baitzen ***Atlas linguistique*** *delakoaren preparatzen. Behin baino gehiagotan galdegin ginion zer gatik zaukan euskararen ikasteko "errabia" hori. Aldi bakotx erantzuten zaukun (orduan oraino frantsesez): « Parce que le basque ne ressemble a rien d'autre.» Azkaine Oleta aldean, zuzenbidea nik emanik, laborari-etxe batean egon zen zonbeit aste, bakantza edo oporketa denboran, berak zion bezala «en immersion totale», euskara hobeki ikasteko. Etxahun-Iruri zenak erraiten ohi zuen bezala, Jacques Allières ez zen menturaz «Elizan üsü ebiltzale hetarik», bainan bardin apez euskaldunak maite zituen. Goian bego!»*

Maite zuen euskara eta zeukan beharrezkoa zela hizkuntzalaritza orokorreko, hala pentsatzen baitzuten René Lafon-ek eta André Martinet-ek, iritzi berekoa delarik Sorbonako irakasle eta euskaltzain urgazle den Georges Rebuschi. Hortakotz emaiten zituen euskarazko klaseak Tolosako Unibertsitatean, segituz Aita Lhande-k eta Gavel-ek ireki zuten bidea.

Haren ikerketetan euskarari denbora parte handi bat eman dio Allières-ek eta utziz alde batera bertze guztiak, euskarari buruz eginikako azterketak aipatuko ditut berezi-ki. Kaskoin aditzaren ikertzaile zelakotz euskal aditzean murgildu da Lafon-en ondotik eskema eta taula berri batzu proposatuz, egitura sakonak eskainiz, lekuko direla artikulu batzu:

- "De la formalisation du systeme verbal basque" *Iker 2* liburuan, Lafitte-ri eskainia.
- "Statut et limites du polymorphisme morphologique: le verbe dans la Grammaire cantabrique basque de Pierre d'Urte (1712) 1[e] partie verbes intransitifs auxiliaires", *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae* (1985), bigarren partea "aditz laguntzaileak" emaiten zuela *Anuario del Seminario de Filología vasca Julio de Urquijo* aldizkarian, 1991-ean.



Dialektologo fina zen Allières bere tesian erakutsi duen bezala. Euskalkiak aztertu ditu ere publikatuz Tolosa hiri bibliotekako zoko batean zeuden Sacaze-k eginikako inkestak joan den mendean, 1887-an.

- "Petit Atlas linguistiqué basque-français "Sacaze", "*Via Domitia* agerkarian, VII. eta VIII. liburukietan, 1960 eta 1961-ean.

- "Le "Recueil Sacaze" et les parlers basques-français", *Actes du 1^er^ Congres international de Dialectologie générale de Louvain* (1960), akta horiek agertuak 1964ean.

1966-eko Iruñeko *Problemas de la prehistoria y de la etnología vasca, IV Symposium de Prehistoria peninsular bajo la dirección del Sr D. Juan Malluquer de Motes* delakoan Jacques Allières-ek eskaini zituen euskal Atlasari buruz bere esperentziak emanikako ideia batzu inkesten egiteko.

- "Suggestions pour l'Atlas" txostena agertu zen Biltzarraren aktetan, 1966-an.

Argi eta garbi dago ikusten zuela Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren beharra, hainbatetan eta hainbatetan aipatua eta sekulan ez hasia. Hortakotz Euskaltzaindiak hartu zuelarik Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren egiteko erabakia dei egin zion Jacques Allières-i gidatzaile gisa eta mintzatu zen Deba-ko bilkura batean. Geroztik bai bera eta bai Xavier Ravier okzitandarra eta Le Dû bretoindarra izan dira Euskal Herrian beren aholkuen emaiteko. Derradan argi eta garbi ez balu Euskaltzaindiak Atlasaren egiteko erabakia hartu beldur naiz Atlasarik gabe geldituko zela Euskal Herria.

Geroxago bertze inkesta bat argitaratuko du Jacques Allières-ek "Petit Atlas linguistique Bourciez" Bordeleko Unibertsitateko liburutegian zagoena, inkestak egin zirela 1895 irian Haur prodigoaren parabola itzuliz Kaskoin Herriko eta Euskal Herri iparraldeko dialektoetan. Bi zatitan agertua da inkesta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian 1977-an 27. zenbakian eta 1986-an 47. zenbakian.

Okzitandarrak eta euskaldunak auzoak dira aspaldi honetan eta ez dira beti behar den bezala akomeatu. Daukaten hizkuntz-mugetan, izan dadin Montorin edo Bastidan inkestak egin ditu Jacques Allières-ek. Adibidez:

- 1963-an "Dialectologie sur les confins basco-romans, l'article défini *da* a Montory", *Via Domitia.*

- 1979-an "Les versions basque, gasconne et française d'un même dialogue à Labastide Clairence", *Mélanges à la mémoire de Jean Séguy.*

- 1992-an "Basque et roman sur leur frontière occidentale d'après les recueils Sacaze et Bourciez", *Actes du III^ème^ Congrès de l'Association Internationale d'Etudes occitanes* (Montpellier, 1990).

Baina mugez gainetik bazekien Jacques Allières-ek bazirela lokarri hertsiak kaskoinaren eta euskararen artean kaskoin ikerleek frogatuak. Jakintsuek, Pierre Bec edo Allières-ek, egiten zuten zubia Kaskoin eta Euskaldunen artean, bi hizkuntzen arteko lokarriak azpimarratuz. Frogatua da okzitan hizkuntzan kaskoinerak badaukala leku berezia sortu delakotz euskara erabiltzen zen Akitaniako lurretan. Hori ageri da Allièresen artikuluetan:

- 1987 "Gascón y euskera: afinidades e interrelaciones linguísticas", *Pirineo navarro-aragonés, gascón y euskera.*

- 1993 "Graphie et langue en Béarn et au Pays Basque aux XVI[e] et XVII[e] siècles", *Actes du colloque de Nanterre, "Langues, dialectes et écriture".*

* * *

Mintzaldiak ere eman ditu: Donibane Lohizunen gaia zela: "Basques et Gascons, des cousins?" Ez zuen dudatzen ahaidego bat bazela euskaldun eta kaskoinen artean. Bertze bi eman zituen Baionan, lehena "Le contact entre les langues basque et gasconne", bigarrena "De l'aquitain au basque" erakutsiz Akitanian bazirela jendeak euskara edo euskalki bat —euskaratik hurbil ziren hizkuntzak— zerabilatenak. Hortik euskararen eragina kaskoineran.

Toki berezi bat ematen diet idatzi dituen bi liburuei. Lehena deitzen da *Les Basques,* "Que sais-je" sortan, 128 orrialdekoa sorta hortako liburu guztiek bezala. Ez da bakarrik euskaldunentzat egina, mundu zabaleko jendeentzat bereziki. Liburutxo horrekin denek ikas dezakete zer diren euskaldunak, zer den euskara, zer izan den euskaldunen iragana, zer den oraina, zer izan daitekeen geroa. Bortz agerraldi ukan ditu liburutxoak eta beraz arrakasta haundia, gaztelaniaz itzulia eta japonieraz ere.

Bigarrena deitzen da *Manuel pratique de basque,* Pariseko Picard argitaletxean agertua. Galdegin zidan aitzin solasa azpimarratzen nuela liburuaren balioa. Alabaina erakusten du liburuak Jacques Allières pedagogo eta irakasle ona dela. Hiru zati dauzka.

1) Euskaldunak eta euskara.

2) Hizkuntz egitura, egiazko gramatika laburra.

3) Antologia, hartuz euskalki guztietako idazkiak. Xeheki esplikatuz hitz bakoitzaren egitura esaldiaren barnean. Liburu ederra euskararen ikasteko. Ageri da euskararen zerbitzari bikaina izan dela Tolosako Unibertsitateko irakaslea.

Gehiago dena, Allières izan da euskararen enbaxadorea mundu guztian. *Les Basques* izan balinbada japonieraz itzulia, da Japonian Allières-ek mintzaldiak egin dituelakotz Tokio-ko eta Sapporo-ko Unibertsitatetan, hala nola egin dituen Ipar Ameriketan Quebec-en eta Fresno-n, Hego Ameriketan Rio de Janeiro eta Liman, Sovietar Batasuneko Georgian, Europa guztian parte hartuz kongresuetan, Italian, Espainian, Portugalen, Alemanian, Belgikan, Holandan, Txekoslovakian, Jugoslavian. Bertzalde unibertsitateek gomitaturik irakasle gisa agertu da Helsinki-n hiru aldiz, zenbait hilabete han egonik; Meknes-en, Tübingen-en, Munich-en eta Berlineko Humbolt Unibertsitatean hiru gai aipatzen zituela:

1. L'impact latino-roman sur le basque.

2. L'histoire des hypothèses touchant l'origine du basque.

3. La structure du gascon.

Parte hartu du ere euskararen izenean *Atlas linguarum Europae* delakoan, biltzar guztietara joanez, haren ordez direla orain Xarles Videgain eta Gotzon Aurrekoetxea.

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Bordelekoak deitu dute aldi bat baino gehiagotan tesien epaimahai kide izateko, gehienetan mahaiburu Bordelekoan. Gotzon Aurrekoetxea-k, Jaione Apalategi-k eta Iñaki Camino-k onartu dituzte egin dizkien kritikak, hala nola Bordelen Peillen-ek, Orpustan-ek, Xarles Videgain-ek, Hidalgo-k joan den apirilean, azken aldikotz ikusi eta elekatu nintzela Jacques Allières-ekin.

Jadanik aipatu ditut euskarari buruz idatzi dituen liburuak, baina hainbeste hizkuntza jakinki bertze batzu agertu ditu hala nola:

- *La formation de la langue française,* "Que sais-je" sortan hiru agerraldi ukanik eta itzulpena japonierara.
- *Parlons catalan, langue et culture,* Pariseko "L'Harmattan" argitaletxean.

* * *

Agertzekotan dira, jadanik irarkoletan daudenak:

- *Les langues de l'Europe,* "Que sais-je" sortan.
- *Manuel de linguistique romane,* Pariseko "Champion" argitaletxean.

* * *

Euskaltzaindiarekin bazituen lokarri bereziak. Aspaldian izendatua izan zen euskaltzain urgazle eta kontuan harturik Atlasean izan zela aholkulari bikaina, parte hartu zuela Gernika-Leioako munduko euskalarien biltzarrean ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak 1984-ean, ikusiz zenbat mesede egin zien euskarari eta Euskaltzaindiari. Norbaitek mundu guztian aipatu eta goraipatu baldin badu euskara Jacques Allières izan da.

Zinez euskarak galdu du enbaxadore eta ikerle bat, Euskaltzaindiak jakintsu eta ohorezko kide bat, euskaldunok lagun zintzo bat eta nik aspaldiko adixkidea.

Jean Haritschelhar